

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Academie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskera XXXI (2. aldia)
(1986, 1)

31
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Arbieto, 3 - 48008 Bilbo

Maketazio eta orrazketak: R. B.

Fotokonposaketa: Rali

Elkar, E. Koop. grafikagintza

Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

©Euskaltzaindia

Ribera, 6 - 48005 Bilbo

ISSN. **Euskera** 0210-1564

ISBN. 85479

Dep. Leg.: BI 211-87

AURKIBIDEA

PEÑAFLOIDA KONDEAREN II. MENDEURRENA

<i>Euskaltzainburuaren agurra, PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN II. MENDEURRENEAN.</i>	9
<i>Iñaki Barriola, PEÑAFLORIDAREN ZENBAIT ASMO.</i>	13
<i>Xabier Altzibar, EUSKALDUNEN NAZIO ETA HIZKUNTZA (1770-1830)</i>	17
<i>Jon Juaristi, EL BORRACHO BURLADO: TRANSIZIOKO KOMEDIA BAT.</i>	47
<i>Juan San Martin, GABON SARIAK.</i>	55
<i>Jose Antonio Arana Martija, FRANZISKO XABIER MARIA MUNIBE ETA IDIAKEZ PEÑAFLORIDAKO IX. KONDEAREN GENEALOGIAZ.</i>	61

BESTE ZENBAIT GAI

<i>Txomin Peillen, ALTZÜRÜKÜ URRUTIAKO LEINUAREN ERESIAK XV. MENDEKO.</i>	69
<i>M.^a Isabel Goikoetxea, PIARRES LAFITTE ZENAREN LANAK.</i>	87

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

DECLARACION SOBRE EL ANTEPROYECTO DE LEY DEL EUSKERA EN NAVARRA.	105
EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK: 1985-VII, IX, X, XI eta XII.	107

BATZAR TXOSTENAK

<i>Mikel Zalbide</i> , HIZTEGIGINTZA-BATZORDEA.	127
<i>Luis Baraiazarra</i> , MARKINA-XEMEINGO EUSKARA ARTETZEN. . .	143
<i>Miren Azkarate</i> , EUSKAL KONPOSIZIOAREN INGURUAN.	171
<i>Ignacio Omaechevarria</i> , VASCUENCE Y ROMANCE.	177
<i>J. Garmendia Arruebarrena</i> , EL EUSKERA EN EL ARCHIVO GENERAL DE INDIAS.	191
<i>Federico Krutwig</i> , PROLEGOMENA.	195
<i>Endrike Knörr</i> , BARATZIART, DURANAKO SEMEA.	207

BERRIAK

<i>Fr. L. Villasante</i> , EUSKALTZAINDIAREN EGOITZA BERRIARI BURUZ HITZARMENA SINATU ZENEAN.	217
<i>Fr. L. Villasante</i> , LAVIEUXVILLE-HAROSTEGUY-REN KATIXIMA AURKEZTEAN.	221
<i>Jose Luis Lizundia</i> , GORDAILU BERRIKO PRESTAKIZUN LANEZ. .	229
<i>Rosa M.^a Arza-Xabier-Gereño</i> , ARGITALPEN GORDAILUAREN URTEKO INBENTARIOA.	233
<i>Jose Luis Lizundia</i> , 1986. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA.	239
<i>Alfonso Irigoyen-J. J. Zearreta</i> , NAFARROAKO AZTERKETAK.	245

HILBERRIAK

<i>Koldo Mitxelena</i> , ANTONIO TOVAR OROITZAPENETAN.	249
Euskera XXX. ZUZENKIZUNAK/FE DE ERRATAS.	253

PEÑAFLORIDA KONDEAREN

II. MENDEURRENA

Donostia, 1985-XII-20

PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN II. MENDEURRENEAN

Donostian, 1985-XII-20

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren agurra

X. Aizarna jauna.

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Jaunak.

Euskaltzainkideak.

Jaun Andreak:

Hasteko, ohar bat egin beharrean naiz. Peñaflorida Kontearen bigarren mendeurrenako ospakizunen amaiera, duela egun guti, hemen Donostian egin da. Batek baino gehiagok egingo du galdera: zertara dator ospaketa berri hau? Lo egon al da orain arte Euskaltzaindia? Zergatik ez du egin lehenago bere oroitzapena?

Ez, ez da lo egon. Euskaltzaindiak aspaldidanik zuen asmoa urte honen barnean batzarre ireki bat jaun honen omenez egiteko. Insausti jauregia eskaini ziguten horretarako; baina han etxe-berriztapenak egiteko ziren. Hori dela eta, Urrirako jarri zen ospaketa hori, ustez eta ordurako berriztapenok eginik egongo zirela. Heldu zen Urria, eta obrak bukatu gabe zeuden. Orduan pentsatu zen, gure hileroko batzarrea baliatuz, Azarokoan hemen Donostian ospaketa hori egitea. Baina orduan ere ez zen posible gertatu, egun horretan Herri Adiskideen Elkartekoek beste zerbait Bilbon zutelako. Hara zergatik Abenduko batzar egunean egitea beste biderik ez zaigun gelditu.

Xabier M.^a Munibe jauna hil zeneko bigarren mendeurrena ospatzen ari gara (1785-1985). Mendeurren hori dela eta, urtean zehar ospaketak eta aipamenak egin izan dira han eta hemen jaun argi honen bizia eta obra gogoratuz. Eta ez arrazoi gabe, zeren berak sortu baitzuen Euskalerriaren Adiskideen Erret Elkartea, eta segur aski hau da gure herriak ezagutu duen kultur saileko ekintzarik ospetsuena.

XVIII. mendea maiz-sarri bidegabeki epaitua ikusten dugu; kasik belztua. Haatik, anitz ekintza zoriontsu eta emankor orduan sortzen dira.

Eta horien artean, hain zuzen, Herriaren Adiskideen Erret Elkarteak. Beste kontu bat da hurrengo mendeko nahasmenduengatik obra honek espero zitekeen bezain beste on ekarri ez bazuen.

Zalduntxo haiek Euskalerrria jakin-bidean eta kultur-bidean sar arazi nahi zuten. Eta horretan ez zeuden, ez, oker. Luzarora begiratzuz, euskarak berak ere, salbatu nahi baldin bazuen beste biderik, ez zuen izango, hots, landu eta kultur tresna bihurtu beste biderik ez zuen izango. Horretan begi ernea izan zutela, aitortu behar.

XIX eta XX. mendeko nahasmenduek ez dute gehiegi lagundu; baina, hala ere, pixkaka, estrepozuka, eror eta jaiki, eta atzera-aurrera askorekin, zerbait egingo da hizkuntza hau barnetik indartzeko. Eta zuzen eta bidezko da hazia erein zutenei gure ezagutza egitea.

* * *

Munibe jauna kultur sail honetan zerbait egin nahiz zebiltzanen Mezenas edo laguntzaile ere izan zen, gainera. Aspaldi *Boletín de Amigos del País*-en agertu nuen albiste batetik (1) ageri da nola lagundu zien bedere Aita Ubillos-i, Juan Antonio Mogel-i eta Vicenta Mogel-i. Arantzazura ere uste dut maiz joaten zela hango kantari taldea pizkortzera (2).

Herri Adiskideen Elkarte honek, beste asmoen artean, euskara lan-tzearena ere izan zuen, eta hala ditugu, agerbidetzat, *Gavon Sariac*, *Borracho Burlado* eta Azpitarteren hiztegia.

Euskaltzaindiak, berari dagokionez, Peñafloredaren 2. mendeurrena ospatzean, euskal alderdi hau nahi du batez ere kontutan hartu eta aztertu.

Eta ba ote dago esan beharrik? Euskalerrriaren Adiskideen Erret Elkarteak eta Euskaltzaindiak har-emanik onenak izan dituzte beti elkarrekin. Gogora dezagun, diodanaren agergarritzat, bi erakundeok elkar harturik Azkoitiko Insausti jauregian 1974. urtean egindako batzarrea (3). 1983an, berriz, Pierre Lafitte eta Jean Haritschelhar euskaltzainak Euskalerrriaren Adiskideen Erret Elkarteak ohorezko bazkide izendatu zituen Insausti jauregi horretan berean (4). Eta zilegi izan bekit ene izena ere

(1) Ikus "Juan Antonio de Moguel, estudiante en el Colegio de Jesuitas de Calatayud", BAP (1962), 325-327.

(2) Ikus JON BAGUES in *II Musikaldia* (Diciembre 85), Donostia. *Centenarios de Bach, Händel, Scarlatti y Conde de Peñafloreda*. ID. *Catálogo del antiguo archivo musical del Santuario de Arantzazu*, Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1979; p. 18.

(3) Ikus "Euskaltzaindiak eta herri-Adiskideek elkarrekin egindako batzarrean euskaltzainburuaren agurra", *Euskera* (1975), 273-277.

(4) "P. Lafitte eta J. Haritschelhar Euskal Herriko Adiskideen Erret Elkartean ohorezko bazkide izendatuak", *Euskera* (1984), 413-415.

hemen esatea: *Eliza* liburuaren aurkeztapena dela eta, nik ere izendapen berbera hartu bainuen hemen Donostian joan den urtean Iñaki Barriola jaunaren eskutik. Eskerrak ematea dagokit, eta halaxe egiten dut, pozik gainera, une honetan, Elkarteko honen sortzailearen oroitzapena gogoratzen dugun une honetan.

* * *

Gaurko ospaketa hau, bere xumean, maitasunik eta ardurarik handienaz prestatu duela Euskaltzaindiak esan nahi dut. Gure asmoa —ez dakit atrebentzia edo burujopea esan—, ekarpen berri batzuk, ttipiak edo handiak, Peñaflorida jaunaren bizitze eta obrari buruz eskaintzea izan da. Ez dakit asmo hori zer neurritan burutu ahal izango dugun. Entzuleak esango du.

Ene ondoren mintzatuko da Iñaki Barriola jauna, Herri Adiskideen Elkarteko Lehendakari-ordea Gipuzkoan eta denbora berean euskaltzain urgazle dena. Azken hitzak, berriz, Gipuzkoan Herri Adiskideen lehendakari den Joan Inazio Uria jaunak egingo ditu. Eta bitartean, Alzibar, Juaristi, San Martín eta Arana-Martija jaunaren azterketa-lan edo txostenak irakurriko dira; berotetan Peñaflorida jaunaren bizitze eta obrak zer-ikusi duten alderdi desberdin eta askotarikoak ukitzen direlarik.

Izango ahal da dena hark ereindako haziak orain ere indarberriturik fruitu eman dezan! Halabiz.

PEÑAFLORIDAREN ZENBAIT ASMO

Donostia, 1985-XII-20

Iñaki Barriola

Euskalerriaren Adiskideen Artezkari nintzela eta Euskaltzaindiko Buru den Aita Villasanteri Elkartek hartan sarrera agurra egiteko poztasuna izan nuenean, gure sortzaile izan zan Xabier Maria de Muniberen omezez Euskaltzaindiak hileroko bileraren bat berari eskeintzea zer atsegin litzaigukeen ager arazi nion.

Villasanteren asmoetan halako zerbait egitea zegolarik, baiezkoa eman zigun berehala. Horra nola gaur, asmo hura betetzekotan alkarrekin gauden.

Zergatik, ordea Euskaltzaindiak Muniberi oroipen hau eskeini? Bere garaiko euskal idazle ezagunen artean ez egon arren, euskeraren alde egin zitueneri esker. Askok ala gutxi, ez nuke esango, baina denbora haietako, bere mailako jauntxoek egin zutenaren ondoan nahiko behintzat, gaur entzungo duzuenek.

Askok esan duteke eta, urte honetan zehar, esan da Peñaflorida Konteaz. Ez gutxiago asmoez baina denak edo gehienak aipatu beharra luzeegi bait litzateke, hiru-lau bat ikutuko ditut; ez garrantzitsuenak, oraingo egokiak derizkietenak baizik.

Gipuzkoaren alde lehendabizi, Euskalerriaren alde gero, mugitu ziotenak argi eta garbi ageri dira bere Adiskideaz sortu zuen Elkartearen Araudian: euskaldunen zientzi, elerti eta arti ederraren aldeko grina eta atsegintasuna lantzea, ohiturak zuzendu, zabarkeria, jakineza eta bere ondorio galgarriak erbestetu eta hiru probintzien elkartasuna sendotzea.

Ildo horretatik zijoan bere pentsamentua, baina asmo hauek lortzeak, garai hartako ohitura eta egitarauen aldakuntza eskatzen zuen eta gure Kontea ahal neurrian hartara jarri zan. Irakaskuntzan batez ere.

Gaur harrigarria dirudi Zintziaren lanketa eskatzea, ez ordea garai hartan, orduko ikaskizunen egoera ezagutzen dutenek dakiten bezela. Eskolastizismoa eta irakaspide klasikoen menpe Espainiako Unibertsitatea agertzen zaigu Europa aldetik gogo, kezka, ikasketa berriak sartuz, berarekin aldakuntzak nabari zirenean.

Beneditar Feijóok zioen bezela, ondo ohartzeak, aurrean ageri zena zuzen epaitzea, norbere ezaguera zuzenaz jotzea zela jakintasunaren aurrera bidea eta ez, orduan ohi zenez, irakaslearen eritzia, klasikoen esaeretan oinarritua, gehiago gabe, begi itxiz, ontzat ematea, egia ukaezina balitz bezela. Ikaskai eta ikaskera berriak ezartzen zijoazen eta bide honetan Peñaforida aurreratzaile izan zen.

Ordurarte zaldun eta nobleen semeak, estudioak aukeratzerakoan, hiru hauetatik bat hartzen zuten: legeak, eliz arau edo kanonak eta gudaritza, besteak ez bait zituzten dinakotzat, burgesentzako egokiagoak zirelarikan. Ohitura zahar hau baztertzeko ezarri zituen Xabier M.^a de Munibek Bergaran, ikaskizun bereziak deituz, zientzia praktikoak, fisika, kimika, adibidez.

Bainan ohartuak izan baziren hasieran, lehenengo urteetan, utzi egin zituzten ikasleak gerora betikoetara joaz. Berak eta beren gurasoen ustean etorkizun errazago eta hobeak eskaintzen zituztelako.

Horrela bada, Bergarako irakasle ziran Proust, Elhuar eta abar, batek urre zuria edo platino garbirik lortuz, besteak wolfram aurkituz hango ikaskizunari izen haundia eman bazioten ere, bere ikermina ikasleari txertatzen asmatu ez zuten eta handik joan zirenean zientzia ikasketak lurreratu ziren, Peñafloidaren asmo nagusienetako bat ondatu.

Bere beste xede bat zabarkeria, ezerez egitearen aurka lan egitea ageri zaigu. Salatze hau ez zijoan, noski, herri xumeari zuzendua, nahiko langilea bait zen, baizik bera bezelakoari, lana lotsagarria zela uste edo esaten zuteneri batikbat.

Ezer ez egite hori Espainiako haundikien artean ohizkoena bait zen. Garai hartako aurreratzaileek asko idatzi zuten gaitz honen aurka. Hara Forondak, lanean jartzea izen onaren kalteko zutela esanez, eskolan, eginkizun ordainduen eta salerosketatik alde gelditu nahi zuteneri zer esaten zien: “asko dira ohorea pergamino zahar batzuetan edo erdi eroriak dauden lau etxetan finkatuz, ofizio ohorezkotan jarriak daudenak mespretxatzen dituztenak. Ohore haundiagokoa ote Estatuarentzat alperrikako diren morroiak, gurdizain, zaldizain edo ilemotzaile eta abar, edo sendi askori jana ematen dieten ola edo lantokiak?

Gogapen oker hau, dirudienez, Euskalerriko jauntxoetan ere ongi sustraitua zegoen. Hala agertzen zaigu aita Larramendik *Corografian* dioenean: “langintza edo ofizioak ez dira zatarrak berez, inor zikitzen ez dute, ez eta ohorea galdu arazten”. Eta geroago, “beste langintzak ez badira odol ohorearen aurkakoak, gutxiago oraindik nekazaritza edo salerostea”.

Gai honetan Munibe, ez hitzegitez bakarrik, baizik eta eginez ere eredu agertzen zaigu, txikitandik ikusi bait zuen bere aita —Compañía

Guipuzcoana de Caracas-en sortzailea— zeregin hauetan barrenearaino sartua. Bere adiskideak hainbat, itxuraz behintzat. Handik gutxira, nahi eta nahiezkoan, haundiki gehienak ere, premia bide, buru lanetara, gutxienez, jarri beharrean zeuden.

Peñafloridaren asmoetatik hirugarren bat, nekez aipatua, ikutu nahi nuke gaur, zuen artean nagoenez gero: euskera zaletasuna. Ongi dakit nere hurren dihoazenak gai hau ikutzeak direla, halaz ere besteen alorretan sartu gabe, nere gogapenen bat agertu nahi dizuet. Honetaz, inork gutxi idatzi arren, Muniberentzat euskera, ez txikitandiko hizkuntza soilik, baizik maite zuen hizkuntza zela ziur dago neretzat. Ezin esan sendi-hizkuntza zuen ala ez, baina etxetik at erabili zuena edo, nahiago baduzue, erabiliko zuena kezkarik gabe; herriko biztanleekin zituen harremanetan, alkate izate aurretik eta gerora, txistulariari zortziko eta kontrapasak, bereak, erakusten agertzen zaigunean eta batikbat Parrokiko koruan, bere edo besteen euskerazko abestiak abesten edo artezten egin behar zituen saioetan.

Euskera aldeko grina nabarmenagoa oraindik lau jarduera hauetan: 1764'ko batzarrean euskal olerkiaz mintzatu eta, nik dakitela, arkitu gabe dagoen euskerazko Egloga bat irakurri zuenean, *Borracho Burlado* osoa gure hizkuntzan, nahi zuen eran, egin ez bazuen, abestaldiak bai ordea, “zu-ka”, “beorri-ka” eta herrikoagoa den “ik-a” gipuzkoar hiru eratara eta txit ederki idatzia: idazlanean ere eta honen parean *Gavon Sariak* jartzekoak dira. Hirugarren, Bergarako ikasleen Araudian “hizkuntza nazionalak, hau da gaztelania eta euskera erakutsiko direla” ezarri zuenean (1). Azkenik, Aizpitarte hiztegia egitera bultzatu zuenean, edo honen eskutiz batean irakurri ditekeen bezela, agindu zionean (“haver obedecido al precepto de V.S.”).

Berarekin zebiltzan Adiskideak alperkeriaz joak ez zirala jakin arren, akats hori nazionala (“vicio nacional”) agertzen zenez geroz, aurka altxa zuen abotsa hitzaldi batean, entzun nahi zuenak entzuteko eta ondorioak ateratzeko. Zerbait berdintsu egin zuen, neretzat, euskerarekin.

Euskaldunak bazituen Adiskideak, jauntxo taldekoak ez ziren oso euskalzaleak izango eta Muniberen hizkuntza goraiapatze hau gogoz, bihotzez egitez alde, ez ote hotz, edo epel behintzat, ikusten zituenei zuzendutako eztenkadak, zirikadak?

Litekena da ni oker egotea, halaz ere beste arloetan bere joerari begiratuz, nere iritzia ez da hain zentzu gabea.

Ondore hau zuei agertzea zan nere gaurko helburua. Ezagunak ez diren edo azter gabe dauden paper zaharrek izan dezakete gai honetan azkeneko hitza.

(1) Eta ordurarte euskeraz argitaratutako guztiaren biltzea eskatzean.

EUSKALDUNEN NAZIO ETA HIZKUNTZA (1770-1830)

Donostia, 1985-XII-20

Xabier Altzibar Aretxabaleta

Peñafloridaren heriotzaren 200.urtemuga dela eta, Kondearen garai loretsu hura gure hizkuntza eta herriarekin zerikusia duten kezka nagusietatik urrunegi gelditzen delako ustea ustela izan daiteke, European nazionalismoa haren denboran sortu eta zahartzaroan agertu zela kontutan badugu.

Bi alderdi nahi nituzke begiztatu idazlan honetan. Batetik, europar nazionalismoaren erro kulturek, hots, neoklasizismo, prerromantizismo eta erromantizismoaren ideiek Euskalerrian ere beren ikutua izan zutelakoan nago (1), hain zuzen ere ordura arteko egoera bortizki aldatu eta bi estatuen barruan bermoldatu beharrean aurkitu zenean. Bestetik, etnia eta sorterrizaletasunean, bereziki erasoei erantzuteko sasoian, hizkuntzaren esku hartzea egiaztatzen da. Horretarako, euskal literaturaren historietan agertu ohi diren egileen, eta zenbait atzerritarrek horiengan izandako eraginaren lekukotasunak jasotzen saiatu naiz. Denboraren hariari jarraituz, mugak, nazionalismoaren sorreran, 1770. urte inguruan, eta 1830.ean edo, hegoaldean, lehen karlistada aurretik ezarriko ditut.

Absolutismo burokratikoaren pean hizkuntzaren kontrako erasoek (eskola publikoetan irakasteko debekua, liburuak argitaratzeko eragozpenak, zenbait kultur-gizon arrotzek zabalduko ospe txarra) eta foruak edozein momentutan galtzeko beldurrak defentsarako prestatu zituen gure intelektual bakan batzuek. Hauen artean LARRAMENDI-K estrategia oso bat eskaini zigun. Berak “euskal nazioa” deitzen duena osatzeko hizkuntzak duen *garrantzia* (berak asmatutako hitza erabiliaz) azpimarka-

(1) Roman BASURTO LARRAÑAGA irakasle eta adiskideari zor diot gai honetan sartu izana. Ikus haren “Elementos neoclásicos y prerrománticos en la historiografía vasca de principios del s. XIX: J. A. de Zamácola”. R.I.E.V. 1986. Homenaje a D. Julio Caro Baroja. Lan honetan, europar nazionalismoa azaltzeko Smith-ek darabilen metodoa aplikatu du. A. D. SMITH “*Neo-classicist and Romantic Elements in the Emergence of Nationalist Conceptions*”, in *Nationalist Movements*, edited by A. D. Smith. The Macmillan Press L.T.D. London 1976.

tuz, euskara hizkuntza landu bilakatzeko tresnak prestatu zituen: gramatika —honek batasun premina eta aukera bat adierazten duela— eta hiztegia ez ezik idatzizko euskara eredu bat ere bai, garai hartako eta hurrengoko zenbait testu lekuko. Kontu honetan erakusten duten zabarkeria eta guttiespenagatik etxe barrukoak ere astintzen ditu. Gainera, gure hizkuntza eta herria plazara atera zituen, liburuak argitara emanez eta haren idatzi ideologiko edo politikoak sekuestratuak izan arren (batzu oraintsu arte ezezagunak, *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*, adibidez), hala ere, European zabaldu zen haren eta gure ospea, Moglek, etimologia kontuan jesuita barreurlatiak maiz grazia-rik egiten ez zion arren, autortu bezala (2).

Larramendiren lanak Adiskideen Batzarrean (Sociedad Bascongada de los Amigos del País) izan zuen jarraipena. Erasoak ez zirenez falta (P. Florez, PP. Mohedano...), Apologiaren premia zegoen, nonbait (Egino). Adiskideen Batzarrea, hezkuntza arloan, gure historia, lege zahar, hizkuntza... ezagutu eta lantzen aritu zen, Borbondarrek ezarritako mugen barruan. Hizkuntzari dagokionez, Larramendiren lana osatzea du helburu, Azpitarte, Egino eta zalduntxo talde bat —Peñaflorida eta Narrosen semeak tarteko zirela— nabarmenduz (3).

Atzerriar eragileen artean (4) Guillermo BOWLES nahi dut aipatu. Bere *Introducción a la Historia Natural y a la Geografía Física de España*, (1775) obrak, XV, XVI, XVII. kapituluetan Bizkaia, Bilbao eta bizkaitarrez —esan nahi bait du hegoaldeko euskaldunetz— ari da (5).

Espainiaren deskribapen fisikoan aitzindari izateko asmoa zuen naturzientzilaria hau Euskalerraren berezitasun geografikoaz ere ohartzen da. Bowles-ek foru eta ekonomi antolamenduari ederresten zion eta deskribapenetan zertzelada eta datu ugari eskaintzeaz aparte, haren ikusmoldea interesgarria da. Berbarako, izakeraz (“genius and character”) nortasun handikotzat jotzen ditu bizkaitarrak. Eta garai hartan ekonomia aldetik ongundean bizi arren, luxuak ondatutako herrialdeetakoak ez bezalakoak, bakun, sendo, alegera, berdintasun, askatasun eta sorterri zaleak. Era berean neoklasikoek eredu zuten Homero-ren Grezia gogoratzen dio

(2) J. A. MOGEL *Apología de la Lengua Bascuence*, Euskal Erria. “Confieso que aquel Savio ingenioso trabajó qual ninguno en sacar a publico nuestro idioma, que él le ha hecho conocer hasta en Italia, Berlín y Londres; que él sólo era capaz para formar un arte y diccionario, obras originales”.

(3) X. ALTZIBAR “Euskara Adiskideen Batzarrean”. *Symbolae L. Mitxelena Oblatae*. Vitoria, 1985, t. II, 1119-1135. or.

(4) Atzerriar bidaiariez ikus BASURTO LARRAÑAGA, R. “Viajeros, hidalgos y burgueses. Vizcaya y Guipúzcoa en la segunda mitad del siglo XVIII”. *Symbolae L. Mitxelena Oblatae*. Vitoria, 1985, 1231-1248 or.

(5) G. BOWLES *travels through Spain with a new to illustrate the natural history and physical Geography of that Kingdom, in a series of letters*. London, G. Robinson. 1780. Badira hemen, gaztelarazko 1775.ekoarekin konparatuta, desberdintasun batzu.

Euskalerriak, jendemodu, paraje, probetxu handiz landutako lur, antolamentu eta abarregatik ("Recorriendo aquellos países, me parecía haberme trasladado al siglo y a las costumbres que describe Homero", 298-9 orr.). Bestalde Bowles irlandarra zen eta bizkaitarren eta bere sorterrikoen ohitura, usadio, izakera, erlijio etab. antzekoak iruditurik, etorki bereko egin nahi ditu.

Euskarari buruz hauxe dio: "La lengua que comúnmente se habla en el Señorío, en Guipúzcoa y en mucha parte de Alava, es el Bascuence, que sin duda es original y antigua como la población de aquel país. Al oído suena mui dulce, y los que la entienden, aseguran que es mui expresiva" (1780.eko edizioan: "very soft and harmonious, as well as energetic").

Ez da harrigarri, beraz, kanpoko jakintsuak euskararen ospe ona zabaltzen —eta etxeko asko txarto esaten— ikusita, J. A. Mogel moduko batek honako hau esatea: "Los Bascongados estan mui satisfechos de la defensa que han hecho de su lengua los Abates Masdeu, Herbas, y el célebre inglés Bowles". (*Apología de la Lengua Bascuence*, parte 1.^a).

J. G. HERDER (1744-1803) herrien kultur forma guztien alde (erlijioa barne) atera zen eta hizkuntzan oinarritzen den nazionalismoari ats eman zion. Bera ez zen, ordea, nazionalista estu: eslabiar herriei buruzko jakintza suspertu zuen, adibidez. Herder-en iritziz, hizkuntza ezagupen tresna, kulturaren sortzaile eta bilduma, herri baten 'Genius' delakoaren erakusle hoberena da (6). XIX. mendeko hizkuntzen eta herri-poesien ernatze eta ikerketa zordun da harekiko.

Ideen zur Philosophie der Geschichte der Menschheit obra nagusian, 1784.ean (7), gorengo mailako kulturen aitzinekoak edo azpiak ezagutu nahian, arrasto bila dabilela, euskaldunez ari da. Herder-ek Moret, Oiherart eta, batez ere, Larramendi ezagutu eta jarraitzen du, honen moduko beste baten jaiotza opa izanez euskaldunei:

(6) HERDER *Abhandlung über den Ursprung der Sprache* 1772. (*Ensayo sobre el origen del lenguaje*).

Nazio eta giza-banakoaren hizkuntza eta pentsakeraren arteko zerikusiaz: HERDER "Jede Nation spricht (...), nach dem sie denkt, und denkt, nach dem sie spricht". A. Flitner-ek aipatua in W. v. HUMBOLDT HS. V. 485. or. TETENS, "Wer eine kultivierte Sprache erlernt, erlernt auch zugleich ein fremdes Gedankensystem" *Über den Ursprung der Sprachen und der Schrift* 1772, 50 orr.

(7) H. W. G. Hempel, IV Theil, 9-12 vol. I. lib., hitzaurre baten ondoren. J. CARO BAROJA *Algunos mitos españoles* 95. orr. "Al hablar el filósofo alemán Herder de los vascos, con verdadera simpatía, en sus *Ideen zur...* se lamenta de que la poesía de este pueblo, que él suponía que debía de ser tan interesante o más que la escocesa dada a luz por Macpherson, que estaba maravillando al mundo, no estuviera recogida, y dice..." Hala ere ez dakar testua osorik.

“Zu wünschen wäre es, daß wir die Sprache, die Sitten und die Geschichte dieses raschen und frohen Volks mehr kennten, und daß, wie Mac Pherson unter den Galen, ein zweiter Larramendi, unter ihnen etwa auch nach Resten ihres alten baskischen Nationalgeistes forschte” (8).

HERVAS-ek (1784-1809) 1784.ean italieraz eta 1803.ean gazteleraz (*Catálogo de las lenguas*, vol. V) argitara emandako liburukietan Europa-ko hizkuntzen artean ageri da euskara. Hizkuntzen arauz sailkatzen bait dira nazioak, Hervas-ek hizkuntza amaki eta dialektuak mugatu nahi eta, Larramendi duela maisu, euskara Babeldik datorren hizkuntza amakitzat jotzen du, esan nahi bait du aintzinakoa, senidegabea edo zurtza (9).

(8) Hona hemen Herder-en textua, osorik euskaratuta (nahiz eta orraztaldi bat behar lukeen):

Aintzina, espainiar peninsulan bizi izan ziren tribu ugari guztietatik, garai zaharrenetatik, euskaldunak dira gelditzen diren bakarrak, Pirineo mendien inguruan egoitza izanik, beren hizkuntza zaharra, munduko hizkuntza zaharrenetako bat, gorde dutenak. Badirudi hizkuntza hau aintzina Espainiako parte zabalenera hedatu zela, gaur ere, aldakuntza guztiak gorabehera, herrialde horretako hiri eta ibai izen askok erakusten dutenez. Gure *Silber* hitzak, burdinarekin batera Europan eta mundu guztian iraultza gehienak martxan jarri dituen metalarenak ere, haiena izan behar du. Tradizioaren arauera Espainia izan zen bere meatokiak hustiratu zituen Europako lehen lurraldea, zeren eta eskualde horretako nazio merkataritza goiztiarrenetatik, feniziar eta kartagotarrak, hurran eta eskuar bait zegoen; haientzat lehen Peru izan zen. Herri berak, euskaldun eta kantabiar izenez oso ezagunak direnak, historia zaharrean herri bizkor, arin, kementsu eta askatasunzale agertu dira. Hanibal lagundu zuten Italiara eta erromatar poetengan izen beldurgarria dute. Espainiar zeltekin batera, uztarria ezartzen erromatarrei zailen gertatu zitzaizaienak izan ziren. Beraz, Augustok, lehen aldiz eta, agian, baita itxura denez ere, garaitu zituela; zerbitzatu nahi izan ez zutelako mendietara joan zirela. Bandaloeak, Alanoek, Sueboek, Gotoek eta beste herri teutoniarrek beren iragate basatia Pirineoetatik egin zutenean, eta haietako zenbaitek hauen auzoan erreinuak eraiki zituztenean ere herri kementsu eta geldiezina zen, Erromatarren pean bere adorea galdu ez zuena, eta Karlomagno espainiar sarrazenoak setiatzetik itzultzerakoan, haien lurraldetik iragan zenean ere, eraso maltzur baten bidez, hain hondamen ospetsua —zeinean Roland hil bait zen— jasan erazi zieten Orreagan. Gerorako Espainian eta Akitanian Frankoei, Suebo eta Gotoei bezala, zeregin handiak eman zizkieten. Sarrazenoen eskuetatik lurrak berriz bildu aldian ere ez ziren atsedenean egon, ez, eta milagarren urte inguruan elizgizonen aldetik beren izakera basatiaren zapalketa gogorrena jasan zuten garaian ere bere horretan gorde zuten, Gau luzearen ondoren Europarentzat egunsentia iritsi zenean, auzoko provenzarren poesia alaiatz urratu zen, haien bizileku izandako eta, gerorako ere, Frantzia hainbat izpiritu argitsu eta alai emandako lurraldeetan. Desiagarria litzateke guk herri bizkor eta alai honen hizkuntza, ohiturak eta historia hobeki ezagutzea eta, Galotarrengan Mac Phersonek bezala, haien baitan beste bigarren Larramendi batek euskal izpiritu nazional zaharren azterrenak ere, agian, hartzea. Roland-en erasoaldi ospetsu haren legenda, Turpin Arzapezpiku alegietakoaren bidez Ertaroko hainbat roman eta poema epikori bidea eman ziona, agian haien baitan ere gorde da, eta hala ez bada, gutxienez haien lurraldea Troiako atea izan zen, hantxe bertan gertatu bide ziren abenturez Europako herrien fantasia luzaz asetu zuena.

(9) LARRAMENDI, Diccion. Trilingüe, XII “No tiene el Bascuence origen, descendencia, afinidad ni semejanza con otra alguna lengua en todo ni en parte, en quanto a su alma, o la harmonia de sus reglas, y construcción.”

Hervas-en obrak bihotz eman zien Mogel eta Astarloari, Adelung, Vater eta Humboldt ere baliatu zirelarik, euskaldunei mesede eginez. Gainera, euskararen ikaste zientifikoa eta Akademia espainiar nazioaren ardura omen da:

“La nazione spagnuola più di nessun'altra crediamo costretta allo studio scientifico del Bascuence, ed all'erezione di un'Accademia Bascuence...” (9 bis).

Ezaguna denez, errakuntzak (euskal hitzak latinean, Italiako toki-izenetan...) nabariak diren arren, aportazio garrantzizko batzu ere egin zituen: sustratoaren teoria (10), zelta hizkuntza inderoparra delakoa, euskara eta zeltaren bereizketa (aspaldiko auzi bat erabakiaz)...

1785.ean DOM SANADON-ek (apezkiku konstituzionala 1791.ean) Paben argitara eman zuen, izen gabe, *Essai sur la noblesse des Basques, pour servir d'Introduction à l'Histoire générale de ces Peuples. Rédigé sur les Mémoires d'un Militaire Basque, par un ami de la Nation*. J. P. Vignancour Imprimeur du Roi et du Parlement. In 8-254 or. Hurren urtean, DIEGO de LAZCANO “frantsestatu”aren gaztelerazko itzulpena atera zen De la Lama-renean, Tolosan, 268 or. in-8 (11).

Frantziako Fiskuaren administratzaileek Behenafarroaren eskubide naturalak, feudaltzat joaz, zapaltzean egiten zuten bidegabekeria histori eta zuzenbidezko arrazoi bidez frogatu eta euskaldunen historiaren sarre-ra izan nahi du, saio baino areago, apologia edo idazlan ideologiko-politiko honek. Esan gabe doa egileak, erasoen ondorioei igarririk, Euskal Herri osoa duela gogoan. Nola gipuzkoar eta lapurtarren, hala hegoalde eta iparraldeko euskaldunen berdintasuna ahazten, odol eta askaziaren mintzoari entzungor eta etorkiari (hegoaldea omen ama sorterrria) uko egiten eta frantses amorratu agertzen direnen jokaera gaitzesten du.

Ez nauzue historia aldetik duen balioa aipatzeko asmotan, noski, baina protesta ezinbestekoa da: “Si ès conforme à la razón el que los hombres vivan unidos en sociedad (...) no lo es menos que ningun

(9 bis) Idea dell'Universo, vol. XVI. *Catalogo delle lingue conosciute*. Cesena. 206. orr.; “un Accademia nazionale dell'Idioma Bascuence, necessaria ancora per illustrare la storia di parecchie nazioni e principalmente quella de' Romani”. *Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas y enumeración, división, y clases de estas según la diversidad de sus idiomas y dialectos*. Madrid 1800-1805, 6 vols.

(10) E. COSERIU “Hervás und das Substrat,” 1978, *Studii si cercetari lingvistice*, 29 523-530. A TOVAR *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Alianza Editorial 1980.

(11) Lazcano beraren hitzez: “Traducción defectuosa (...) en muchos lugares me aparto de él (...) se justifica tratándose de cosas que no perjudican al intento de la obra (...) no podía menos de tomarme la licencia que me he tomado hasta por motivos políticos”. Komenigarri litzateke Sanadon-enarekin gonparatzea.

estrangero debe sojuzgar, y privar de su independencia, à las Sociedades que ya están formadas ò que se van formando.”

Aipatzen dituen iturriak Isaac de Bela (ustez *Mémoires* horien idazlea), Marca, Strabon, Plinio, Garibay, Echave, Oihenart, Mariana, Zurita, Larramendi, Foruak etab. dira, eta euskal nazioaren ezberdintasun edo berezitasuna eta jatorrizko askatasuna defendatzerakoan erabiltzen dituen argudioak honako hauek: 1) Aintzinasuna, froga euskara dela (12). 2) Nazioaren jatorrizko elementuak (hizkuntza, batez ere, baina baita lege erakunde, ohitura, usadio, odol, izakera, bizimodu, ‘genio’ delakoa, estiloa...) eta hauen batasuna garbi gorde izana (13). 3) Orobatsu libertatea, hau delarik aurrekoen iraunkortasunaren arrazoi. Libertate hori defendatzeko euskaldunek Errepublika edo Konfederazio bat osatu omen zuten (14). 4) Lurralde betidanik okupatu izana.

Argudio hauek euskal nazioaren ezberdintasuna edo berezitasuna eta jatorrizko askatasuna azpimarkatu nahi dute. Ondorioz, lehenik, foru eta ‘franquicia’ horiek ez dira, Sanadon-en eritziz, bestek emanikoak, euskaldunek betidanik usatu eta erabili dituzten legeak edo zergagabetasuna baizik. Eta, bigarrenik, euskaldun den oro (eta behenafartarra goinafartarra bezala) noble da jatorriz, hots, feudalismo aurretik, eta beraz, lege feudal horietatik aske.

Iraganaren ikuspegia, noski, garaiko arazoen aurreko politikak moldatzen du. *Essai sur la noblesse des Basques* frantses estatuaren erabateko uniformetasunari oldartzen zaio (15). Bestalde liburu hau, zenbait aldetatik, Zamakola eta D’Iharzeren aitzindari dateke.

(12) “2.º Que cette langue antérieure à tous les établissements faits en Espagne par les Nations étrangères, ne s’étant conservée que chez les Basques, ces Peuples sont en droit de se regarder comme les plus anciens habitants qu’ait eu l’Espagne; d’autant que les caractères qui constituoient cette Nation primitive, la liberté, les moeurs et la langue, ne se retrouvent plus que chez eux “...” *Essai* 25. or.

“Le caractère de la langue basque fournit encore une nouvelle preuve de l’antiquité de la nation qui la parle. A l’imitation de la langue hébraïque, presque tous les noms appellatifs, y ont une signification réelle...” *Essai* 22. orr. “Abondante en termes propres à énoncer les objets qui étoient anciennement d’un usage général; elle en manque pour exprimer plusieurs objets, dont l’usage est plus récent.” 23. orr.

(13) “Le moyen le plus sûr qu’aient les Peuples pour connoître et justifier leur descendance, est de considérer la langue, les moeurs et les coutumes de leurs ancêtres [Hume, Hist. d’Angl.], et d’en faire ensuite la comparaison avec celles des Nations voisines et avec les leurs propres, pour juger de la ressemblance ou de la différence. C’est ce que nous allons essayer de faire pour les Basques” *Essai*, 41. orr.

(14) “Baxo de este nombre [Cantabros] se comprendían muchos pueblos vecinos, unidos por la identidad de origen, lengua, usos y costumbres (...) y que viendo los progresos, que los estrangeros hacían en España, se formaron en cuerpo de República o de confederación [de siete pueblos], para defender su independencia y su libertad”. *Essai*, 34. or.

(15) “Différens de tous les Peuples qui les environnent du côté de la France par leur langue, leurs moeurs, leur lois et leur police; je dirai même par un goût décidé pour la

Iraultzak, baina, euskaldunen libertateak galdu zituen eta sortutako protestak euskara mintzatzen zuen popularean nortasun edo iraun nahia-
ren euskarri eta beste herriekiko berezitasuraren ezaugarri zela aditzera
ematen digu (15 bis). Bestelakoa dirudi hizkuntzari dagokionez, iraultza-
buruzagien jokabideak. Adibidez, Abbé Gregoire-k argien zabalkundera-
ko eragozpen zeritzon, hainbat hizkuntza eta hainbat herrik merkatalgoa-
ren harat-honata, gizarte-harremanak eta frantses hizkuntza trabatzen
zutelako.

HUMBOLDT (16) (1767-1835), klasikoen ikaskuntzan eskolatua eta
kultur giro aberatsean umotua genuen: ilustratu eta prerromantikoen
eztabaidak, Goethe eta Schiller adiskideen literatura, aleman nazionalis-
moaren sustrai filosofiko eta kulturalak, hizkuntzalaritza konparatibo eta
historikoa ernamuietan... (17).

Hona baino lehen hizkuntza landuak zituen aztergai, besteak beste
(18), baina, ikuspegi zabaleko zenez, Europako hizkuntzen artean euska-
raren berezitasunak erakarrita, gogotik atxiki zitzaion hogeitaz urtez (19).

liberté, et une certaine inquiétude, que le seul nom de dépendence suffit pour révolter (...) paroissent encore aujourd'hui plutôt une colonie étrangère, transplantée au milieu de nos Provinces qu'un Peuple de Français civilisés, habitués à vivre sous les lois et l'autorité d'un Monarque..." 55. orr.

(15 bis) Cfr., adib. LARRONDE "Protesta de los vascos con ocasión de la creación del Departamento de los Bajos Pirineos (1789-1790)" Muga, nº 14.

(16) W. v. HUMBOLDT: *Gesammelte Schriften* (G.S.), A. Leitzmann. Idem *Werke in Fünf Bänden* Hrsg. Andreas Flitner eta Klaus Giel (H. S.) 1960-1981. (Iruzkín, ohar eta Bibliografia interesgarri hornitua da V. tomoa). J. GARATE, G. de Humboldt. *Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*. Eusko Ikaskuntza, 1925: *Guillermo de Humboldt y el P. Vasco (Diario del Viaje Vasco. 1801. Los Vascos. Bocetos de un viaje)*.

Humboldt-en biziaz eta lanaz ikuspegi orokor batetarako, A. FARINELLI *Guillaume de Humboldt et l'Espagne*, Paris, 1898, eta Torino, 1924. Euskararen arloan hark ekarriaz, L. MITXELENA "Guillaume de Humboldt et la langue Basque," oraintsu berriz argitaratua. *Lengua e Historia*. Paraninfo. Madrid, 1985.

(17) Prerromantiko (Herder, Jacobi...) eta ilustratuen eraginaz ari garela, iraultza erdi berria zuen Parisera, 22 urteko zela, Campe ilustratuarekin badoa, Espainiarako lehen bidaian Rousseau-ren *Emilio* darama sakelean (GARATE. *Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*, 29, orr.). Humboldt izpiritu libre, praktiko -ilustratu gisa- eta munduko herritar, Herder eta bezala, dugu.

(18) Beste langai batzu literatur-kritika eta hizkuntza eta pentsakeraren arteko harremanak ziren (G. BOSSONG "Wilhelm von Humboldt y Hugo Schuchardt: dos eminentes vascólogos alemanes"). Baita nazio-izakera eta hizkuntz desberdintasunaren artekoak ere (HS, V, A. Flitner, 459. orr.). Goetheri eginiko gutunean (1800-12-16) adierazten denez, tratatu bat idatzi nahi du horretaz, aurrelana 1801.eko *Fragmenen der Monographie über die Vasken* eskuizkribua, 1907.ean argitaratua, delarik.

(19) G. BOSSONG aipatu art. "El estudio del vascuence constituye, tanto para Humboldt como para Schuchardt, un impulso inicial (...). Después del vascuence, Humboldt va a estudiar las lenguas indígenas de América (...). Sin embargo, el campo donde el impulso inicial del vascuence se pone más de manifiesto lo constituyen las lenguas del Cáucaso (...) para descubrir, por vez primera, la notable semejanza tipológica entre los sistemas verbales caucásico y el vasco".

Euskalerria bizitik eta tokian bertan, beste herri eta kulturak bezala, ezagutu nahi eta hala egin zuen, euskaldunei buruzko begirari zorrotzena izateraino iritsiz. Politikagizon edo diplomatiko bezala ilustratu kontserbadore, aurrerazale baina ez iraultzaren aldeko genuen (20), eta hemen izan zituen informatzaile politikoen, bereziki Josef de Murga-ren, eragina kontutan izatekoa da, agian. Nolanahi ere, Humboldt-ek ez zuen *Los Vascos* edo *Diario del viaje vasco. 1801* -gaztelerazko itzulpenen tituluak aipatuko ditut- (21) argitaratu eta Errepublika garai arte, hemen behintzat, ezin izan zen ezagutu.

Izan ere, Humboldt-ek bere bizian argitaratuak —gabeetatik (22) bereziz— hauek ditugu: *Anuncio de una publicación sobre la lengua y nación vascas con noticia del punto de vista y contenido de la misma*, 1812.ean (23), eta, batez ere, ADELUNG eta VATER-ek euskal edo kantabriar hizkuntzaz *Mithridates oder allgemeine Sprachkunde* obran (24) esandakoei zuzenketa eta gehigarri den *Correcciones y Adiciones al Mithridates de Adelung* (25), alemanez, 1816.ean, eta hurren urteko *Primitivos pobla-*

(20) 1802-1821 bitartean aritu zen. Vienako Kongresuko partaide. 1819.ean Prusiako Irakaskintza-ministru. Berlingo Unibersitatearen eraikitzaile.

(21) Ezaguna denez, bi egin zituen Euskalerrira, lehena Espainiarakoan, iragaitzez, eta bigarrena berariaz, 3 hilabetez Ipar eta Hegotik zehar ibiliaz. Udaberria zen, 34 urte zituen eta bere bizitzako unerik zoriontsuenetako batean izan genuen gure artean.

— *Die Vasken oder Bemerkungen auf einer Reise durch Biscaya und französische Baskenland im Frühling des Jahres 1801 nebst Untersuchungen über die Vaskische Sprache und Nation, und einer Kurzen Darstellung ihrer Grammatik und ihres Wörrervorraths.*

— *Tagebuch der baskischen Reise 1801.*

Bidaia argitaratu nahiean ibili zen, ordea (Goethe-ri gut. 1806-4-12). Jose Maria de Murga-k (1770-1834), idazlan politikoez gain, *Vidas de célebres varones griegos y romanos* eta abar idatzi zuen.

Humboldt-en ikuskeraz, L. MICHELENA, aipatu artik.

(22) Eskuizkribuen idazketa, zuzenketa, lehen asmo etab.-ez ikus J. GARATE *Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*. Euskaldunei buruzko idazlanak monografia baten osagai dirateke (A. W. Campe-ri gutuna, 1802-6-28): bidaia, gramatika, hiztegia (*Berichtigungen...*) eta nazio eta hizkuntzaren etorkia (*Prüfung...*).

Argitaragabeez, ikus J. GARATE-ren aip. obr.

(23) *Ankündigung einer Schrift über die vaskische Sprache und Nation nebst Angabe des Gesichtspunktes und Inhalts derselben*. Deutsches Museum, 1812, II, 485-502 or., Königsberger Archiv. Mahn, *Denkmaeler*, Berl. 1857. G. S. III 288. or. Leitzmann-en oharra. Gazteleraz, J. GARATE *Estudio de sus trabajos...*, 115. or eta eta R.I.E.V. XXII, 1931.

(24) *Mithridates oder allgemeine Sprachkunde mit dem Vater Unser als Sprachprobe in bey nahe fünf hundred Sprachen und Mundarten*. Vierter Theil. Berlin, in der Vossischen Buchhandlung. 1817. Aurretik, Berlin 1806-1817, IV, 275-360, 1809.ean agertu zen, II. tomoan: "Cantabrisch oder Baskisch". San Petersburgoko *Vocabularium Comparativum gisakoa*, aspaldiko tradizio poliglota baten amaiera da. Larramendi eta Oihenart dira oinarri. Iturriez ikus J. URQUIJO, *Correcciones y Adiciones al Mithridates de Adelung sobre la Lengua Cantábrica o Vasca*. Prólogo R.I.E.V., 1933, eta A. TOVAR, *Mitología e ideología...*, 138. or.

(25) *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweiten Bandes des Mithridates über die Kantabrische oder baskische Sprache*. 1811.erako bukatua, 1816.ean argitaratua.

dores de España y Lengua Vasca, “vascoiberismo” deitu teoria finkatu zuena (26). Gramatika, morfologia eta lexikoaz ari da hauetan, Astarloa duela maisu, nahiz eta bere irizpideak izan.

Humboldt-entzat hizkuntza bat herri baten pentsa eta senditzeko molde edo marka bizia zen (27) eta euskara jatorriz herri enbor berezi baten hizkuntza trauskil eta landugabea (“röhe und ungebildete Sprache”) (28), bere jatorrizko garbitasunean gordetzen zelako hizkuntzen

Arguinzoniz-ek gazteleratu eta Aizkibel-ek oharrak jarri zizkion (J. UROUJO, *Correcciones y Adiciones...* R.I.E.V., 1933). ADELUNG-VATERen *Mithridates oder...* IVTeil, 1817.ean argitaratua.

Hiztegiaz, letra bakoitzaren esanahiaren (Astarloaren) teoriak, bokale eta konsonante batzuen azterketaz etab., ikus A. TOVAR, *Mitología e ideología*, 151-2.or.

Gramatika eta hiztegia laburki, Antologian Mogelen 2 testu eta Lelo-ren kantua. Azken honetatik, ikus J. CARO BAROJA *Algunos mitos españoles. Ensayo de mitología popular*. Madrid 1941.

(26) *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Spaniens vermittelt der vaskischen Sprache*. Berlin, 1821.

Euskara ibero, hots, europar lehen biztanle indogermaniar ez zirenen hizkuntza eta Peninsulan hedatua omen zelako teoria ez da orijinala. Ikus TOVAR *Mitología e ideología* 157. or. “Las principales conclusiones de esta monografía de Humboldt, fueron aceptadas casi sin discusión, sobre todo en Alemania. Sobre ellas construyeron sus estudios tanto Hübner como Schuchardt, y en nuestro tiempo esta teoría, que Caro Baroja llamó “vascoiberismo” se mantenía todavía no caducada hasta después de 1940: la identidad del vasco y el ibérico, la extensión del vasco por toda la península, según se ve en la toponimia; la presencia de iberos, mezclados con celtas, en Lusitania y en las regiones del norte, fueron tesis muy generalmente aceptadas. La importancia de los celtas en la Península fue en cambio menos generalmente reconocida. (...) Tampoco se continuó la tesis de una posible relación originaria entre iberos y celtas”. L. MITXELENA “Mitología e ideología de la lengua vasca” (Tovar-en liburuaren erreseina kritikoa), Muga 10, 1980. “...pone digno remate a una tradición que contaba ya como tres siglos de vida”.

Prüfung-en metodo eta gonparaketa teknikaz ikus baita L. MITXELENA-ren erreseina ere: “W. von Humboldt. Primitivos pobladores de España y lengua vasca”. Ediciones Minotauro. Madrid 1959. BRSVAP 1950, XV, 95-7.

(27) H. S. II, A. Flitner, 430, “lebendigen Abdruck ihres Denk- und Empfindungsart”.

(28) W. v. HUMBOLDT, *Gramática Vasca* (J. GARATE *Estudio de sus trabajos ...* 159. or) Hizkuntza landuak sinpleagoak formaz, erregela ez hain erabateko eta orokor, eta etorkitik urrunduagoak dituztenak omen. Landu gabeak, aldiz, formaz ugariagoak, eraketan bakunagoak, etorkitik hurragokoak. “Todos los idiomas cultivados están alejados de su forma primitiva por una gran cantidad de alteraciones o posiblemente y más de una vez derivados de un idioma más rudo”. “La lengua vasca debe por esto siempre ser mirada como una lengua adaptada al estado antiguo de cultura de los hombres y aquéllos que se le comparan por su gradación son de pueblos rudos y bárbaros, como los americanos principalmente”. Ilustrazioaren aldekoentzat, hizkuntzaren garapena abstrakzioarako gaitasun edo adierazkortasunarekin lotua dago. Herder, Hamann etab.-entzat (eta Humboldt horiekin batean) ez dago lokarririk.

HS, V, A. Flitner 634 “Es mag sein, daß die Vorliebe für die wilden Mundarten und die „rohen und ungebildeten Sprachen“, die Humboldt auf seiner Reise durch das Baskenland entwickelt hat, ein Erbe der Anthropologie des 18. Jahrhunderts und des darin kultivierten Interesses an den exotischen Kulturen darstellt; die Sprachtheorie Humboldts verdankt dem Studium der „Volksprachen“ ihre wichtigsten Impulse und ihre charakteristischen Züge, mit denen sie sich von der historischen Sprachwissenschaft abhebt” (Conf. Grimm-i gut. 1827-7-8).

arteko konparaketarako eredu zatekeena, Europako prehistoriarako interes biziko izateaz gain (29). Bestalde, orduko ezaguna zen euskara hizkuntza amaki zaharrenetako bat eta besteekin elkartasun gabea zela. Baina ez zitekeen, ez Frantzia, ez Ingalaterra, ez Alemanian, oinarritzko ikasbide edo libururik eskura. Eta ordurarte jakintsuak erakarri ez bazituen ere, premian ginen une historiko hartan Humboldt-en arartekotza ezin egokiagoa suertatu zen (30).

Baina euskara, mintzatua behintzat, ez zuen ongi ezagutzen (31). Eta ikuspegi genetiko eta sinkroniko batetik begiratuta, garaiko hizkuntzalari-tza konparatu eta historizistaren aldean atzean gelditzen da (32). Eta Herder-en hizkuntz-filosofia edo kultur-antropologiatik hurbilago den arren, hizkuntza eta pentsakeraren arteko harremanak aztertzerakoan, euskarari dagokionez, zehaztasuna falta nabari zaio (33). Dena dela, gure hizkuntzaren ikerketari hark ekarria ez da baztertzekoa (34).

Humboldt alemanarentzat euskaldunek nazio bat egiten dute edo dira, hizkuntzek mugatzen edo biltzen bait dituzte nazioak, ez Estatu-politikak edo lurralde baten barrutiko botere batuak (35).

(29) *Anuncio de una publicación sobre la lengua y nación vascas*, RIEV XXII. TOVAR, aip. obr. 154. or. Aurretik Hervas, Catal., vol. V, 262-3 or. "...su conocimiento sirve para ilustrar la historia primitiva de las naciones que fueron, y son las principales de Europa, y también la historia de las lenguas".

(30) L. MITXELENA, *G. de Humboldt et la langue basque*: "La brèche d'un isolement qui s'effritait déjà pendant la deuxième moitié du XVIII^e siècle, s'est ouverte au moment où un puissant mouvement d'idées, né et développé surtout en Allemagne, mêlait ses remous aux renversements socio-politiques, qui avaient déjà frappé de mort l'Ancient Régime européen".

"Pour nous, basques, Humboldt a représenté le premier contact réel de la tradition linguistique locale, qui avait alors atteint un haut sommet, avec la tradition scientifique occidentale".

(31) L. MITXELENA, aip. art. "H. n'a jamais eu, il l'avait volontiers, une connaissance suffisante de la langue parlée".

(32) L. MITXELENA, aip. art. "Humboldt, qui devançait ses contemporains par l'ampleur de ses conceptions en linguistique générale, était plutôt en retard sur son siècle quant à la considération historique de l'évolution des langues".

(33) L. MITXELENA, aip. art. "H. (...) n'arrive jamais à une estimation précise de la valeur de la langue basque en tant qu'instrument de la pensée individuelle et collective".

(34) L. MITXEL, aip. art.

(35) HS, V, A. FLITNER, 464.or. "Der Begriff der Nation ist bei Humboldt noch nicht Staatspolitisch, sondern in der ursprünglichen Bedeutung von natio zu verstehen. Er wird hier an Hand des Korrelats Sprache definiert: die 'getrennte' und doch in höherem Sinne verbundene Individualität". 469.or. "Im Grunde ist die Sprache... die Nation selbst". L. MITXELENA, *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madr., 183. or.

Euskaldunak, leinuz, beste europar herriein senidetasunik gabeko eta herri-leinu berezi (36) dira, beren jatorrizko izakera garbien eta bortitzen gorde dutenak, izakera hori euskarak erakusten duela.

Euskaldunen nazio-izpiritu eta nazio izakera (37) ere euskarari loturik daude, folklorea, ohiturak, geografia... haren agerpen izanik.

Herri-hizkuntza jatorrena, ahozkoa alegia, zientzia eta literaturan erabiltzean, herrikoitasuna galtzeko arriskuan omen dago (38). Humboldt, herri-kulturaren ("Volkskultur") eta euskal naziotasunaren erakusburu diren kanta, poesia, ipuin, kondaira, atsoitz, musika, dantza, eta abarren maitale eta biltzaile izan zen eta, dirudienez, gure lehen folklorea (39).

Herri-hizkuntza herri-kulturari loturik dago, beraz. Ilustrazioa hizkuntza eta herri-kultura horri itsats dakioke, hala ere (40). Arriskua hizkuntzaren endekatze eta gainbehera eta landuen kultura herrikotik urruntzean omen dago (41). Honetan Humboldt-ek liberal ilustratu eta erromantiko-historizisten arteko arazo nagusi bat aurkezten du (42).

(36) HS, V, 646.or., A. Flitner "Weiter unten 117/35 wird die These aufstellen, daß die Basken nicht nur ein Volkstamm, sondern ein Völkertamm sind, wie die Slaven oder Germanen. So hoffte Humboldt an den Basken studieren zu können, was „reiner Stammcharakter heißt“ HS II, 426.

(37) A. FARINELLI *G. de H. et l'Espagne* 18.or. "Toute recherche du caractère national, toute recherche historique doit donc partir de l'étude de la langue". Ibidem, 37. or. Goethe-ri gutuna "No hay otro pueblo (...) que tenga un carácter tan profundamente nacional como el pueblo vasco, ninguno que haya conservado su fisonomía original con relieve tan puro y tan marcado". *Los Vascos*, 118.or. (E. Ikaskuntza, 1925).

(38) *Los Vascos*, Eusko Ikaskuntza 1925, 123.or.

(39) A. FARINELLI, *G. de H. et l'Espagne*, 169.or., R. M. AZKUE "Algunos manuscritos encontrados en la Biblioteca Nacional de Berlin", *Euskera* 1925, 60.or., J. de RIEZU "Material folklórico de la Collectanea Lingüística de Humboldt Canción del vino". Herri kantez, *Anuncio de una publicación...*; ipuinez, *Los Vascos* 255; kondairez, *Los Vascos*, 285.or., G. S. VII, 1., 207.or.; dantzez, *Los Vascos*, 235.or. "parte de la organización del país".

(40) *Los Vascos*, 122, 123, 124. Antzeko ideiak FICHTE-gan, *Discursos a la nación alemana*.

(41) HS, V, Flitner 614 „Humboldt glaubte eine Tendenz zur Aufspaltung des Geisteslebens in zwei disparate, auseinanderdriftende Kultur-formen feststellen zu können: die *Volkskultur*, die in dem Maße in Dumpfheit zu versinken schien, als sich die *Kultur der literarisch Gebildeten* von ihr entfernte (...) Diese Tendenzen liegen zwar im Wesen der Sprache begründet, sind aber mit der Gefahr eines Zerfalls der nationstiftenden Funktion der Sprache verbunden...“.

(42) HS, V, 614, Flitner "Am Beispiel der Basken glaubte Humboldt zeigen zu können, wie die assimilierende Kraft einer intakten Volkssprache den gemeinschaftssprengenden Kräften des Fortschritts entgegen wirkt. (...) Die noch nicht durch Ständegrenzen zerrissene Volkssprache und Volkskultur schien ihm der historischen Eigenart und der selbstberöffneten Modernität beispielhaft zugänglich. Das Zentralproblem der historisierend-romantischen und der liberal-aufklärerischen Kulturtheorie war für ihn gerade aufspürbar“.

Humboldt-ek argi ikusi zuen euskaldunek beren hizkuntza, izakera, legedi eta lurraldearen ezberdintasunaren kontzientzia zutela. Eta hementik nazio-sendimendu bat sortzen zela, areago, herrikoitasun (patriotismo) edo sorterrizaletasun bat, gehiegizkoa izan zitekeena (43). Eta, nazioari leial atxikiarren, elkarren lehian zebiltzala ere bai, txokokeria hizkuntzan ere nabarmenduz.

Baina, absolutismoaren gainbehera eta nazionalismoaren indartze garaian nazio batek Estatu-politikatik ate ezin zuenez bizi, auzi historiko garrantzitsu bat erabaki behar zen, hots, nazio txiki batek, beste batzuekin elkartzean, Estatuarekin nolako harremanak izango zitukeen. Humboldt-entzat gurea kasu bakarra ez zen eta, gainera, ezberdintasunak, eragozpen beharrean, baliagarri zitezkeen (44).

Beste aukerarik ezean, euskal nazioaren gainbehera (45) betikoa, are hizkuntzarena, igarri uste izan zuen. Ez, ordea, espainiar gobernuaren erasoek denentzat ekar zitzaketen kalteei oharterazi gabe (46).

Honela laburtu zigun 1817.ean berak Euskalerrrian ikusi eta ikasia:

“El sentido para la conexión íntima entre el carácter de un pueblo, su lengua y su país, se me descubrió muy de otra forma (...) por haber permanecido algún tiempo en medio del notable pueblo: a) de quien es propia esa lengua que mantiene con apasionado amor, b) cuyo sentido nacional resplandece en todo, sintiéndose distinto en su marco, tanto por su lengua vieja, pura y originaria, como todavía entonces por sus libertades y constitución propia dentro de una poderosa Monarquía, c) cuyo

(43) *Bocetos de un viaje a través del País Vasco*, 299, 307.or. *Los Vascos*, 124, 171, 227, 307.or. “Se gozan en sí mismos y en su patria, junto a la cual nada les parece estimable. Tienen una tendencia sensible a hacerlo notar a los extraños”. Mogel-ek ere badio: “erri-coieguia danac euquico ditu beguiac, beintzat bai erdi geundu ta leusotuac” (P. A.) Aiton semetasunetik sortzen omen (*Los Vascos*, 189) eta klaseen arteko ia berdintasun eta antolamendu egokiarekin zerikusia du (*Los Vascos*, 308.or.).

(44) *Los Vascos*, 126. or. Euskararen etorkizunaz ere ez zen baikor: *Ueber die Verschiedenheiten des menschlichen Sprachbaus*, 281. or., 139. part. (J. GARATE, aip. obr., 212. or.) *Los Vascos*, E. Ikask., 121-2, 283. or.

(45) A. FARINELLI, aip. obr., 143. or., “Humboldt est d’avis que l’histoire de la décadence des Etats offre, en général, plus d’intérêt que l’histoire de leur grandeur...”. L. MITXELENA, aip. art., 129. or. Gainbehera hori ohituretan eta folklorean ere nabari da: *Los Vascos*, 236.or., *Diario del viaje vasco*, 49, 98. or.

Espainiar gobernutiko eraso eta euskararen zapalketaz, *Los Vascos*, 125, 177.or.

(46) *Los Vascos*, 265 “...el gobierno español (...) perdería por el hundimiento del patriotismo y del espíritu nacional, que sería una consecuencia indefectible de la restricción de las libertades vascongadas”. “Si se ataca este espíritu público en su raíz, por cercenamiento de la libertad política, si se le quita al vasco el pensamiento de que trabajan por la felicidad y el nombre de un pueblo propio, aislado, más entregado a sí mismo, y apoyado en sí mismo, entonces cae todo de una vez en ruinas...”. Espainiaren osagaiztasuna, Napoleonekiko gerra ondoren, batez ere, iragarri zuen: FARINELLI, aip. ob., 205. or.

valiente ánimo y vigorosa actividad se expresa en el doble carácter de montañés y marino condicionado por su hábitat, y d) que desparramado por las lejanas comarcas de la tierra, siempre mira al pequeño punto de su patria, en la que los repatriados al final de su larga carrera compiten en dejar monumentos que hermoseen sus lugares natales” (47).

Konbentzioko guda ondoan, Godoy-ren gobernuaren planen barruko edo kontrolpeko Histori-Akademiaren *Diccionario Geográfico* (1802) eta Llorente-ren *Noticias Históricas de las tres Provincias Vascongadas* (1806-1808) liburuetan Bizkai-Araba-Gipuzkoaren menpekotasunik eza eta Gaztelako Erregeekiko ituna ukatzen zen, orobat euskararen aintzinasuna —azken baten berezitasuna— zeren eta berezitasun hori erakundeena bait zen (48).

Bestelakoa izan da, gure kasuan, Eliza edo Elizen jokaera Trentoko kontrarreforma ondoren babespeide gisa euskara erabili duena (49). Eliza eta Estatuaren jokabide desberdinok eraginda, 1800. ingurutik aurrera, alde batetik euskara eta erlijioaren arteko harremanak estuagotuz doaz (euskarazko eliz-liburuen gorakada lekuko) eta bestetik... erantzun gisa idatzitako apologia, gramatika, hiztegi, zuzenbide historikoaz etab. ari diren idazlanek, amore eman ordez defentsa prestatu nahi zela adierazten digute, hizkuntzan —foruen gerizan— historian baino sendoago oinarrituz (50).

J. A. MOGEL-ek (1745-1804) *Diccionario Geográfico*-aren asmoei igarrita, artean Bizkaiko Diputazioa ixilik, erantzute lanari —argitaratzeko kontuan— ekin zion (51): batetik *Apologia de la Lengua Bascuence* eta Vargas Ponce-ri Gutunak idatziz, bestetik jo Adiskideen Batzarrera (RSBAP) eta *Alegiak* eta *Etimologiak* aurkeztu eta bazkide eginez (52).

(47) *Ueber die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaus* (J. GARATE, aip. obr., 210. or.).

(48) A. MAÑARICUA *Historiografía de Vizcaya*. J. DE ARALAR *Los adversarios de la libertad vasca* (1794-1829), 67, 114. or. A. TOVAR *Mitología e ideología...* 121. or. “...un verdadero plan de gobierno (...) la lucha de teorías sobre la lengua vasca encubría en realidad cuestiones políticas y administrativas”. L. MITXELENA “Mitología e ideología...” Muga 10, 1980.

(49) L. MICHELENA “Las lenguas españolas y el periodismo escrito” in *Lenguaje y periodismo*, Fundac. March. Madrid, 42. or.

(50) L. MITXELENA, “Mitología e ideología...” Muga, 10, 1980: “Los apologistas, descarriados por lo común en el campo de la historia, defienden en materia de lingüística histórica, opiniones que hoy en día nos parecen en buena parte razonables o, al menos, nos lo parecerían traducidas al lenguaje actual”.

(51) Orain urte batzu, “B. A. Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide”, *Euskera* 1982, 2.t. 267.or artikuluan esana zuzentzeko aukera dut. J. A. Mogelek, erlijio idazlanez bestelakoak argitaratzeko asmorik ez zuela aditzera ematen nuen. Zertako idatz, orde, hain gartsuki euskararen alde “para servir a la Patria y a la Nación” (*Versiones Bascongadas*) ez bada?

(52) Archivo de la Diputación de Alava (Fondo Prestamero) Juntas Generales de la R. S. B. (eskuzko kopia). Bilbao julio de 1.802. “Se Juntaron los Amigos Murga, Consiliario

Familiatik zetorkion ilustrazio ondareari jarraituz (aita eta anaia bazkideak, orduko hilak, eredu gisa goraipatuak izan ziren) (53) bera ere hiztegi gintzan aritua izaki (54), erakunde prestijiosuan (55) berandu sartu

de Vizcaya Presidente, Ortes, Mazarredo, Azedo, Herran, Torre Alta, Corcuera, Romarate de numero, el Excmo. Sr. D. Josef Domingo de Mazarredo, veterano, e yo el Secretario nombrado para estas Juntas por ausencia de los Amigos Secretario y Vicesecretario (...) Habiendo presentado D. Juan Antonio Moguel un Ensayo manuscrito de Poesia Bascongada en varias fábulas traducidas del Castellano y diferentes versiones Bascongadas impresas de algunas arengas de Autores latinos se acordó darle por su aplicación y zelo manifestándole el sentimiento que tiene la sociedad de que el estado de sus fondos no le permita contribuir a la impresión de dicho Ensayo y le nombró Socio Literato". Juntas Generales celebradas en Vizcaya por Julio de 1.803 (día 28 por la mañana). "Se juntaron los amigos Murga Consiliario de Vizcaya y Presidente por ausencia del Director Ortes, Ugarte, Azedo, Porcel, Echaz, La Torre Alta, Zabala, Villafranca, Lili Menor, Veterano de Gracia, Letona e yo el Secretario nombrado para estas Juntas por ausencia del Secretario y Vicesecretario y amas el Amigo Gaytan Supernumerario a quien habilitó esta Junta para que asistiese en clase de Socio de Número. "Se presentó (...) un Cuaderno Intitulado reflexiones sobre la antigüedad del Bascuence y uso de las Ethimologias Bascongadas por el Socio Literato D. Juan Antonio Moguel, y acordó la Junta dar Comisión a los Amigos Echaz y Murga para su reconocimiento".

Honela, bada, egiaztatzen da zegoen ustea. Baina zertako hain berandu sartu? Samaniego moduko denborak joanak ote zirelako edo? Ikus L. F. LARRAÑAGA, "Actitud del Clero Vasco frente a los empeños renovadores de la R. S. B. A. P.", B. R. S. B. A. P. 1969. Alegiak, gipuzkeratuta, Donostian argitara eman zituen Bizenta Mogelek *Ipui Onac* izenpean. Prestamero Artxiboko Mogelen gutunetatik (SAN CRISTÓBAL-ek eman zuen berri, *Iker-1*, 130.or.), soma daitekeen eta "B. A. Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide" **Euskera** 27, 1982, nire artikuluan frogatzen saiatu naizenez.

(53) A. D. A. (Fondo Prestamero) *Conclusiones de Medicina dedicadas a la R. S. B. por el autor Juan Ignacio de Moguel y Urquiza* (1.773 - 2 - 7) *Relación y observaciones sobre un empiema mal curado* (1.774, 6.3.1.15) Narros-i gutun batekin). J. I. Moguel (aita) Ramon M.^a de Muniberen osagile izan zen eta honen eritasunaz ari da. *Observaciones medico-practicas de la verbena (sugue bedarra) con el método de usarla dirigidas a la R. S. B. A. P.* (J. I. Mogel aita) 1.768. L.3.T.15). *Presentación de unas conclusiones anatómicas dedicadas a la R. S. Por Juan Ignacio Moguel Urquiza, profesor de la Universidad de Zaragoza*. (1.773-3-20). J. I. Moguel-en gutun baten aurkezpena (ganadu izurriteaz, 1.775-4-8), beste baten irakurketa (1775-6-30). *Aviso a la R. S. B. A. P. de un moderno descubrimiento en Vizcaya en gran beneficio de la agricultura, sin perjuicio de las cosechas regulares ni dispendio particular alguno* (1775-12-1).

(54) A. D. Alava (Fondo Prestamero). Azpitarte-ren dokumentu batetan, ikus E. KNÖRR. "Some new documents concerning Azpitarte's Dictionary"; *Iker-1*. 1981, Euskaltzaindia, 111.or.

J. A. MOGEL: *Cristaubaren Icasbidea* eskuizkr. (Aranzazu). Prólogo al lector: "Sólo un pensamiento me consuela, y es que la sociedad bascongada, que se emplea con tanto honor, y utilidad en infinitos asuntos, no tendrá a mengua el confundir a estos enemigos de su País, sacando à luz un Diccionario copioso, y a poder ser tridialéctico".

(55) Hervas (TOVAR, *Mitol. e Ideol.*), Erro, Sorreguieta eta Astarloa ere, dirudienez, Batzarreko ziren. Kalahorra-ko Apezpiku Aguiriano-k eta Llorente kanoniguak (!) ere sartzeko eskatu zuten (Fondo Prestam.). Bidenabar, eskarazko neurtitz ezezagunak ere badira. Adib., J. Campos-ek Hervas-i gutun batetan: "El Sr. Iturriaga, director del Colegio de Vergara, amigo mío, también es uno de los literatos de la Sociedad Bascongada y ha acreditado en varias poesías vascongadas una inteligencia grande en este idioma".

arren, euskara indartu nahiean eta Maisu Juan gehiegi ikusita edo, horien modukoentzat idazten du *Peru Abarca*, Josef de Murga Bizkaiko Aholkulari eta Diputatu Nagusiari idazlana zuzen edo alda dezala eskatuz. Bidenabar, eta nire ustez, *P. Abarca*-n agertzen den hiritar bizimoduaren kritikak nekazaritza jasotzeko egin ziren ahaleginekin zerikusia du, pre-romantikoen ideien oihartzuna ukatu gabe (56).

Mogelen lanak krisialdiko emaitz dirudi: mende bukaeran Aintzina-ko Erregimena, erlijioa, are Mogeldarren familia eta ekonomia, kolpatuta (57), foruak eta euskara, eraso eta erdeinuz, estatusunean, nazio-hizkuntzaren aldeko indarrek, europar nazionalismoari esker (beste zenbait idazleri bezala) ats eman bide zioten idazteko —tonu gogor eta radikal batez idatzi ere, gainera—, gramatika eta hiztegigintzan aritzeko eta euskara idatziz lantzeko, baita erlijio liburuetan ere.

Mogel-en predikua, erlijio liburu argitaratuak eta alegiak alde batera utzita, etxeko herrigizon eskolatuak eta buruz ondo jantziei zuzendua da (56), eta euskaldun dongeak (59) eta euskararen guttiespena salatzen defentsara edo protestara alda daiteke (60). Bestalde, ezaguna denez, lege zaharreko zen eta, gainera, Frantziako Iraultza ondoan dotrina berrien sarrera galerazi nahian, Inkisidoretzan, jarduna (61).

(56) 1796. ean, Godoy-ren aginduz, *Prospecto de un semanario de Agricultura, Artes y Oficios dirigido a los Parrocos* zabaltzen da, non elizgizon protestanteak Europan egina eredutzat hartuz, nekazariak ilustratzeko zereginaz ardura ditezela nahi bait da. “No solo mejoraréis las fortunas de vuestros feligreses, sino también las costumbres” diotse. 1791.ean, Madrid-en, Antonio de SAN MARTÍN y BURGOA apaiz eta Bergarako Mintegiaren erakitzai-leetako batek *El Labrador Bascongado, o antiguo agricultor español* argitaratu zuen.

(57) Aita-anaia medikuak 1783. eta 1785.ean hil ziren eta bion soldata gabe gelditu zen familia. Mendeko azken urteetan J. A. Mogelen soro eta eliz errentak, beste apaizki-deenak bezala, gero eta beherago, patroik eta uriarenak gora zihoazen bitartean. “No testó por no tener de qué” dago idatzia eliz-liburuetan.

(58) *P. Abarca* “a los muy cultos”. *Alegiak* “A la Juventud Bascongada” *Apología*, hemengo eta kanpoko jakitunei, orobat V. Ponce-ri gutunak... *La H. y Geogr. de España*-ren kopia bat igortzen dio Corral-i eta *P. Abarca*-rena Murga, itxura baten (Vargas-ek Mogeli, 1802-7-9), Pereyra *Diccionario Geográfico*-ko partaide eta korregidorearekin konpontzen ez zenari.

(59) Maiz mintzo da “euskaldun chár” horiez *P. Abarca* (1. ediz.) 196, 197, 201.or.

(60) Adibidez, *Apología*-n euskararen zapalketa salatzean edo harako Peru-ren erasian: “galdu gaitube arrotz ta erdaldunac ta chimino eguinic jarraitu gura deutsegu aen asmuei”, 95. or.

(61) Arch. Hist. Nacional. Inquisición. Leg. 4429, Núm. 13. Bilbao. Año de 1792 *Expediente sobre las Gacetas de Francia, que dimana del Expediente de Marquina, en que se trata de las Gacetas de la Libertad, y la Ygualdad, del Mercurio...* J. A. Mogelek aldizkari horiek eta bestek Bizkaian (eta Markinan ere) duten zabalpena salatzen du. Ondorioz, beste informazio batzu ere tarteko direla, D. Josef de Murga, D. Guillermo Duabon, D. Pedro Ardanas y Compañía, D. Domingo de Lesca eta D. Bertran Dobat Marques de la Colonilla-k gazeta horiek eskuratzen dituztela jakiten da. Josef de Murga, Mogelen herritarra, “frantses-tatu” bide zen garai hartan. Urte bete geroago, Mogelek Inkisizioan sartzeko eskabidea

Jakina, haren idazlanetan ez da azaltzen ez Euskalerrria edo Euskalerriak sozialki bateratzeko asmorik ez aginte konturik eta nazionalismoaren etxaurrean gelditzen da. Hala ere, Mogeleg garbitasun bat, eraberritze edo, nahi bada, era zahartze bat, iragan denborako ‘jatortasunera’ (62) itzultze bat aldarrikatzen du bizimoduan, ohituretan, nola hizkuntzan. XIX. mende osoan karlismoa eta, geroago, baita nazionalismo tradizionalista ere, nolabait deitzeko, Mogelegz baliatu ziren betiko Euskalerrriaren eredu, are santu hotseko (63) eginez. Nolanahi ere, kontutan izanik *Peru Abarca, Apologia* eta abar argitaragabe gelditu zirela (nahiz eta lehendabizikoaren kopia franko ibili) euskal nazioaren gainbeheraren erantzunkizuna, karlismoari okerreko bide erizten diotenek, Markinako abadeari edo honen modukoei bezainbeste edo gehiago beste norbaitzuei, Bilboko merkataria nagusiei, adibidez, eskatu beharko diete.

Mogel, euskal mito edo sinbolo politiko-kulturalak (kantabrismoa, Tubalen Espainiara etorrera, erromatarrengandiko independentzia eta ituna, monoteismoa etab.) jaso eta fuerista baina euskalzale ez direnen aurka ateratzen da, zeren eta euskara, bere aintzinasunean aldatu gabe gordea, ez bait da soilik eskubide historiko batzuen frogabide nagusia, euskaldunen jaio-lur edo jaioterriko hizkuntza (“idioma patrio”) ere bada (64), hizkuntzaren izen bera daramala, gazteleraz ere, sorterriak (65). Eta, beraz, (Mogel razionalista praktikoa genuen) elizgizon eta eskolatuen zeregina zatekeen —aberatsa eta landua izateko gai bait da— euska-

egiten du. (J. GARATE *Cinco Cartas inéditas de D. J. A. de Mogel*). Kontu honetan Humboldt bestelakoa zen, Inkisizioaren kontrakoa, alegia.

(62) P. I. “euskaldunac bagara benetan, vici biardogu gueure asabac eracatsi deuscu-bezan ecandubacaz” Bizikieran, jantzietan eta abar, urico moda barrien bitxitasunaren ordez aintzinakoen lautasuna predikatzen du. (*Ipui Onac*- en Peñafloredarena goresten da).

(63) E. M. AZKUE “Mogel eta Tsaraka” (*Parnasorako bidea*, 1896, 80.or.) bertsoetan “Santua lakoa”. *Vida edificante de la sierva de Jesus Sor Maria Garcia (...) Ubilla (...) escrita por el párroco de Sta. Maria de Jemein D. Antonio Moguel, apellidado “El Santo”*. 1927. Impr. Aldecoa. Burgos J. A. OAR-ARTETA-ren *Miren'en senargeya-n*, Bermeo 1936, santu hotsean hil zela edo antzeko zerbait esaten da.

(64) “Patria” sorterri edo jaioterri hitzaz euskaratua (conf. Azkue, *Diccion.*, “errikoi”, patriota, P. Abarca-tik hartuta), Euskalerrri edo honen zatiren bati buruz mintzatzean erabiltzen du Mogeleg. Berdintsu Astarloak, *Apol.*, 337 “...atribuir la gloria de la invención al Señorío de Vizcaya, mi patria, que es una parte del país Bascongado, sino al Cuerpo todo de la nación Bascongada”. Hala ere, Mogel-ek, “nación” Espainiaz mintzatzean erabil dezake (Llorentek “nuestra patria comun” erabiliko luke). Zehaztugabeak dira hitzok, beraz, “nación” eta “nacional”, batik bat. Nolanahi ere, Mogelentzat euskara “idioma patrio”, “nuestra lengua”, “nuestro idioma nacional” etab. da eta gaizki esaka dabilena, nahiz eta fuerozalea izan, Egiategik esango zukeenez (*Filosofo Huskaldunaren ekheia*, Hitzaurria, Lekukoak), “herriari dago traidore”.

(65) “El País Bascuence” (*La Historia y Geografía*, Gaubeca, Bermeo 1936 23.or) edo “País del Bascuence”, “El Bascuence” (*P. Abarc.* 39. or.).

ra garbitzea (66), forma jatorrak batzea eta apaintzea, hau da, diglosia lotsagarriari aurre eginez idazteko ereduak (hiru euskalkietan) finkatzea. Mogelen bizkaierazkoa, jakina denez, S. Aranak Bonaparteren eskutik jaso eta eredu jarri zuen (67).

Peru Abarca eta *Alegiak* obra literario neoklasikoak (68) ditugu irakasteko asmoaren eta genero edo forma literarioen aldetik Adibidez, herri ipuinak gaitzetsiz alegi edo ipui "onak" idazten ditu. Hala ere, P. Abarca-ko herri-kanta, bertso, atsotitz, etab.-en biltze (69) zein hirietako bizimoduaren kritikagatik (70), badirudi Humboldt-en bitartez edo, prerromantizismoaren ikutua sendi dela eta hau ez dateke harrigarri, Astarloa bezala, gurutzebidetako gizon bait genuen Mogel.

"PEDRO PABLO ASTARLOA (1752-1806), de Durango en Biscaye, était un de ces esprits ambigus qu'on rencontre souvent au carrefour de cultures diverses et au moment des grands renversements. Fort intelligent, pas trop cultivé (il semble que, en fait de langues, il ne connaissait, en dehors du basque et de l'espagnol, que le latin et le français), épris de raison et de système, Astarloa, élevé sans doute dans la tradition espagnole, avait lu pas mal d'ouvrages publiés ailleurs. Il était parvenu tout en mettant à profit des idées d'origine diverse, à bâtir un système personnel qui visait à expliquer la langue basque tout entière depuis les sons, dont

(66) "...quendu biar dira erderati premina бага iraatsi jacozan verbaac, batu eusquera ican baztertu ta zoconduta dagozanac, ta imini biar da garbituta, zan leguez anchina erdaldunacaz artu-emonic etzan demoretan" (*P. Ab.*, Dialogo entre dos amigos eclesiasticos). Hola ikusiko da, besteak beste, "noraño elduten dan bere oparotasuna berbeetan" Horretarako, "Atera ugari liburu eusquerazcuac", hobeto esan, "liburu eusquera garbicuac" (199-200. or.). Hau da praktikan erakutsi nahi duena, *P. Ab.* edo *Versiones... o Demonstracion Práctica de la pureza, fecundidad y elocuencias del idioma Bascuence...* idatziz. Gaineña, "Eusquereac ez dau inoren biarric edocein gauza esateco", Humboldt-ek ere hala uste zuelarik.

(67) L. MITXELENA "Normalización de la forma escrita de una lengua". Revista de Occidente, 1982. Madrid.

(68) J. KORTAZAR. "¿Fábulas inéditas de J. A. Mogel?" F. L. V. 35-36, 1980, "eta Mogel eta bere garaia", F. L. V., 1982.

(69) Bertsolaritzak, Mogelentzat, euskaldunen berezitasuna erakusten du: "ningún rústico castellano es capaz de versear arregladamente". Bera dugu lehena, agian, alde honetatik eta beste batzuetatik (neurkera, kantua, trinkotasuna) duen balioa jasotzen (ikus Zamakola). Herriaren emaitz den orok (kanta zahar eta berri, esaera zahar -zenbait Oiher-nartegandik jasoak- berez balio du.

(70) *P. A.* 189 or. "Caleric cale ibillita ezta icasten barriquetia, alperreriya ta dongaro esatia ezpada. Baso onetan ta baserrijetan dauquee guizonic jaquitunenac cer asco esaminau, edo zuc esaten dozun leguez, cer aztertu ta zer icasi gauza ascotaraco". *Ipui Onac*, Hitzaur "Au bai dala vicitza categabe, ta erri andietaco lotutasun, edo labaqueriaric ez duena!".

il a donné des descriptions exactes, jusqu'à la phrase". (L. Mitxelena) (71).

Ez dut Astarloaren sistema aztertzeko ez errakuntzez aritzeko asmorik, oro har kontu aski ezagunak bait dira.

Polemikaren tonua, prentsa eta liburu bidezko zabalpena (71 bis) eta azpiko asmoek eztabaida gailurreratu dela aditzera ematen digute. Jakina, Traggia (72), Martinez Marina, J. A. Conde, Llorente, eta abar Estatua-ren babespean ari dira eta Astarloa, dirudienez, lagunek bultz eginik baina bere kabuz. Madrid-en, noski, espainiarrei zuzentzean, adibidez *Reflexiones Filosóficas*-en (Madrid, Cano, 1804), espainiarzaletasuna aitatu beharrez, Mogeletz bestelako jarduna darabil: "lengua de vuestra misma nación" "malos españoles" (Mogelentzat gaztelera, "lengua extraña"). Hervás-en *Catalogoak* eta, kanpoan, Humboldt-en gerizak sendotu zuten Astarloa, zein Europa guztiak bere obra miretsiko zuelakoan bait zegoen. *Plan de Lenguas o Gramática Bascongada en el Dialecto Bizcaino* (RIEV 26, 1935) Erro-ri "esker" galdu arren, Bizkaiko Diputazioak, 1820.ean behintzat saiatu zelarik, azkenez 1883.ean eman zuen argitara *Discursos Filosóficos* (73).

(71) "Guillaume de Humboldt et la langue basque" *Lingua e stile* VIII 1973, eta *Lengua e Historia*, Pararinjo, Madrid, 1985, 128. or.

(71 bis) J. A. MOGUEL, J. M. Murga-ri gutuna (J. GÁRATE, *Ensayos Euskarianos*, 222. or.). TOVAR, *Mitología e ideología*, 133. or. "el tono de estos Académicos, que yo creo actuaban instigados por el Gobierno de Godoy era duro, y así repite Conde aquello de Mariana "lenguaje grosero y bárbaro". Astarloaren hilburukoan azaltzen denez, Apologiaren 300 ale saldu gabe galditu arren, Nueva España lagundu nahi diote.

(72) A. TOVAR, *Mitología e ideología de la lengua vasca*, 101-6. or., Alianza 1980. L. MITXELENA, "Mitología e ideología de la lengua vasca". *Muga*, 10, oct. 1980.

(73) Bizkaiko Eleiz - Arkibua. (Derio). Parroquia Sta. M.^a de Jemein. Papeles Varios. (Fray Pedro Astarloak bere iloba Ignacio Luis de Astarloa, Markinako apaizari eskutitza). Bilbao y febrero 1820. Querido Ignacio. Ya te tengo avisado como Erro había escrito, que con tal que el Señorío le pidiese las obras del difunto Paulo y fuese por intervención mía las entregaría. El Martes escribieron los Diputados a Erro asignando en Barcelona persona a quien entregase, y dando orden a esta persona que dirigiese el paquete a Zaragoza a un sugeto de confianza, en caso que no hubiese conductor que rectamente trajese aquí. También he escrito yo a Erro suplicándole que embie o que entregue al sugeto asignado por el Señorío los escritos. Los Diputados actuales están muy empeñados en que salgan a luz las obras, y no dudo que los sucesores y quantos compongan la Diputación serán del mismo sentir, y no se dejara de tocar en las proximas juntas si llegan antes los manuscritos. Por las conversaciones que tube con el difunto Pablo, por la idea que tengo formada segun lo que me escribía desde Madrid, estoy persuadido que la obra va a asombrar y pasmar a todo Europa y abrir un nuevo camino para las ciencias, y para la historia. La Academia de Londres insta su edición; Humbolt no sosiega en sus instancias, el Ynstituto nacional de Paris la Academia de los Países bajos unidos, ha llebado la Apologia y manifiesta deseos de la publicación de los Discursos Filosoficos..."

Baina Errok Frantziara ihes egin zuen Konstituzioaren aldekoak nagusitu ziren urte horretan bertan. 1808.ean, Prestamero-ri idatzitako gutun batetan (A. D. A. Fondo Presta-

Idazlan honetan, silaben kontaktaz diharduela, bertsoen neurkeraz arduratzen da, nahiz eta labur, eta, dirudienez, bereak ditu zenbait zortzi-ko (74), are Peñafloredaren omenez.

Apologia de la Lengua Bascongada-k (Madrid, Geron. Ortega, 1803), euskara landugabe eta basatia ez ezik berri xamarra delako aipua desegin nahian, haren perfekzio edo betekunde bidez aintzinasuna frogatzea du helburu.

1809.ean LABORDE frantses bidaiaria (75), bestek euskaldunei buruz esanak bilduz, hauen izakera, ohitura, usadio, hizkuntza, libertatezaletasun, kantabrismoaren mito, aintzineko izakera bortitz zibilizazioak bigunduaz etab. ari da.

WORDSWORTH ingeles poeta erromantikoa ere, Laborde irakurri ondoren, 1910.ean idatzi eta 1815.ean argitara eman zituen hiru sonetotan euskaldunen ritua, ohitura, lautasun, noblezia, sendotasunaz mintzo da, libertate galduak lanaren poderioz berreskuratzeko dei eginez (76). Wordsworth, nahiz eta hasiera batetan frantziar iraultzak liluratu, konterbadorea zen, Humboldt bezala, eta Napoleonen inperialismo eta arrazakeriaren kontra eta lehenagoko denboren itzuliaren alde ("Go back to antique ages") ari da. Poema horiekin batera espainiarren aldeko beste zenbait ere bada. Izan ere Independentzia-gerrak espainiar nazionalismoa sendotu egin zuen. Hona hemen poemok:

mero) hau dio *Mundo Primitivo* eta *Discursos Filosóficos*-i buruz: "Espero que estas dos obras llamen sobre nuestro pays la atención a la Europa literaria recibiendo entre las verdades historicas mas sancionadas la primacia de nuestro idioma en origen y perfección". Diario de Madrid, 28-9-1803. ekoan, Archéófilo-k zinaturiko Apologiaren erreseina kritikoan "no dudo llegará a formar época en los fastos de nuestra literatura, y que acaso dará motivo (...) á conjeturas muy racionales, no solo sobre el origen y formación de las lenguas, sino también sobre la antigua disposición del orbe terraqueo (...) por medio del cotejo analítico de unos idiomas con otros".

(74) J. DE VRIZAR, "Peñafloreda, Crillon y Astarloa", B. R. S. V. A. P. 1949 1782.ean (Peñafloredaz) "Onec deuscu Eusquera/Auspastuba jaso".

D. P. P. A. Versos a la proclamación de N.º Augusto Monarca D. Carlos IV (1789) (*Discursos Filosof.*, 541.ean beste aldaki bat. Foruen etorkizunaren ardura erakusten du, "Bizkai guraso sendo/Martitz emalliak/Erroma arrotubari/makurtu baguiak" ez zirela garai-ituak izan gogoratuaz.

Guizon gustijen Batzaarra ("Congreso de todas las naciones", Astarloak itzuli bezala, *Discursos*, 540. or.

"*Markinako pelotariena*" deituko nukeena. Plan de Lenguas (Extracto) (HUMBOLDT, Diario del viaje vasco.). Eta beste (*Reflexiones filosóficas*, 44. or. zorcico bascongado).

(75) Alexandro LABORDE *Itinéraire descriptif de l'Espagne, et tableau élémentaire des différentes branches de l'administration et de l'industrie de ce royaume*. Paris 1808. T. II. "La Biscaye et ses cantons".

(76) WORDSWORTH *Poetical Works*. Th. Hutchinson. Oxford University Press, 253. or. Lehen aldiz in *The Poetical Works of W. Wordsworth*, Longman, 1827, 5 vol. Euskarazko itzulpena, C. ECHEGARAY, Euskal Erria 1881, 7, 164.or.

In due observance of an ancient rite,
 The rude Biscayans, when their children lie
 Dead in the sinless time of infancy,
 Attire the peaceful corse in vestments white;
 And, in like sign of cloudless triumph bright,
 They bind the unoffending creature's brows
 With happy garlands of the pure white rose:
 Then do a festal company unite
 In choral song; and, while the uplifted cross
 Of Jesus goes before, the child is borne
 Uncovered to his grave: 'tis closed, —her loss
 The Mother then mourns, as she needs must mourn;
 But soon, through Christian faith, is grief subdued:
 And joy returns, to brighten fortitude.

FEELINGS OF A NOBLE BISCAYAN AT ONE OF THOSE FUNERALS

Yet, yet, Biscayans! we must meet our Foes
 With firmer soul, yet labour to regain
 Our ancient freedom else 'twere worse than vain
 To gather round the bier these festal shows.
 A garland fashioned of the pure white rose
 Becomes not one whose father is a slave:
 Oh, bear the infant covered to his grave!
 These venerable mountains now enclose
 A people sunk in apathy and fear.
 If this endure, farewell, for us, all good!
 The awful light of heavenly innocence
 Will fail to illuminate the infant's bier;
 And guilt and shame, from which is no defence,
 Descend on all that issues from our blood.

THE OAK OF GUERNICA SUPPOSED ADDRESS TO THE SAME. 1810

Oak of Guernica! Tree of holier power
 Than that which in Dodona did enshrine
 (So faith too fondly deemed) a voice divine
 Heard from the depths of its aerial bower—
 How canst thou flourish at this blighting hour?
 What hope, what joy can sunshine bring to thee,
 Or the soft breezes from the Atlantic sea,

The dews of morn, or April's tender shower?
 Stroke merciful and welcome would that be
 which should extend thy branches on the ground,
 If never more within their shady round
 Those lofty-minded Lawgivers shall meet,
 Peasant and lord, in their appointed seat,
 Guardians of Biscay's ancient liberty.

Vienako Kongresuak (1814-1815), ezaguna denez, lege zaharrekoen joera indartu zuen. Bilboko San Frantzisko komentuan, Abandoko "elextatian", eta aspaldiko tradizio bati jarraituz, BIZENTA A. MOGEL eta J. P. ULIBARRI-k, 1819-1832 bitartean, urtero argitaratu ohi zituzten ("trienio constitucional" deitu denborakoak ez dira agertzen J. Urquijoren bilduman) *Gavoneco Cantac* edo *Osasteac* edo *Bertso Neurtuac* dokumentu interesgarriak ditugu, hizkuntza aldetik ez ezik historia aldetik ere (77).

Bertsotan datorren propaganda hau, joera politiko ez ageriko baina jakinekoa, bizkaitar nekazaleei zuzentzen zaie, beren interesak defendatzeko eta ohiturak garbitzeko deadar eginez: "billatu ondasunac / lurra-
 ren barruban", "cenbat calte deuscupen / eguin lumadunac", "uritarrac badabilz / artu emonetan / achurlari garbijac / ez sartu orretan" (Hau idatzi zuenaren senarra merkataria zen).

Euskal legeak eta euskara gordetzeko kezka azaltzen da, behin eta berriz, baina erlijio eta xenofobia kutsua darie: "euskera donzua" (gaztelera, aldiz, "hizketa zantarra"), "Bizcaico banderia / zan leen lamburuba / gaur esaten jacona Curutze Santuba", "Vizcaijan ez da biar erbesteco legerie", "lotzagarrizco oitura dongac erbestetuteco" eta abar.

Joera bereko eta, lege zaharrekoen berrindartzearen ondorioz, Euskalerriko zenbait tokitan gerrillen agerpenaren lekuko ditugu 1823.ean idatziriko agitazio bertso batzu, C. A. F. MAHN-ek bere *Denkmaeler der Baskischen Sprache*, Berlin, 1857, liburuan bilduak:

— *Marquina, Xemein ta Echevarric, irurac bat agur deutsé egiten Constitucinoeco Damiari.*

— *Constitucinoeco Damiaren asmuac Zortzicuan.*

(77) Gipuzkoako Diputazioko Biblioteca. Fondo Julio Urquijo.

Badaude aintzinagokoak ere: *Villancicos que se han de cantar en la Solemne Misa del Sagrado nacimiento de nuestro Señor... en el real e imperial convento de nuestro Padre S. Francisco*. Zortziko batzuek Markinako Iturrikoen itxura dute. Eta *Letras de los villancicos en romance, y basquenze, que se han de cantar en la iglesia parroquial, y matriz del señor Santiago de esta noble villa de Bilbao en los solemnes Mayines del Sagrado Nacimiento de nuestro Señor Jesu-Christo, este año de 1794*. Por Simon de Larumbe... "Fraile, ta Abadiac / Besteecaz batera / Jagui dira pozarren / Armac artutera" "Jakinic dala Guerra / Jaunac nai dabena". Ikus A. IRIGOYEN "Bilbo eta euskara". *Euskara* 22 (1977). X. ALTZIBAR "Bizenta Antonia Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide". *Euskera* 22 (1982), 487-494.or.

— *Ama Doncellari zortzicua*. Azken hau “Bilbon, Jose Basozabalen Sillutegiyan 1823. urtian”.

Bertsootan “Catigarijo gogor / iru urtecu”-ren amaiera ospatzen da eta lege barrikoen nagusitasunak ekarritako “abade guichi eta euren guisacuac”, esklaustrazioa, “quinta ta milicijac” “pantete ta registro” eta b.en aurka armetara deitzen. Jartzailearentzat (agian Juan Jose MOGEL apaiza) “Españolen icenic / ez jaque emoten / Bandera oquerretan / diranei sartuten”.

Elizgizonak, baina, ez ziren denak alderdi bateko. Ezagutzen dut, Borja Aginagalde, Zabala-ren Etxeko Artxibo-zuzendariari esker, konstituzioaren agintzapean, aldeko zen baten sermoia. “Fedeagatic, ta Provincia edo Erreinu gustia trastornatu?” behar ote den galdetzen du, eta hori nahi omen zutenei erasten die: “¿Certa dijoe gure Constitucio jaquin-sua religioaren Contra?” edo “ta amarrenac guchituagatic, Elizaco minis-troetan, ta oyen numero, ta errentetan cerbait mudanza eguiñagatic ¿norc ez daqui ez dala ori fedeco gauza?”. Eta azken aholku hau ematen du: “eguin aleguina bere defensaraco, modu onetan izaten guerala onac, justuac, prestuac, eta humillac aguintarientzat mundu onetan, guero izan gaitean betico ceruan: Amen” (Archivo de la Casa de Zabala. S. Sebastián).

1818.ean / aol Auch-en argitaratutako J. A. ZAMAKOLA-ren *Historia de las Naciones Bascas*-en (78 a) agertzen diren herri-subiranotasun

(78 a) Obra honen historiarako bada Bizkaiko Diputazioko Artxiboan, Sala Villarias -en zeuden baina ezezagun eta oraino katalogatugabeak diren paper batzu: “Documentos relativos a la historia general de Vizcaya è indice de la obra”. 1814.eko Abenduaren 2an Auch-etik Jaurerriko Diputatu Nagusiei zuzendu eta Pedro Yraburu-ri bidalitako eskutitz izenpetugabe baina Zamakola berarena dirudien honetan haren idazkien berri ematen da, hots, Madrilén bukatzen ari zen *Historia general de Bizkaya, y confederación de los países Bascos con el imperio de Occidente*, eta Frantziara ihes egin eta zuen helbururako nahi adina berri bildu ondoan (“para justificar la libertad de los Bascos antiguos, y la independencia que han conservado Bizcaya y las otras dos provincias hasta nuestros días, vajo el gobierno protecticio de los Reyes de Navarra y Castilla”) idatzitako *Apuntaciones para la historia general de Bizkaya, y de los países Bascongados de la Cantabria y el Pirineo*. Idazlantxo honen argitaratze gastuak hornitzeko eskatzen dio Yraburu horri, aditzera emanez “que el autor no se mezcla en las materias políticas que oi agitan a la España, sino puramente en las noticias que interesan a Bizkaya y que no fueron jamas savidas por el escritor del Escudo, por el Padre Henao, por otro alguno de nuestro país”. Argitalpenaren egokiera azpimarkatu nahi du: “... si se apresta la publicacion de esta obrita, asegura el autor a V Yll^a que la opinion de la Europa fijará la existencia política de Bizkaya para lo venidero con el uso de su constitucion, y de las antiguas leyes y libertades...”. Zeren eta bestela “...Bizkaya carecerá del unico escudo que pueda resguardarle en lo sucesivo del poder y de la ambicion de otros estados”. Ondoren, arkibidea dator eta, adibidez, besteak beste, honatx erakusburu bat: “Independencia y libertad de estas tres provincias con respecto a sus señores y a los Reyes sus protectores”. Euskarari buruzko hauek ere hor ditugu: “Lengua Bascongada general en España, en la Galia y aun en Italia”, “Hierros que han cometido [los historiadores] por la ignorancia del bascuence”, “Necesidad de estudiar el Bascuence para saber la historia del mundo primitivo”.

eta berdintasunean finkaturiko gobernuera, aintzinako ereduak, jatorrizko denboren aldean garaiko beheraldia, etnia batasuna, lurraldea, hizkuntzaren goraipamena etab. aintzat hartu eta aztertu eta gero, ondorio honetara iristen da R. Basurto Larrañaga irakaslea:

“En la obra de Zamacola encontramos todos los componentes ideológicos que configuran el pensamiento nacionalista. Zamacola no es historiador. Zamacola escribe desde el presente y trata de avalar sus opiniones políticas proyectándolas al pasado, utilizando la historia”.

“...desde el punto de vista historiográfico vasco, constituye un hito en la medida en que constituye la primera historia nacional vasca concebida desde unos supuestos que se podrían considerar nacionalistas, ni más ni menos que los que se estaban haciendo en otros países de Europa por aquellas fechas” (78 bis).

Euskarari buruz, *H.^a de las Naciones Bascas*-ko “Lengua de los Bizcaynos” kapituluak jardun ondoren, honen laburpen den 12 orrialdetako liburuxka bat ere argitara eman zuen Bilbon, 1922.ean: *Perfecciones analíticas de la lengua bascongada. A imitacion del sistema adoptado por el célebre idiólogista D. Pablo Pedro de Astarloa en sus admirables Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua*. Por D.J.A. de Z. año de 1822. En Bilbao. En la imprenta de la Casa de Misericordia, por Felipe Morales y Compañía, año de 1822.

Zamakola “idiologista” politiko bat dugu —ez Astarloa bezala, hizkuntzalari bat—, eta Court de Gebelin-en eritzia jasotzen du, hots, hizkuntza batek herri baten nortasun-agiri eta historiaren erakusle izan behar duelakoa (78 c). Adibidez, euskaran isladatzen dira, Indusikoaren ustez, aldi igaroko euskal errepublika eta federaziopekoen edo lehendabiziko gizakien bertuteak, ilustrazioak ekarritako gaitzen aldean eredu direnak.

(78 b) “Elementos neoclásicos y prerrománticos en la historiografía vasca de principios del s. XIX: J. A. de Zamacola”, R.I.E.V., 1986.

(78 bis) “El análisis de la lengua, dice Court de Gebelin, Dicc. etim. de la lengua lat., fol. 37, no solo sirve para entender los monumentos de la antigüedad sino también para remontarnos a los tiempos desconocidos de la historia del espíritu humano y de los habitantes de la edad de la naturaleza. Por el conjunto de las voces de una lengua antigua, se debe saber el genio de sus pueblos primitivos, la época de sus primeras sociedades, de sus instituciones y ordenanzas, la extensión de sus conocimientos, su modo de vivir, sus pasiones dominantes, su carácter, sus costumbres, la naturaleza de su terreno; la lengua de un pueblo debe ser su código, su historia, sus ciencias y artes, todo debe hallarse en ellos porque el hombre no está organizado para pensar ni saber” (*H.^a de las Naciones Bascas*. Edic. Amigos del Libro Vasco, t. II. 133. or.). “...se puede casi asegurar que la lengua bascongada ella sola había sido en otros tiempos un código religioso y civil donde se aprendían las obligaciones que debían saber los habitantes para vivir en sociedad” (*Perfecciones analíticas...*). Cfr. Astarloa, *Apología*, 308. or.; Erro, *El mundo primitivo*, 1815, XIX. or.

“In der Sprache jedes Volkes finden wir die Geschichte desselben” idatzi zion HAMMAN prerromantikoak G. I. Lindner-ri (1759-8-9. eko gut. Ziesemer, Wiesbaden, KSS).

Bestalde *Historia de las Naciones Bascas*-en, euskaldunei zuzentzean (bestaldekoentzat frantseseratzat omen zebilen), jakinezaz semeei asaben hizkuntza erakusten ez dietenen jokaera gaitzesten du eta *Perfecciones analíticas*-en, idazle opetsurik ez duela eta, guttiesten dutenen aurka ateratzen. Euskaldunen naziotasuna sendotu nahiean eta Maisuaren *Discursos Filosóficos* argia noiz ikusiko zain zegoen artean, haren “idiologiaren” zabalkundeari ekin zion (hilburukoa betetzeko biderik egokiena eritzita, nonbait), bera ez bait zen euskara kontuetan oso jakituna. *Discursos* eta, batez ere, *Apologiaren* 3. parteari jarraituz (“Antigüedad de la lengua Bascongada anterior á la memoria de las historias, probada por la perfección de la misma lengua”) hizkuntza perfektu eta aberatsen arteko bereizketa egin ondoren, euskararen perfektutasun edo, Oihenart-en hitzez, betegintzarreok erakutsi nahi ditu alfabetoan, hitzen egitura eta analogiazko esanahian, silaba eta hitzen ugaltasunean, atzizki eta deklinabide deitzen ditugunetan, artikuluetan, generorik ezean, 206 aditz-jokoetan, bereziki hitzen ordenan... (79) eta lehendabiziko gizakiek beren premiatarako sortutako hitzen aintzinasunean. Halaber, euskara naturaren hizkuntza omen, eritasun eta hauek sendatzeko landare izenetan, maitetasun eta sendimendu adierazpenetan ere *Apologian* (112. or.) esan bezala oparoa delarik.

Azkenik, herri-kanta eta dantza kontuan berebiziko eragina izan zuen D. Preciso ospetsuak gure bertsolaritzaren historian ere behar luke, Aita L. Akesolok dioenez, bere tokia (80).

LAHETJUZAN (1766-1818) Sarako apaiza, A. D. D'Argain eta Ph. Veyrin-i esker dakigunetik, “La Terreur” garaian jazarria (nahiz eta gero bonapartista sutsu), norbaiti gizon bitxia iruditu arren, ospe oneko omen zen. Idazle izateko sortu ez arren, *Essai de quelques notes sur la langue basque par un vicaire de campagne, sauvage d'origine* liburuxkan (81), Baionan izenik gabe argitaratuan, batez ere euskaldunei zuzentzen zaie atseginez entzun eraziz euskararen ohorezko etorkia, Latour d'Auvergne zeltistarekin lehian (“il es probable qu'elle est... mère de toutes celles qui se disent mères”), eta Astarloagandik ikasitako “Bertcec ezutena, lehen-

(79) “...la locución de la lengua bascongada debe ser diametralmente opuesta á la latina y sus hijas. La diferencia de construcción hace al bascuence de distinta índole que a las demas lenguas de Europa, pero no de las de américa, ni de las del interior del africa que tienen la misma construcción que la bascongada, y es que proceden, todas estas, de un idioma primitivo...” (*Perfecciones analíticas*...).

(80) L. AKESOLO “Bertsolaritza Pernando Amezketarraren garaian”. Egan XXIV, 1969, “Mogelek bere lekua merezi du, Zamakola eta Iztueta'rekin batean, gure bertsolaritza aintzat artu ta ezaguarazi dutenen artean”. Ikus baita R. BASURTO-ren aip. art. ere.

(81) Bavonne, Cluzeau frères, 1808. in-12, 24 or. VINSON, Bibliograph, t. I, 173). Ph. VEYRIN “Un bascophile ignoré” G. H. 1923, 1924. ARGAIN, H. D.: “Recherches sur les mœurs, l'origine et l'idiome des Basques...” G. H., 1929.

bicico linguayaren garbitasuna berequin duela”, egilearen euskarazko idazki bakarrean esan eta aski ongi betetzen dena.

Recherches sur les mœurs, l'origine et la langue des Basques, 78 orr., argitaratzeke utziak (Gure Herria, 1929.ean agertua), aditzera ematen digu, besteak beste, prerromantikoek hain gogoko zituzten herri ohitura eta ahozko tradizioak gurean ere Humboldt, Mogel, Zamakola, Iztueta, Lahetjuzan bezalakoei esker bildu zirela. Ezaguna denez, Lahetjuzan-ek, Humboldten —nahiz ez zuzeneko— mandatuz, Saran Axularrez zenbait istorio bildu zuen 1802.ean.

Bestenaz, alferreko litzateke —eta etimologiak lekuko— erretoraren edo honen ezpaleko eta, agian, zenbait ustetan zordun zaion D'Iharce de Bidassouet-engan hizkuntza nahiz historia aztertzeke metodo zientifiko baten bila ibiltzea.

D'IHARZE de BIDASSOUEK-ek (1765-1825) (82), 1825.ean, Parisen, argitara eman zuen *Histoire des Cantabres, ou des premiers colons de toute l'Europe, avec celle des Basques, leurs descendants directs, qui existent encore, et leur langue asiatique-basque traduite, et réduite aux principes de la langue française*. Tome premier. Jules Didot, in-8, 416 or.

Hazparneko apaiza, 1792.ean hegoaldera ihesi etorri eta 10 urtez, jo horra eta hona, berriz sorterrira itzuli baino lehen, ibili zen. Iraultza zale, bonapartista, erregetiar moderatu eta abarren arteko gatazka politiko eta sozialen artean Arroltzemendiko eremutar xeblebrek defentsaliburu ez zientifiko baina bai politiko bat idatzi zuen (honegatik, agian, sortu zuen eztabaida). Bera, dirudienez, aurkakoa izan arren, liburua ultren aldeko zen Errege Carlos X.ari eskainia da, diplomaziaz, herritarren egoera politikoak hala eskaturik, segur aski, Fr. Bartolomek ere horretara ulertu zuela (83). Izan ere, Iraultzak lapurtarren libertateak

(82) J. VINSON *Bibliographie...* t. I, 278. orr. J. DE YRIZAR “Aventures piquantes de M. L'Abbé Diharce de Bidassouet” eta “L'Abbé D. de B.”, biak BSVAP XIV, 1958. Michel ETCHÉVERRY “Une adresse au Roi d'un auteur basque”. G. Herria 1938, XVIII. *Histoire des Cantabres* baino aurretik argiratu zuen “prospectua”k, hala ere, beste izenburu bat daroa (*Recherches sur l'origine véritable et réelle des Escu-Alde Duns...*) eta Baionako Apezpikuari eskainia da. Ikus J. de Yrizar-en aip. artik.

(83) “Por toda la obra del Sr. Abate de D'Iharce se ve (sino es cabilación mía) un ayre de afecto, que parece suponer, haber concebido los bascos al republicanismo. Esto se me figura, que se dijo por el Autor, para realzar el valor de los bascongados en defensa de sus derechos” (*Plauto Bascongado*, Carta IV, Santander 30-8-1827. Frantses Kontsulak karmeldarrari bere eritzia berariaz eskatzen dio). “echantillon curieux de littérature auto-louangeuse et discrètement quémandeuse”, M. ETCHÉVERRY-ren eritziz, “Epître dédicatoire au Roi”-z ari dela. Egia esan, balakuzko txurikatze hau liburu osoan ageri da, euskaldunek Borbondarrei dieten atxikimendua behin eta berriz aitatzean, adibidez.

galerazi eta zergapetu zituelarik, zergok lur eroizpenen arauera izan zitezela eskatzen dio Erregeri (84).

Beste europarrekiko harremanik ezari kaltegarri eritzirik, euskaldunak ezaguarazi nahi ditu: “Pour apprécier un peuple (...) il faut encore connaître ses institutions, ses mœurs, et son langage. C’est par eux que l’on peut juger de son état de civilisation. Les Basques, peu connus jusqu’alors, sont dignes cependant de trouver place dans l’histoire des nations”.

Erakundeak galdu arren, oraino eustaga finkoenak, euskarak, alegia, irauten zuen, nahiz eta guttietsia (85), eta breizera edo breitoieraren zori bera (1825.ean bertan debekatua) izateko arriskuan. Era guztietako harremanak, irakaskuntza, etab. hedatu ahala, frantses hizkuntzarekikoei eta bi hizkuntzak ikasteari onuragarri zeritzon, ikuspegi politiko eta ekonomikotik (86). Gainera, euskara beste hizkuntzekin konparatzeko itxurak egiten baditu, haren berezitasuna azpimarkatzeko dateke. (87).

Bestalde, hizkuntzen ikasketak garaiko denborak iraganekoekin konparatzeko balio omen du. Eta iragana egokien deritzon moduan irudikatzen badu, etorkiak baino areago etorkizunak kezkatzen duelako da.

(84) *Histoire...*, 146. orr. (historiako partearen bukaera da) “A la révolution, toutes ces franchises furent perdues pour le pays de Labourt et des contributions lui furent imposées. La stérilité de son sol ne permet pas toujours aux habitants de payer avec exactitude les subsides; mais, sans chercher à demander que les impôts fussent proportionnés à la valeur des produits territoriaux, qui a diminué de plus de moitié; aussi les descendants directs de ces braves Cantabres, qui se mirent sous la protection de Charles VII, comptent-ils sur la bonté et la munificence de Charles X”.

(85) “L’idiome basque regardé jusqu’aujourd’hui comme un jargon, comme un baragouin barbare, sans principes, et irréductible à ceux des langues modernes, est supérieur par son mécanisme verbal à toutes les langues...”.

Lapurtarren eskubide historikoen zapalketa eta euskararen egoera gainditzeko idazten du *Histoire*: “Tracer l’histoire du peuple basque, faire connaître le génie de sa langue, tel est le but que je me suis proposé en écrivant cet ouvrage, dont je supplie VOTRE MAJESTÉ de daigner agréer l’hommage respectueux”.

(86) “Restés jusqu’à présent comme isolés des autres peuples auxquels ils confinent, et comme étrangers à tout ce qui se passait hors de leur territoire, les Basques pourront désormais par la Grammaire et le dictionnaire que je publie, rentrer dans la grande famille des Français dont leur idiome seul sembloit les séparer. Des relations plus fréquents et plus intimes s’établiront, et cette vaste contrée prendra un essor nouveau. Des ports s’ouvriront au commerce; des ponts, des routes seront construits; l’active industrie viendra répandre l’aisance dans nos villes; enfin l’agriculture, les arts fleuriront dans la patrie de Sertorius et d’Henri IV...” (Preface) Gramatika eta Hiztegi elebidunak euskaldunek berek eskatu omen dizkiote frantsesa ikasteko.

(87) “L’idiome basque n’a aucune similitude avec les langues anciennes et modernes, ni par sa structure, ni par son mécanisme, ni par ses principes. Il n’offre pas le moindre rapport ni indique pas la moindre relation qui puisse faire soupçonner qu’il a tiré des autres langues, tandis qu’au contraire les autres langues attestent par le nombre infini de mots basques...” 281. orr.

Dagoeneko, soma daiteke D'Iharze Sanadon eta Zamakolaren bide-tik abiatu dela Euskal Herria osorik aintzat hartzean, historia idatzi beharraz mintzatzean eta iraganeko herri-gobernukera eta historia laudoriorz betetzean (88). Are gehiago, Bizkaiko geografiaz diharduela, Zamakolaren esku hartzea nabaritzen du F. Bartolomek (89).

Izan ere, probintzia guztien geografiazko deskribapena dator liburuan eta "Description Géographique de la Cantabrie actuelle" horretan Lapurdiko lur, klima, izakera, josteta eta abarrez zerzeladak eskaintzen ditu paisaiaren deskribapen erromantikoak eta bimoduaren kritika ere tartekatuz.

Hizkuntzaren arloan Astarloari darraio, euskara hizkuntza naturala (ez gizakien lanari esker aberastua), eta hizkuntza baten perfektutasunetatik, ondorioz, aintzinekoa dela aterez.

Asia ("asieraco erria", Erroren ondorik, Iztuetak ere, dioenez) alde-tik Uholde ondoren etorriaren, aurretikoa omen ("pourquoi ne seroit il pas la langue crée avec Adam?" 28. orr.). Europako zaharrena, beraz, erbestetar zenbaitek, Court de Gebelin-ek adibidez, onartu bezala.

Hala ere, D'Iharzeren ahoberotasuna eta bitxikeriak alde bat utzirik, egoki litzateke baliagarri diren alderdiak (lapurterazko aditza eta beste) norbaitek azter litzan.

Badirudi D'Iharze, herriaren instruziorako (haurren irakurmen, eta moral edo erlijio arloan), beti irudimen eta jolasbidez eta bi hizkuntzak erabiliaz, beste idazlan batzu ere prestatu zituela, are neurtitzez, agian bigarren tomorako (90).

Nolanahi ere, D'Iharzeren ondorik datozen Lecluse eta Darrigol-ek, adibidez, lan finkoagoa egin zuten hizkuntzaren alorrean.

(88) Euskaldunek beren historia idatzi ezean, daudenak errakuntzez beterik omen. *Histoire*-k ere mito politikoen bildumari (erromatarrengandiko independentzia eta ituna, kantabrismoa, monoteismoa...) frantziar iraultza arte betidanik iraun izan duen (hegoaldean oraino irauten duelarik) herrigobernukera errepublikar, federal edo konfederal, demokratikoa —nahiz eta patriarkala— erasten dio. Euskal nazioaren ezaubideak (hizkuntza, oinarritzko legeak eta noblezia, ohiturak, usadioak, independentzia, libertatea) den guttienik ere aldatu gabe gorde izan direlarik, nazio hori bat eta bera dela (32. orr.) erakusten omen dute. Eta, beraz, Euskal Herri osoa sartzan da *Histoire*-en.

Hizkuntzak ("la charte et le code d'un peuple", 240. or.; conf. *H.^a de las Nac. Bascas*, Amigos del Libro Vasco, t. II, 133. or.) honetarako balio du, hots, "a comparer les mœurs des temps reculés, que l'histoire nous transmet avec celles du siècle ou nous vivons".

(89) *Plauto Bascongado*, 1828 (Fr. Bartolome-k frantses kontsulari) "...alguno de aquellos miserables pedantes fue el que sugirió al Sr. Abate de Iharce la ridícula Geografía de la Bizcaya", 120. or., "para que sonasen en la posteridad... su Indusi... su Zamacola..." 119. or.

(90) *Histoire*, Préface. Cf. VINSON Bibliogr., t. I, 173. D'Iharce, "chef d'Institution libre".

Hegoaldera itzuliaz, karlistada aurretxoan, 1828. urtean Fr. BARTOLOME de SANTA TERESA-k (1768-1835) idatzitako lau gutun Juan Jose Mogeleg argitara eman zituen *Plauto Bascongado (...)* y la impugnación del *Manual de la Lengua Basca impreso en Bayona de Francia año 1826 por Mr. Lecluse...* liburuan (125 or. in-8), non hizkuntza kontuak aparte, Iztuetaren *Dantzac* eta Zamakola eta D'Iharze de Bidassouet-en errepublika eta liberalzaletasunaren aurka ari bait da. Lecluse eta Iztuetaren —Iturriaga ere tarteko ote?— erantzunek polemika biziagotu zuten, noski. Fr. Bartolome, ez da, inola ere, lege barriko elizgizon eta, hortaz, erlijio, Errege nahiz jaunei zor zaien menpekotasunaren ikuspegitik begiratzeko duela, Espainiako Euskal-herriak mugaz haraindikoak baino jasoa-goak iruditzen zaizkio (91).

J. I. de IZTUETA-k (1767-1845)eko *Guipuzcoaco Dantzac*-en hitzaurrean adierazi bezala, “zorioneco gizon lendabizico etara bide zuzenetic igotzea” du asmo, dantza agerikoak moralitasunaren eta aintzinakoen bertuteen erakusle izan bait daitezke, Jovellanos eta Zamakola “jakintsunac” diotenez (92).

(91) *Plauto Bascongado*, 122. or. “El pais bascongado español ha sido tan celoso y magnánimo en conservar sus usos y fidelidad á sus Señores, como enemigo irreconciliable del Republicanismo. Siempre se ha gobernado por sus usos, y por sus superiores. Y no hay egemplo en la historia de que el pais bascongado peninsular se haya insurreccionado contra sus Señores”. Cfr. Erro, *El mundo primitivo*, 1815, 285-286. or.

Bestalde, aitonemetasunarekin zerikusia duen beste arlo batetan ere ez dator bat: “Hablando el Sr. Abate de la laboriosidad, industria... del pais bascongado, sin hacer distinción de sus provincias, dice, que ejercen oficios, ó artes, que á veces pueden humillar á los que las ejercitan; pero, que esto no mengua su nobleza, ó no se reputa por indecoroso entre los naturales bascos (...) Debió considerar, que los bascongados españoles, bizcaynos, guipuzcoanos, y navarros, ni en su pais, ni fuera de él ejercen oficios, ni artes humillantes, ó bajos (...) pagan á los extrangeros franceses, italianos... el trabajo de tales oficios bajos, ó humillantes...” 121. orr. Fr. Bartolome-dantzatzat “Erri zorijoneco oneec badira chito Entzute andicua, bai Europa, ta bai ezaututen dan mundu zabalian eureen Jaquituri-jaan, Legue guintzaan, Asmo barrijeetan, Alcar zaintzaan, Guerra-guintzaan, Sendotasunian, Iraunzalian, Odol noblian, ta Verbaco izatian; Oraindino arguijago, icusgarrijago, ta entzunago dira, Ceruco Sinistute zucenian...” (*Jaungoicoaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen Icasiquizunac*, 1816, III. or.).

Eztabaida ideologiko hark gaurratasunik ez du galdu. Cfr. Aita Akesolo-ren (O. C. M.) “Fr. B. de S. T. y su Plauto Bascongado”. B. R. S. V. A. P., 1968.

(92) “En medio siglo a esta parte ha dado una vuelta redonda el carácter guipuzcoano, y desde este mismo tiempo han ido caminando a pasos agigantados a su decadencia y olvido nuestras antiguas danzas y diversiones” (Aprobación de D. Jose Ramon de Elorza, *Gipuzkoa'ko Dantza Gogoangariak*. La Gran Enciclopedia Vasca, 1968). Lehen ediz.: *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira, edo historia, beren soñu zar edo versoquin Baita berac ongui dantzatzeco iracaste edo instruccioa...* Donostia, I. R. Baroja, 1824, in-8, 165 or.

Iztuetaren lekukotasunaz bada, zorionez, lan bikainik (93), eta beste gabe, euskal lege eta hizkuntzaren arteko loturaz zaldibiarrek idatziarekin amaituko dut:

“Euscara ill ezquero Fueroac ez dira bicico; baina Euscara bici bada, Fueroac piztuko dira” (94).

(93) L. MITXELENA *Iztueta, testigo político de su época*. Euskal Herria 1789-1850. *Actes du Colloque Internat. Etudes Basques*, 1973 du J. GARMENDIA *Obras inéditas de Iztueta*, Bilbao 1968, *Iztueta'ren Olerkiak*, Kardaberaz, 1978. J. ELÓSEGI *Juan Ignacio de Iztueta Echeberria (1767-1845)*, S. Sebastián, 1969, eta beste. *Actes du Colloque International. Etudes Basques*, 1973. J. GARMENDIA...

(94) *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia* liburuaren, hitzaurrean. Donostia. I. R. BAROJA, 1847.

EL BORRACHO BURLADO: TRANSIZIOKO KOMEDIA BAT

Donostia, 1985-XII-20

Jon Juaristi

Hasi baino lehen, eskertu nahi nioke Euskaltzaindiari zuen aurrean hitz egiteko egin didan gonbidapena. Ni bezala, filologia hispanikoaren alorretik datorren norbaitentzat, ohore haundi bat eta, batera, egoera hestu bat da, zeren sartu behar bait dut nirea ez den arazo batean. Barka itzazue, beraz, nire euskara paubre hau eta nire dorpezia.

Karlos IIgn erregea hiltzen denean, 1700eko udazken ilun batean, Espainia guztiak gorpu bat dirudi: soroak eremuak bihurturik, baserriak hutsik, hiriak hondagarri... Koroaren altxorra agorturik dago; pentsamen-dua ito egiten da ortodoxia astun baten pean; eta literaturari dagokionez, zer esan daiteke kulteranismoaren epigonoek doilortzen eta degradatzen duten literatura honetaz? Entzun dezagun zer dioen egungo kritikolari batek, Russell P. Sebold-ek, azken barrokoaren poesiari buruz:

“¡Esto ni Dios lo entiende! De haber seguido evolucionando así el idioma español, hoy en día dos españoles serían incapaces de entenderse aún al darse los buenos días, pues semejante saludo sería imposible sin alusiones a Apolo, Febo, Esculapio, Delos, el carro del día, etc. Tuvo que haber una reforma.” (1)

Erreforma hori Borbondarrekin iritsi zen. Gizarteak bere ahulezi hilkorra gainditu zuen, flakotasunetik indar berriak atereaz. Karlos Hirugarrenaren garaia, historigile baten hitzetan, “un período de expansión y de relativa prosperidad” (2) izan zen. Gobernu onak eta bakeak nekazal ekonomiari osasuna ekarri zion; merkatalgoa berpiztu zen; administrazioa eta ohitura sozialak garbitu eta hobekitu ziren. Kultur alorrean, gutiengo ilustratu bat zen, Europan egosten zenaz arduratua, baina, halaber, bere heredentzia propioari so egiten zion gutiengo aristokratiko

(1) RUSSELL P. SEBOLD, *Descubrimiento y fronteras del neoclasicismo español*, Madrid: Fundación Juan March / Cátedra, 1985, 39gn. orr.

(2) GONZALO ANES, *El Antiguo Régimen: Los Borbones*. Madrid: Alfaguara / Alianza Universidad, 1975, 361-362 gn. orr.

bat, zentzu kritiko zorrotz batez horniturik, iraganaren legatuan elementurik baliotsuenak deskubritzen eta berreskuratzen jakin zuena. Espainiako Ilustrazioa ez zen mimetismo baten emaitza izan. Sebold-ek dioenez, beharrezkoa dugu neoklasizismoaren kontzeptua berriro planteatzea, “klasizismo nazional berri” baten zentzuan. Zeren mugimendu honen sustaiak Errenazimendu hispanikoan bait daude, eta eredu nazional batzuetan: Garcilaso, Erromantzeroa, Lirika tradizionala, etab (3).

Neoklasikoek, beraz, ez zuten baztertu Urregorritzko Mendearen Literatura guztia. Aitzitik, heredentzia hori galbaheztu ondoren, garai haietako bihi onenak berenganatu zituzten, eta, ikusiko dugunez, Peñafloidako Kondea ez da jarrera honetako ejenplu txar bat. Hala eta guztiz ere, hain haundia da azken barrokoaren dekadentzia eta Ilustrazioaren Argiak aldentzen dituen kontrastea, bion arteko etena eta apurketa azpimarratzera makurtzen ohi bait gara. Ulergarria izanik ere, jarrera honek, behin baino gehiagotan, ondorio erratu batzuetara garamatza.

Honelako zerbait gertatu zaio, nire eritziz, euskal kritikalaririk onenetako bati, nire adiskide on eta mirestua den Jesús María Lasagabaster irakasleari, Peñafloidari buruzko artikulua batean (4). Azaldu nahi dut idazlan hau, Lasagabasterrek egiten duen guztia bezala, miresgarria dela eta ideia eta datu sujerentz bezalik dagoela. Bestela, ez nuke kontuan hartuko. Nire aldiz, eta espero dut Lasagabasterrek barkatuko nauela, aitzakitza hartuko dut Peñafloidaren teatroari buruzko hipotesi berri bat plazaratzeko, Lasagabasterren eritzien kontrako hipotesi bat, hain zuzen. Eztabaidatik sor daiteke argia; konformismoak, berriz, ilunbetan uzten gaitu. Nik gomitatuko nuke Lasagabaster adiskidea, eta, noski, zuek guztiok, nire hipotesi hau eztabaidatzera, euskal teatroa hobeki konprenitzeko zerbait erants dezakeelako esperoan.

Hona hemen aipatutako artikuluaen lerroalde batzuk:

Bi autore baizik ez dezakegu aipa, hamazortzigarren mendean zehar, euskal teatroaren sorrerako oinarri kronologikoak antolatzen dituztenak, hain zuzen, Pedro Ignacio de Barrutia eta Xabier María de Munibe, Peñafloidako Kondea, beren arteko harremanik gabe dudarik ez, testuen azpitik dagoen prezeptiba dramatiko kontutan hartzen badugu, oso tradizio desberdinak bait dira bakoitzaren lanak finkatzen dituztenak.

Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizunari* bagagozkio, Barrutiarena baldin bada, jakina, gaurko ikerketen egoerak berea dela onartzera makurtzen bagaitu ere, bere tradizioak, tradizioren bati atxikitzekotan,

(3) RUSSELL P. SEBOLD, *Op. cit.*, 55-56gn. orr.

(4) JESÚS MARÍA LASAGABASTER: “Peñafloida eta Euskal Teatroa”, *Antzerti*, 10, 1985, 2-4 gn. orr.

bere garaiko prezeptiba neoklasikoa baino areago, Erdi Aroko kontentzio dramatikoak gogoratzen dizkigu (5).

Lerroalde hauetan, izaera historiografikozko aurreritzi bat nabari zaio Lasagabasterri. XVIIIgn. mendean ikertu duten beste askok bezalaxe, enfasia berezi bat jartzen du neoklasizismoaren espezifikoa, eta, alde honetan ekitean, ihes egiten dio —inkontzientki, nire ustez— neoklasizismoak berak barrokoz duena. Ondorioa agerian dago: Barrutiaren teatroak ez duela zerikusirik Peñafloredarenarekin, tradizio urruti batean kokatzen delako, Erdi Aroko tradizioan.

Lasagabaster beste tradizio hurbilago batez aherentzi egiten da: tradizio barrokoaz. Kontutan hartu balu, oso diferentea izango litzateke ondorioa. Lehenbizi, ez dut uste Barrutia zegokion korrante edo eskola dramatikoa aurkitzeko Erdi Aroarte atzeratu behar dugunik: ene eritziz, Lope de Vegarekin sortzen den gabon-teatro barrokoari atxikitu beharko genioke (gogora ditzagun Loperen teatro-lan batzuk: *Auto del Ave Maria*, *Nacimiento de Nuestro Salvador Jesucristo*, eta, batez ere, *Los Pastores de Belén*). Jarraitzaile asko izan zuen Lopek, hala Penintsulan nola Amerikako kolonietan. Ia etengabeki agertzen ohi zaizkigu korrante honen obra ezezagunak: aurtan, adibidez, ikertzaile leondar batek, Manuel García Antak, El Bierzoko herrixka batean, Santibáñez del Toral-en, berak aurkitutako *Auto de Navidad* delako bat argitara eman du (6). *Auto* hau XVIIgn. mendeko azken urteetakoa da, idazle anonimo baten lana. Onuragarria izango litzateke, nire ustez, *Gabonetako Ikuskizuna* barroko berantkoraren obra hauekin konparatzea, Juan del Encina edo Gil Vicente bezalako autoreengana joatearen ordez.

Baina, beste alde batetik, ez dago, benetan, harreman batere Peñafloreda eta Barrutiaren teatro-lanen artean? Denok gogoratuko duzue Gabriel Aresti zenaren teoria hura, *Gabonetako Ikuskizunako* Barregilea Peñafloredari *Gabon-Sariak* osatzean lagundu zion bertsolaria izan zitekeelako hipotesi ia detektibesko hura (7). Ez noa orain puntu hau ukitzera: ez deritzat garrantzitsua pertsonai honen existentzia historikoari, literatur harreman bat frogatzekotan, behintzat. Baina aintzakotzat hartu beharko genuke Jon Kortazarrek, duela urte pare bat, egin zuen sujerentzi bat: "... funtsean —dio Kortazarrek— representazioko une berezi batean, bere emaztearekin gaizki eramaten zen eta publikoak ezagutzen zuen pertsona bat aipatu zezakeen pertsona bera da..." (8) Honek Arestirena

(5) *Ibid.*, 2gn. orr.

(6) MANUEL GARCÍA ANTA: *Auto de Navidad. Obra anónima del siglo XVII*. León: Lancia, 1985.

(7) GABRIEL ARESTI (ed.) *Teatro Zaarra*, s. I., Auspoa Liburutegia, 1965, 12-13 orr.

(8) PEDRO IGNACIO DE BARRUTIA: *Gabonetako Ikuskizuna. Argitalpen kritikoa, itzulpena eta zenbait ikerlan*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia. Argitalpen Saila, 1983, 146 gn. orr.

baino haruntzago doan beste hipotesi bat proposatzeko bidea zabaltzen digu.

Ezin daiteke uka *Gabonetako Ikuskizunako* episodio batek (261gn. eta 286gn. lerroen artekoak) eta *El Borracho Burladoko* IIgn. eta IIIgn. agertaldiek antzekotasun harrigarri bat aurkezten dutenik. Bietan kontatzen zaigu senar mozkortu baten eta haren emaztearen arteko errierta bat. Barrutiaren lanean, gainera, emazteak senarra kolpatzen du. Bi motibo hauek aurki daitezke Europako teatro txaribarikoaren forma ezagun guztietan (9). Ba dakigu gainera, Hérèlle-ren estudioen bitartez, Zuberoako fartsa txaribarikoek beste jenerozko teatro-lanak kutsa edo kontamina ditzaketela: (10) Adibidez, fartsa txaribariko bat, *Ardeatina eta Ludovina, Alexandre* pastorean txertatu da; beste bat, *Planta eta Eleanora, Phantzart* ihauteriko komediaren zati bat bihurtu da ere. Zilegi bekit suposatzea, analogia bati jarraikiz, Peñafiorida eta Barrutia jostirudi edo entremes txaribariko batez balia zitezkeela, aipatutako agertaldiak osatzekotan. Ba dakit zaila dela Hego Euskal Herrian teatro txaribariko bat existitu zela frogatzea. Zaila bai, baina ez ezina. Jesús Antonio Cid irakasleak, balada eta ipuin batzuren estudio konparatibo baten bidez, frogatu du Hego Euskal Herrian fartsa txaribariko bat behintzat ezagutzen zela, *Hildebrand Zaharraren fartsa*, hain zuzen. (Cid-en lana *Anuario del Seminario de Filología "Julio de Urquijo"* delakoaren hurrengo zenbakian agertuko da). Hego Euskal Herriko ahozko tradizioaren azterketa sakon batek tradizio teatral galduei buruzko datu berri gehiago ekarriko lituzke, dudarik gabe.

Baina orain arte esandako guztiak ez du azaltzen zergatik deitu diodan *El Borracho Burladori* "transizioko komedia". Planteatu nahi nukeena zera da: Peñafioridaren komedia honetan hiru tradizio desberdinen arteko tensioa nabari dela, nahiz haietako batek, neoklasikoak, besteei bere forma eta oreka propioak inposatu. Hala ere, *El Borracho Burladok* aurkezten du, mamiaren mailan, munduaren ikusmen arkaiko bat (barrokotik heredatua). Formaren mailan, berriz, prezeptiba edo arau neoklasikoekiko urruntze edo aldentze bat nabarmentzen da, forma modernoago baten bila doan estilo bat.

Agerian dago komedia hau teatro neoklasikoaren oinarritzko hastapenari atxikitzen zaiola: didaktismoari, noski. Guillermo Carnerok seinالاتu duenez, didaktismo hau bi premisen gainean sostengátzen da: lehena, ikuslearen psikologiaren ideia oso primitibo bat (Hiru Unitateen araua sortera zuena, hain zuzen). Bigarrena, Aintzinako Errejimenaren ideo-

(9) NATALIE Z. DAVIS: *Les cultures du peuple*. París: Aubier Montaigne, 210-1979, 210-250 gn. orr.

(10) G. HÉRÈLLE: *Etudes sur le Théâtre Basque. Le Théâtre Comique*. París: Honoré Champion, 1925, 156-159 gn. orr.

logia hedatzeko eta mitifikatzeko asmoa". Itxuraz, bi premisa hauek betetzen ditu Peñafloridaren komediak: egileak deklaritzen du, hitzaurrean, Hiru Unitateen araua gordetzeko prest dagoela. Beste alde batetik, markesaren pertsonaiak Txanton Garrote hordia zuzentzeko eta eskarmentatzeko funtzioa betetzen du, despotismo ilustratuaren ideologiak eskatzen duenez. Aristokraziak ohituren garbitasuna begiratu eta zaindu behar du, berari bait dagokio Poliziaren funtzioa, herri guztiaren onerakoan. "Dena herriarentzat, baina herriarekin kontatu gabe".

Hala ere, ezin daiteke esan *El Borracho Burlado* Hiru Unitateen aplikazio oso ortodoxoa denik. Egilea bera, hitzaurrean aitzaki eta desenkusa batzu ematera beharturik bide dago. Ikus dezagun, adibidez, zer dioen Lekuzko Unitateaz:

...pues si bien es verdad que desde la Tienda del Zapatero pasa la Scena a los dos quartos del Marques, suponiendose que el Zapatero vivia en los quartos bajos de este Cavallero, no se debe reputar por mutacion del Lugar.

Azalpen honen bidez, Peñaflorida kritika posible baten aurkako ezkutu edo babes bat lortzen saiatzen da. Baina honelako azalpen bat premiazkoa baldin bazaio, hori da aipatutako araua hain fidelki gorderik ez dagoelako. Egia esan, Peñafloridaren garaian, honelako azalpenak ugaltzen dira, baina ez neoklasikoen artean, jenero berri baten testuinguruan baizik: Komedia Sentimentala edo Komedia Burjesaren testuinguruan, hain zuzen.

Frantzian, jenero honek bere konsagrazioa erdiesten du Diderot-on bi komediekin: *Le Fils Naturel* (1757) eta *Le Père de Famille* (1758). Espainian, Komedia Sentimentalaren ordezkari nagusia Jovellanos dugu, bere *El delincuente honrado* komediarekin (1774). Guillermo Carnerok dioenez, Jovellanos eta Peñafloridaren joera dramatikoak ez dira hain desberdinak. Hona hemen nola tratatzen duen asturianoak Lekuzko Unitatea bere aipaturiko komedian:

Dijimos antes que la Comedia Sentimental respeta las Unidades neoclásicas. Esas Unidades tenían un sentido estricto o teórico, y uno amplio, que es el que Jovellanos emplea. En cuanto al lugar, toda la acción ocurre en el Alcázar de Segovia, aunque en tres lugares distintos (...) Para mantener la Unidad de Lugar es preciso suponer que en el Alcázar están las dependencias judiciales, la prisión y la residencia del Gobernador y la de su hija y su yerno. Jovellanos desliza algunas observaciones que lo demuestran (12).

(11) GUILLERMO CARNERO: *La cara oscura del siglo de las luces*. Madrid: Juan March / Cátedra, 1983, 19 gn. orr.

(12) *Ibid.*, 57-58 gn. orr.

Formari dagokionez, beraz, *El Borracho Burlado* hurbiltzen zaio Diderot-ek eta Jovellanos-ek lantzen zuten Komedia Burjesari. Mamiaren arazoa ez da hain argi, Peñafloridak berak oharpen engainagarri bat sartzen bait du hitzaurrean, dudarik gabe, kritikalariei nahasteko asmoz:

Se muy bien que hay una Comedia (o no se si Opera Comica) en Frances de una idea muy parecida a la de esta; pero protexto que ni la he visto, ni la he leydo; y lo que mas es, no se con certeza su titulo, mucho menos su autor.

Ba dakizue nola kezkatzen duten Peñaflorida Kritikalariei eritzi posiblerik, eta nola kezka hau nabarmentzen den hitzaurrean zehar. Ba dirudi Kondeak, oharpen honekin, adarra jo nahi ziela, irtenbide gabeko kale batean sar zitezen. Beharbada, *El Borracho Burladori* beste opera komiko bat erantsi nahi zion, *Los Críticos Burlados* titulutzat har zezakeen opera bat. Kondearen oharra engainagarria da, zeren egiazko iturria estaltzen eta ezkututzen bait du. Iturri hori, E.A.Poe-ren ipuineko eskutitz ohostua bezala, bistan zegoen, mundu guztiaerentzako ageri.

Tirso de Molinaren nobelarik famatuena bait da, *Los tres maridos burlados* titulua daramana, *Los Cigarrales de Toledo* nobela-sortako bosgarren eta azkena. Argudioa, hitz gutitan, ondokoa da: Madrilgo hiru andre ezkondu konde batengana doaz, berak, Paris-en judizio berri batean bezala, hiruren arteko bati eraztun bat eman diezaion. Kondeak, orduan, proba bat proposatzen die: hirurak beren senarrez burla daitezela. Burlarik zorrotzenaren egiteak eraztuna hartuko du saritzat. Andre bat, senar jeloskor batekin ezkondua, parada honetaz baliatuko da senarraren akatsa zuzentzeko, komentu baten priorea den bere anaia baten laguntzarekin. Senarrak afarian edaten duen arnoan narkotiko bat isurtzen du. Jeloskorra lokarturik erortzen delarik, komentura daramate. Han ilea moztuko diote eta habito bat jantziko ere. Gizona esnatu ondoren, fraileek komunitatearen kide bat dela sinestarazten diote, eta, hilabete batean zehar penitentzi gogor asko inposatzen ere. Prioreak haren jelo-siaz damaturik dagoela ikusten duelarik, lotarazten eta etxeratzen du berriro.

Tirsoren jeloskorrak eta Txanton Garrotek beste ezaugarri komun bat dute. Jeloskorra ere arnozale bat dugu, ondoko perpausetan nabari denez:

Diéronle después de cenar, y la bebida fue de vino, que no lo había probado desde el día primero de su transformación, penitencia más áspera para él que todas las demás.

Egitura narratiboa, bi kasuetan, berdina da: bere senarraren akats bat higuintzen duen andre bat pertsona boteretsu batengana doa, laguntza-
ren eske, bere gizona bide zuzenera eramateko. Senarra, lokarturik, emaz-

tearen aliatuaren etxera eramaten dute. Esnatzean, nortasun berri bat ematen zaio. Gero, penitentzi bati meneratzen diote. Penitentzi honetan barauak oso paper garrantzitsu bat jokatzeko du. Damutu ondoren, bere etxera itzultzen uzten zaio.

Bere iturriaren bitartez, *El Borracho Burlado* Barrokoaren kosmobiosioari lotzen zaio: errealtatea eta itxurapenaren arteko aldakuntza etengabeari, nortasunen iraupegabetasunari, teatrotasunari. Zentzu honetan *La vida es sueño* delakoarekin zerikusi gehiago du, Moratinen komediekin baino. Eta Quevedoren *Los Sueños* gogoratzen digu ere: azken honetan gertatzen den bezala, Txanton Garroteren aldaketa Infernuetarainoko beheraldi bat da, *katabasis* bat. Don Diegoren jauregian, Txantonek Infernu klasikoaren tormentu ezagunenetako bat jasaten du: Tantaloren tormentua. Alde honetan, Aintzinako Errejimenaren ideologia argiro erakusten zaigu: Pertsona bakoitzari leku bakar bat dagokio gizartean, bere *locus naturalis*, estatu bat, estamentu bat. Handik ihes egitea zoratasuna dateke. Zoratasun sublime bat Quijote-aren kasuan, kriminala Segismundorenean. Baina beti, bere leku berezitik alde egiten duena itzalen erresuman erortzera kondenaturik dago. Honela, paradójikoki, Markesaren bizimoldea ez da parabisu bat Txantonentzat, infernua bera baizik.

Beraz, *El Borracho Burlado* hiru tradizio, hiru garai batera biltzen du: erroak Barrokoan baditu, etorkizunaren drama burjeserantz abiatzen da, orainaldi neoklasikoan zehar. Bere egilearen izaera isladatzen du, honela izan bait zen Xabier Munibekoa: Ilustratu bat, bere garaiko desfioei erantzuteko gai, progresoaren zalea, baina, aldi berean, tradizioaren defendatzaile sutsu bat.

Esan dut.

GABON SARIAK

(Berrirakurketa oharrak)

Donostia, 1985-XII-20

Juan San Martin

Gaurko hau Peñafiorida kondearen *Gavon-sariac* deritzan hotsaldien berrirakurketatik jaso ditudan oharrak baizik ez dira, lehengoaren jarraipenez. (1)

Denok dakigu nolako zalantzak sortu zituen liburuxka horrek egiletzaren jabegoa zela eta. Jose Manterolarentzat ez zen inolako dudarik *Gavon-sariac* lanaren egiletaz, 1883an esan zuenez “obra indudablemente del mismo insigne Conde de Peñafiorida” (2). Gaur egun inork ez du zalantzarik “Sor Luisa de la Misericordia” izenordez bere burua gordezten zuena Xabier Maria de Munibe, Peñafiorida kondea zela, J. Inazio Telletxea Idigoras eta A. Lino Akesoloren ikerketak erakutsi zigutenaren ondoren.

1762an argitaratu zen *Gavon-sariac*, hein batean birreztu nezake gure ilustrazioaren sarrerako obratzat. Ordurako norbaitzuk antzerkitzat joa zuten. Agertu ere hala agertu zen laugarren edizioz *Teatro zaarra* zeri-

(1) Lehen irakurketa oharrak 1974ko Abenduaren 27an eman nituen Azkoitiko Insausti jauregian, Peñafiorida kondea jaio zen etxe berean eta **Euskera** agerkarian argitaratu, XX, 1975, 453-58 orr. Geroago *Literaturaren inguruan* (1980) deritzan liburuan birargitaratua, 57-67 orr.

(2) *Euskal-Erria* aldizkaria, VIII. tomoa, 306 orr. Jose Manterolak birargitaratzeko asmoz bildua zuena bera hil geroztik agertu zen. Bigarren argitalpena bost zatitan eman zen “Curiosidades bascongadas” zeritzan sailean, eta horren xehetasunetan hutsunea du J. Bilbaok *Eusko Bibliografia* obran, V. tomoko 450 orrialdean (*Misericordia* izenez dator eta geroztik *Suplemento* 1961-1975, X. tomoa osatzen duenean, Munibe Idiaquez-en biltzen ditu *Gavon-sariac* lanari buruzko ikerketak, baina obra horri fitxa berri bat Muniberen izenean idekitzea ere komeni zen), *Euskal-Erria*-n zatika izan zuen bigarren argitalpenaren xehetasun batzu falta dira, baina ez da harritzekoa, zeren aldizkari beraren aurkibidean ere azken zatia hutsunea nabari baita. Beraz, osagarritz bihoa honako argitasun hau: *Euskal-Erria* 1889, XX. tomoan, bigarren argitalpenari hitzaurrea 54-6 orr.; lehen argitalpenaren hitzaurrea 73-5; hotsaldien testua bera 112-15, 140-41, 170-76 eta 200-01 orrialdeetan. Hirugarren argitalpena *Egan* aldizkarian 1956. urteko 5-6 zenbakiaren 31-44. orrialdeetan.

tzan bilduman (3). Baina, nik, literatura jeneroz eritzi hertsia ematea baino nahiago nuen egilearen esanari jarraituz "Otsaldia" eta agerraldia deitu, izatez antzirudi kantatura mugatzeko obra denez, Gabriel Aresti zenak besterik uste bazuen ere.

Patri Urkizuk oso ondo egin du, *Euskal Antzertia* lanean (4), Peñaflo-rida kondeak Sor Luisa izenez eman zuena, Joseba A. Lakarraren eritzia-ri jaramon eginez, bilantziko gisako jeneroan sartzea (5). Egia esan, 1974ko Abenduaren 23an Donostiako *Hoja del Lunes* asterkarian "Gabon kanta-k Literata zaharrean" zeritzan artikuluan eman nuen lehenik "Villancico jenerotzat, gero *Gogoz* liburuan birretsia (6). Han adierazten nituen kanta zatiak hiritarrangandik sortuak zirenez. Besteak beste, han zetorren *Gavon-sariac* deritzanetik hartutako bertso bat ere, zortziko txikian egina, Berri Onaren eredugarri:

*Ezagun du munduak
Jesus jaio dena;
Ain dago mudatua,
Ez dirudi lena;
Len guzia zan pena,
Negar, naigabeak,
Ta oraiñ atsegiñ, gusto,
Algara, parreak.*

"Villancico" (= hiritar) bezala hartzekoak dira 1755ean Bilbon Fr. Mar-tin Oarabeitiak eginak eta 1691an Donostian Nikolas Zubiak argitaratuak, baina horiek ez ezik baita ere Ziburuko Joanes Etxeberrik 1630ean eman zuen *Noelac* ere, neurri handi batean behintzat. Testamentu Berrian mugatzen direlarik, berez dakarte artzaintza munduko giroa, baina hiritar-rak eginak dira. Eta, Peñaflo-rida kondea, Testamentu Berriaz ez ezik XVIII. mendean Ilustrazio mugimenduak herrien anaitasunez ekarri zituen ideaz ere baliatzen da. Honen adibidetxo bat baizik ez da ordurarte Europan sineskaitz zen anaitasunaren alde agertzea, beste zenbait eritzi-ren artean honako hau esanaz:

*Portugesaz laztanga
Gaztelaubarekiñ*

(3) *Teatro zaarra*. Auspoa Liburutegia, 1965. Pedro Ig. Barrutiaren *Gabonetako ikuski-zuna* eta Peñaflo-rida kondearen *El borracho burlado*-rekin batean zetorren, oraindik Sor Luisa de la Misericordia-ri egiletza leporatuz.

(4) Patri Urkizu, *Euskal Antzertia*, 1984. Ikus obra honi buruz *Egan* aldizkarian, 1985eko 3-4 zenbakia-oren 198. orrialdean eman nuen aburua.

(5) J.A. Lakarra, "XVIII. mendeko zenbait bilantziko berri", *Anuario del Seminario de Filologia Vasca "Julio de Urquijo"* XVI, 1982, 72. orr.

(6) *Gogoz*, 1978, 37-42 orr. Joseba A. Lakarrak hura ezagutu balu, ohartuko zen *Egan*-en "XVIII. mendeko Gabon kanta-k euskal literaturan", 1977. urteko 1-6 zenb., 102-06 orr., non oinarritzen nintzen.

GAVON-SARIAC

E D O

AURTENGO GAVONETAN,
Azcoytico Eleiza Nagusian Cantatuco
diran Gavon-Cantaac edo
Otsaldiac.

*Puer natus est nobis,
Venite adoremus.*



AZCOYTIN

Misericordian MDCCLX

transilluminata

Baina, gai hauetan azken boladan izan diren aurkikuntzak kontutan harturik, oraindik ez dagokigu bilduma *exhaustivo* horietakorik egitea eta orain aurkeztzen dudan saiotoxa adibide izan bedi. Hala ere, zalantzarik gabe bilantziko jeneroan ezartzekoa da *Gavon-sariac* delako lana.

Jenero hortako adibiderik garbiena, eta era berean politena, baita ere Gabon kanta hiritartuaren lekukotasunik argienetakoa, Azkueri Elgoibar-ko Altzolatik Mariano Iriondok igorri ziona dateke (7), non olagizon eta arotz aginaldo eskean agertzen diren:

*Ai au gabaren preziosoa!
Jesus jaio da Belenen.
Etxe onetan sartu ote dan
bila gabiltza beronen.*

*Erdiok gara olagizonak
beste erdiok arotzak;
limosnatxo bat egitekotzat
bigundu bediz biotzak.*

Joan zen mendearen azkenaldera galdu ziren Elgoibarren ola-zaharrak eta kanta horren sustraiak haruntzago aurkitu beharrezkoak ditugunez, ez litzaiguke batere harrigarri idurituko XVIII. mendetik datorkigun herri kanta izatea.

Peñaflorida kondearen *Gavon-sariac* bilantziko jenerotzat hartuz, hiritarrak egiteaz gainera ilustrazio mugimenduaren ideetakotzat finkatu behar dugu. Obraren bukaerako “Kopla jostalluak” direlako bertsoetan aurkituko bai ditugu Peñaflorida kondeak bere ekintza pertsonalez ondoko urtetan bete eta betearaziko zituen ideiak.

Bi menderen atzerapenez Europara begira jarri garenok ez dugu ahaztu behar Xabier Maria Munibe Frantzian ikasketak egin izatez aparte Enziklopediaren zale zela eta bazuela herbesteetan harremanik garai haretako aurrerapenen berri jakiteko. Ikuspegi horretatik sortu ziren Euskalerriko Adiskideen Elkarte eta Bergarako Mintegia, era berean ideia horiekin Espainia guzira begira zabalkundea lagunduz. Besteak beste, Jovellanos-en Egunkaria dugu horren lekukorik egokienetakoa, hainbat Real Sociedad Economica sortzeaz gainera.

Aurten, heriotzaren bigarren mendeurrena delata eratu diren hitzaldietan eman da argibiderik aski. Ez dut hortaz ezer gehitu beharrik. Baina bai iragan larunbatean (hil honen 14an) Guido Brunner Alemania Federalesko Enbajadore jaunak gogorazi ziguna, Gilen von Humboldt-en

(7) R. M. de Azkue, *Cancionero popular vasco*, urte gabe, 915. kanta, 1.072. orr. Handik jasoak ikus *Gogozen* 32 orr.

idazkiak gure herriagan ematen zuen europar maila. Izan ere, hala behar geografiaz Pirineoaren bi hegalelara zabalduz Frantzia eta Espainia gaindi aurkitzen den Euskal Herrian.

Hori horrela delarik, Jesusen Berri Ona, Bibliako zenbait pasartez baliatuz, aspaldi baztertu samar zeuden ideiak berrituz eta batez ere ilustradu gisa berrikuntzen mezua zekarren Peñafiorida kondeak. Bere *Gavon-sariac*, ordurarte ezagutzen ziren Gabon kantak baino maila goragoak dira jakituriz. Ideak ez ezik bertsoak ere halakoak ditu. Duela zortzi urte hala agertu nuen: Bere obra jakitunago batena zela, ordurarte ezagutzen ziren Gabon kantekin konparatuz. Bestalde, segidilla eta aria politak zituela, baina bertako koplak ez txarragoak. Egileak hitzaurrean agertzen zuenez, Martin Beltz izeneko batek lagundu zion bere bertso-gintza hortan (8). Baina, nor zen Martin Beltz? Sor Luisa bezala Munibe berak asmatutako pertsonaia ote zen "agure bertsolaria"? Hor gelditzen zaigu zalantza (9).

Bilantzikoak, hiritarrak kantatuarren, maizenik gortesanoak egokituak izaten ziren, eta ba dirudi Peñafiorida kondearen amets-irudimeneko fikzio zela Martin Beltz. Aitzakia horrekin egileak bere burua gordez. Baina, obrak Sor Luisa egiletzat bazuen burua gorde beharrik bai ote? Zalantzan jartzekoa da. Horregatik, ez dugu ziurtasunez bermatzerik. Argitzen ez den artean, nolabaiteko laguntza izan ziteken ustea geldituko zaigu eta pentsatzekoa da Segidilla, Aria eta Kopla handiak hobeak direnez, era berean *El Borracho burlado*-ko bertsogintzaren gainetik daudenak, ez dugu lotsarik izan behar duda hori aitortzean. Naiz eta bigarren irakurketa honek Peñafiorida kondearengana gehiago hurbildu eta edozein autorek bere obra barruan holako gora-beherak izan, hor gelditzen zaigu zalantzatxo hori.

Munibe, idea berrien mezulari agertzean ordea, hor bai ez dugula inolazko dudarik. Arestian aipatu bezala, hirugarren hotsaldiko "Kopla jostalluak" ditugu ideia horien lekukorik hoberenak. Hor bai daude geroago gure "zalduntxoak" aurrera emango zituzten ekintza eder haien ideiak. Horregatik kokatzen dut *Gavon-sariac* bilantzikotzat eta Ilustrazioaren sarreran. Ez ordea Neoklasiko estiloaren mailan, zeren bere egitura eta irudien erabilera forma zaharragokoak bait dira, *El borracho burlado*-rena bezala. Euskal literaturan Neoklasiko egitura, izen honek duen zentzuan, beranduxeago hasiko zen. J.A. Mogelen *Peru Abarka* eta Paskual Iturriagaren alegiekin.

(8) *Bidez*, 1981, bilduma liburuaren 35-40. orr. Puntu honetan argi gelditu bedi Martin Beltzen laguntza egileak berak aipatzen duela, eta Otsalarrek hura jaso baizik ez zuela egin. Beraz, inoiz ez zuen horri eusteko edo hori ukatzeko asmorik, J.A. Lakarrak aipatutako lanaren 73. orrialdean dioen bezala (*Anuario del S.F.V. "Julio de Urquijo"*, XVI, 1982).

(9) *Euskera*, XX, 1975, 455 orr. Eta *Literaturaren inguruan*, 1980, 61 orr.

Bukatzeko, hara hemen Berri Onaren arabera, gure ilustratuaren azken agurra:

*Auxen bai dala egiaz
Denbora urrezkoa,
Ta ez len koplari zarrak (19)
Erausitakoa;
Orain aien amesak
Egia sorturik,
Ekusten ari gera
Pozez zoraturik.*

*Baña kanta berri au
Geitxo luzatu da,
Nere eztarri tristea
Ia urratu da;
Naiago det ixildu
Katarratu baño;
Agur, nere jendeak,
Urrengo urteraño.*

(10) “Koplari zarrak” dioenean profetak adierazi nahi du.

FRANZISKO XABIER MARIA MUNIBE ETA IDIAKEZ PEÑAFLORIDAKO IX. KONDEAREN GENEALOGIAZ

Donostia, 1985-XII-20

Jose Antonio Arana Martija

Euskal Herriaren Adiskideen Erret Elkartearen kide naizen aldetik, eta erakunde honen sortzailearen heriotzaren bigarren mendeurrena ospatzen dugularik, Euskaltzaindiak egun honetan antolatu duen omenaldian Euskaltzain Urgazle gisa parte hartzea dagotik. Gai bat aztertzea eskatu zidan Aita Villasantek eta Munibetarren Aikoa ateratzea iruditu zitzaidan, Juan Karlos Guerraren Artxiboan azaltzen diren datuak taiutuz. Egia esan, Guerraren eskuizkribuen artean, badago familia honen leinua ematen duen aikoa, metro bat luzeran eta hirurogei zentimetro zabaleran daukan paper handi batetan idatzia. Baina gaur gomutaratzen dugun pertsonaiak bazeuzkan Munibetik zetxekion etxaguntzatik aparte beste batzu ere (1) eta jabego hauetatik aparte Peñafloridako Konde titulua, jatorriz Muniberen haritik ez zetorkiona.

Sarri askotan, Peñafloridako Kondea aipatzen dugunean, Erret Elkartearen sortzailea datorkigu gogora. Baina titulu hau erabili dutenak gehiago izan dira, hamalau gutienez, eta erreskada horretan zein den gure omenduari dagokion tokia zalantzan jartzen da. Leandro Silvan jaunak, esate baterako, VIII. Kondea izan zela diosku eta eritxi berekoak dira idazlerik gehienak (2). Guerrak, oster, bere aikoa, eta Juan Jose Mugartegik IX.a zela diote. Badago, beraz, puntu honetan zalantza. Errakuntzaren arrazoia honetan datza ene ustez: izen berdina zeramaten aita-

(1) Julián Martínez Ruiz: *Los mayorazgos del Conde fundador*. BRSBAP, 1969, I, 119-164 orr.

(2) Leandro Silván: *La vida y la obra del Conde de Peñaflovida*. San Sebastián, 1971, 9 orr. Juan Vidal-Abarca: *Historia Genealógica de los Condes de Peñaflovida*. BRSBAP, 1985, 3-4 koadernoak, 543-755 orr. 1986.eko Uztailaren 12an eskuratu nuen Boletinaren ale hau eta Vidal-Abarca jaunaren lana irakurtzeko aukera berandu heldu zitzaidan. Nere "Euskera"-rako lantxo hau 1985.eko Abenduan idatzi nuen eta Euskaltzaindiaren bilera egunetan Ameriketako nengoen, Aita Villasantek irakurri zuen. Vidal-Abarcaren lana oso ona eta ondo dokumentatua delakoan nago.

semeek, Franzisko Xabier Munibe eta Idiakez, eta aitari zegokion VIII. titulua eta IX. semeari. Baina astitsua azter dezagun arazo hau.

Muniberen jatorria eta Peñafloidako kondeen haria 1669. eko Urtarrilaren 7an bateratu zituen Martin-Manuel Munibe eta Aranzibia. Aita-gandik zetorkion, jakina, Munibe familiakoa izatea; baina Peñafloidako titulua Jordana-Manuela Aranzibia-Sasiola eta Eginu amarengandik zetorkion. Bi bide hauen xehetasunak emango ditut hurrengo lerroetan.

I. MUNIBETARRAK

Juan Karlos Guerrak utzi zigun aikoa hartzen dut hemen emango ditudan azalpenen ardatz gisa, beste iturri batzuetatik datu zehatz pila bat gehituz.

I.1. **Santxo Martinez Munibe**, N. Basabe andrearekin ezkondu zen eta ezkontza honetatik jaio zen:

I.2. **Juan Munibe Basabe**. 1552an Maria Ortiz Otaolea andrearekin ezkondu zen. Andra hau Lope Ibañez Otaolea eta Maria Ortiz Larrabetzua ezkontzatik sortua zen.

I.3. **Juan Munibe Otaolea**, 1595an Jordana-Manuel Aranzibia-Sasiola eta Eginu andrearekin ezkonduak, Markina-Etxebarriko Jauregia eraiki zuen 1610-1612 urteetan eta 1619an hil zen. Bost neba-arreba izan zituen: Pedro, Migel, Lope, Hernando eta Maria Munibe Otaolea, Pedro Lopez Oronzua jaunarekin ezkondu zena. Jordana-Manuel emaztearen bidez txertatu zen Munibe familian Peñafloidako kondeen leinua, titulu honi dagokion erreskadan ikusiko dugunez. Eta horrez gainera, andra hau izan zen, senarra hil ondoren, 1619an Munibetarren etxaguntza sortu zuena, Markinako Pedro Urrusolo eskribauaren agirian finkatuz.

I.4. **Martin-Manuel Munibe eta Aranzibia-Sasiola**, Santiagoko Zalduna, Zezilia Axpe eta Zarate andrearekin ezkondu zen 1620an. Amaren bidez lortu zuen honek 1669.eko Urtarrilaren 7an Peñafloidako Konde titulua, erreskadan IV. izanik. Bost neba-arreba izan zituen honek ere: Juan, Maria, Azkoitian monja izan zena, Pedro, Antonia eta Sebastian. Denetatik famatuena Pedro Munibe Aranzibia-Sasiola izan zen. Markinan 1603.eko Urriaren 29an jaioa, Gaztelako Erret Kontseilukoa izan zen.

I.5. **Juan-Franzisko Munibe eta Axpe**, Calatravako Zalduna, Isabel Ugarte eta Hurtado-Zaldibar andrearekin ezkondu zen 1649.eko Uztailaren 31an. Gonzalo Ibañez Ugarte eta Ana Maria Hurtado-Zaldibaren alaba zen emaztea. Juan Franzisko, Peñafloidako V. Kondea izan zen, eta hamaika neba-arreba izan zituen: Teresa, Martin, Lope-Antonio, Alcantarako Zalduna, Maria Leonor Garabitorekin ezkondua, Jordana-Maria,

Martin Oronzua Barroeta jaunarekin ezkondua, Kristobal Barroeta, Calatravako Zaldunaren gurasoak, Ana Maria, Juan G. Axpe eta Munibe jaunarekin ezkondua, Pedro, Inazio, Gertrudis, Jose Ubillarekin 1661an ezkondua, Antonia, Zezilia eta beste Pedro bat. Denetatik famatuena Inazio Munibe eta Axpe izan zen, San Bartolome Ikastetxeko ikasle nagusia, Markinako Karmengo Komentua sortu zuena eta 1666an Ziortzako Abade izatera iritsi zena.

1.6. Franzisko-Antonio Munibe eta Ugarte, Peñafloidako VI. Kondea, Ana-Luisa Idiakez eta Egia andrearekin ezkondu zen 1668an. Franzisko Idiakez eta Manrique de Isasi eta Luisa Egia eta Irarraga senar-emazteen alaba zen lehen emazte hau, bigarrenez ere ezkondu bait zen Franzisko-Antonio Dionisia Jauregi eta Salazar andrearekin. Bost neba-arreba izan zituen: Martin, Calatravako Zalduna, Guda Kontseiluko Dekanoa eta Valdeliriosko I. Markesa, Andres, Valdeliriosko II. Markesa, Franzisko, Teresa Tello Espinosa andrearekin ezkondua eta Valdeliriosko III. Markesa, Ana, Diego Messia eta Torres jaunarekin ezkondua eta Sierrabellako III. Kondea, eta azkenez, Juan, sasi-semea.

1.7. Martin Munibe Idiakez, Peñafloidako VII. Kondea, ezkongabe hil zen 1708an, Munibetarren etxaguntza eta Konde titulua anai honi emanaz,

1.8. Franzisko-Xabier Munibe Idiakez, Peñafloidako VIII. Kondea, 1709an Maria-Inazia Idiakez eta Insausti andrearekin ezkondu zena. Emazte hau Antonio Idiakez Egia eta Luisa-Maria Insausti Ibarra senar-emazteen alaba zen. 1746ko udazkenean hil zen Kondea eta emaztea, gure omenduaren gurasoak, 1749.eko Otsailaren 21ean. Sei izan ziren azken aipatu bi Konde hauen neba-arrebak: Maria-Josefa, Jose-Fernando Moyua eta Ubilla, Rocaverdeko Markesarekin ezkondua, Maria-Rosa, Iñigo Ortes de Velasco-rekin ezkondua, Manuel, Franziska, Antonia, Diego Izagirre jaunarekin ezkondua eta Teresa, Felix Sanchez Samaniego jaunarekin ezkondua. Aurrean aipatutakoak dira ba gaur ospatzen dugunaren guraso eta osaba-izekoak.

1.9. Franzisko - Xabier - Maria - Jose - Joakin - Felipe -Felix -Jazinto - Inazio Munibe Idiakez Idiakez Insausti. Azkoitian jaio zen 1729.eko Urriaren 23an eta Bergaran hil 1785.eko Urtarrilaren 13an. Josefa Areizaga eta Irusta andrearekin ezkondu zen Oñatin 1747.eko Ekainaren 3an. Emaztearen gurasoak Jose Areizaga Corral, Areizagako Baroia, eta Maria-Josefa Irusta Agirre izan ziren (3). Arreba bakar bat izan zuen gure Kondeak, Ana-Maria-Teresa Munibe eta Idiakez, Jose-Antonio Sanchez Samaniego jaunarekin ezkondua eta Samaniego alegilariaren amo-

(3) Justo Gárate: *Ramón Munibe en la Viena de la Ilustración. 1772-1773*. Boletín de Estudios Germánicos de la Universidad Nacional de Cuyo, 1969, 56 orr. Ignacio Zumalde: *El matrimonio del Conde de Peñafloida*. BRSBAP, 1969, I, 255-271 orr.

I.13. **Jabier Mendizabal Argaiz.** Luisa Argaiz Muniberen semea zen, Peñafloidako XIII. Kondea izatera iritsiz. Arreba nagusi bi izan zituen, Josefa, ezkongabea, eta Maria, N. Piñeyro jaunarekin ezkondua. Beraz, Bitor Munibe Aranguren ez zuenez ondorengorik izan, loba bakararren eskuetara joan zen titulua.

I.14. **Joakin Mendizabal Gortazar.** Jabier Mendizabal Argaiz jaunaren semea, Amalia Matxinbarrenarekin ezkondu zen eta 1910ean lortu zuen aitarengandik Peñafloidako XIV. Konde titulua.

Ikusi dugunez, Munibe deitura eta etxaguntza Jose-Maria Munibe Aranguren eta bere anaia izan zen Bitorrekin galdu ziren. Bitor Munibe Aranguren izan zen 1857an Coello-rentzat Bizkaiko mapa eta hirien planoak osatu zituen.

II. PEÑAFLORIDAKO LEINUA

Jornada-Manuel Aranzibia-Sasiola eta Eginio izan zen, ikusi dugunez, Martin Manuel semearentzat 1669an Peñafloidako titulua lortu zuena. Baina, nondik zetorkion titulu hori?

Spainako Felipe IV. Erregeak, Antonio Eginio Zubiaurre jaunak egindako mesedeak ordaintzeko, 1631.eko Abenduaren 21ean, Peñafloidako Konde titulua sortu zuen. Baina zaldun hau 1632an hil zenez, bere arreba bakarrari eman zion titulua. Baina goazen gorago Eginotarren leinuan.

Antonio Eginio eta Jordana Aresti, azkoitiarrek, bi seme alaba izan zituzten: Antonio Eginio Aresti eta Maria Eginio Aresti. Etxeko seme nagusia, Isasaga dorrekoa, Kataliana Zubiaurre Sarabia andrearekin ezkondu zen 1574.eko Maiatzaren 14an, eta semealaba bi izan zituen: lehen aipatutako Antonio eta Luisa Maria Eginio Zubiaurre. Peñafloidako titulua eskuratu orduko hil zen Antonio Eginio Zubiaurre eta 1633.eko Martxoaren 30ean, arrebari eman zion titulua Erregeak nebaren mese-deak goraipatuz. Beraz,

II.1. **Luisa-Maria Eginio Zubiaurre** izan zen Peñafloidako I. Kondea, edo titulua erabili zuen lehena, neba titulua eskuratu orduko hil bait zen.

II.2. **Sebastian Aranzibia-Sasiola Eginio.** Luisa-Maria Eginio Zubiaurre ondorengorik gabe hil zen. Beraz, tronkala balitz bezala, lehen aipatutako Maria Eginio Aresti izekoarengana joan zen titulua. Maria Eginio Aresti andrea ezkondua zen Martin-Otxoa Aranzibia Sasiola jaunarekin, 1561.eko Urtarrilaren 20an. Ezkontza honetatik jaioa zen Sebastian Aranzibia-Sasiola Eginio, amaren bidetik titulua lortu zuena, Peñafloidako II. Kon-

dea izatera iritsiz. Beste alaba bat ere bazeukaten honen gurasoek, hots, Jordana-Manuela Aranzibia-Sasiola Egin, Juan Munibe Otaolea jaunarekin 1595ean ezkondua. Martin-Otxoa aita alargundu zenean, berriz ezkondu zen 1584.eko Martxoaren 1.ean Magdalena Otaolarekin. Eta honen aizpa batekin ezkondu zen Sebastian, Martin-Otxoaren semea: Katalina Otaolea andrearekin, hain zuzen.

II.3. Bernardino Aranzibia Otaola. Sebastian Aranzibia-Sasiola Egin eta Katalina Otaola senar-emazteen semea zen eta aitarengandik eskuratu zuen titulua, Peñafloredako III. Kondea izanik.

II.4. Martin-Manuel Munibe eta Aranzibia-Sasiola. Ondorengorik gabe hil zen Bernardino Aranzibia Otaola, eta aitaren kasuan Eginotarrengandik lortu zuten titulua, lengusinarekin titulua eskuratuz, orain ere Bernardinoen izekoa zen Jordana-Manuelaren bidetik, haren lengusu baten gana joan zen titulua, andra horren semearengana, Munibetarren familia-ra luzarorako joanez. Martin-Manuel Munibe izan zen ba Peñafloredako IV. Kondea. Hurrengo Kondeen erreskada emana dugu.

III. SAMANIEGOTARRAK

Franzisko-Xabier-Maria Munibe eta Idiakez, Peñafloredako IX. Kondeak arreba bakar bat izan zuen: Ana-Maria-Teresa Munibe eta Idiakez. Andra hau Jose-Antonio Sanchez-Samaniego jaunarekin ezkondu zen. Ezkontza honetatik Felix-Inazio eta Franzisko-Xabier Sanchez-Samaniego jaio ziren. Lehen, Anzuolako Juana-Maria-Teresa Zabala eta Arteaga andrearekin ezkondu zen 1737.eko Urrian eta ezkontza honetatik jaio zen, bostgarren semea zelarik, Felix-Maria-Serafin Sanchez-Samaniego Zabala Munibe Arteaga alegilaria. Bederatzi izan ziren Ana-Maria-Teresa Munibe eta Idiakezen ilobak:

1. Maria-Josefa	1738
2. Antonio-Eusebio, S.J.	1739-1790
3. Juana-Maria	1740
4. Maria-Lorenza	1742
5. Felix-Maria-Serafin	1745.10.14-1801
6. Isabel	1747
7. Santiago	1749
8. Franzisko-Xabier	1752
9. Franziska-Xabiera	1753

Aipa dezagun amaitzeko Teresa Munibe Idiakez, gure Kondearen izekoa, honen arreba baino lehen Felix Sanchez-Samaniego jaunarekin ezkondua zela. Beraz, gure Kondeak osaba eta koinatuak izan zituen Samaniegotarrak.

BESTE ZENBAIT GAI

ALTZÜRÜKÜ URRUTIAKO LEINUAREN ERESIAK XV.MENDEKO

Txomin Peillen

Erdi Arotik heldu zaizkigun olerki mota askori, Ereski zaharrak, izena ematen diegu; jadanik Francisque Michel-ek 1857an hala aipatzen ditu. Diote, Zuberoakotik bat baizik ez dela salbatu “Berterretxe kantorea”, baina gure ustez gutienik beste lau badira. Bestalde ez dugu itxaropenik galtzen nonbait besterik agertuko dela.

Euskalzale ta euskalari batzuek kantu herrikoien artean sailkatzen dituzte oraindik herriak kantatzen dituelako, nahiz egileak, notinak, gertaerak ez diren herrikoiak, baina aitunen seme t’alaben bizitzen berri emaille. Eresi zaharrenak gure kondairalari zaharrek, Garibayek, Isastik bildu zituzten, ez dakigu norengandik; berdin Zuberoako Berterretxen kantorea J.D.J. Salaberry-k nonbait ikasia zuen, etxean, herrian? Haren paper zahar guztiak eskuen artean ditut eta hor bospasei kantu bilduma, bospasei kartilla, jabe izenik gabe, kantatzaile izenik gabe, batak hemezortzigarren mendeko esku eskribugintzarekin, besteak berriagoak, baina 1870. urtea baino lehen bilduak. Bilduma horietan Berterretxen kantoreaz kanpo Urrütiako leiñuaren eresiak ere agertzen zaizkigu, agian, oraindik bizi zen leiñuaren ez mintzeko argitaratu ez zirenak osoki.

Dakidanez Urrütiako eresiak ez dira gehiago kantatzen, eta Berterretxe egiten bada gehienetan Salaberryk egindako liburuari zor diogu, Zuberoako etxe askotan euskal liburu bakarra baita. Naski gertatzen da herriak literatura jakintsuzko lanak gordetzea, begiratzea; adibidez Tunisia herrian Ilali Arrotz inbasoren eresiekin gertatzen da, herri xumeak dituela gorde, eskolatuek beren kondaira ezagutza gatik baztertzen zituztelarik, Ilali delakoak izan baitira Tunisia aberatsa, “Erromaren garitegia” desertu bilakatu dutenak. Berdin genioke gure herritarrek Errolanen aldeko antzerkiak eman dituztela, 1906. urtean euskaldun eskoladun batzuek Errolanen kontrako *Uskaldünak Ibañetan*, eman arte.

Orain, badakigu ez dela XVI. menderarte *jakintsun/herrikoi* bereizkuntzarik egin European, nahiz musikagintzan, nahiz literaturgintzan. Hartakotz egituraz berdin dira Eresiak eta herriko Eske-pertsuak. Gaiak ez

dira, ordea, herrikoiak “jaunkoiak” baizik, eta egileak ere halakoak zirela badakigu, eresi gehienen kasuan.

Oraingoan, galdera bat egingo dut, ea lau ala bost kantu idatzi ziren Urrütia leinu hortaz. J.D.J. Salaberry-ren paperetan hirur badira eta laugarren baten abioa beharbada. Francisque Michel-en obran laugarren bat. Gero ikusiko dugu zer argi berriekin, eta Jean Haritschelhar-en susmoak nola baietsiko ditugun, denak garai berdineko direla eta denak senar emazte batzuen gatik eginak.

Urrütia I.: *Urrütiaiko anderia*

Kantu hori Francisque Michel-ek bere *Pays Basque* delakoan 1857.urtean eman zuen *Hauzeko Anderia*, izenarekin; Jaurgain-ek gero argitaratu zuen *Ahetzeko anderia* izenarekin bere *Légendes poétiques du Pays de Soule* delakoan 1916.an. Jaurgain-ek dio ezin dela *Hauzeko Anderia* izan, ez baita sekulan etxe hortako andererik Urrütian ezkondu. Hortan arrazoin du. Orain berriki *Euskal baladetaz* Maria Goyri taldeak agertu liburuan hipotesi hau baztertzeko dute. Gure Gasteizko herritarrek beren lanerako gerla aurreko Gure Herria-k erabili dituzte, baina gerla ondokoak irakurritz, gai hortaz Txomin Peillen ta Jean Haritschelhar jardun direla ikusiko zuten; azken hau bereziki urrun joan da, egiatik hurbil 1963.urtean. Gure Herrian Euskaltzaindian Haritschelhar-ek egin mintzaldian bere dudak azaldu zituen *Hauze* hitzari buruz, zeren eta hala emanik pikoa ez baita aski luzea, berak uste zuen *Etxauze* izan zela. Kantua Zuberoan bildurik, ez da harritzeko Hauze Etxauze baino hobeki ezagutua izatea. *Urrütia I*, eresiarren ikertzen ari nintzela, gogoratu nintzen *Urrütia II* delakoan etxe hortako anderea Etxauzen sortua dela dioela, beraz inñolaz ere Hauzen. Orain azken oztopoa kentzeko, nola irakurri behar da Ahetzze? Badakigu Ahetzeko jauregia Zuberoan Urdiñarben zegoela. Eta zer du ikusteko Etxauztarrekin? Jaurgain-engan arkitu dut erantzuna, bere les Trois Mousquetaires liburuan, Etxauztarrak Ahetzeko jaun zirela ere, idazten baitu. Beraz Jaurgain-ek bere ondorioztapenetan ta Haritschelharrek bere susmoetan arrazoin zuten.

Santa Klararen mitoaren gatik Maria Goyri Taldekoek, Jaurgainen ondorioztapenak baztertzeko dituzte, baina ez Atarratze Jauregia izeneko eresian, nahiz ipuin berdinen aipamenak badituen. Huna zer dioten, *Euskal Baladak* izenburuko beren liburuan:

“Autore honek aitortzen duenez ‘légères modifications’ d’orthographes’ egin omen zituen, bai eta ere Hauze izenaren ordeztze Ahetzze jarri berak bildu zituen datuetan oinarriturik: dirudienez ez omen da aurkitzen Urrütia eta Hauzeko etxeen arteko ezkontzen lekukotasunik, baina bai Menauton Urrütiaiko eta Domenge Ahetzekoren ezkontzarena; hori dela eta baladan ager-

tzen diren pertsonaiekin identifikatzen ditu eta 'la tradition orale a évidment fini par transformer Ahetzeko Anderia en Hauzeko Anderia, eransten du. Gure partetik esan beharra dugu Santa Klararen kondairarekin duen loturak ez duela batere laguntzen Jaurgainen teoria hau."

Gu ez gara Maria Goyri-koekin bat etortzen, zeren badakigun Kondaira oinarria daukaten Eresi askotan, nahiz Errolanen, nahiz Karlo Magnonetan, holako mito zatiak aurki ditezkeela, olerkigileak jendearen jaramon egitea biltzeko ezarriak, eta beharbada, para-antzerki ohitura bati jarraikiz ere. Ikusiko ditugun lau Eresiak, gertaera berdintsuetan daukate la gaia erakutsiko dugu, historitasunera itzuliz Urrütiako Andereaz eta Jaunaz egin olerkiak, beraz Jean de Jurgain kondairalarien hitzak euskaratuz hala esan genezake:

"Menauton Urrütiakoa horrek 1422.urtean inguruan eta nonbait hogeit urte zituela aitak Domenja Ahetzeko alabarekin ezkonarazi zuela" baina dio Muskildiko eta Erbizeko jauna zela Aita, Arnauton izeneko, ez du erraiten Baigorri bizkondea zela, hots Etxaux leinukoa. Dakigunez Ahetzeko jauregia, Baigorriko bizkonde horren eskumenean omen zen, eta Ahetzeko Andereia Baigorriko zen.

URRUTIAKO ANDERIA I

(Ahetzeko Anderia)

Ahetzeko anderia (I)
Urrütian khorpitzez;
Hor dizü bere büria (2)
kanpoan da bihotzez.

—Nur dü bere maitia?
nahi nüke egia
Jinkoak nahi badü
hiltzia ükhenen dü.

Gure jaun Urrütia
khexian bethi zira;
Erradazüt zertako,
ni e'nüzü kanpoko.

-Hürrünt zite niganik
eztit zure beharrik;
bazoaza kanpora
eni adar biltzera. (3)
-Jauna, holako gaizak (4)
Ahetzeko anderiak
eztitizü ikhasi;
hen doazü ihesi.
Elhe horiek ahotik
jalkhitzen zirelarik,
Urrütiak bilhoti
therresta dü ebili.

(1) *Hauzeko* dio Fr. Michel-ek.

(2) *Nor dü bere büria*. Fr. Michel, neurriaren gatik zuzentzen Jaurgain-ek, gaizki. 7/7/7/7 baita bertsoa.

(3) *adar ene biltzera*. Fr. Michel-ek, hutsa da, *adar, eni biltzera* hobeki berdin Jaurgain-en eni adar biltzera.

(4) *lanak* dio Fr. Michel-ek *gaizak*-en lekuan.

-Jinkoa zer bizia!
O! jaun Urrütia,
ni Ahetzeko etxian (5)
nündüzün bai bakian.

Hunat jin behar nizün
ene zorthia züzün,
bihotz min ükheiteko
zure khexarazteko.

Ogen gabe zü, bethi
mintzo zitzaizt; gogorki;
othoi, zure begiak
ütz ditzala khexiak.

Goizian goiz jeikirik (6)
Ogi opilak eginik (7)
Ahetzeko anderia
lehia dün handia.

Zareta bat бүrian
kanporat jalkhitzian
Mus d'Urrütia zian
baratü bai bidian.

Nun zabiltza haiñ goizik,
Jauregia hüstürük?
galthatzen dero Urrütik (8)
begiak oldartürük.

Jauna, ikhusiren düzü (9)
nahi baldin badüzü,
nurat orai nabilan
zareta hau бүrian.

Jente eskeliari
emaiteko zokhorri
Andere Urrütia
hartü zütian bidiak

Ophila zaria beitzen
betherik jente prauben,
Urrütia zarian (10)
eskia ezari zian.

Ophilak, ordü hartan,
jin ziren haillikotan
Urrütia berhala
uste trunpatü zela.

Ehüliaren etxera
zoaza bilberaztera?
-Jauna, ikhusten düzü...
orai zük badakizü.

-Pharka izadazüt arren,
bekhaitz e'nüzü izanen
emazte huna zirela
orai badit nik proba.

(1422-1450 artean egina) (?)

J. De Jaurgain Légendes
poétiques du Pays de Soule.

(5) Hauze-ren lekuan Ahetze.

(6) jeikirik "a" dun itxura zaharra Michel-ek.

(7) *goiz opilak dio* Fr. Michel-ek.

(8) *dero* zaharra Michelek.

(9) *ikhusten*, Fr. Michel-ek.

(10) *zirien* itxura zaharrean Fr. Michel-ek.

Urrütiako Anderea-ren egituraz

Berterretxen kantorean bezala eta Eresi askoren legez, hona nola egina den: deskribapena (bertso bat) / elkarhizketa (lau bertso, lau ahapaldi).

Deskribapena (ahapaldi bat) / elkarhizketa (hirur ahapaldi).

Deskribapena (ahapaldi bat) / elkarhizketa (hirur ahapaldi).

Deskribapena (bi ahapaldi) / elkarhizketa (bi ahapaldi).

Halaxe hamazortzi ahapaldi ediren zituen Francisque Michel-ek,

Olerkiaren noizkotasuna

Nahiz ez duen zahartasun itxurarik, baina zertan dago zahartasunaren ezaugarria? Guretzat, behintzat, XVIII. mendeko hitzak dira: *jalkhi*, *eskele* eta XVII.mendekoak, *nabila*, *zabiltza*, *oldartü*; hitz zaharragorik ez izateak ez du esan nahi gure olerkia zaharra ez denik. Hiztegiak ez gaitu argituko, zeren eta beste XV.mendeko Eresi zaharretan, euskaldun gehienek zailtasuna, ulertzeko nekea, ez dator zahartasunetik, bizkaieraz izate-tik baizik.

Olerkigintzak, ordea, salatzen du zaharragoa dela, kontrajartzearen teknika darabil a ondoko: *hor dizu bere buria:/kanpoan da bihotzez*, hurbil erran zahar edo atsotitz baten itxura duena. Berdin goraxago ikusi bezala deskribapen/elkarhizketa aldikatzea, txandakatzea, aintzinasun seinale da.

Kondairaren ezaugarriak, orain badakigu Jaurgain eta Haritschelharren susmoak, baieztapen bihurtzen direla, dakigularik Andere berdina Etxauzeko ta Ahetzeko zela, eta haren senarrari buruz geroago ikusiko ditugun kantuetan, Andere hori Baigorriko bizkondearen arreba dela jakiten baitugu; beraz Jaurgain-ek arrazoin zuen 1422.urtean inguru Urrütian ezkonberri zen Domenja Etxauzekoari, Ahetzekoari, bizkondearen arrebari egin zitzaion goraiamenezko eresi hori.

Nork egina?

Elkarhizketetan senar-emazteak beren artean zuka mintzatzen dira: *bekaitz e'nüzü*, eta hamargarren ahapaldian kondairalaria edo noka zuzentzen zaio Andere handiari eta ageri denez ez da senarra mintzo, hamabigarrenean hitz egingo baitu zuka, galdera Berdinxkarekin. Nork hitzegin diezaioke Andeari “noka”, ez baldin bada etxeko norbait, anaia, osaba, ahizpa? Beharbada osaba, zeren eta Urrutiako jaunaren kantuan, iloba aipatzen du ahapaldi batean *ene illoba traditü*.

Bi ekintzako olerkia

Lehenean Urrütiako jaunak, beraz Menauton Urrütiakoak, Domenja bere emaztea beste norbaitekin ibiltzen dela bizkarreratzen dio; emaztearen zintzotasun oihuak ez ditu sinesten, iletik, bilotik har eta narrasta ibiltzen du. Berriz ogengabea, errugabea dela *Andereak aldarrikatzen* du. Bigarren zatian, badirudi Santa Klara-ren kondaira sartu dela, Maria Goyri Taldeko ikerlariek erakutsi duten bezala, baina horrek ez dio bere historitasuna kentzen, Santa Klara hori berdin Atarratze Jauregian agertzen baita, bere izenarekin. Gure eresi honetan ez da haren izenik ematen, baina Ahetzeko Etxauzen sortutako andereari santa horren mirakuiliak egoizten, hala nola -behartsu batzuentzat eramaten zituen opilak -beharrik gabe artile bilakatzea. Oraingoan zatia bukatzen da *Jauna* bere Anderearen errugabetasuna *aldarrikatuz*.

Euskal bertsogintzan hainbat erabili den azken puntuaren teknika hemen ere dakusagu: *kanpoan da bihotzez/hiltzia ükhenen dü/eni adar biltzera...*

Aldaerak

Ez dira bildutako aldaerak, baina ikerlariek eskainiak; kondairaren izenean *Hauzeko*-ren lekuan Jaurgainek *Ahetzeko* eskaini zigun, baina Haritschelhar-en susmoz erran genezake *Etxauzeko* zela lehen bertsogintzan. Ikerkalariaren metrika arrazoineri gaineratu genetzazke deiturenak, alegia Domenja, Etxauzekoa ere zela, beste kantu batean baitio, *sorthu nintzan Etxauzian*. Jaurgainen bigarren zuzenketa da *khexian bethi zira*, pundua zuzen izan dadin, Fr. Michel-ek berriz *Kexian bethi zia* bildu arren; berdin hirugarren zuzenketa Fr. Michel-ek bildu puntu bitxia *adar ene biltzera*, zuzenduz *eni adar biltzera*, euskara egokiagoan. Ez bata ez besteak ez dute seigarren ahapaldian *zielarik*, *zirelarik* zuzendu, silaba bat falta delarik hor. Gainera *zielarik* züberoeraz *zutelarik* da, hemen ezin onhar ditekena.

Jaurgain-en bi zuzenketak beharbada ez dira haiñ zuzenak, hamargarren ahapaldian Fr. Michel-ek *goiz ophilak* ematen du eta Jaurgainek *ogi opilak*; naski orain *opil* guztiak ogizkoak dira, baina lehen? Araban *arrautzipilak* ere badira arraultzez (omelette, tortilla).

Jaurgain-en beste hirur zuzenketek, ordea, ez dute zentzurik; *ziren* aldatuz, pastoral zaharretan irakur diteken *zirien* zaharragoaren lekuan ez da egoki (hamaseigarren ahapaldian); berdin ez du arrazoin, adieraziaren aldetik- hamahirugarren ahapaldian - *ikusiren* geroaldian ezartzen duelarik, Fr. Michel-en *ikhusten* egokiagoaren orde; berdin *hor dizü bere büria* "dü" aldatuz, neurtitz luzeegia ematen du; alderantziz Jaurgain-en *dero*

zaharra, Michel-en “dü” baino hobea ditek (hamabigarren ahapaldian Denetan, zazpigarren ahapaldiko *Oi! Jaun Urrütia!* ere silabaz eskaz gelditzen zaigu. Hona elkarren alboan, aldaera batzu; kulatxetan utziz neurtitz berdinak:

Michel

Jaurgain

Haritschelhar

I

Hauzeko anderia
Urrütian khorpitzez
hor dü bere büria
kanpoan da bihotzez

Ahetzeko anderia
.....
hor *dizü* bere büria
.....

Etxauzeko anderia
.....
hor dü bere büria
.....

II

Nur dü bere maitia?
Nahi nuke egia.
Jinkoak nahi badü
hiltzia ükhenen dü

III

Gure Jaun Urrütia
khexian bethi zira;
erradazüt zertako,
ni e'nüzü kanpoko.

IV

Hürrünt zite niganik
eztit zure beharrik;
bazoaza kanpora
adar ene biltzera

.....
.....
.....
eni adar biltzera.

V

Jauna, holako lanak
Hauzeko anderiak
eztitüzü ikhasi
hen doazü ihesi

Jauna holako gaizak
Ahetzeko anderiak
.....
.....

Jauna holako lanak
Etxauzeko anderiak
.....
.....

Fr. Michel

Jaurgain

VI

Elhe hoiek ahotik
jalkitzen zielarik
Urrütiak leihoti
therresta dü *ibili*

Elhe horiek ahotik
jalkhitzen zirelarik (oh. zuzenago)
Urrütiak leihoti
therresta dü *ebili*

VII

Jinkoa, zer bizia!
oi! jaun Urrütia
Ni *Hauzeko* etxian
nündüzün bai bakian

Jinkoa zer bizia!
oi! jaun Urrütia,
ni *Ahetzeko* etxian
nündüzün bai bakian

Jinkoa zer bizia
gure jaun Urrütia!
Etxauzeko etxian
nündüzün bai bakian

VIII

Hunat jin behar nizün
ene zorthia züzün,
bihotz min ükheiteko
zure *khexarazteko*.

Hunat jin behar nizün
ene zorthia züzün
bihotz min ükheiteko
zure *khexarazteko*

IX

Ogengabe zü, bethi
mintzo zitzaizt gogorki;
othoi, zure begiak
ütz ditzala khexiak.

X

Goizian goiz *jaikirik*
goiz ophilak eginik,
Hauzeko anderia
lehia dun handia.

Goizian goiz *jeikirik*
ogi opilak eginik
Ahetzeko anderia
lehia dün handia.

XI

Zareta bat büruan
kanporak *jalkhitzian*
Mus'd'Urrütiak zian
baratü bai bidian.

Zareta bat bürian
kanporat *jalkhitzian*
MUSD'Urrütiak zian
baratü bai bidian.

Fr. Michel

Jaurgain

XII

Nun zabiltza hain goizik
jauregia *hutsturik*?
Galthatzen *dü* Urrütik
begiak oldartürük.

Nun zabiltza hain goizik,
jauregia *hüstürük*
Galthatzen *dero* Urrütik (oh. neurtitza luzeegi)
begiak oldartürük.

XIII

Jauna *ikhusten* düzü
nahi balin badüzü,
noat orai nabilan
zareta hau бүrian.

Jauna, ikhusiren düzü (neurtitza luzeegi)
nahi *baldin* badüzü
nurat orai nabilan
zareta hau бүrian.

XIV

Jente eskeliari
emaiteko sokorri
Madama Urrütiak
hartü zütien bidiak.

Jente eskeliari
emaiteko *zokhorri*
Andere Urrütiak
hartü zütien bidiak.

XV

Ophilez zaria beitzen
betherik jente prauben.
Urrütiak zarian
eskia ezarri zian.

(berdin)

XVI

Ophilak ordü hartan
jin *zirien* haillikotan,
Urrütiak *behala*
uste *tronpatü* zela.

Ophilak ordü hartan
jin ziren haillikotan,
Urrütiak *berhala*
uste *trunpatü* zela

XVII

Ehüleko (sic) etxera
zoaza bilberaztera?
Jauna, ikhusten düzü
orai zük badakizü.

Ehülearen etxera (oh. zuzenago)
zoaza bilbaraztera?
Jauna, ikhusten düzü
orai Zük badakizü

XVIII

Pharka izadazüt, arren,
bekhaitz e'nüzü izanen
emazte *hun* zirela
orai badit nik proba.

Pharka izadazüt, arren,
bekhaitz e'nüzü izanen,
emazte *huna* zirela (oh. neurtitza luzeegi)
orai badit nik proba.

URRUTIAKO ANDEREA II, ZUBEROERAZ

Sorthu nintzan Etxauz-ian
hazi Garatian Agerrian
eskolatu Baiunian
Madamatü Urrütian

Altzürükü Urrütia
ala lekhü famatia
enetako ia izan düzü
phenaz hiltzeko lekhia

Musde Urrütia bilhoa holli (1)
jaun erretorak hortzak zuri;
haiek biek ni narabila (2)
Urrütian eztezari (3)

Kozinatik kanberala (4)
kanberatik kozinala
hiruetan üngürazi zeitan
bilho adatsa eskietan

Musde Urrütia etzen lotzen
bere tela mihisetan
araxe nahiago beitzen (5)
amoriaren kapitetan.

(1) Ikus Musde Urrutiaz egin bertsoak, J.D.J. Sallaberry-ren argitara gabeko, bilketan, "Mutil bilo horia".

(2) *narabilate*: behar luke, aditz hori hamazazpigarren mendea ezkero, nonbait, ez da Zuberoan erabiltzen (ik. Tartas, Belapeyre).

(3) *eztezari*: hutsa izango da, *esteiari* "miserable"ren lekuan (XVIII.mendean galdu hitza).

(4) *kozina*: hitz hori ez da sukaldeari aplikatzen Zuberoan, salbu eta Parisen egonda-ko jendeen ahotan; bestelan *kozina*, sukaldaritza da.

(5) Bertso horren aldaera eske kantuetako bi lerro gaineratuz hasten da

(Abenduko gau luzetan
izotz eta karroñetan)
Murde d'Urrütia etzen ageri
ene tela mihisetan
nahixago beitzen
amuriaren kapitetan

Geroxeago ikusiko dugu amorio horien aipamena J.D.J. Sallaberry-k bildutako kantu bilduma zahar batean.

A Baigorri, Baigorri maite
 nik hilik ere hara nahi nuke
 han herriak ere althe nituzke,

Etxauzeko bizkandia
 beldürra düzü ahalkia
 uzten düzü phenaz hiltzera
 zure arreba anderia. (6)

Bizkundiak mithilari
 zela bedi zaldi hori!
 erra bedi urzo hori
 jar gitian bide horri.

Bizkondia armatürik
 zaldi urdina zelatürik (7)
 Urrütian sarthü züzün
 Urrutia ezkapi leihotik (8)

Leizaola: "El Refranero vasco antiguo y la poesía euskérica". *Obras completas*. (II.835.orr).

* * *

III. IV. V.: *Musde Urrütia, Muthil bilho horia, Amak dio alabari.*

Hemen emanen dugun aldaera berria da, J.D.J. Salaberry-ren argita-
 ra gabeko idazkietan badago enkuadernatutako kartila bat, hemeretzigar-
 rren mende hastapenekoak, eskuaren arauera. Asonantziari kasurik egin
 gabe, Fr. Michel-i hiru lerrotan eman zizkieten neurtitzak, guk lauetan

(6) Bertso horren aldaera eta Andereak anaiari egindako deia:

Etxauzeko bizkandia
 non da zure ohoria
 zure arreba anderia
 xangrinez hiltzen ari da.

Corpus-ean eman dugun bertsoa zuberotarrez balinbada badirudi hau Garazi aldeko
 euskararen dela.

(7) Urdina: adierazi zaharrarekin naski, grisa;

(8) Urrütia-ren errepikatze hori behar bada, eresi emailearen hutsa da zeren ez da
 ohitura euskal bertsogintzan eta bestalde, pikoak luzatzenegi du, zuzenago litzateke, *hu(r)a*
ezkapi leihotik, beste hutsak izango dira eresi horrek ez baitu, zuzen emandakoa iduri, agian
 denborarekin ez baitziren hitzak eta notinak gehiago ezagutzen. Nondik nahi, Jean Harits-
 chelhar jaunak nahikoa argitu zuen gai hori bere Euskaltzaindiko sartze mintzaldian,
Baigorriko kantu zonbeit aipatu zituelarik; hau da zalantza gutienik ematen duen kantua.

egokiago arkitu ditugu. Halere *Le Pays Basque* Fr. Michele-en lan ospe-tsuan 428. orrialdean irakur diteken aldaera gogoratuko dugu.

Musde Urrütia

(doñua: “amak dio alabari”)

Musde Urrütia leihoti (1)

eta ni aldiz kanpoti;

bihotza erdiratü zeitan so ezti bateki

üdüri ziren haren begiak izar zirela zelüti.

Ene xarmagarria,

hüillan düzü eliza!

zonbait aldiz jinen zira, harat meza entzütera:

begiaz kheñu (2) eginen dügü ezin mintzatzen bagira.

Españalako bidia

ala bide lüzia! (3)

Gibelilat so'gin eta, hasperrena ardüra (4)

maitettoaz orhit eta nigarra begiala (5)

Hortzak xuri, begiak beltz (6)

ene maitia zeren ez?

mündü orok diozie, ni nizala traidore

orai arren erradazü, hala nizanez bai al'ez.

Arrestiriko ekhia

zerena düzü erdia (7)

zure eta ene amodioaz plañi düzü mündia

mündü ororen ixilik maite izan behar giria. (8) (Fr. Michel)

(1) Fr. Michel-ek ez du zuberoraren araua zaindu, batean *leihotik*, bestean *kanpoti* ematen du, asonantzia galeraziz.

(2) Fr. Michel-ek ematen duen *begiz kheña* ez da zuberuera, gure euskalkian -dakigularik XVIII. mendea ezkerro *begiz kheñu*, *begiaz kheñü* genioke.

(3) Bi neurtitz horiek *Berterretxen kantoreko* biak oroitaratzen dizkigute:

Andozeko ibarra

ala ibar lüzia!

(4) Neurtitz hori, berdin-berdina “Txorittua norat hoa” delakoan arkitzen da.

(5) Aurreko kantuan bezala maitearen aipamena.

(6) *Hortzak zuri* esaera, Urrütiako anderaren Be-nafar aldaeran ere, beste kantu batean alegia arkitzen da Urrütiaren ezaugarri bezala ez ordea, erretorarena baizik. Esaera horrekin uste dut inganiozko irri-parrea aipatzen dela.

(7) Fr. Michel-ek hemen *dizü* (ukan) aditza bildu du eta orduan “*ekhiak*” behar genuke, Salaberry-renean *düzü* (izan) ongi dihoa “*ekhia*”-rekin.

(8) Fr. Michel-i ahoskerako *gia* eman diote, baina kartila zaharragoak *giria* itxura zaharra eman digu.

Egitura. Beste baladen gisa, elkarhizketa ta deskribapenez osatua dago; badirudi akabatu gabea dela. Hartakotz iduri zaigu, Salaberryren idazkien artean arkitu bi zati, beharbada balada hortakoak direla. Bi zatiak enkuadernatu gabeko kartilan daude 1805-1835 tarteko kantuekin batean bilduak, biltzaile izenik gabe.

Aldaera ala beste zati.

Neurtitzen arauera, bi zatiak ezin dira ez *Urrütiako anderia* (Urrütia I) batekoekin etorri, ez eta *Sortu nintzan Etxauzian*, benafartar euskaraz zegoenarekin... gainera zati horietarik luzeenak, ahapaldi berdina du, gure *Urrütiako Jaunaren* kantua erekin.

Muthil bilo horia
ofiziale berria,
gaztetto danik egin hiron andregeiari gortia
kita'zak! kita herria galdu gabetarik bizia.

Kitaturen dut herria
maiteago baitut bizia,
ene aita amak haziren dute ene lehen fruttia
nik ere ikhasiren dut, Espainialat bidia.

Espainiako bidia,
oi hura bide luzia
ardura, ardura gibelerat utzultzen nuien buria
noiz entzuten nien gibeletik hirur balaren hustia

Musde (y) Urruti barkatu

.....
zuk ene arreba, nik zure illoba, biak ditugu traditu
Musde (y) Urruti, barkhatu, zorak zorra du pagatu.

(J.D.J. Salaberry)

* * *

Ekialdeko be-nafarrera “eskuara” motan agertzen zaigu ahapaldi hau eta baladaren zatian gordezko amorioak aipatzen baldin baziren ez genekien zergatik Urrütiak ihesi joan behar zuen (geroago ikusiko dugu Urrütia, “bilho horia” deitua). Bigarren zati horrekin badakigu beste norbaitekin haurra izan zuela eta balaren txistuak entzunik igesari eman zuela. *Sortu nintzan Etxauzian* kantuan badakigu nor dabilen Urrütiaren gibeletik, Baigorriko bizkonde ta Ahetzeko jauna Urrütiaren ezkontanaia edo koñata.

Bigarren zatia beharbada, Salaberry-ren ohar bati zor zaio zeren *Musde Urrüti* baladari, “amak dio alabari” doiñua duela jarri baitu azpian, eta hor, nonbait gure gaiari datxikion “argi” bat, bi ahapalditan agertzen da, zeren *Amak dio alabari* delakoak, besteen egiturazko bi ahapaldi baizik ez baititu. Geroztikako morala ote?

Amak dio alabari
 kanailla txarra hi,
 hik behar düna ibili aitoren seme horieki
 ibiltekoz ibil hadi, hihaur üdüri zonbaiteki.

Ama zaude ixilik
 ez erran othoi gaizkirik,
 gaztetzaruna inozent dela ez dakizia engoitik
 zure denboraz orhoit eta ez egin othoi nigarrik.

(Salaberri idazkiak).

Hau ote zen Urrütiaren ohaide gordea, haren lehen frutua hazi behar zuena, eta aitoren alaba ez zena? Hau dirudi hirugarren ekintza lehenean Urrütiak bere emaztea akusatu zuen ogengaberik, gero bere ogena agertzen da, eta Anderiak Baigorriko kondeari dei egiten ohorea garbi dezaion, hirugarren ekintzan Urrutiak ihesi egiten du, utziz ohaidea bere haurrarekin eta... bere emaztea ere, Espäniako egonaldian, bakea etor dakion zain.

Beraz, iduri zaigu, balada bakar baten aurrean gaudela, egituraz hirur zatiak berdin baitira eta doñua ere berdin. Francisque Michel-ek eman aldaeran, hirugarren ahapaldiak ez dirudi bere lekuan eta azkenik ere jarria ez. Ahapaldi hori ken eta *Muthil bilo horia*-k badirudi elkarhizketaren jarraipena, eta *Españalako bidia* eta *Espainiako bidia* elkarren ondozkoak; azken azkenean ezar genezake *amak dio alabari* direlako bi bertsoak. Balada honek hameka ahapaldi zitukean, gutienik hastapenean.

Idaztankera.

Lehen kantuak baino gehiago du Eresi zaharren tankera, baita ahapaldi askok Berterretxe-n kantorea gogoratzen dute ere, hitzetan eta irudietan.

Oi hura bide luzial ala ibar luzia- (B.K.)

Ama zaude ixilik Arreba ago ixilik

ez erran othoi gaizkirik ez othoi egin nigarrik. (B.K.)

.....
/eta ez egin othoi nigarrik.

Bihotza erdiratü zeitan so ezti batekil/

Bigabostetan ebaki daitak armarik gabe bihotza (B.K.)

Errepikapena

*kita zak kita herria.../... Espainialat bidia/
 Kitatüren dut herria Espainiako bidia.
 Musde (y) Urruti barkhatu/Musde (y) Urruti barkatu*

Kontrajartzea

*Zuk nere arreba,/nik zure illoba...
 Musde Urrütia leihotileta ni aldiz kanpoti*

Izadiarekin irudiak

Arrestiriko ekhia / zerena düzü erdia

Euskal baladak liburuan erakusten diren ezaugarriak, hemen argi daude. Ez du horrek erran nahi, nahiz gai berari egindako bertsoak izan, denak urte berean egin zirela. Ohargarria da ere bestalde, Urrütia leinuaren kantore horietan denak ez direla zubereroaz eta Eresi zahar gisan, hor daudela Nafarroa Behereko euskaraz ezagutzen ditugun bi baladak?: *Musde Urrütia* (Z.) eta *Muthil bilho* horia alde batetik eta *Sortu nintzan Etxauz-ian* bigarrenik.

* * *

URRUTIAKO JAUNA ALA HIRUR ERESIZ BAT EGITEA? FIKTIZIOA.

III (Züberoeraz. Fr. Michel)

Musde Urrutia leihoti
 eta ni aldiz kanpoti,
 bihotza erdiratü zereitan so ezti bateki
 üdüri ziren haren begiek izar zirela zerüti

Ene xarmagarria
 hüillan düzü eliza;
 zunbait aldiz jinen zira harat meza(ren) entzütera
 begiaz kheifü eginen dügü ezin mintzatzen bagira.

Hortzak xuri, begiak beltz
 ene maitia zeren ez?
 mündü orok diozie ni nizala traidore
 orai, arren, erradazü hala nizanez bai al'ez.

Arrestiriko ekhia
 zerena düzü erdia
 zure eta ene amodioaz plañi düzü mündia
 mündü ororen ixilik maite izan behar giria?

(IV) (Nafarreraz, Salaberry, Haritschelhar)

Muthil bilo horia
 ofiziale berria,
 gaztettodanik egin hiron andregeiari gortia
 kitazak kita herria! galdu gabetarik bizia.

Kitaturen dut herria
 maitexago baitut bizia;
 ene aita amek haziren dute ene lehen fruttia
 nik ere ikasiren dut, Espainialat bidia.

Espainiako bidia
 oi! hura bide luzia!
 ardura, ardura gibelerat utzultzen nuien buria,
 noiz entzunen nien gibeletik hirur balaren hustia.

(Züberoeraz, Fr. Michel) (III.azaltzen dena)

Españalako bidia
 ala bide lüzia!
 gibelilat so egin eta, hasperrena ardura
 maitettoaz orhit eta nigarra begiala.

(Nafarreraz, ibidem)

Musde (y) Urruti
 Musde (y) Urruti barkatu,
 zuk ene arreba, nik zure illoba, biak ditugu traditu
 Musde (y) Urruti barkatu, zorrak zorra du pagatu.

V. (Züberoeraz Salaberry)

Amak dio alabari
 kanaila txarra hi!
 hik behar düna ibili aitoren seme horieki
 ibiltekoz ibil hadi, hihaur üdüri zonbaiteki.

Ama zaude ixilik
 ez erran othoi gaizkirik
 gaztetarzüna inozent dela ez dakizia engoitik?
 zure denboraz orhoit eta ez egin othoi nigarrrik.

AZKENEAN ZER?

“Muthil bilo horia” Salaberry-ren kartiletan zegoen, baina bere 1870.ko bilduma ez zuen argitaratu. Eresi hau ote da laugarren bat? ala *Musde Urrüti* delakoaren zatia? Aurretik eman dugun fiktizioak badu soineko gaizki josi baten itxura. Agian, gai berdinarekin bi balada egin ziren, neurri berdinean. Hola lau Ekintzatako Eresigaia genuke:

Lehen ekintza. Urrüti jeloskorra, bekaitza, emaztearen zintzotasunaz zalantzak eta susmo txarrak baditu, tormentatzen du (biloa herresta), itsuskeria, horrengatik, andrearen bertutea goraipatzenago da, Andere Santa Klarari gertatutakoa hor kondatuz (berdin *Atarratze Jauregian* baladan, santa horren aipamena). Hau da Fr. Michelen *Hauzeko Anderia*, Jurgainen *Ahetzeko Anderia* eta Haritschelharen *Etxauzeko Anderea*.

Bigarren Ekintza. Emazte fideak *Etxauzeko Andereak*, beste norbaitekin senarra ibiltzen zaiola salatzen du, eta gainera aitunen alaba ez den batekin. Ohorearen garbitzeko —Baigorriko Bizkondea den— bere anaia deitzen du; lehen ekintzaren jarraipena delako, segurtamena badugu, zeren Anderea hemen ere “biloa herresta” erabilia baita. Gainera hemen Etxauzeko dela dio, eta Ahetze Urdiñarbeko lurra Baigorrikoa izanki, bigarren izen hori erabil zezakean.

Hirugarren Ekintza. III. eta V. baladak bilduta. Urrütiaren amorea ta haren ama mintzatzen dira, lehenak aitortzen du Musde Urrütiak “bilo horiak” haur bat egin diola, eta amak hori duela irabazi, aitunen seme batekin ibiliz eta ez “bera idüri” batekin.

Laugarren Ekintza. IV. balada litzateke. Bigarren Ekintzan, Urrütia leihotik kanpo ihesi joan zela, Baigorriren beldurrez jakin badugu, hemen, aldiz, “bilo horia”berriro azaltzen zaigu, Espaiñiara ihesi, eta jarraikizalea (naski Baigorri) delakoak “zuk ene arreba traditu...” esaten dio, eta haiñ zuzen Etxauzeko Anderea Baigorriko kondearen arreba zen. Halaz ere baladaren egileak dio “zorrak zorra duela pagatu” zeren Baigorrik beste horrenbeste egin baitzion Urrütiaren ilobari.

Holaxe, hamabostgarren mendeko direnaz geroztiz, züberoeraz —Berterretxez kanpo— beste hirur eresi bagenituzke eta Ipar Naparroatik bat, Urrütia-Altzürükü jaunaren egitateaz sortuak.

PIARRES LAFITTE ZENAREN LANAK (Bibliografia)

M. Isabel Goikoetxea

1983ko maiatzaren 23an Uztaritzeko hirian jende asko bildu zen Piarres Lafitte Kalonjeari merezimenduzko omenaldia eskaintzeko. Orduan, bere ohoretan ateratako liburu baten berri eman zen: *Iker-2. Piarres Lafitte-ri omenaldia*. 900 orrialde baino gehiago dituen liburu mardul honek hasieran “Piarres Lafitte-n lan zerrenda bat” izeneko artikulua dakar eta irakurtzerakoan lanen aipamen soila besterik ez dela konturatzeko gara, hau da, non eta noiz argitaratuak izan diren ez bait da ematen.

Euskara eta euskal kulturarentzat duen garrantziagatik premiazkoa iruditu zitzaigun lanen iturriak ematea, zer, non eta noiz zehazki jartzea. Horretarako, titulu bakoitza hartu eta fitxa ireki ondoren Jon Bilbaok Añamendi Argitaletxearen bidez eman zuen bibliografia aztertu genuen; lan guztiak agertzen ez zirenez eta beste asko nahiz eta Lafittek eginak bezala agertu horrela ez izan, *Euskera*, F. L. V., Baionako *Bulletin du Musée Basque* eta beste zenbait liburu eta aldizkari miatu genituen, baina halere ezin dena osatu. Falta zirenekin zerrenda egin eta J. A. Aranari “Azkue Biblioteka”ra eta J. Haritschelhar eta P. Xarrittoni Baionara gutun bana igorri genien argitasun eske. J. San Martinen laguntza ere ez zen nolanahikoa izan. Oier bere semea ere lanerako eskaini zen eta ederki asko gainera. Batetik eta bestetik jasotako datoekin ia guztia osatzeko lortu genuen, bakan batzuk zintzilik utzirik. Bestalde, zerrendan agertzen ez ziren zenbait titulu berri gehitu genituen.

Lafittek lan ugari egin du bizitza osoan zehar azken momentura arte, eten gabe, eta bere bibliografia oso oparoa da; kontutan hartu behar da *Herria* aldizkaria ateratzen hasi zenean lehenengo bi urtetan ia oso osorik berak betetzen zituela lan guztiak izen orde edo izenik gabe.

Zerrenda prestatzeko garaia iritxi zenean beste arazo bat sortu zen: zein kriterio erabili? Lafitte hain polifazetikoa izanik ez zuen gai ikutu gabarik. Azkenean, era honetako beste zenbaiten lanak ikusi ondoren, honela banatu ditugu: *Gure Herria* aldizkaria, *Euskera* aldizkaria, zenbait aldizkari ezberdinetan (F. L. V., *Egan*, *Euzko Gogo...*) idatzitakoa, liburu

eta separatak, antzerkiak, hitzaurreak eta, bukatzeko, elkar lanean eginda-koak. Ez ditugu hizkuntzak banatu, euskaraz eta frantsesez dagoena batera doa. Sail bakoitza kronologikoki jarria da, hitzaurreak eta aldizkari ezberdinetakoa ez ezik, hor lehenengo alfabetoz eta gero, bat baino gehiago daudenean, kronologiaz.

Bukatzeko, badakigu idatzitako guztia ez dugula jaso, horretarako gogoia, lasaitasuna, astia eta batez ere lanari buru belarri eutsi behar zaio. Pauso txiki bat bakarrik eman dugu eta Xarrittonek 1986ko otsailaren 20ko *Herria* dion bezala, lan izugarria da idatzi zuen guztia bildu eta sailkaturik argitaratzea. Hau hasiera apal bat besterik ez da eta gehiengoa ez ezik garrantzizkoena bildu dugun ustean eskaintzen dugu euskaldun-goaren onerako.

***Gure Herria* argitaratutako artikulua.**

- “Le Labourdin dans Ithurry”, *Gure Herria*, 1921, I, 683-685.
- “Pastoralez”, *Gure Herria*, 1922, II, 574-578.
- “Phereka eta zimiko”, *Gure Herria*, 1922, II, 601-604; 1923, III, 257-260.
- “Haur hilaren arreba eta ama” (Poesia), *Gure Herria*, 1923, III, 101-102.
- “Ur chirripa inhar batekin guduan” (Poesia), *Gure Herria*, 1923, III, 358-360.
- “Dei bat”, *Gure Herria*, 1924, IV, 741-744.
- “Maria Lazo”, *Gure Herria*, 1925, V, 321-422.
- “Milesker” (Poesia), *Gure Herria*, 1927, VII, 356-358.
- “Itsas-haindian” (Poesia), *Gure Herria*, 1927, VII, 406-407.
- “Leon Jaun Aphezak eskuaralat itzuli duen *Jesu-Kristoren Imitationeaz* Jaun kechu bati bi hitz”, *Gure Herria*, 1928, VIII, 105-112.
- “Chaubadin” (Poesia), *Gure Herria*, 1928, VIII, 225-227.
- “Qui nous le dira? (Sobre la palabra *ohi*)”, *Gure Herria*, 1928, VIII, 284.
- “Itsaturi gaztea” (Poesia), *Gure Herria*, 1928, VIII, 504-505.
- “Aita Lhande onari”, *Gure Herria*, 1929, IX, 268-269.
- “Pour 25 francs (Sobre EYHERAMENDY: *Méthode pratique*)”, *Gure Herria*, 1929, IX, 376-380.
- “Martin Landerreche Apeza”, *Gure Herria*, 1930, X, 69-72.
- “Itsas-aldetik” (Poesia), *Gure Herria*, 1930, X, 138-139.
- “Homère et le basque”, *Gure Herria*, 1930, X, 271-276.

- “Azkainen”, *Gure Herria*, 1930, X, 517-518.
- “Mistral'en Mireio eskuaraz”, *Gure Herria*, 1931, XI, 29-30.
- “Pour ou contre la passivité du verbe basque”, *Gure Herria*, 1931, XI, 263-271.
- “Zorionketaria. Schiller-en neurthiz batzuen idurirat” (Poesia), *Gure Herria*, 1931, XI, 304-305.
- “Un nouvel évêque basque, Monseigneur Joseph-Clement Mathieu”, *Gure Herria*, 1931, XI, 385-391.
- “Les études basques à travers les siècles”. Conférence donnée au Musée Basque le 7 Janvier 1932 et publiée par la Revue *Gure Herria*. Bayonne: “La Presse”, 1932 (16 orr., 24,5 zm.) (Cahiers du Centre Basque et Gascon d'Etudes Régionales: I) (Extr. de *Gure Herria*, 1932, XII, 139-152).
- “Notre maître: M. le Dr. Etchepare”, *Gure Herria*, 1932, XII, 259-266.
- “M. Saroihandy”, *Gure Herria*, 1932, XII, 369-370.
- “Autour d'une glose basque du X^{me} siècle”, *Gure Herria*, 1933, XIII, 185-186.
- “Zahar eta berri”, *Gure Herria*, 1933, XIII, 397-402.
- “Araudia”, *Gure Herria*, 1933, XIII, 481-485.
- “San Nerses-en othoitza”, *Gure Herria*, 1933, XIII, 507-509.
- “Lan eskasa”, *Gure Herria*, 1934, XIV, 97-103.
- “Une épée d'Académicien (Claude Farrère)”, *Gure Herria*, 1934, XV, 134-138.
- “Rossini et musique basque”, *Gure Herria*, 1935, XVI, 192.
- “Badea ederragorik! (Imitation de rythmes modernes)”, *Gure Herria*, 1935, XV, 212-214.
- “Curiosités linguistiques. Beherehart”, *Gure Herria*, 1935, XV, 259-261.
- “Deia (Rythmes modernes)”, *Gure Herria*, 1935, XV, 503-504.
- “Georges Hérelle”, *Gure Herria*, 1935, XV, 512-514.
- “En Sorbonne (G. Guillaume-Reicher)”, *Gure Herria*, 1936, XVI, 134-138.
- “Le suffixe *ekin*”, *Gure Herria*, 1936, XVI, 261-264.
- “Le basque dans l'enseignement primaire”, *Gure Herria*, 1937, XVII, 364-366.

- “Atchikiretzeko orena”, *Gure Herria*, 1938, XVIII, 3-5.
- “Ene kaiolan bi chori” (Poesia), *Gure Herria*, 1938, XVIII, 24-25.
- “L’auteur de ‘Maïtena’ (E Decrept) est mort”, *Gure Herria*, 1938, XVIII, 118-120.
- “Notre drapeau”, *Gure Herria*, 1939, XIX, 124-126.
- “Kobla eta othoitza. Donibane-Garazi-ko elizan bertularien egunean emana izan den hitzaldia”, *Gure Herria*, 1950, XXII, 65-70.
- “Paulo Zamarripa aphez zena”, *Gure Herria*, 1950, XXII, 291-292.
- “Deux chansons de Beñat Mardo découvertes par le R. P. Lhande”, *Gure Herria*, 1950, XXII, 293-299.
- “Aphezak bethi azken hitza bere?”, *Gure Herria*, 1954, XXIII, 118-119.
- “Debrusa!”, *Gure Herria*, 1951, XXIII, 151-152.
- “Toki eta tegi”, *Gure Herria*, 1951, XXIII, 314-316.
- “Le linguiste et l’écrivain basque (Mgr. Saint-Pierre), *Gure Herria*, 1952, XXIV, 57-63.
- “Aphez eskualdun batek behar luken kulturaz”, *Gure Herria*, 1952, XXIV, 75-84.
- “Un bertsulari. Pierre Capdevielle”, *Gure Herria*, 1952, XXIV, 124-125.
- “A propos d’une pastorale: Jeanne d’Arc”, *Gure Herria*, 1952, XXIX, 155-158.
- “Auzi bati datchikola”, *Gure Herria*, 1952, XXIV, 305-308.
- “Un mot sur la légende de Sanche le Fort dite par Marc Légasse”, *Gure Herria*, 1954, XXVI, 1-3.
- “Transcription des noms basques sur la Carte d’Etat-Major”, *Gure Herria*, 1954, XXVI, 65-68.
- “Axular’en liburuaz”, *Gure Herria*, 1956, XXVIII, 341-344.
- “L’état actuel des études basques et leur avenir”, *Gure Herria*, 1956, XXVIII, 371-384.
- “Langue et musique basque chez les israélites”, *Gure Herria*, 1957, XXIX, 4-11.
- “Deux actes notariaux de 1784 (de Saint-Pée-sur-Nivelle, montrant les difficultés d’une aliénation de propriété selon la coutume de Labourd)”, *Gure Herria*, 1958, XXX, 117-144.

- “L’enseignement des langues régionales, préface à la législation”, *Gure Herria*, 1959, XXXI, 137-144.
- “La logique en orthographe basque”, *Gure Herria*, 1960, XXXII, 63-64.
- “Philippe Veyrin, écrivain”, *Gure Herria*, 1962, XXXIV, 196-202.
- “Eskual-hitzak nola errechkiago eta hobeki ikasi”, *Gure Herria*, 1962, XXXIV, 279-284.
- “Ihardespena (P. Larzabal, euskaltzain berriari)”, *Gure Herria*, 1963, XXXV, 332-339.
- “Eskualzaleak Alduden”, *Gure Herria*, 1964, XXXVI, 303-305.
- “La littérature basque dans l’ambiance d’Ustaritz”, *Gure Herria*, 1964, XXXVI, 147-154.
- “Nola egin den Aldude” (Poesia), *Gure Herria*, 1964, XXXVI, 302.
- “Atlantika-Pirene-etako sinheste zaharrak”, *Gure Herria*, 1965, XXXVII, 97-121.
- “Les premières versions basques du *Pater* en Labourd, Basse-Navarre et Soule du XV^e siècle à nos jours”, *Gure Herria*, 1965, XXXVII, 322-327.
- “Sabin Arana Goiri. Sa vie, son oeuvre, son influence”, *Gure Herria*, 1966, XXXVIII, 145-158.
- “Manuel Lecuona eskualzale”, *Gure Herria*, 1967, XXXIX, 188-192.
- “L’art poétique basque d’Arnaud d’Oyhénart (1665). Avec une introduction de Pierre Lafitte”. *Gure Herria*, 1967, XXXIX, 195-234.
- “L’accentuation labourdine au XVIII^e siècle selon *l’Elórkia* de Pierre d’Urte”, *Gure Herria*, 1967, XXXIX, 232-234.
- “Quand parut la deuxième édition de *Linguae Vasconum Primitiae*?”, *Gure Herria*, 1967, XXXIX, 348-350.
- “A propos de l’unification du basque littéraire” (Interview avec P. Lafitte, de Eppherre, G.), *Gure Herria*, 1968, XL, 1-10.
- “Copiage bio-bibliographique autour du poète Jean d’Etcheverry”, *Gure Herria*, 1968, XL, 123-128.
- “Cambo dans la littérature basque. Eskuara Kanbon”, *Gure Herria*, 1968, XL, 216-219.
- “Récréation linguistique, *Libratu eta Askatu*”, *Gure Herria*, 1970, XLII, 188-190.

- “Nola itzul eskuaraz *voir*? *Ikusi* ala *ikus* hitzaz?”, *Gure Herria*, 1970, XLII, 205-206.
- “Redoublement de mots basques avec introduction d’un *m*”, *Gure Herria*, 1970, XLII, 253.
- “J. P. Dartayet (1822-1870) bascologue et musicologue”, *Gure Herria* 1970, XLII, 333-336.
- “Deux billets d’amoureux souletins écrits vers l’an 1800”, *Gure Herria*, 1970, XLII, 381-384.
- “Zelesin eta Zezilia arteko perpausa (1808)”, *Gure Herria*, 1971, XLIII, 52-56.
- “Baxenabarreko josteta bat. Atso eta Tup”, *Gure Herria*, 1971, XLIII, 221-223.
- “Sobre obras de J. P. Dartayet”, *Gure Herria*, 1971, XLIII, 255-256.
- “Jean Hiriart-Urrty et les débuts du journalisme en langue basque”, *Gure Herria*, 1971, XLIII, 321-338.
- “Précisions relatives aux abbés Martin et Louis Duhalde, d’Ustaritz”, *Gure Herria*, 1971, XLIII, 371-379.
- “Zer dakigu Leizarragaz”, *Gure Herria*, 1972, XLIV, 83-88, 143-148.
- “Larreko eskualzale eta idazlari”, *Gure Herria*, 1972, XLIV, 225-230.
- “Eskualdun zintzo bat Juan Esperne (1891-1972)”, *Gure Herria*, 1972, XLIV, 286-288.
- “Sur le suffixe *-ke*”, *Gure Herria*, 1973, XLIII, 61-62.
- “Le serment d’Hippocrate en basque”, *Gure Herria*, 1973, XLIII, 117-118.
- “Un centenaire: le Père Blaise, de Mendionde, auteur basque (1873-1973)”, *Gure Herria*, 1973, XLIII, 175-183, 207-214, 336.
- “Bernard Gazteluzar olerkaria (1619-1701)”, *Gure Herria*, 1974, XLIV, 9-14, 69-76, 161-176.
- “Mende huntako Euskaldun idazleen pentsabideak”, *Gure Herria*, 1974, XLIV, 207-218, 261-267.
- “Une géographie diachronique du basque en Navarre (de A. Irigaray)”, *Gure Herria*, 1974, XLIV, 219-222.
- “Jean Barbier”, *Gure Herria*, 1975, XLV, 259-264.
- “Barbier Jaun apez”, *Gure Herria*, 1975, 265-271.

Euskera agerkarian argitaratuak

- “Saint-Pierre apezpiku jauna (1884-1951)”, *Euskera*, 1953, I, 42-43.
- “Jean Elissalde (1883-1961)”, *Euskera*, 1961, VI, 345.
- “P. Lafitte jaun kalonjeak egin ihardespena” (X. Diharceren sarrera-hitzaldiari) *Euskera*, 1962, VII, 70-73.
- “k- eta z-ren arteko aldakuntzaz oharpen labur bat”, *Euskera*, 1963-1964, VIII-IX, 501-503.
- “Gibelka eratorri hitz batzuez”, *Euskera*, 1972, XVII, 91-93.
- “Zer dakigu Leizarragaz?”, *Euskera*, 1972, XVII, 143-148.
- “Domingo Soubelet (1879-1970)”, *Euskera*, 1972, XVII, 286-287.
- “Euskal ipuinak”, *Euskera*, 1973, XVIII, 160-166.
- “Larreko eskualzale eta idazlari”, *Euskera*, XVIII, 1973, 191-195.
- “Antoinette Lacarra (1893-1970)”, *Euskera*, 1973, XVIII, 289-290.
- “René Lafon zenaz zonbait hitz”, *Euskera*, 1974, XIX, 5-8.
- “Euskal-aditzeko hiru -ke atzizkiak”, *Euskera*, 1974, XIX, 152-156.
- “Aita Blas Mendingondokoa (1873-1914)”, *Euskera*, 1974, XIX, 278-285.
- “XVIIgarren mendeko Ioannes Haraneder fraidea”, *Euskera*, 1975, XX, 397-399.
- “Joanes Chabagno (1881-1975)”, *Euskera*, 1975, XX, 545-546.
- “Gregoire Eppherre (1929-1974)”, *Euskera*, 1975, XX, 549.
- “Guillaume Eppherre (1911-1974)”, *Euskera*, 1975, XX, 550-551.
- “Etienne Lapeyre (1840-1893)”, *Euskera*, 1976, XXI, 111-114.
- “Oskodun baten izenak”, *Euskera*, 1976, XXI, 127-128.
- “Barbier jaun apez”, *Euskera*, 1976, XXI, 269-276.
- “Louis Dassance (1888-1976)”, *Euskera*, 1976, XXI, 364-366.
- “Euskal aditzen hiztegi baterako ohar zenbait”, *Euskera*, 1977, XXII, 114-116.
- “Koska eta entterka Heletan”, *Euskera*, 1977, XXII, 138-139.
- “Pierre Eyheramendy (1891-1975)”, *Euskera*, 1977, XXII, 303.
- “Aita Lhande-ren lanez”, *Euskera*, 1977, XXII, 433-436.
- “Joanes Leizarraga-ren lanez”, *Euskera*, 1977, XXII, 751-753.

- “Georges Lacombe (1879-1947)”, *Euskera*, 1979-2, XXIV, 487-493.
- “Duvoisin kapitainaz ohar purruxka batzu”, *Euskera*, 1979-2, XXIV, 753-758.
- “Sauveur Narbaitz (1908-1979)”, *Euskera*, 1979-2, XXIV, 849.
- “Aspektua euskal aditzean”, *Euskera*, 1980-2, XXV, 483-498.
- “Egiategi: Euskal bibliografiaren osatzale”, *Euskera*, 1982-1, XXVII, 291.
- “Alfonsa Rodriguez Jesusen Konpañako aitaren *Giristiño perfektzionaren pratika*-ren parte bat euskarala itzulua, euskara bezik eztakienendako”, *Euskera*, 1982-2, XXVII, 437-442.
- “Pierre-Guillaume de la Vieuxville (1682-1734)”, *Euskera*, 1982-2, XXVII, 619-620.
- “*Iker-2* eta eskerrik asko” (Lafittek bat-batean hitzez emana eta Maite Mendiburuk traskribatua), *Euskera*, 1983-2, XXVIII, 381-383.
- “Albert Leon (1883-1953)”, *Euskera*, 1984-1, XXIX, 331-334.
- “Nor zen Mgr. Saint Pierre”, *Euskera*, 1984-2, XXIX, 471-475.

Zenbait aldizkaritan argitaratuak

- “L’état et l’enseignement du basque”, *Aintzina*, 1942, III, 9-10.
- “Origine des noms propres basques”, *Aintzina*, 1943, IV (Epaila), 9-11.
- “J. B. Etcheberry *Almanakaren aita* (1806-1898)”, *Gure Almanaka* 1970, 13-15.
- “Liburu eder bat: *Obrak mintzo* (de J. B. Etcheberry)”, *Almanaka*, 1971, Baiona, 13-14.
- “Jean Barbier (1875-1933)”, *Gure Almanaka*, 1976. Baiona, 1975. I. Bizia/II. Euskal lanak. 13-18.
- “Les citations d’Axular”, *Axular*, 1643-1943. Biarritz, 1943. 38-39.
- “Les courants de pensée dans la littérature basque contemporaine”. *BSB*, Baiona, 1968, 783-802.
- “Manex Etchamendy, poète basque (1873-1960)”, *BSB*, Baiona, 1975, 355-361.
- “L’opérne de Biarritz”, *BSB*, Baiona, 1975, 500.
- “Propositions pour un dictionnaire des verbes basques”, *BSB* 132, Baiona, 1976.

- “Apport de M. le professeur Henri Gavel (1880-1959) au développement des études basques”, *BSB* 136, Baiona, 1980.
- “Rapports des formes et des formules en langue basque”, *BRSVAP*, Donostia, 1949, V, 459-464.
- “Deux traductions de l’Enfant Prodigue, ou Jean de Haraneder revue par Maurice Harriet”, *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 1964, 8-16.
- “Un essai de pastorale labourdine. Orreaga. Etude comparative avec la pastorale souletine”, *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 1964, 76-86.
- “L’oeuvre de Luis Michelena Elissalt”, *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 1965, 1-24.
- “Cinq dictionnaires basques (1. Vocabulario vasco-castellano. Zarautz; 2. Diccionario vasco-español, de López Mendizabal; 3. Iztegi erderaeuskera; 4. Diccionario castellano-vasco de P. Mugica; 5. Diccionario Auñamendi español-vasco)”. *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 1965, 171-177.
- “Bibliographie”, *Bulletin du Musée Basque* 38, Baiona, 1967, 177-180.
- “Une lettre inédite du Père Joseph Moret à Arnaut d’Oihénart (28 Février 1667)” *Bulletin du Musée Basque* 39, Baiona, 1968, 1-16.
- “Correspondance adressée par Georges Lacombe à l’Abbé Martin Landerretche”, *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 1968, 49-55.
- “Lettres de G. Lacombe (Extraits)”. *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 1968, 40, 57-76, 41/42, 97-108.
- “Un dictionnaire étymologique des dialectes basque-français”. *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 1968, 149-162.
- “Deux thèses de doctorat relatives à Pierre Topet-Etchahun, poète souletin (de Jean Haritschelhar)”. *Bulletin du Musée Basque*. Baiona, 1970. 202-206.
- “Autour des études gasconnes”. *Bulletin du Musée Basque*. Baiona, 1972, 153-159.
- “Hommage à René Lafon”, *Bulletin du Musée Basque*. Baiona, 1976. 181-202.
- “Lapurdiko astekari batez”, *Cantabria Franciscana* (revista interna de los Franciscanos de Cantabria), Arantzazu, Junio-Octubre 1961, 304-306.
- “Erlisioe paganoak eskualde hauietan”. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*. 1973. V, 121-132.
- “Berritasunaz”, *Egan* 5-6, 1955. Donostia, 6-11.

- “Ibilarixanak”, *Egan*, 1967, XXVI, Donostia, 117-118.
- “Basques”. *Encyclopaedia Universalis*. Paris, 1969, 32.
- Etienne Salaberry-ren omenez, Heletan 1978ko urriaren 16an Eskualza-leen Biltzarrak eskainiz Pierre LAFITTE “Herria-ko buruzagiaren hitzal-dia” *Etienne Salaberri euskalzaleari Eskualzaleen Biltzarrak eskaini Ome-naldia*, 43-47. Baiona, 1979.
- “Spinoza”, *Euzko Gogoa*, 1956, VII, 54-60.
- “La langue basque de 1939 à 1947”, *Eusko Jakintza*, 1947, 1, 8-18.
- “L’expression de l’aspect en basque”, *Eusko Jakintza*, 1947, 1, 305-313.
- “Réflexions sur l’origine des préfixes pronominaux dans le verbe bas-que”. *Eusko Jakintza*, 1949, III, 61-72.
- “Comment la valeur de quelques suffixes s’est précisée en basque” (sobre LAFON, R. “Sur les suffixes casuels -ti et -tik”) *Eusko Jakintza*, 1949, III, 95-98.
- “La proposition exclamative en navarro-labourdin”, *Eusko Jakintza*, 1951, V, 231-236.
- “Note sur le mot *koska*”, *Eusko Jakintza*, 1953-1957, VII, 133.
- “Le Poète Souletin Pierre Topet Etchaun (1786-1862)”, *FLV*, 1969, Iruñea, 387-395.
- “Etxahunen bertsoak gipuzkeraz”, *FLV*, V, Iruñea, 1970, 235-244.
- “Autour de gizon bat et gizon bi”, *FLV*, 1972, IV, Iruñea, 293-297.
- “Notes sur la poésie chez Bernard Gasteluçar”, *FLV*, 1974, VI, Iruñea, 241-259.
- “Les hexamètres de B. Borda (1854)”, *FLV*, 1978, X, Iruñea, 493-523.
- “Lettre ouverte à Monsieur Nicolas Ormaechea”, *Gernika*, 1950, 10, 19-120.
- “Gazte bati literaturaz”, *Hegatsez*. Hitz lauzko bilduma. BASAURI, S., SAN MARTIN, J. Zarautz, 1971. Ed. Itxaropena, 196-200.
- “Becas-en bertsu andana bat”, *Gran Enciclopedia?*, *Gure Herria?*
- “Louis Etcheverry (1853-1907)”, *Herria*, 1969, 965.
- “Amodiozko kantauak Lapurdin, Baxenabarren eta Ziberon”, *Homenaje a don Odón de Apraiz - Odon Apraiz-i Omenaldia*. Vitoria, 1981. 199-214.
- “Ressemblances linguistiques”, *Homenaje a D. Julio de Urquijo*, 1949, I, 213-216.

- “Un desideratum sur la manière de transcrire les noms basques”, *Ikuska*, 1947, I, Sara, 211-216.
- “La toponomie basque et les nouvelles Cartes de France”, *Ikuska*, 1948 II, Sara, 61-62.
- “Joakin Lizarragaren euskalkiak Ipar-Euskadikoekin dituen kidetasun zenbaitez”. *Iker-I*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1981, 403-404.
- “Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak”, *Kardaberaz Bazkuna*, 1974, III, 67-85.
- “Herri literaturaz”, *Lur eta Gizon*, Oñati, 1974, 243-263.
- “Eskutitz zenbeit”, *Otoizlari*, 116, Avril-Juin, 1985, Urt, 9-17.
- “Azken oreneko xedeak”, *Otoizlari*, 116, avril-juin, 1985, URT 20-21. *Karmel*, 175. Urria-Abendua, 1985, 78-80.

* * *

BSB: Bulletin de la Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne.

BRSVAP: Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País.

FLV: Fontes Linguae Vasconum.

LIBURUAK

- *Julien Heguy Apeza*, Baiona, Gure Herria, 1930, 12 orr.
- *Eskualdunen loretegia (XVIgarren mendetik hunateko liburuetarik bildua. Lehen zathia, 1645-1800)*. Laserre, Baiona, 1931, 133 orr.
- *Ithurralderen kantuak*. Imp. La Presse, Baiona, 1932, 62 orr. (ITHURRALDE, P. ezizenez argitaratua).
- *Parmi les compositeurs de Cantiques basques. M. le chanoine Gratien Adéma (1828-1907) M. l'abbé Jean Barbier*, Imp. de la Presse. Baiona, 1933. 47 orr.
- *Eskual-Herriaren alde*, Baiona. La Presse, 1933 (Euskaraz) 48 orr.
- *Pour le Pays Basque* (Court commentaire du programme “eskualerriste” à l’usage des militants). La Presse. Baiona, 1933. 48 orr. (Frantsesez).
- *Koblakarien legea*. Baiona. Gure Herria, 1935, 16 orr.

- *Jesu-Kristoren Bizitzea edo Ebanjelio ttipia*. 1. Argitalpena: Abbeville “Paillart”. 1939, 80orr. 2. Argitalpena: Baiona. “Le Livre”, 1941, 134 orr.
- *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Base-Navarre et Soule* (conférence). Baiona. Le Livre. 1942. 91 orr. Collection “Aintzina”.
- *Hazila edo hilen ilabethea*, Impr. La Presse, Baiona, 1943. 69 orr.
- *Errepikan* (Kantuz bildumaren jarraipena). Baiona, Le Livre, 144, 110 orr. (Kantuz liburua ETCHEMENDYrekin batera elkar lanean egina da).
- *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire)*. 1. Argitalpena: Bayonne, Le Livre, 1944, 489 orr. 2. Argitalpena: Elkar, Donostia, 1979, 489 orr.
- *Murtuts eta bertze*, Baiona. “Aintzina 3”. La Presse. 1945. 56 orr.
- *Georges Lacombe 1879-1947*. Pierre Lafitte aphezak Eskualzain sartzeko egunean eman zuen hitzaldia. Impr. du Courrier. Baiona. Abendua 1949. 11 orr.
- *Les meilleurs pages de Monseigneur Saint-Pierre*. Baiona. Le Courrier. 1952. 330 orr.
- *Autour de la Bible traduite en basque par le père R. Olabide*. Baiona. Herria. Cordeliers, 1959, 24 orr.
- *Sabin Arana Goiri, Sa vie, son oeuvre, son influence*. Baiona. Gure Herria. Cordeliers. 1966. 16 orr.
- *Oxobi-ren lan oroigarri zonbait*. Baiona. Gure Herria. 1966. 214 orr.
- *Eguberri-aroa eskualdunen ohiduretan*. Baiona. Gure Herria, 1970. 14 orr.
- *Idek eta zabal*. Impr. Cordeliers. Baiona, 1971. 72 orr. (Herria liburu sailetik) ITHURRALDE, P. izenez argitaratua.
- *Mañex Etchamendy bertsularia (1873-1960)*. (Aintzin solasa, biografia eta oharrek) Auspoa, Tolosa, 1972. 44 orr.
- *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)*. (Présentés, transcrits, traduits et annotés par P. Lafitte). Ikas, Baiona, 1972. 198 orr.
- *Frantzes Asis-tar sainduaren ordenak Ipar-aldeko Euskaldunen artean*. Gure Herria, 1977, Baiona. Cordeliers. 12 orr.
- *Pierre Topet-Etxahun*. Baiona. Musée Basque. 15 orr. (Urterik gabe).

ANTZERKIAK

- “Egiazko argia. Azken gerlako gertakari bat”. *Gure Herria*, 1927, VII, 104-113, 302-309, 494-503. Tolosa. López Mendizabal, 193...? (*Antzerti*, 14-15, 1933).
- *A l'écoute de notre âme* (Choeur parlé, frantsesez). Ustaritzeko seminarioan multikopian aterea, 1938 inguruan (Xarritonek esana).
- “Sarea. Norvège-ko kantore chahar bat P. Ithurralde-k eskuaraz antolatua ikhusgarri gisa”. *Gure Herria*, 1950, XXIII, 4-8.
- “Arroltzeak”, *Gure Herria*, 1951, XXIII, 18-21.
- “Orratza”, *Gure Herria*, 1955, XXV, 97-115.
- *Chalbaten mertchika-ondoak*, “Herria”, Baiona, imp. des Cordeliers, 1962.
- *Hil-biziaren ordenua*. Baiona. “Herria”, 1964, 15 orr.
- “Gonzalve edo ostatu betea. (Aintzin-solasa eta eskual komedia Elémir Bourges frantsesez idatzitakotik itzulia)”, *Gure Herria*, 1969, XII, 129-148.

HITZAURREAK

- BARBIER, Jean: *Antxitxarburuko buhamiak*, Cordeliers, Baiona, 1971, 40 orr. (Jean Barbier-ez bi hitz, 3-4 orr. eta ondoko solasa 39-40).
 - CHARRITTON, P.: *Eskualdunak*. Baiona, 1943 (Préface de P. Lafitte).
 - ELISSAGARAY, M.: *Etcheandia. Histoire d'une maison basque*. Préface de M. le chanoine P. Lafitte. Baiona, 1962.
 - ETCHEPARE, J.: *Axular*. Baiona. “Herria”. 1956. 12 orr. (Lafitteren hitzaurrea).
 - ETCHEPARE, J.: *Eskualzainburu*. Baiona. “Herria”. 1965. 16 orr. (Lafitteren Solas-ondo).
 - ETCHEPARE, J.: *Buruxkak*. Elkar. Donostia, 1980. 195 orr. (Lafitteren aintzin-solasa).
 - FRANCISQUE-MICHEL: *Le Pays Basque*. *Gure Herria*, 1971, XLIII, 199-208 (Prólogo a la nueva edición, Bilbao, 1971).
 - HIRIART-URRUTY, Jean: *Mintzaira, aurpegia: Gizon! Jakin*. Oñati, 1972. 221 orr. (P. Lafitten aintzin-solasa 13-42 orr.).
 - HIRIART-URRUTY, Jean: *Zezenak errepublikan*. Jakin. Oñati, 1972. 212 orr. (Antologia biltzaile P. Lafitte).
- Oharra: Hiriart-Urruty hau 1895-1915 urtetakoa da. Ez du ezer ikustekorik gure egunotako Jean Hiriart-Urruty-rekin).

- HIRIART-URRUTY, Jean: *Jauna dut argi*. Baiona, 1977. (Aintzin-solasa P. Lafittek egina).
Oharra: Hiriart-Urruty hau gure egunotakoa da.
- IBARRART, Piarres: *Koblak*. “Herria”. Baiona, 1948. 30 orr.
- JAUREGUIBERRY, J.: *Basabürrian*. Baiona, 1952. (Préface de P. Lafitte).
Gure Herria, 1952, XXVI, 182-184.
- LASALLE, Leon: *Gure erlisionearen frogantza*. (Aintzin-solasa, 3-4 orr.)
Imp. Cordeliers. Baiona, 1961, 34 orr.
- OYHENART, Arnaud d’: “L’art poétique basque. Un inédit d’Arnaud d’Oyhénart” (Extr. de *Gure Herria*, 1967, XXXIX). Editions “Gure Herria”. Baiona, 1967. 45 orr. (Lehen 14 orrialdeak aurkezpenez eta jarraian, 15. orrialdetik 39.era Oihenarteren lan argitara gabea eta 41etik 45era P. Lafitteren oharrek eraskinez).
- ZAITEGI: *Platon’eneko atarian*. “Platon’en hirur aurpegi” hitzaurrea XIII-XXIII orr. Donostia, 1962.
- ZENBAIT AUTORE ELKAR LANEAN: *Kantikak*, “Le Livre”, Baiona, 1948 (P. Lafitte, “Aintzin-solasa”, 5-7).
- ZENBAIT AUTORE ELKAR LANEAN: *La Tradition au Pays Basque*. Avant-propos pour la édition de P. Lafitte. Donostia, 1982. Elkar, I-IV orr.

ELKAR LANEAN (Liburuak)

- LHANDE, P. (Lafittek lagundua): *Dictionnaire Basque-Français*. Gabriel Beauchesne. Paris, 1926, 1117 orr.
- LAFITTE, P. - ARANART, Ph.: *Maiatza edo Mariaren hilabetea*. Julien Heguy-rena. 2. argitalpena. Baiona, La Presse. 1932. 100 orr.
- DURRUTY, Simon: *Elizako liburu ttipia, P. Lafitte aphezak chuchendu, emendatu eta argitaratua*. Baiona. “Le Livre”. 1932. 285 orr.
- LAFITTE, P. - ARANART, Ph.: *Vocabulaire français-basque*. Baiona. “Le Livre”. 1941. 77 orr.
- *Troisième Centenaire du Guero 1643-1943*. (Folleto publicado en el País Vasco-francés con ocasión del tercer centenario de *Guero*). Escriben diversos autores del País Vasco-francés.
- LAFITTE, P. - TOURNTER, A.: *Lexique Français-Basque*. “Le Courrier”. Baiona, 1953. 552 orr.
- LAFITTE, P. - LEGASSE, M.: *Petri-Marka. Santcho Azkarra. La légende d’amour et de mort du roi Sanche de Navarre*. Baiona. “Herria”, 1954, 39

orr. (Hasierako Petri-Marka-k Xarrittonek esan zidanez haxe adierazi nahi du: Petri, (Pierre Lafitte) eta Marka, (Marc Legasse).

- LAFITTE, P. - ARANART, Ph.: *Andre Dena Maria*. Baiona. “Herria”. 1954. 128 orr.
- LAFITTE, P. - BARBIER, J.: *Fantasia y realidad. Selección literaria vasca*. Con traducción de textos por el P. I. J. Goikoetxea. San Sebastián. Auñamendi (III). (Forma el vol. III de *Fantasia y realidad. Antología literaria vasca*. San Sebastián, 1964). Contiene: LAFITTE, P.: “Piarres Ibarrat’en koblak” pp. 13-103. BARBIER, J.: “El poeta Charles Bécas” pp. 105-172.
- LAFITTE, P. - DASSANCE, L.: *Kantu, kanta, khantore* (Bilduma). Imp. des Cordeliers. Baiona, 1967, 263 orr.
- *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca*. Vol. I. Bilbao, 1976. (Bibliografiak dakarrenez P. Lafitteren *Grammaire Basque* eta *Manex Etchamendy bertsularia* liburuetako lexikoa jasotzen du. (Ikus XXII orr.) Hiztegi hau, Introducción deritzan sarreratxoan aitortzen duenez Manuel de la Sota-ren fitxategietan oinarritzen da eta orainarte lau tomo agertu dira: 1976-1978 bitartean *A* letratik *Guzuzera* artekoa. XLV-XLVI orrialdean honako hau dio: “En lugar eminente debe figurar como colaborador de primera hora y animador de la obra de Manuel de la Sota, el canónigo y polígrafo de la Vasconia continental Pierre Lafitte. Es deseo expresado por Manuel de la Sota al redactor de este prólogo que hiciera figurar aquí el nombre de Lafitte en el mismo rango que el suyo. Era mi deber hacerlo y lo he hecho”. Argitalpen hori Lino Akesolok prestatua da.
- VILLASANTE, Fr. L.: *Historia de la literatura vasca*. Ed. Aranzazu (2.^a edición). Oñati, 1979. (Beste alderdiko autoreei buruz informazioa eman ziola aipatzen du sarreran).
- GRAMATIKA BATZORDEA: *Euskal Gramatika. Lehen urratsak*. Euskaltzaindia, Iruñea, 1985.
- LAFITTE, P. - Etchemendy, P.: *Kantuz* (Recueil de 120 chansons populaires Basques. Paroles et musique par P. Etchemendy et P. Lafitte). Musikaz lagundua. Eskual-Herria. Baiona (urterik gabe). 203 orr.
- LEGASSE, M. - LAFITTE, P.: *Gastibeltzaren karabinak*. “Gure Herria”. Baiona. Urterik gabe. 46 orr. (Escrito en francés y traducido al euskara por P. Lafitte).
- H. HIRIART-URRUTY: *Zer eta zer*. Baiona, “Aintzina”, 1944. 55 orr. (Lafittek argitaratua).
- ZEPHURU: *Har-uzka*. Baiona, “Ikas”. Urtea? 52 orr. (Lafittek argitaratua).

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

DECLARACION SOBRE EL ANTEPROYECTO DE LEY DEL EUSKERA EN NAVARRA

La Junta de Gobierno de la Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, reunida en su sede de Pamplona, junto con los académicos navarros, acuerda realizar la siguiente declaración:

NOTA DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA, EUSKALTZAINDIA, SOBRE EL "PROYECTO DE LEY REGULADORA DEL USO OFICIAL Y DE LA ENSEÑANZA DEL EUSKERA EN NAVARRA Y DE DETERMINACION DE LAS ZONAS DE PREDOMINIO LINGUISTICO VASCO".

1. La Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, ha tenido conocimiento del anteproyecto de la Ley Foral sobre el euskera a través de la prensa.

2. Tal como se establece en el Decreto Real de 26 de febrero de 1976 y en los textos fundacionales de esta Real Academia, Euskaltzaindia tiene, entre otros fines, el de "velar por los derechos de la lengua".

3. Es objeto de profunda preocupación para esta Real Academia el criterio del anteproyecto, que divide Navarra de modo arbitrario y sin relación alguna con los usos de la legislación comparada sobre política lingüística. Los navarros se ven privados así de la oficialización de lo que en términos legales se llama "estatuto personal" frente a una absolutización del "estatuto territorial" por el confinamiento de la lengua a unas determinadas zonas. Confiamos que este anteproyecto, cuyas contradicciones y deficiencias de redacción pueden deberse fundamentalmente a la insensibilidad frente a unos valores que reflejan la identidad navarra, será sustancialmente alterado en el proceso del proyecto definitivo y aprobación de la ley.

4. La Academia, ya en su día, expresó de modo oficial sus grandes reservas al tratamiento de las cuestiones lingüísticas, tanto en la Consti-

tución española vigente como en la Ley del Amejoramiento. Con todo, este anteproyecto restringe sensiblemente los límites establecidos en la legislación anterior citada.

5. Euskaltzaindia reitera su ofrecimiento de colaboración en los campos que le son propios, como es el euskera, que ha de entenderse como patrimonio vivo y sin carácter subalterno.

Pamplona, 7 de noviembre de 1985.

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

1985-VII-19

Donostian, Gipuzkoako Diputazio Jauregian, uztailaren 19an arratsaldeko 4etan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, P. Salaburu, J. M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzainak. P. Andiazabal, J. A. Arana, J. A. Arkotxa, M. Atxaga, M. Azkarate, R. Badiola, P. Goenaga, J. L. Lizundia, M. Zalbide eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak. Ezin etorria adierazi dutenak, J. L. Davant, E. Knörr eta P. Larzabal izan dira.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Ekaineko batzar agiria onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

Maileguzko hitzen VIII.atala. Emile Larre eta Beñat Oyhartzabal jaunekin batera prestatutako erabakigaiak aurkeztu du J. Haritschelhar jaunak. “Bi txistukari elkarren ondoan” gertatzen direneko kasua, alegia. Azken orduan banatu zaie euskaltzainei txostena, hots, goizeko batzarraren hasieran, eta astiro ikusteko epea eskatu dute batzartuek. Beste aldi baterako utzi da, beraz, eztabaida eta azken onespena.

Hau da mailegu berriei buruz Euskaltzaindiak bere plangintzan hartzekoa duen azken erabakia eta, hartu bezain laster, *Euskera*-n argitaratuko du adierazpen hauen bilduma euskaltzainburuaren hitzaurrearekin.

Euskaltzain berriaren izendapena. Eguneko gaien bigarren pundua, P. Lafitte zenaren hutsunea betetzeko euskaltzain berria hautatzea zen. Aurkeztutako hautagai bakarra, Pierre Charritton, honako hiru euskaltzainok babestu dute: J. Haritschelhar, J. L. Davant eta J. San Martinek. Bere merezimenduen agerpena egin ondoren, Arautegiak dioena aipatu du euskaltzainburuak. Hamahiru euskaltzain batu dira, agiri honen hasieran esan denez, eta beste hiruren botzak idatziz jaso dira, J. L. Davant eta P. Larzabalek, J. Haritschelharri emanez euren ahala; eta E. Knörr-ek, P. Salabururi. Hamasei txartel legeztatu dira, beraz. Hauetatik, hamabost baiezkotzat izan dira, zuri batekin, eta lehen bozketan izendatu da euskaltzain berria. Horrela jakineraziko zaio Pierre Charritton jaunari.

Azken ordukoak. Bilbon Plaza Barriko egoitzaren hitzarmena uztailaren 10ean izenpetu zela, jakinerazi da batzartuei. J. M. Arriola notarioak euskaraz jaso du honen agiria. Bizkaiko Diputazioaren aldetik J. M. Makua eta P. Zurikaray egon omen ziren bertan, hala nola L. Villasante, A. Irigoyen, P. Salaburu, J. San Martin, J. A. Arana eta J. J. Zearreta, Euskaltzaindiaren izenean.

“Isabel Lertxundi eta Jesus Mari Aldai” Durangoko Idatz-lehiaketaren antolatzaileek epai mahairako lagun baten izena eskatu dute. A. Irigoyen arduratuko da.

Checoslovaikiatik Pavel Mrkvánek jaunak euskal olerkien itzulpena egiteko asmoa agertzen du, horretarako gaiak eskatuz. Euskal Herrira etortzekoa denez jaun hori, P. Salaburu arduratuko da bere harremanez Bizkaian, eta J. San Martin Gipuzkoan.

Gutun baten bidez E. Knörr euskaltzainak aditzera ematen du, ekaineko batzar agirian ez dela aipatzen berak Campion-Broussain Elkargoaren urteko batzarreaz esandakorik. Horren berri eman zuen, noski, balantzea eta guzti.

Batzordeen berri

Argitalpenak. Iruñerriko toki-izenen lehen bilduma, J. M. Jimeno Juriok egina, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak ordaindurik argitaratuko dela, esan du J. M. Satrustegik. Diru laguntza hau onartua izan da eta Iker Saileko sorta berri baten hasiera da.

Idazleen zuzenketak epe mugatu baten barnean egin beharra ikusi da. Era berean testuak aldatu eta gehitzarik ez dagoenez, egile bakoitzari ohar hauek oroitaraztea erabaki da. P. Altuna izendatu da harremanen arduradun, arazoa bideratzeko eskariarekin eskubide osoak emanez.

Gramatika. Hilabete batez amaitu direla Euskaltzaindiak beretzat hartuak zituen Iruñeko Biltzarreko txostenaren mila aleak, esan dute batzordekoek. Ezin dugu ahortzi beste mila badituela elkar-edizioz jasoak Nafarroako Gobernuak eta haiek zertan diren ikusi behar da lehenik, beste argitalpenarekin sartu aurretik. Ondoko egunetan beraiekin mintzatzekotan gelditu da J. M. Satrustegi.

Biltzarreko beste txostenak inprimategian aurreratuak dauzkate eta laster bialduko omen zaizkie egileei. **Euskera**-ren zenbaki bat osotzen dute.

Dialektologia. Batzordea goizean bildu da Atlasen egoera aztertzeko eta arratsaldean jarraitzen duelarik euren bilerak, ez dute batzarrera inolako agerpenik ekarri.

Txostena

M. Zalbidek Euskaltzaindiaren eskariz Hiztegitagintza batzordeaz egindako txosten mardula irakurri du. Lau puntu nagusi azpimarratu ditu bere lanean: Orain arte ibilitako bidea, epe luzerako plangintza, 1990 arteko asmoa, eta epe

laburrerako ekintzak. Honelako lan zabala aurrera eraman ezinik ez du ikusten txostengileak. Galdera bati erantzunez, zera dio: Hiztegitzinta Euskaltzaindiak bere-bere lana duela eta hemen aurkeztutako batzorde baten bidez aurrera eramateko modukoa dela. Euskaltzaindiaren lana ote den galdetu duenez F. Krutwig jaunak, euskaltzainburuak erantzun dio arauak ematea geure eginkizuna dela. Maileguzko hitzekin egin den bezala, hitz elkartuekin hasiko gara orain eta eratorpenekin geroago. Gure egitekoa ez da zein hartu behar diren esatea, itxura aldetik nola egin behar den baizik

Liburu aurkezpena

Euskararen Lekukoen bilduman hamaikagarren zenbakia aurkeztu du L. Villasante jaunak. “*Bayonaco Diocesako Bi-garren Catichima*” hau prestatzen nola hasi zen azaldu ondoren, liburuaren berezitasunak eman ditu. Hizkuntza aldetik bere garrantzia izan zuen Iparraldean, Baionako elizbarrutian anitz urtez testu bezala egon baitzen. Ba ziren Lavieuville gotzaiaren aginduz ateratako bi kristau-ikasbide: laburra eta gaur kaleratu hau. Lapurdierara G. Harosteguyk itzuli zuen eta hau oinarritzat harturik egin zuen J. A. Mogekek, bizkaieraz, argitara gabeko bere itzulpena. XVIII.mendeko eliz-giroa eta Lapurdiko literatur-tradizioa aztertzen ditu hitzaurrean Villasantek, argitalpen honi nahiz testuari egindako oharrekin amaitzeko. Julio Urquijo-ren liburutegian badago argitalpen zaharretako ale bat. Euskara idatziaren lekukoetara jotzea behar beharrezkoa da eta bilduma honen helburua zera da, iragan mendeetako idazkiak edizio fidagarrietan ikerleei eskaintzea, esan du euskaltzainburuak. G. Harosteguyren euskara guztiz ona da. Argitalpen honetan, testua dagoen bezala eman da. Azkenekoz, eskerrak eman dizkie lagundu diotenei.

J. Haritschelharek eskerrak eman dizkio liburu honen prestatzen egin lanagatik Villasanteri. Apeza ez bada ere, auzapez ohiak azken hitza bere, esan du umorez. Liburuaren hitzaurrea eta edukina aipatu ditu lehenik, 48 orritan emandako hiztegia azpimarratuz. Lan haundia da azken urte hauetan idazle zaharren hiztegia jasoz egin den lana, eta oraiko hau ia nehork ezagutzen ez zuen Harosteguyrena. Euskararen Lekukoetan bederatzi idazle agertu direlarik, zazpi Iparraldekoak direla ikusteak zerbait esan nahi duela, zioen Haritschelharek. Euskal Literatura denena da eta “batasunaren aldeko batasuna” agertzen du. Beste urrats bat Euskaltzaindiaren lan haundian.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

Jose M.^a Satrustegi
Idazkaria

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1985.eko irailaren 27an egin du Euskaltzaindiak arratsaldeko lau t'erdietan hileroko bere bilera. Bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, P. Salaburu, J. San Martin, euskaltzain osoak J. A. Arana, R. Badiola, F. de Barrenengoa, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza, J. Oleaga, K. Rotaetxe, P. Ulibarren eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak. J. M. Satrustegik, aurreko beste bileretan egon arren, arratsaldekoaren hasieran atera behar izan du.

J. Hiriart-Urruty, F. Ondarra eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Uztaileko batzar agiria onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

Egoitza honetan bertan bildu dira goizean euskaltzain osoak, mailegu berrietako azken atala, hots, bi txistukari elkarren ondoan gertatzen direneko arauak onartzeko. J. Haritschelhar, E. Larre eta Beñat Oyhartzabalek aurkeztu zuten uztailean erabakigaitza, eta astiroago ikusteko ez zen orduan erabakirik hartu. Izan ere, zenbait ikuspegi desberdin agertu dira irakurritako gutunetan, baina zailtasun haundirik gabe bateratu dira azkenean. Onartutako erabakia hau izan da:

“Zenbait mailegutuan latinez *-ss-*, *-sc-* (*-i*, *-e*), *sch* (*-i*, *-e*) grafiei dagozkienak euskaraz nola eman daitezkeen finkatzeko Euskaltzaindiak duen eritzia:

1. Maileguzko hitzetan latinak jatorriz bokal artean bi *-ss-* izanarren, euskaraz bat idaztea hobesten da, hala nola, *asimilazio*, *disimilazio*.

2. Latinez *-sc-* (grekoz *-sk-*) multzoa *-i* edo *-e* bokalen aurrean gertatzen denean, euskaraz *-sz-* idaztea onartzen da, eta hitzaren hasieran baldin bada *e-* protetikoa hartuko du, hala nola, *aszetika*, *eszeptiko*.

Baina euskaraz tradizio zaharretik datozkigunek *-z-* eraman dezakete, hala nola, *dizipulu*, *diziplina*, eta berriagotan *zientzia*, *ziatika*.

3. Latinez *-sch-* (grekoz *-skh-*) multzoa *-i* edo *-e* bokalen aurrean gerta badadi, euskaraz *-sk-*; hala nola *eskema*, *eskizofrenia*. Halaz ere hitz zaharretan ohiturari jarraituko zaio, hala nola *zisma* / *xisma* eta honetarik datorren *zismatiko* / *xismatiko*".

Mailegu berrien itxura eta idazkerari buruz Euskaltzaindiak hiru urtez egin-dako lana burutu du VIII. atal honekin. Argitalpenari dagokionez, lehenbait-lehen kaleratzea komeni dela ikusten da, baina erabaki guziak bateratzean gerta daitezkeen azaleko desberdintasunak orrazteko, P. Altuna eta A. Irigoyenek berri-kusiko dute lan osoa forma aldetik. L. Villasantek egin dio ohar adigarriekin sarrera bildumari, eta bere ardurapean gelditzen da xehetasunen azken begiratu.

Batzarraren hasieran, euskaltzainburuak ongietorria eman dio euskaltzain kargu berrian lehenengoz batzarrera etorritako P. Charritton jaunari.

Eskuarteko gaien artean, Bizkaiko Aurrezki Kutxak bi urtetik behin egin ohi dituen "Txomin Agirre" eta "Mikel Zarate" sariketen epai mahairako partaideak izendatzeko eskaria dago. Eleberri saiorako J. San Martin, Bernardo Atxaga eta J. L. Davant izendatu dira, J. A. Arrietak hauetako edozeinen hutsunea beteko lukeelarik. Saiakera sariketarako ez da, dirudienez, lanik aurkeztu.

Madrilgo Kultur Ministeritzatik bi gutun jaso dira: 1) Literatur sorketako laguntzen epai mahairako Euskaltzaindiko ordezkariaren izena eskatuz. P. Altuna izendatu da, ezinezkorik sort balekio P. Salaburuk beteko duelarik hutsunea. 2) Itzultzaileen 1985.urteko sariketarako ere ordezkaria izendatzea eskatu zaio Euskaltzaindiari, baina aldeztu aurretik izena berek emanez eta beronekin harremanak izan ondoren. Pertsonarekin inolako eragozpenik ez izan arren, prozedura aldetik ez da ikusten eskatutako izendapenaren beharrik.

"Expolangues", Europako Hizkuntzen erakusketari buruz Eusko Jaurlaritzak Parisera eramateko dituen asmoen berri eman da. Euskaltzaindiaren eginkizuna hizkuntzaren arloan mugatuz, honen funtsa, erakusketa horretan beste aburu eta itxura batez munduari agertzeko zerbait asmatu beharra aipatu da. Bileraren batzu egingo direla esan da.

R. Ciervide jaunak gutun baten bidez aditzera eman du Helsinki-ra joatekoa dela, eta bertan euskara erakusteko ireki nahi den katedrarako euskal liburuak eskatzen dizkio Euskaltzaindiari. Zalantzarik gabe onartu da eskaria.

Euskal azentuaz aspaldi batean hasitako azterlanei jarraipena emateko gaiak aski helduak ez daudelarik, euskararen ebakerari buruz jardunaldi batzu antolatzeari ere aipatu da.

Ekonomi batzordea

Diru arazoen batzordeko buru den E. Knör jaunak eman du egoeraren berri. Zorionez, atzeraturik zeuden ohizko dirulaguntzen kopuru mamitsu bat jaso berri dela, esan du, buruhauste askoren aringarri. Datorren urtearoko aurrekontuei buruz oraintxe hastekoak dira agintariekin elkarrizketak.

Mitxelena buru dela aurrera doan "Orotariko Euskal Hiztegia" dela bide, J. San Martin jaunak zera esan du: Jarraipen batzordea bildu dela eta egon ere

egileen lantokia ikusten. Nolabaiteko gordintasunarekin abiatutako elkarriketa laster aldatu omen zen, orain arte egindakoaren egoera, abiada eta emaitza ikusi ondoren. Laster amaitzeko moduan dagoela lehen alea eta, orohar, ekintza honen erizpide ezin hobearekin atera ziren jarraitzaileak.

Euzko Gogoa eta J. Zaitegi zenaren gordailuko liburuen egoeraz mintzatu da gero J. San Martin bera. Arrasateko euskalzale ospetsuaren azken gogoa eta berekilako hitzarmena aipatuz, Iparraldean gorderik dagoen bildumaz dihardu. Gordailu berrian badu Euskaltzaindiak bere puska guziak biltzeko hainbat toki eta hau ere ekartzeko lehen urratsak eman direla, aditzera eman du. Agintariekin harremanetan dago eta mugako arazoak konpondu bezain laster ekarriko dute. Berri pozgarria.

Atlas Linguistikoa

Euskal Herriko Atlas Linguistikoa-ren batzordeak eman du gero bere egoeraren berri. Campion-Brousain, S. A. Elkargoarekin alogera kontua berriztatu dela, esan da. Hiru langile berri gehituko dira eta informatika lana Strasburgora bialtzea erabaki da, merkeago irtetzen baita. Argitalpena 1986an ale batekin hasteko asmoa ikusi da. Lanaren berri emateko aldizkaria sortzea baino hobea iduritu zaie batzarkideei Euskaltzaindiaren hileroko batzar batean gai monografikotzat aurkeztea. Itaunketan erantzuten dutenei Euskaltzaindiaren domina iragarki batekin emango zaie oroigarri. Azkenekoz, itaunketak burutzeko lekukoen gaitasuna Gida antzeko hamaika puntutan mugatu dute.

Argitalpen batzordea

Bezperan, irailaren 26an alegia, Etxebarriko gordailu berrian bildu zen Argitalpen batzordea. Arratsaldeko bostetan, barnea ikusi ondoren, tokiaren prestakizun lanen berri eman zen. Han-hemenka banaturik zeuden argitalpen guziak ekarri dira, ia ehun toneladako kopurua egiten dutelarik. Zabalkundeari begira, erraztasun haundiak eskaintzen ditu gordailu honek bide nagusian aurkitzen baita. 1985-86 urteetarako argitalgaien zerrenda ikusi da eta beroientzat aurki behar litezkeen dirulaguntzen beharra.

Arratsaldeko zortzietan zenbait liburu zabaltzailerekin eta Etxebarriko udal agintariekin topaketa egin da. Euskaltzainburuaren hitz batzuekin agurra eman ondoren tokiari begirada eman eta apairutxo batekin, elkarriketa luzea sortu zen denon artean. Argitalpenek zabalkunderik ez badute bazterturik gelditzen dira.

Gordailu berriak hutsune larria betetzen du Euskaltzaindiaren azpiegitura mailan. Atseginez ikusi da lorpena.

Txostenak

“Zuberoera eta batua” izenburuarekin aurkeztu du J. L. Davant euskaltzainak bere txostena. Euskalki honen eta batuaren arteko korapiloak eta gorabeherak azaldu ditu hizlariak. Zalantzarik gabe, bada euskalkien barnean egosketarik

Bizkaieraren idatzizko arauak: Joskera izeneko lanari buruz, bere egunean, eritzia ematea eskatu zitzaion Gramatika batzordeari. Dirudienez, lana amaitu dute eta beste aldian ikusiko du Euskaltzaindiak dagokion erantzuna ofizialki emateko.

Maileguzko hitzak

Mailegu berriei buruz azken urte hauetan hartutako erabakietan idazkeraren aldeko gain-begiratu emateko izendatuak ziren P. Altuna eta A. Irigoyen, baina honen ustez Otsaileko erabakian balegoke orrazketa hutsa baino aldaketa garrantzitsuagorik edukian. Eztabaida sortu du eritziak eta datorren batzarrerara proposamen zehatzagoren bat ekartzeko gelditu dira alderdiak.

Txostenak

“Euskal konposizioaren inguruan” deitu du Miren Azkaratek bere lana. Argibide onik eman du eta batzartuen zorionak jaso ditu egileak. Uste baino arazo zailagoak sortuko dituenaz azterketak, oihan estu honetan bideak urratzen hastea izan da euskaltzainen asmoa. Zer dagoen gaizki, behintzat, esan daiteke eta hortik hasi beharko genuke lanean. Udaletan egin ohi diren auzo eta kale izenen zerrendak ere ez dira beti egokiak hizkuntza aldetik eta nolabait bideratu beharko dira. Euskal konposizioaren azterketa orokorki harturik, gai batzu hel-duago egon daitezke besteak baino eta langai batzu mugatzea eskatu zaie M. Azkarate eta P. Salabururi. Datorren batzarrean ikusiko da egingo duten hautaketa.

Bigarren txostena, “Deklinabidearen eta eratorbidearen artean”, ezin eman izan da. K. Mitxelenak bat-bateko gaixotasuna dela bide ez du batzarrerara etortzerik izan. Batzordeño bat joan zaio eguerdi ondoren ikustera.

L. Villasantek irakurri du A. Inazio Omaetxeberria jaunaren txostena. Gaia: “Vascuence y romance”. Egileak bizian zehar izan duen kezka baten emaitza amaitu gabea dela, esan du aurkezpenean Euskaltzainburuak. Euskal Herriaren historia oinarritzat harturik, hiztegia eta pertsona izenen arloan aurkitzen diren lekukoak aztertu nahi izan ditu bakoitzaren iturburuak zehaztuz. Horrelako lane-kin gerta ohi denez, ikuspegi desberdinetako eritziak azaldu dira elkarriketan, baina orohar, abiabide zuzpergarriak ere badu. Bilduma, besteak beste, jakingaria da; ordu askoren emaitza.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*Jose M.^a Satrustegi,
Idazkaria*

Donostiako Diputazio Jauregian 1985.eko azaroaren 29an, arratsaldeko 4etan, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzainak. J. A. Arana, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, J. Fz. Setien, X. Kintana, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, L. M. Mujika, K. Otegi eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

X. Diharce eta Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Aurreko agiria onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

J. Caro Baroja euskaltzain ohorezkoari Madrilgo Kultur Ministeritzak eratu-tako "Premio Nacional de las Letras Españolas" eman zaionez egun hauetan, Euskaltzaindiaren izenean zorionak ematea erabaki da.

X. Gereño euskaltzain urgazlea jubilatzen delako berria aipatu da, eta gure diru-arazoetan egindako lanagatik eskerrak eman zaizkio.

"Txomin Agirre" sarirako izendatu ziren epaimahikoez aditzera eman dute, aurkeztu diren bi eleberriak sarigarriak ez direla eta, ahobatez, hutsean utzi dutela sariketa.

X. Kintana jaunaren gutun bat jaso da, Erakunde publikoek euskarazko epaimahaiak osatzeko eskariak erdaraz egiten dituztelarik, inor ez bialtzeko eskatuz. Lanpostu arruntetarako denean ez joatea erabakia du Euskaltzaindiak. Euskarari zuzenean dagokionean bakarrik bidaliko da norbait; eta gutunak euskaraz egiteari buruz, Administrazio Lokaleko Sailburu-ordeari gutun baten bidez adieraziko zaio arazoa.

Akademia Galegako idazki bat jaso da, udazken edo negu sarrera honetan egitekoa zen Akademien bilerari buruz egoera agertzen. Urtarrileko bigarren

aukera esanik zegoen aurretik. Txostenean hitzarmenaren egitura eta, batez ere, soldatak aipu dira. Unibertsitateko eta Erakunde publikoetako kategoriekin parekatuz, Euskaltzaindiak dituen soldaten arabera ordaintzea proposatzen dute. Nola nahi ere, Ekonomi batzordeak Euskaltzainburugoaren bidez proposamen zehatz bat egingo omen dio batzarrari. Bitartean, Atlasgintzako batzordeak iraileko bere bilera-agirian dioen prozedura baliorik gabe uztea eskatzen dute. Beste eritzirik ere agertu da, noski, arazo honi buruz.

Bigarren puntu eztabaidatua, aukera egingo duen epaimahaia osotzearena izan da. Bost mahaikide izango direla erabaki ondoren, Euskaltzaindikoak soil-soilik izan behar duten denak ala Unibertsitate nahiz Erakunde publikoen ordezkariak egon behar duen, eztabaidatu da. Zein Unibertsitateko ordezkariak izango liratekeen, publiko ala pribatukoak alegia, aipatu da gero. Tirabirak aparte, pertsona hauekin osotu da mahaiburua: J. Haritschelhar, L. Mitxelena, A. M. Echaide, A. Irigoyen eta Txillardegi. Hauetan hutsunerik gerta baledi, L. Oñederra edo M. Etxenike andereek beteko dute.

Txostenak

J. Garmendia Arruabarrena jaunak "El euskera en el Archivo General de Indias" izenburuarekin prestatutako txostena irakurri du J. L. Lizundiak. Gordailu honen garrantzia eta bertan egiteko legokeen lan zabal eta ikaragarria aipatu ondoren, euskal testu labur eta hitz soil batzuren agerpena egin du. Egunen batez izkribu luzeagoak aurkitzeko itxaropenik ez duela galtzen aditzera emanek amaitu du lana.

F. Krutwig, Literatur Batzordeko buruak, erdaraz irakurri du "Literatur hizkuntza baterako prolegomenoak" izeneko txostena. Euskara ahul eta arlote bat sortzen ari dela salatu du, titulu eta fantesiaz betea bada ere. Autore zaharren eredua aipatu du eta denbora konzeptuak duen garrantzia aditzera eman du. Hizkuntza arrotz askotariko adibideekin, hizkuntzetan badirela maila desberdinetako mintzairak agertu du.

Azken orduko azalpen jakingarria ekarri du E. Knörr jaunak. A. Baratziazt euskal idazlearen jaioterria Arabako Durana dela aurkitu dute. 1751ean jaio zen bataio agiriak dioenez, Ipar aldeko teilagin baten jatorriko seme hau. Kalagurriko Duvanno-n sortu zela esaten zen orain arte. Lapurdiko Larresoron bizitu zen txikitatik, Uztaritzeko erretore izan zen eta Baionako Elizbarrutiko idazkari Iraultza sortu arte. *Giristinoki bizitzeko eta hiltzeko moldea* izeneko liburuaren egilea da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*Jose M.^a Satrustegi,
Idazkaria*

Donostiako Diputazio Jauregian 1985.eko abenduaren 20an, arratsaldeko 4etan, egin du Euskaltzaindiak urteko bere azken batzarrea. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, P. Charritton, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. X. Aranburu, M. Atxaga, P. Arregi, R. Badiola, I. Barriola, J. Estornes, J. Etxaide, J. M. Etxebarria, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, L. M. Mujika, J. Oleaga, R. de Rijk, J. I. Telletxea, I. Urquijo, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M.^a Satrustegi idazkari dela.

Ezin etorria adierazi dute, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, P. Larzabal eta K. Mitxelena jaunek. Goizean P. Altuna egon da, eta A. Irigoyen Peñafloidaren omenezko ekintzetara agertu da arratsaldean.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

A. Tovar ohorezko euskaltzainaren hil-berria eman du Euskaltzainburuak aipamen berezia beste batzarre batetarako utzirik.

Goizeko bilkuraren berri

Akademia Galegako idazkaria den Marino Donega jaunari idatzitako gutunaren berri eman du J. M. Satrustegik. Udazkenean egiteko zen Akademiaren arteko bilkura Urtarrilaren bigarren astera atzeratzea eskatzen zitaion. J. San Martin Jagon Sailburuak katalandarren berriak eman ditu. Itxuraz, galegoekilako bilera gerorako uztearen alde agertzen dira. Euskaltzaindiaren ordezkari izateko izen batzu aipatu dira, baina ez da izendapenik egin.

Laster sortzekoa den Euskal Kulturaren Kontseilu Orokorreko erabakigaia jaso du Euskaltzaindiak, bertan ordezkari bat izango duela adierazten.

Nafarroan egin berri diren azterketen informazioa eman du J. J. Zearretak, A. Irigoyenekin batera izenpeturiko txostenean. Esaminei buruz orain arte zegoen batzorde suntsikorra aurrerantzean desagertzea erabaki du batzarreak. Euskaltzaindikoko langileek bulego-orduetan ez dute aurrerantzean esamenen ardurarik

BATZAR TXOSTENAK

Eta azkenik, 1983ko Apirilean Arabako Angoston egindako bere III. Barne Jardunaldietan, Hiztegitz Batzordea sortu zuen Euskaltzaindiak bere Iker Sailaren barnean.

Honako osakera hau eman zitzaion Batzordeari:

L. Mitxelena, buru	X. Kintana
I. Sarasola, buru-orde	L. M. Mujika
M. Zalbide, idazkari	Tx. Peillen
R. Badiola, idazkari-orde	

1983ko Abenduan Euskaltzaindiak emandako mandatuari erantzun asmoz, Hiztegitz Batzordearen eginbeharrak eta ihardupidea definitzen zituen plana prestatu zuen bertako idazkariak, eta 1984eko Urtarrilean aurkeztu (7). Plan horrek 1984-1996 epealdirako lan-programa zuen, nagusiki, aztergai. Langintza hori aurrera eramateko, Hiztegitz Batzordearen eginbehar nagusiak bi etapatan banatzen zituen:

a) Lehen etapa, 1984-1990 epealdikoa. Begiz jotako xede nagusiak:

- Euskal Hiztegi Nagusia (EHN) (8).
- Lexikologi Erizpideen Finkapena (LEF).
- Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS).

b) Bigarren etapa, 1990-1996 epealdikoa. Begiz jotako xede nagusiak:

- Hiztegi Hiritar Arauemailea (HHA).
- Jakintzagai eta bizigune desberdinetarako terminologia teknikoak (JBTT).

Horrekin batera, euskalki-hiztegiak (EUH) eta maiztasun-prestasunen araberrako oinarritzko hitz-zerrendak (MPOH) ere kontuan hartzen zituen plan horrek.

Zazpi egiteko horiei garaiz eta egoki erantzun ahal izateko, oinarri-oinarritzko antolamendu-bide batzuk eskuratu beharra adierazten zen bertan.

Eginbehar horien azalpena egiterakoan, lehentasun batzuk ere ezarzen zituen planak:

- a) Lehen etapan, Euskal Hiztegi Nagusiak du lehentasuna.
- b) Bigarren etapan, aldiz, Hiztegi Hiritar Arauemaileak.

(7) Txosten honen eraskinean adierazten da, bere osotasunean, 1984eko Urtarrilean aurkezturiko plan hori.

(8) Izena aldatu egin zaio geroztik, hiztegi honi: *Orotariko Euskal Hiztegia* esaten zaio, orain, lanari.

Lehentasun horiek kontuan izanik, Euskal Hiztegi Nagusia bideratzea izan zen hurrengo hilabeteetako eginkizun behinena.

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren partaidetza zuzenaz, horrela, xede horri behinbetiko abiada eman zitzaion 1984eko Maiatzean (9).

1985eko Martxoan Lekarozen egindako IV. Barne Jardunaldietan, Hiztegegintza Batzordearen lana hurrengo urteei begira sendotu eta indartzen ahalegindu zen, besteak beste, Euskaltzaindia.

Batzordearen idazkariak aurreko urtean 1984-1996 epealdirako aurkezturiko plana bere osotasunean aztertu eta eztabaidatu zuen, hartarako. Era bateko edo besteko erabaki sendoa hartzeko, berandu baino lehen beste lanbilera monografikoa egitea ebatzi zen Lekarozko Jardunaldietan.

Ebazpen horren ondorioz, 1985eko Maiatzaren 30ean Hiztegegintzari buruzko lan-bilera monografikoa egin du Euskaltzaindiak Bilbon. Bertan, iaz aurkeztu eta Lekarozen aztertutako txostena oinarri hartuz, honako erabaki hauek hartu ditu Euskaltzaindiak:

1. Hiztegegintza Batzordearen idazkaritzak 1984eko Urtarrilaren 18an 1984-1996 epealdirako aurkezturiko lan-programa ontzat eman da: bertan adierazitako eginbeharrak eta ihardupidea hartzen ditu beraz Euskaltzaindiak, epealdi horretarako, oinarri.

2. Plan horretako zenbait ekintza dagoeneko martxan ari dira; beste batzuk, aldiz, bideratzen hasi beharra dago. Eginkizun dauden ekintza horiek mamitzen hasteko, berarizko plan bat aurkezteko mandatu eman zaio Hiztegegintza Batzordearen idazkariari.

3. Hamabost eguneko epean 1986ko dirubeharren azalpen xehetu bat prestatzeko enkargua eman zaio idazkariari, azkenik, 1985eko Ekainean bertan Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio-atal desberdinen aurrean beharrezko jesticak garaiz bideratzen hasi ahal izateko.

Erabaki horiei garaiz eta zuzen erantzun asmoz prestatu du Batzordearen idazkariak, proposamen gisa, honako txosten hau.

II. EPE LUZERAKO LAN-PROGRAMA

II.1. Euskaltzaindiak 1985eko Maiatzaren 30ean erabakitakoaren arabera, Hiztegegintza Batzordearen epe luzerako programa honako xede hauek osatzen dute:


- Euskal Hiztegi Nagusia bideratzea (EHN).
- Lexikologi erizpideen finkapena (LEF).

(9) Ikus, horretarako, Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritzarekin eta Autonomi Elkarteko hiru Foru Aldundiekin izenpeturiko hitzarmena.

- Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa (EEBS).
- Hiztegi hiritar arauemailearen prestakuntza (HHA).
- Jakintzagai eta bizigune desberdinetarako terminologia teknikoak bideratzea (JBTT).
- Euskalki-hiztegiak bideratzea (EUH).
- Maiztasun-prestasunen arabera oinarritako hitz-zerrendak bideratzea (MPOH).

II.2. Xede bakoitzaren edukina, Hiztegitintza Batzordeak 1984eko Urtarrilaren 18an aurkezturiko planean azaldutakoa da. Informazio zuzenerako, ikus txosten honen eraskina.

II.3. Epe luzerako lan-programa hau bi etapatan burutuko da: lehen etapak 1990 arte iraungo du, eta bigarrenak 1990etik 1996ra bitartean. Ondoko taulan adierazten da, labur bilduz, zazpi xede horiek burutzeko bi epealdi horien antolakera:



EPE LUZERAKO LAN-PROGRAMAREN AZALPEN-TAULA

III. 1990ERA ARTEKO EGINKIZUN NAGUSIAK

III.1. Lehen etapako eginbehar nagusiak, goiko taulan adierazten denez, honako hiru hauek dira:

- Euskal Hiztegi Nagusia (EHN).
- Lexikologi erizpideen finkapena (LEF).
- Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa (EEBS).

Hiru eginbehar horietarik aurrenekoak, Euskal Hiztegi Nagusiak alegia, du 1990era arteko epealdian lehentasuna. Arrazoi sendo eta ugariak daude lehenespren horren alde: bere lan-bolumen handia; euskaldungoaren erabilera zuzenerako sortuko duen emaitza bukatua; gainerako hiztegi guztietarako jakiniturri nagusi izatea; ...

III.2. Luis Mitxelenaren zuzendaritzapean eta I. Sarasola langintza osoaren arduradun eragile izanik, EHN programa aski bideratua dago jadanik: hartarako lantaldea, dirubideak, lantoki-beharrak eta jarraipen-bidea aski den adinbateko neurrian segurtatuak dauzka EHN programak, bere eginbeharrak egiteko. Eta, ondorioz, Hiztegegintza Batzordeak zeregin mugatua dauka, Euskaltzaindiak besterik adierazten ez dion artean, alor jakin honetan: lantalde horrek bihar-etzi behar izan lezan laguntza, Batzorde honen irispidean legokeen neurrian, bideratzea.

III.3. Lanik handiena, beraz, LEF eta EEBS xedeen mamikuntzak ekarriko dio Hiztegegintza Batzordeari hemendik 1990era bitartean.

Ondoko erizpideok hartuko ditu Hiztegegintza Batzordeak, xede bi horien mamikuntza zuzenerako, gidari:

III.3.1. LEF eta EEBS programen helburua ez da jendartean erabiltzekoak liratekeen hiztegiak prestatzea, 1990-96 epealdirako ezinbesteko aurrelanak burutzea baizik:

a) LEF programaren kasuan begien bistakoa da hori: lexikologi erizpideen finkapen hutsaz arduratuko da atal hori, eta ez du beraz lexikografi lanik zuzen-zuzenean bideratuko.

b) EEBS programak are nabarmenagoa du bere aurrelan-izakera hori: bertan egingo den bilketa-lana funtsezkoa gertatuko da, LEF programaren kasuan bezala, bigarren etapako HHA eta JBTT programak mamitzeko.

III.3.2. LEF eta EEBS ez dira ezinbestean talde itxietan, Euskaltzaindiak hartarakoxe izendatu eta urterik urte egun osoz langintza horietara emanikakoetan, burutzekoak. Aitzitik:

a) LEF programaren kasuan, 1982tik oraindainokoa (maileguzko hitzak) ibilitako bidearen antzera, batzorde bidezko lana izango da ihar-

dupide nagusia. (Ikus, honi buruzko xehetasun handiagoetarako, III. 4. atala).

b) EEBS programaren kasuan, aldiz, lehendik han-hemen bilketa-lan horretan ari diren lantalde beregainen bidez burutzen ahaleginduko da lan hori, nagusiki, Euskaltzaindia. Eginbehar jakin baterako inor lanean ari ez den kasuan, halaz ere, norbanako edo lantalde beregainak hartara bideratzen ahaleginduko da Hiztegi-gintza Batzordea. (Ikus, xehetasun gehiagotarako, III. 5. atala).

III.3.3. Euskaltzaindiaren eginkizunik handienetarikoa, bai LEF programa bideratzerakoan eta bai EEBS programaren kasuan, gai horiei buruzko eztabaidagune zabala eskaini eta harreman-bide eroso eta argiak eratzea da. Horrela:

a) Lexikologi erizpideen finkapena, 1990-96 epealdian burutu nahi diren HHA eta JBTT programetarako probetxuzko aurrelana izango bada, hitz-eraketa eta abarreko puntuak bere luze-zabalerako osoan sakon eztabaidatu ondoren egitea komeni da.

Euskaldunok aski eritzi desberdinak —inoiz baino gehiagotan arras kontrajarriak— ditugu gure hizkuntzaren gaurkotze-lana nola egitea kome-ni denaz. Mesedegarria ez ezik behar-beharrezkoa ere izango da, ondorioz, gure arteko eritzi-desberdintasun nabarmen horiei eztabaidaleku zabal eta lasaia eskaintzea, bertara ahal den neurrian eritzi gehienetako kideak deituz.

b) Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa egiteko ere ezin utzizko eginkizuna da, Euskaltzaindiarentzat, azken urteotan lexiko-lanean ari diren norbanako eta taldeekin elkarbideak aurkitu eta, indarrak bilduz, 1990-96 epealdirako oinarritzak gertatuko den hitz-bilketa sistematikoa burutzea. Etekin eskasa eskainiko litzaieke bai HHA eta bai JBTT programei erabili (honen, horren edo harako haren ustez erabili) behar omen liratekeen hitzak gaur egun zinez eta benaz erabiltzen direnetatik bereizteko bide sendoak jarriko ez balira. Eta bereizte-lan horrek, itxuraz taxutuko bada, eritzi-joera desberdinen arteko eztabaida-lana eskatzen du hasieratik beretik.

III.4. LEF programa: lexikologi erizpideen finkapena.

Lexikologi erizpideen finkapen-lanak hiru alor edo eremu desberdin ditu:

- LEF 1: maileguzko hitzen idazkera.
- LEF 2: hitz-eraketazko baliabide desberdinen azalpena (hitz-elkarketa eta eratorpena, nagusiki).
- LEF 3: lexiko-berrikuntzarako semantikazko aukerabideak lantzea (berrezarpen lexikala, zabalkuntza semantikoak, ...)

Hiru alor horietatik lehenengoa, maileguzko hitzena, jorratu samarra dauka dagoeneko Euskaltzaindiak, azken bizpahiru urte honetako jarduren poderioz. Eta espero izatekoa da, ildo horretatik, eginbehar hori berandu baino lehen bere oinarrizko zertzeladetan burutua izatea.

Beste bi alorrak, ordea, ez daude egoera berean: ezer gutxi egin da horietan azken urteotan, eta aldenik alde landu beharrekoak izango dira hemendik 1990era bitartean.

LEF 2 eta LEF 3 alorrak lantzeko, oinarrizko orientabide moduan, honako erizpideok hartuko dira gidari:

a) Euskaltzaindiak, bere Hiztegitza Batzordearen barnean, berarizko lantaldea eratuko du lexikologi erizpideen finkapen-lana bideratzeko. Txosten honen IV.3. atalean, epe laburrerako ekintza-planaz jarduterakoan, emango dira lantalde horri buruzko zertzelada zehatzagoak.

b) Bi alor horiek ez dira ezinbestean aldi berean landu beharrekoak: bata nahiz besteak izan dezakeen lankarga kontuan hartuz, eta lanari ekiteko azterpuntu batzuk besteak baino “zorituago” egon litezkeela uste izanik, lehenik hitz-eraketazko baliabideak hartuko dira aztergai eta, beranduago, hitz-berrikuntzarako semantikazko aukerabideak. Noiz bata eta noiz bestea?: II.3. ataleko taulan adierazten denez, LEF 2 1985ean bertan hasiko da 1990ean amaitzeko. LEF 3, berriz, 1988an hasi eta 1990ean amaitzea begiz joa dago.

c) LEF 2 programaren barnean ere lehentasunak ezarriko dira. Horren ondorioz, honako era honetan mamituko da hitz-eraketazko baliabide desberdinen lanketa:

- Lehenik hitz-elkarketa.
- Eratorpena ondoren.
- Bestelakoak, azkenik.

Epe laburrerako ekintza-planean azalduko da lan konkretu horri hasiera emateko modua.

III.5. EEBS programa: egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa

Bilketa-lan sistematiko hau ondoko bi alor edo eremuotan burutuko da nagusiki:

EEBS 1: egungo prosa arrunteko hitz-altxorra.

EEBS 2: jakintzagai eta bizigune desberdinetan gaur egun erabiltzen den hizkuntzaren hitz-altxorra. Berarizko ardura eskainiko zaie, alor honetan, ondoko atal hauei: irakasmundua; komunikabideak, telebista barne; administrazio-mundua.

Bi alor hauetariko lehenengoa, egungo prosa arruntarena, aski landu-gabea dago.

Bigarren alorrean, aldiz, atal jakin batzutan bederen lehen saio batzuk aurreratu samarrik daude.

Eginbehar hau, EEBS programa alegia, aurrera ateratzeko honako erizpideok hartuko ditu Hiztegitza Batzordeak gidari:

a) Berarizko lantaldea eratuko du Batzorde honek egungo euskaren bilketa-lan sistematikoa bideratzeko. Lantalde honen egiteko nagusiak, EEBS programak duen helburua kontuan izanik, honako hauek izango dira:

– EEBS 1 nahiz EEBS 2 ataletan han-hemen egiten ari diren lanen berri jaso, eta beraiekiko harremanbideak eratu.

– Atal batean nahiz bestean daudekeen hutsuneak aurkitu.

– Hutsune horiek betetzeko argibide posibleak asmatu eta Hiztegitza Batzordeari aurkeztu.

b) Hutsune horiek aztertu eta aintzakotzat hartuko balira, beraiek betetzeko lantalde beregain egokiak bideratzen ahaleginduko litzateke Hiztegitza Batzordea.

c) Lehendik eginkizun hauetan diharduten edota aurrerantzean era daitezkeen talde beregainen emaitzak elkarri ezagutarazteaz gainera, lan guzti horien datu-bankua sortarazten eta eguneratzeko bideak jartzen ahaleginduko da, bigarren epealdiko HHA eta JBTT programen jakinturri baliozko izan daitezen, Hiztegitza Batzordea.

d) Bilketa-lan horiei ahalik etekin osatuena atera ahal izateko, lantza horietan ari (edo ariko) diren lantaldeen artean kodetze-sistemaz, hustutze-moldeaz eta abarrez oinarritzko adostasun-maila bat bideratzen ahaleginduko da, hartarako eratuko duen lantaldearen bidez, Euskaltzaindia.

IV. EPE LABURRERAKO EKINTZA-PLANA

IV.1. Epe laburra, kasu honetan, 1985eko Irailetik 1986ko Abendura bitarteko epealdia da.

IV.2. Epealdi honetan, ondoko zeregin hauei helduko die, nagusiki, Hiztegitza Batzordeak:

a) Lexikologi erizpideen finkapenerako lantaldea sortu eta abiaraztea.

b) LEF 2 atala, III.4 puntuan esandako eran, mamitzen hastea.

- c) EEBSrako lantaldea sortu eta abiaraztea.
- d) EEBS programa, III.5 puntuan esan den eran, mamitzen hasia.

IV.3. LEFerako lantaldea sortu eta abiaraztea.

Ekintza horri dagokionez, honako erizpideok hartuko dira gidari.

IV.3.1. Bere osakerari dagokionez, lantaldeak honako osakera hau izango du:

a) Osoko taldea

Gutxienez hamar eta gehienez hogeitaz batzarkidez osatua izango da.

Urtean bizpahiru bilera egingo ditu, egun osoko edo bina-hiruna eguneko jardunaldietan, talde eragileak aldian-aldian aurkeztuko dizkion auzigai desberdinak banan-banatu, eztabaidatu eta, erabaki-proposamen gisa, Euskaltzaindiari aurkezteko.

Osoko talde honen kideak aukeratzeko orduan oso kontuan hartuko da, besteren artean, txosten honetako III.3.3. pasartean adierazitako erizpidea.

b) Talde eragilea

Osoko taldeko hiru kideez osatua egongo da, LEF lantaldearen arduradunaz gainera, talde eragilea.

Talde eragilea hilean behin bilduko da gutxienez, osoko bilkurez aparte, egun erdizko jardunean. Honako eginkizunok izango ditu, besteak beste, talde eragileak.

- LEF2 ataleko aztergaiak mugarritzatzea.
- Banan-banako eztabaidagaiak osoko taldearen hurrengo bilerarako garaiz prestatu eta batzarkideei banatzea.
- Osoko taldearen bilera edo jardunaldi bakoitzean harturiko erabakiak, berari legezkiokkeen neurrian, bideratzea.

Talde eragileko kide batek, gainera, osoko taldearen bileretan modore-lana hartuko du bere gain.

c) Arduraduna

LEFerako lantaldeak probetxuzko etekinik lortuko badu garrantzi bizikoa da lan horretarako nortasun-ezaugarri egokiak izango dituen ardu-

raduna izendatzea. Honako ezaugarriok izatea komeni da, gutxienez, eginbehar horretarako:

- lexikologi gaietan ongi jantzia,
- jestio-lanerako prestua,
- “neutrala”: eritzi eta jokamolde desberdinekin ondo konpontzen dena.

Honako eginkizunok izango ditu, batez ere, LEF lantaldearen arduradunak:

- LEF programa osoaren jestioa.
- Talde eragilearen burutza.
- Osoko taldearen bilera eta jardunaldietan idazkari moduan jardun eta bertako aktak jasotzea.
- Lantaldearen dirubideen jestioan parte hartzea.
- Lehendakariari hurrengo urteko ekintza-plana eta dirubeharrak finkatzen laguntzea.

Eginkizun guztiok aurrera eramateko, astean 20 bat orduz honetara jarria egon beharko du, eginbidez eta lansariz, arduradun honek.

d) **Lehendakaria**

LEF programak berekin dakarren langintza osoaren buruzagitza dago kio Lehendakari honi. Euskaltzain oso bat izango da: ahal delarik, Hiztegigintza Batzordearen burua.

LEF programaren arduradunaren eta Hiztegigintza Batzordearen idazkariaren laguntzaz, honako eginkizunok izango ditu, besteak beste, Lehendakariak:

- LEF lantaldearen hurrengo urteko ekintza-plana prestatu eta jakinaraztea: aztergai nagusiak, osoko taldearen bilera-egutegia, ...
- LEF programaren hurrengo urteko dirubeharrak beharrezko aurretiaz finkatu eta jakinaraztea.

IV.3.2. Osakera hau zehaztasun handiagoz definitu behar da, noski, bere garaian. Hartarako bide bat, hobeagorik ezean, honako hau izan daiteke:

- a) 1985eko Urrian, beranduenik, lantaldearen arduraduna izendatu.

b) 1985eko Azaro-amaierarako, LEF 2 atalaren ekintza-plan osatua aurkeztuko dio Lehendakariak, emendiozko zehaztasunekin, Hiztegegintza Batzordeari.

c) 1985eko Abendu-amaierarako, LEF programaren talde eragilea eta osoko taldea izendatzea.

IV.4. LEF 2 atala mamitzen hastea.

Aurreko puntuan esandako lantaldea osatu eta, Abendurako, bere ekintza-plana prestatututakoan, LEF 1 atalaren eginbeharrak pausoz pauso betetzen hasteari ekingo zaio ekintza-planean adierazitako ildotik.

IV.5. EEBSrako lantaldea sortu eta abiaraztea.

IV.5.1. Hiztegegintza Batzordearen baitan eginkizun horretarako osatuko den lantaldea ondoko era honetan moldatuko da:

a) Osoko A taldea

Talde honetan, gaur egungo euskal prosa idatziaren hitz-hustuketan eta bilketan ari diren edo bihar-etzi ari izan daitezkeen norbanako edo taldeak bilduko ditu Euskaltzaindiak, bere ahaleginen neurri betean. EEBS 1 atalaz arduratuko da, beraz. Hustutze-lan honetan ari diren talde gehienak bertan egotea garrantzitsua da, eginbeharraren xede-helburuak gogoan izanik. 1986 urtearen udazken aldean, lanari ekiteko, lehen jardunaldi batean bilduko da osoko A taldea. Taldekide desberdinek nork bere lanen berri ematea izango da lehen jardunaldi horren eginkizun nagusia.

b) Osoko B taldea.

Gaur egun jakintzagai eta bizigune desberdinetan erabiltzen den terminologia teknikoaren bilketa-lanean ari diren norbanako eta talde guztiak biltzen ahaleginduko da, B talde honetan, Hiztegegintza Batzordea. EEBS 2 atalaz arduratuko da, beraz, osoko B talde hau.

Bi bilera egingo ditu 1986 urtean, egun osoko edo bina-hiruna eguneko jardunaldietan, talde honek. Talde eragileak aldian-aldian aurkeztuko dizkion aztergai desberdinak lantzen saiatuko da bertan talde hau.

c) Talde eragilea.

Osoko taldeko bi lankidez osatua egongo da, EEBS lantaldearen arduradunaz gainera, talde eragile hau. Bi lankide horietarik A taldetikoa izango da bat, eta bestea B taldetikoa.

Talde eragilea bi hilean behin bilduko da, gutxienez, egun erdizko jardunean.

Honako eginkizunok izango ditu, besteak beste, talde eragileak:

- EEBS 1 eta EEBS 2 ataletako aztergaiak mugarriztatzea.
- Osoko A taldean zein B taldean lantzekoak diren banan banako gaiak hurrengo bilerarako garaiz prestatu eta batzarkideei banatzea.
- Osoko A eta B taldeen bilera edo jardunaldi bakoitzean harturiko erabakiak, berari legozkiokeen neurrian, bideratzea.

Arduradunaz kanpoko bi taldekideek, gainera, nork bere osoko taldearen bileretan moderadore-lana hartuko dute bere gain.

d) **Arduraduna**

Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa aurrera eragiteko, arduradun bat izango du hartarako lantaldeak. LEF programaren kasuan aipaturiko ezaugarriak izatea komeni da, oraingoan ere, eginkizun hone-tarako arduradunak.

Bere eginkizunak honako hauek izango dira batez ere:

- EEBS programa osoaren jestioa.
- Talde eragilearen burutza.
- Osoko taldearen bilera eta jardunaldietan idazkari moduan jardun eta bertako aktak jasotzea.
- Lantaldearen dirubideen jestioan parte hartzea.
- Lehendakariari hurrengo urteko ekintza-plana eta dirubeharrak fin-katzen laguntzea.

Eginkizun guztiok aurrera eramateko, astean hamar bat orduz hone-tara jarria egon beharko du, eginbidez eta lansariz, arduradun honek.

e) **Lehendakaria**

EEBS programak berekin dakarren langintza osoaren buruzagitza dagokio Lehendakari honi. Euskaltzain oso bat izango da: ahal delarik, Hiztegitzinta Batzordearen burua.

EEBS programaren arduradunaren eta Hiztegitzinta Batzordearen idazkariaren laguntzaz, honako eginkizunok izango ditu, besteak beste, Lehendakariak:

- EEBS lantaldearen hurrengo urteko ekintza-plana prestatu eta jaki-naraztea: aztergai nagusiak, osoko taldearen bilera-egutegia, ...
- EEBS programaren hurrengo urteko dirubeharrak aski den adin-bateko aurretiaz finkatu eta jakinaraztea.

IV.5.2. Osakera hau pausoz pauso mamitzen hasteko, honako bide hau hobesten da:

- a) 1985eko Urrian, beranduenik, lantaldearen arduraduna izendatzea.
- b) 1985eko Azaro-amaierarako, EEBS 2 atalaren ekintza-plan osatua aurkeztuko dio Lehendakariak, emendiozko zehaztasunekin, Hiztegi-gintza Batzordeari.
- c) 1985eko Abendu-amaierarako, EEBS programaren talde eragilea eta EEBS 2rako osoko B taldea izendatzea.
- d) 1986ko Ekainean, EEBS 1 atalaren ekintza-plan osatua aurkeztuko dio Lehendakariak, emendiozko zehaztasunekin, Hiztegi-gintza Batzordeari.
- e) 1986ko Uztail-amaierarako, EEBS 1 atalaren osoko A taldea izendatzea.

IV.6. EEBS programa mamitzen hastea.

A eta B osoko taldeak eratu bezain azkar, hurrenez hurren EEBS 1 eta EEBS 2 atalen eginbeharrak pausoz pauso betetzen hasteari ekingo dio ekintza-planean adierazitako ildotik.

IV.7. 1986rako dirubeharrak

Aurreko puntuetan adierazitako ekintza-plana aurrera eramateko, berrizko diru-partida beharko du Euskaltzaindiak.

Ondoko lerroetan, lehen hurbilketa gisa eta labur bilduz, Hiztegi-gintza Batzordeko LEF eta EEBS programek 1986 urtean beharko dituzten diru-kopuruak eta berauen zertarakoak adierazten dira.

Azalpen xehetu horri ekin aurretik zenbait ohar nagusi egingo dira, dena den:

- a) LEF programari dagokionez, LEF 1 ez da 1986an kontuan hartzen: maileguzko hitzen atala 1985ean amaituko dela begiz jo da hemen.
- b) Lehendakaria, euskaltzain osoa izango denez, ez da aurrekontu honetan sartu: egokiago ote den pentsatu da, alegia, atal hori Euskaltzaindiaren ohizko aurrekontutik bideratzea.
- c) Ohizko bilerak Euskaltzaindiaren beraren Egoitza-ordezkaritzetan egingo direla pentsatuz, lokal-gasturik ez da halakoetan kontuan izan. Bai, ordea, jardunaldiei legezkiekeenak.
- d) Eginbidez eta lansariz LEF eta EEBSrako arduradun gisa ariko direnak zerbitzugintzako kontratu bidez loturik egongo dira. Edota Cam-pion Broussain elkartearen bidez lotuak, apika.

e) Gainerako gastuek ez dute inorekiko kontratu-biderik izango: joan-etorri eta bidesari gastuak, jan-loak, bilera-orduak, lokal-alokairuak, liburu-erosketak, mekanografi lanak, fotokopiak eta antzeko gastu arruntak izango ditu 1986rako aurrekontu honek, aitzitik, aipagai.

f) Zifra konkretuetara jaisteko, irudipen hutsezko hurbilketa batzuk egin behar izan dira. Horrela:

- LEFrako osoko taldeak 18 kide izango ditu.
- EEBS 1erako taldeak 8 kide izango ditu.
- EEBS 2rako taldeak 8 kide izango ditu.

g) LEFko talde eragilea 12 aldiz bilduko da, osoko bilera edo jardunaldietatik aparte. EEBSkoa, aldiz, zortzi bider. Batak nahiz besteak bosna orduko bilerak egingo dituzte.

h) Bilera-orduak, 1.500 pezetatan ordainduko dira.

i) Joan-etorrietarako, autoz egindako kilometroa 18 pezeta.

j) LEFko osoko taldea urtean bi aldiz bilduko da, bina eguneko jardunaldietan. Jardunaldi bakoitzak, guztira zortzi ordu lan izango du. EEBSko A taldeak, bestalde, zortzi orduko bilera bat izango du. Eta EEBSko B taldeak, azkenik, zortzina orduko bilera bi.

k) Osoko bileretan, bazkaria 1.500 pezeta kostako da. Jardunaldietan, aldiz, eguneko jan-loa 2.500 pezeta.

l) Arduradunak talde eragilearen bileretan izango duen partaidetza, bere ordainsarian jasoa dago.

IV.7.1. LEF programaren dirubeharrak

a) Arduradunaren urteko kostuak:

Urteko ordainsari gordina	1.000.000
Gizarte-segurtasuna	320.000
GUZTIRA	1.320.000

b) Talde eragilearen kostuak:

• Bilera-orduen kostua:	
12 x 5 x 1.500 x 3	270.000
• Joan-etorriak:	
12 x 100 x 18 x 3	64.800
GUZTIRA	334.800
	334.800
	1.654.800

c) Osoko taldearen kostuak:		
• Bilera-orduen kostua:		
2 x 16 x 1.500 x 18 =	864.000	
• Joan-etorriak:		
2 x 100 x 18 x 18 =	64.800	
• Jan-loak: 2 x 18 x 2.500 =	90.000	
• Lokal-alokairuak:		
2 x 30.000 =	60.000	
GUZTIRA	1.078.000	1.078.000
d) Bulego-material xahukorrak	50.000	50.000
e) Harpidetzak eta liburutegia	80.000	80.000
f) Komunikazioak (telef., posta...)	25.000	25.000
g) Estudioak (txosten-prestakuntza)	200.000	200.000
h) Zabalkunde eta sustapen-lanak	100.000	100.000
i) Bulego-material sendoak (mahai, fitxategi, artxibo)	100.000	100.000
LEF, GUZTIRA		3.288.600

IV.7.2. *EEBS programaren dirubeharrak*

a) Arduradunaren urteko kostuak:		
• Urteko ordainsari gordina	500.000	
• Gizarte-segurtasuna	160.000	
GUZTIRA	660.000	660.000
b) Talde eragilearen kostuak:		
• Bilera-orduen kostua:		
8 x 5 x 1.500 x 2 =	120.000	
• Joan-etorriak:		
8 x 100 x 18 x 2 =	28.800	
GUZTIRA	148.800	148.800
c) Osoko A taldearen kostuak:		
• Bilera-orduen kostua:		
8 x 1.500 x 8 =	96.000	
• Joan-etorriak: 8 x 100 x 18 =	14.400	
• Bazkaria 8 x 1.500 =	12.000	
GUZTIRA	122.400	122.400

d) Osoko B taldearen kostuak:		
• Bilera-orduen kostua:		
2 x 8 x 1.500 x 8 =	192.000	
• Joan-etorriak:		
2 x 8 x 100 x 18 =	28.800	
• Jan-loak: 2 x 8 x 2.500 =	40.000	
• Lokal-alokairuak= 2 x 20.000 =	40.000	
GUZTIRA	300.800	300.800
		1.232.000
e) Bulego-material xahukorrak	30.000	30.000
f) Harpidetzak eta liburutegia	50.000	50.000
g) Komunikazioak (telefono, posta...)	20.000	20.000
h) Estudioak (txosten-prestakuntza)	50.000	50.000
i) Bulego-material sendoak (fitxategia)	50.000	50.000
EEBS, GUZTIRA		1.432.000

IV.7.3.

Beraz, Hiztegigintza Batzordearen 1986ko dirubeharrak honako hauek dira:

LEF programa	3.288.600 pezeta
EEBS programa	1.432.000 pezeta
GUZTIRA	4.720.600 pezeta

IV.8. Azken oharrak

Txosten honek ez ditu, bistan denez, EUH eta MPOH programak besteen pareko zehaztasunez definitu. Nahita egin da hori: zenbait ekin-tza hasiberrian edo erdibidean daudenez, hobe dela uste izan da orain-goan bere horretan uztea.

Hurrengo hilabeteetan, nolanahi ere, berariz eta astiro heldu behar-ko zaie gai bi horiei ere.

MARKINA-XEMEINGO EUSKARA AZTERTZEN

Bilbo, 1985-IX-27

Luis Baraiazarra Txertudi

“Ekialdeko bizkaiera”

LANAREN ESKEMA

I. SARRERA

- 1.1. *Ekialdeko bizkaiera.*
- 1.2. *Helburuak.*
2. **Non egin ditudan grabaketak**
 - 2.1. *Herria.*
 - 2.2. *Inguruko herriekin dituen harremanak.*
 - 2.3. *Bonaparteren sailkapena.*
 - 2.4. *Euskararen egoera gaur.*
3. **Lekukoak.**

II. LANAREN ARDATZA

- 1.1. *Sarrera gisa.*
- 1.2. *Berridazketa konbentzionala.*
- 1.3. *Transkripzio fonetikoa.*

III. AZTERKETA FONIKOA

- 1.1. *Armonizazio bokalikoa.*
- 1.2. *Azentua.*
- 1.3. *Laburdurak eta kontsonanteen galerak.*

IV. ONDORIO OROKORRAK

BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

1.1. *Ekialdeko bizkaiera*

Hizkuntzaren mundua oso korapilotsua da. Oihan itsuan sartzerakoan bezala, han-hor-hemen katigu, aurrera egin ezinik eta noraezean dakusagu geure burua. Euskararen kasuan oraindik zailago da, idatziz gutxi landua eta finkatu gabea baitago, hau da: ahoz-ahozko iturriz iraun du eta euskalkietan, azpieuskalkietan eta ia konta ezin ahalako aldakietan zatikatua; hizkuntzaren ardatz izan daitekeen enbor nagusitik urrundua ikusten dugu euskara. Hobeto esan, euskarak euskalki eta lekuan lekuko hizkeratan irauten du bizirik.

Gain-gainetiko begirada orokorreaz so eginez, hara-honaka den-denari ikutuka, edo eta sail txiki eta zehatz batetan, barne eta kanpo miatzen eta arakatzen ihardutea. Bietarik bat hautatu behar hizkuntzaren oihan liluragarri bezain ilunean, eta nik lehenengo hau hautatu. Baina begirada arinez, handi-handika aztertuko ditut fenomenorik nabarienak, grabaketan irten ahala.

Ekialdeko bizkaiera dut aztergai.

Bizkaieraren auzia hainbat bider plazaratu izan da azken aldi honetan. "Auzia" diot, euskara batutik aski urrundua, bizkaieraren egoera eta etorkizuna oso kezkarri baitira askoren ustez. Arazo bezala atera ohi da eztabaidara bizkaieraren auzia, eta euskara batuaren aurrez-aurre jarri ere bai, honek baztertu edo eta azpiratu duen euskalki pobrea bailitzan. Bizkaiera aipatzen da, baina bizkaieraren aniztasuna oso nabaria da. Ez dugu bizkaiera baturik, ez forma idatzian eta gutxiago oraindik mintzatuan.

Idatzian, joerarik indartsuena, Markinaldeko azpi-euskalkia egiten zutenena da, izenik aipagarrienak Mogeldarrak, Prai Bartolome eta Astarloa izanik. Baina beste aldetik, Añibarroren joera ere hor dago. Bizkaiera literarioaren sorreran bertan ere batasunik eza nabari da. Euskara mintzatuan zer-esanik ere ez. Hemen, ahoa ireki orduko ezagun da nor-nongoa den, bere hizkerak salatzen baitu.

1.2. *Helburuak*

Han eta hemen tokian tokiko hizketaldiak entzunez, berehala konturatzen gara zenbait ezberdintasun badirela batzuen eta besteen artean. Baina zeintzu diren zehatz-mehatz ez ditugu bereizten, honelako beren-beregiko hurbiltze-lan bat azpieuskalki batez egiten ez dugun bitartean.

Ekialdeko bizkaiera hobeto ezagutzeko hurbiltze-lan bat izan nahi du saiotoxo honek, gain-gainetik bada ere. Azpieuskalki honen ezaugarriak nabarienak adieraztera joko dut. Laburdurak, bustidurak, lesema eta deklinazio atzizkiaren artean gertatzen diren fenomenoak, deklinabidea bera, aditzak, kontsonanteen galerak, bokalen zenbait fenomeno aztertuko ditut irten ahala eta handi-handika.

Azpi-euskalkiaren gaur eguneko egoera izango dut aztergai, grabaketa oinarritzat hartuz, baina era berean ekialdeko bizkaieraz idatzi zuten idazle zaharrekin erkatuko ditut zenbait ondorio.

Euskararen oraingo erabilera ere aipatu nahi nuke, eritzi maila hutsean geratuko bada ere.

2. Non bilduak dauden datuak

2.1. *Herria kokatu*

Markina-Xemeinen egindako grabaketa batez baliatu naiz.

Lea-Artibai eskualdean kokaturik dago. Ibar bik osotzen dute eskualde hau, Lea eta Artibai ibaiek izena emanik. Hegoalderantz dagoen Oiz mendiaren maldetan dute sorburua ibai biok, bata nahiz bestea erreka toki bakoitzaren urez han-hor-hemen hornitzen delarik. Lea Lekeition hiltzen da; Artibai, berriz, Ondarroan.

Markina-Xemein Bizkaiko ipar-ekialdean dago, mendiz inguratutik, haien hesi barnean gordea. Ekialderantz jo ahala, Gipuzkoako lurrak ditu auzoan, Eibar-Elgoibarkoak hurbilen. Mendiz-mendi, Mutriku aldeko lurrak ere ez dira urrun. Hegoaldera, Arraizgain edo Trabakuaz bestaldean Mallabia du.

Markina-Xemeinek 5.000 biztanletik gora ditu gaur egun auzune, baserri eta abar. Oraintsu arte auzitegi buru izana, ibarraren bihotz-bihotzean dago eta itsasaldera (Ondarroara 11 km.) nahiz inguruko herrisketara joateko bide-bidean. Hemen dute erdigunea bide guzti hauek: kostaldera doanak; Markin-Etxebarritik Urkaregi mendatetik zehar Elgoibarrantz jotzen duenak; Barinaga auzotik Arrate barrenera eta handik Eibarrakoak; Meabetik eta Lekoiztik, Zapola eta Urregarai mendiak eskuin aldera utziz, beste ibarrean (Lea ibarrean) barneratzen den bideak; eta azkenek Trabakua gaindituz Mallabia ezkerrean dela, Berriztik zehar Durangotik Bilborako errepide nagusira iristen denak. Azkenengo honetan, Markinatik irten berri, hiru kilometrotara, Iruzubietara auzoa dugu eta hemen eskuinera joz gero, Gernikara garmatzen basarteko errepide bihurtzen da gorabeheratsuan sartzen gara. Bi kilometro barru Bolibar dago eta goraxeago Ziortza, bere Abateliza zaharra lehengo historiaren lekuko duela. Orain dela urte batzuek Bolibar-Ziortza bere eskuko udal zen. Gaur egun, berriz, Markina-Xemeini erantsirik dago.

Bolibar zeharkatuz, aldapa bihurrian gora, Gontzegaraira iristen gara. Hauxe da, alde honetatik, Lea ibarrean barneratu orduko punturik garaiena, ibar bateko eta besteko euskararen mugari dirudiena. Azpi-euskalki bera izan arren, Aulestia eta Munitibar aldean ez da Markinako aldaki berbera egiten; fonetika aldetik batipat badira zenbait desberdintasun. Gontzegaraitik zehar-meharka eta gainbera laster gara Arbazegi-Gerrikaizen, gaur egun Munitibar izenez ezagunago dugun honetan. Herriska hauetan zer-esanik ez, baina Markina-Xemeinen bertan ere nekazaritza da nagusi. Ez dago industriagintzari emana. Markina-Xemeinen lantegi handietariko bakar bat besterik ez da: gerra-materialgintzakoa bera. Beste guztiak kooperatiba eta lantegi txikiak dira. Inguruko herri koxkorretan ia-ia ez da ikusten lantegirik. Basoz, pinadiz batez ere, ondo jantzia da inguru hau. Nekazaritzatik, abelazkuntzatik eta basotik bizi da Lea-Artibai eskualdeko lehorreko jenderik gehiena. Aspalde batetan, Ipar-Amerikara artzain edo eta Australiara joera handia nabari da; edo nabari izan da, hobeto esan. Gaur egun, eta lehenago ere bai, kirolari bezala, zestalariak joan ohi dira Amerikarantz, markinarrak batipat.

2.2. *Inguruko herriein dituen harremanak*

Markina-Xemein da eskualdeko herri txikien erdigune eta ardatz. Bolibar-Ziortza oso-osoan Markina-Xemeina begira dago. Goian adierazi dudanez, bere eskuko izatetik Markina-Xemeini erantsirik egotera etorri da. Hala ere Markina-Xemeinek ezin diezaieke erantzun lan-eskakizun guztiei, beretzat ere nahikoa ez baitu. Eta beraz, Ermua, Eibar, Elgoibar, Berriz eta Durangaldera jo behar lan bila. Lan-arazoaz gainera, eskola, azoka, ganadu-feria, erosketak, kirolak (Pelota-unibertsitatean ospatzen diren partiduak) eta abar izan ohi dira harreman-iturri.

Munitibar eta Markina-Xemeinen arteko harremanak ez dira hain ziurrak. Munitibar bitara dagoela dirudi: alde batetik Markina-Xemein eta bestetik Gernika. Bien artean noraezean eta biderdian; baina Gernikara omen du joera bizia-goa. Gontzegarai gainak izan dezake horretan ere zer-ikusirik; jakina, Gernikako astelehenak ere erakargarriak dira inguruko herrientzat.

2.3. *Bonaparteren sailkapena*

Bonaparteren arauera, hiru azpi-euskalki bereizten dira bizkaieran:

1. Gipuzkoako bizkaiera: Bergara, Gatzaga (Deba garaia).
2. Ekialdekoa: Markina.
3. Mendebaldekoa: Gernika, Bermeo, Gaminiz, Arratia, Orozko, Arrigorriaga, Otsandio.

Euskalkien ikerketarako berezko sena eta entzumena zoli duenak erraz nabaritu du sailkapen zorrotz eta zehatzik, gaur-gaurkorik behintzat, ez dugula oraindik. Bonaparterenak, oinarri ona izan arren, berraztertu beharrekoa dirudi. Bizkaian batipat, euskara, mendi eta ibarren arauera sakabanatua eta ñabarduraz beterik ageri zaigu. Markinakoak, ekialdeko bizkaieran sartzen da bete-betean, baina mugak ez daude batere garbi, ez alde batetik eta ez bestetik. Gerena (Geria) eta Mallabia aldera jotzen badugu, handi-handika behinik-behin, azpi-euskalki bera dela esan genezake.

Bonapartek Gipuzkoako bizkaiera sail berezi batetan jarri arren, Eibarkoa adibidez, hurbil-hurbilekoa da Markinako azpi-euskalkitik. Hala ere azentu eta ahots-modulazio bere-berea eta berezia du bakoitzak. Morfologiazko desberdintasun txiki batzu ere bai, jakina!

Gernikalderantz joz gero ere, zalantza berdintsua: Non bukatzen da ekialdeko azpi-euskalkia eta non hasi mendebaldekoa? Har dezagun, adibidez, Arratzukoak. Ekialdekoa ala mendebaldekoa ote da? Markinakoaren kidea ala Gernikakoarena? Lehen hurbilketa batez bietako formak gurutzatzen direla dirudi. Hala ere ikerketa honetatik kanpo dago auzi hau. Dena dela, alde bateko eta besteko euskarak bereizkuntza eta ezaugarri nabariak izan arren, muga zehatzik ezin dugula ezarri konturatzen gara. Markina-Xemeingoak, Markin-Etxebarrikoak eta Bolibarkoak, ñabardura batzu gorabehera, ez dute alde handirik. Beraz, azpi-euskalki eta aldaki berekoak ditugu. Munitibar eta Aulestiakoa ere azpi-euskalkiz ekialdekotzat jo genitzake, mendebaldekoaren eraginak han-hor-hemen nabari

badituzte ere. Markinakoaren aldaki berekoak ez dira, ordea. Bien arteko aldea fonetikan soma daiteke batez ere, aditz laguntzailearen ebakeran hain zuzen: Ekialdeko azpi-euskalkian, gipuzkoeraz bezala, /j/ belarea ebaki ohi da hitz arruntetan. Baina aditz laguntzailean zeharo ezberdin ebakitzen da Markinan eta Lea ibarreko herri horietan:

Markina-Xemeinen: [etõi xáko] [xun xáko].

Munitibar-Aulestian: [etõi/džako] [xun džako].

Lekeitio [džun džáko]

Beraz, bizkaiera enbor edo ardatz berekoa izan arren, adar desberdinez, aldaeraz beterik dugu. Areago oraindik: zenbait kasutan herriak mendi eta hara-nez elkarrengandik urrunduak egon arren, elkar gurutzatzeak, eraginak eta kidetasunak nabari izaten dira; eta alderantziz ere bai: ia auzo batetik bestera ñabardurak eta bereizketak...

2.4. *Euskararen egoera*

Euskararen egoerari dagokionez, gaztelaniaren gorakada bizia azpimarratu beharko litzateke azken urteotan eta aspaldidanik. Hau fenomeno orokorra da, baina nabarmenagoa eta kezagarriagoa gerta daiteke, agian, euskara erabat nagusi eta etxejaun izan den baserri isolatuetan ere gaztelania hain indartsu sartzea. Gaur egun baserri eta herri koxkorak ere ez dira euskara hutsaren egoitzak. Gaztelania ere sarri samar entzun daiteke. Fenomeno honetaz ihardun dutenak ia guztiak bat datoz erdal telebisioaren eragin bortitza salatzean, baserririk urrundueta-raino ere barneratzen baita gaztelaniaren hotsa tresna horren bidez. Erdal munduaren, olde arrotzaren afrontuak harrapatzen ditu lehen ezkutu-gordean ziren zokondo guztiak. Beste aldetik eskola bilduak; herri handietako eskoletan herriska guztietako haurrak biltzeak ere eragin gaiztoa izan du. Azkenez —eta pertsona larrien erantzukizuna izugarria da kasu honetan— adinekoek bereizketa zital bat egin ohi dute hizkuntzaren erabileran, haurrei euskaraz eginez eta beren artean gaztelaniaz. Horrela, haurrak nagusituz eta haziz joan ahala, gaztelaniaren zurrumbiloan murgiltzen dira, hori baita “nagusien hizkuntza”... Baina soziologiaren eremura jo gabe, noan neurera; lehengo harira: Nolakoa da euskararen egoera Markinan eta inguruan? Erdarak kutsatu gabeko herririk nekez aurki daitekeela, gaur egun, autortu behar. Hori autortu ondoren, zorionez, hemen nahiko osasuntsu dela euskara dirudi. Markina-Xemeinen, kalean behintzat, gaztelaniaz egiteko joera nabarmena dago hala ere. Hemengo zaharrek diotenez, aspaldiko kontua omen da hau. Harritzekoa, bestaldetik, etorkin-kopuru txikikoa eta alde guztietatik euskaldun herriz inguratua baita. Baina egi-egia haxe da: inork uste baino gaztelania gehiago entzun daitekeela. 12 urtetik 25era bitartean nabari da bizikien erdal-joera hori; baina hortik 45 bitartean ere erdal joerak irauten du.

Inguru honetako herrisketan ere, lehenago ez baina, gaur badu gaztelaniak bere lekua gaztetxo askoren ahotan, baina jakina, horretan Markinako kaleartea da nabarmena. Oro-har, euskal kutsu handikoa da eskualde hau. Gaztelaniaren nagusigoa aipatzen dugunean Markinako kalearteaz dihardugu.

3. LEKUKOAK

Markinako Lorenza ELORZA eta Zipriano BILBAO-ri egindako grabaketaz baliatu naiz. Baina oraingoz, lehenengoaren transkribaketa bakarrik jarri dut hemen, ondorioak ere ia guztiak Lorenza Elorza-ri egindako grabaketatik jasoak dira. Dena dela, bai batarena eta bai bestearena, hizkuntza aldetik ezezik, etnografia aldetik ere oso interesgarriak dira.

Zipri Bilbao-ren iharduna ia osorik sorgin-ipuinena da; sekulako bizitasunez kontatuak, iturritik ur garbia bezala, hitzetik hortzerako jarioan zintara pasatuak.

Lorenza Elorzak 51 urte ditu. Ezkondua, Markinan jaioa eta bizi ere bertan bizi da GUEN KALEAN. Kaletarra, beraz. Bere seme Xabier Kalzakortak egin dio elkarrizketa edo solasaldi hau eta eskertzen diot benetan mesede hau.

Zipri Bilbao, Markinako AXPE baserrian jaio eta bertan bizi da. 63 urte ditu; ezkondua. Forma alokutiboan darabil aditza, hemen esaten denez “eztok eta baidok”.

II. LANAREN ARDATZA

1.1. *Sarreratxo gisa*

Lekukoen —edo hobeki esan— lekukoaren kontaketa magnetofonotik papereara aldatu dut. Idazkera konbentzionala da; lekukoaren ahoskatze modua ahalbait ondoen isladatzen duena. Gero, transkripzio fonetikoz ematen dut lerroz lerro, hautatu dudan transkripzio-mota filologikoa izanik, ezagunago eta errezago egiten baitzait.

Honelako lanetan beti sortzen dira zenbait arazo, hotsak zehatz-mehatz adierazi nahi direnean. Nik neuk, /z/ = [š] berdinketa, edo Bizkaian ematen den neutralizazioa onartu egin dut, zalantza batzuren ondoren, /s/ fonema bezala transkribatzea, alegia, bizkaieraz ez baitira bata eta bestea bereizten.

Markinan, hala ere, badira nolabait bereizten dituzten toki edo auzoak. Gutzienak, baina badira. [sa̯a] honelaxe bokale luze eta guzti entzun daiteke. Hitz banaka batzutan, /z/ fonemaren azterna garbi geratu da, bereizketa hori galdua duten kaleko euskaldunen artean ere. Hots afrikariz ebaki ohi dira hitzok: “erretza” (fácil), “barretz” (sin embargo) eta abar.

1.2. *Berridazketa konbentzionala eta transkripzio fonetikoa*

—Zure gatzetako kontuak esan, ama! Harako kriada egon zinenekoak eta...

[šure gaštétako kóntuek ešan, ama! áko křisedá egon šíuekwek eta...

—Kriada egon nintzenekoak? Urte asko dira. Jeseuuus! Bada, hango... tia bat egoan kříšedá eón níncenekúk? urtaško dié. xeséuuus! ba, ango tia bat éuen an zaharra, 88 urtekoa, eta esaten eban ze... zerera, Arretxinagara nahi joan sārā, larógeta šorci urtekú, da šerá nai xun, ařečíná nai xun.

S. Migel hurrengo egunean

šamigél ůřeŋgo egunín.

Eta izteko hara joaten. Eta ezetz amak, eta ezetz, beharra egoala etxean eta ez
 etá ísteo ará xúten. eta eséc amák, eta eséc, biéra
 eutsola itxiko. Baietz! joan egin behar ebala
 eúela eçin da ésocola içiko. baiéc xún eimbíbala
 berak. Ba, hara joaten zirenei, kontsejalak eta eukitten ebela
 berák. bā, ará xúten šírenei konséxálak etá eukítebela
 bazkaria hurrengo egunean, eta gero hareekin txuleta-hazurrekin
 başkáriše uřengo egunín, da gero árekin çuletaşúřekin
 hara joaten zirenei bota egingo eutsezela. Txuleta-hazurrak bota
 ará xúten šínei bóta eıngoceşelá. çulétaşúřa pota
 ta ee... zertu egiten zittuela handik, kentzen zittuela hara
 ta ee... sér্তু eıten şıtuela ándik, kénçen şıtuela ará
 joaten zirenak; baina, ba, eberdiostekoa egitera joan zirenean,
 xúten šíenak, baıga ba, eberđiostékue eıtá xún šíenín,
 aita eta ama ta joan zirenean, joan zan eta intxaurrak jo dau —sudurluzea zan
 aité tamá ta xún šíenien, xún şan, da ínçauřak xo dau bera
 intxaurrak zerean, sudurrean
 —şuřlúşie şan bera— da xodau ínçauřak şerien, şuřien
 eta dana odola! Eta negarrez joan zan Ibazetara, arin-aringa.
 da dána odóla! eta négarés xún şan ibaşetá, arıngarınga.
 Eta ea zer pasatzen zan, ba, eta. Ba, intxaurak jo ebala ta
 da ía sé paşéteşan, ba, ta, ba, ínçauřek xóbala ta şúře
 sudurra apurtu eutsala. Eta esaten ban: “Nun joko hindunan, ba, hi;
 apurřu eucala. ta esáteban: “núń xoko iğúnamba, i;
 nun joko hindunan, ez dauken besterik horixe baino ta, sudurra baino.
 núń xóko iğúnan, esteuken béşteik oişe baıgota, şuré baıgo
 Esaten eban: “Min handia zan sudurrean emon eustana, baina handiagoa
 ésateban: min andíşe şan şuřien emóštena baıga andíşauē
 zan ha berbea”.
 şan á beřbíe.

— Eta besterik? “Titili-patalena” esaizu, “Titili-patalena”.
 eta béşteik? titilipatálena esáışu, titilipatálena.

— “Titili-patalena”?
 tilítitilipatálena?

— Bai, esan!
 bai éşan!

Hiru ahizta ziren, hiru ahizta. Eta nobioa nai eben. Eta orain
 iru aıştá šíen, iru aıšta. eta nobişue naiēen. eta oın
 “Kurutzebarri” lez, ba, dedikatzen zan bat e... nobioa topetan;
 kurúcebáři lec ba dediketā şan bat ee nobişue topétan;
 Eta esan eutsen: “Begittu, zuentzako moduko nobioa neuk bialduko
 da esáucen: beıřtu, şúencako moduko nóbisűe neúpialdukocuet
 deutsuet etxera eta egon zaiteze dotore-dotore jantzita etxean”.
 ečá eta egon şaíteşé dotoredotore xancíte eçiēn.
 Eta joan zan baten etxera, jo eutsen atea eta han egozan, abarketa
 da xúnsán baten ečá, xo eucen atie ta an euášān abarketa
 zuriekin-eta ei egozan, kontizu, hirurak, bata baino bestea dotoreago!
 şuríşekiņye eişegoşān kóņtişu irúrek bata baıgo béştie dotoriau!

- Beharrean, ez da?
biārien eštá?
- Beharrean. Egoan, ba, haria egiten; bat egoan haria egiten, gorua biārien. egüemba ariše eiten; bátegüen arišé eiten, górué gorua egiten esaten dana. Eta dinotse: “Amak esan jon, amak esan don hirurok górué eiten ešatēdana, eta diñoce: “amák ešán xon, amák ešádon ixilik egoteko”. Eta besteak esan eutsan ze: “Ttirt haria eta irúrok išilik óteko”. da béstiek ešáucon še ttirt ariše ta ttirt eten!”. Eta hirugarrenak esan eutsan ze: “Hik i... ikusi bihar do ttirtēn!. eta irúgarenák ešáuecen še: iki ikusi bion hareek e... pitupean dagozanak”. Eta “eēne! —esan eutsen nobio horrek— áreke pitüpien daóšanak”. da eēne! ešáocen nóbišuorék hirurok zarie titilipatalak be?” Ta buelta egin eta nobio barik irúrok šarie titilipatalapé? da buelta eiñye nóbišo barik geratu ziren. Ez eben egin traturik. “Titili-patalak” izan zirenez, gátu sién. éseben eiñ tratuik. titilipatalak isen siéneš ba, geratu ziren nobio barik, ez jakoen gustau-ta. ba gátu sién nóbišo barik écakoen guštaute.
- .Eta harako jaboiaarena ta...?
eta áko xaboiená ta...?
- Baa hori zan Karmen Arrillaga. Arrillaganekoa, horrexen tia; Karmenen baa orí šanKārmén aṛilága. aṛiláganekúe, oṛešén tia; karmenen tia eta eukan lagun bat, Etxetxuko alaba, Jose Orbearen tia bat eukan tia daeúken lagúmbat ečéčuko alábie, xosé orbéan tia báteuken aberatsekin kriada, eta etorten zan, ba, urtean baten Gabonetan etxera. aberácaṛin krišedá, ta etórtešan, ba, urtiembátan gabónetan ečá. Eta enterau zanean zelan etorri zan, ene ba! joan zan. “Ea ondo?” da entéreu šanien šelan etóri šan éneba xun šan. ía ondó? ta “bai, ondo” ta... “Ekarri jonat gauza bat... ez dakin zelako gauzea ta bai, ondo ta... ekaṛionat gaušábat... eštakín šelako gaušie ekarri dodala ta”. —“Bai?” —ta “bai”. ekaṛiotelata. bai? te bai.
- “Zer don, ba?”
séṛdom ba?
- Ba, nire ugazabaren arkondara zuriak-eta gauza bataz garbitzen ditun. ba nire úšaban aṛkondara šurišeketá gaušé bátaš garbíceitún.
- Zer don, ba, hori? —ta
séṛ domba orí te
- Jaboia esaten jakon horri, jaboia! Eta ekarri honat heuretzaṛko, xaboie ešátexakón orí, xaboie! ta ekaṛionat eucáko, ikusteko samea eta belarriak-eta zelan garbitzen ziren”. klaro! ikúšteko šamieta belářišeketa šelan garbícen sién. kláro, lehenago lixibea egiten zan eta ez egoan jaboirik. lénā lišbieitēn šanda éseuen xabórik.
- “Bai?” ta “bai”. “Ikusikon”. Beno
bai te bai. ikúšikon. bwenó.
- ta nora joango gaitun arratsaldean?
ta ná xunḡo gaitun aṛácaldín?

- Boluko errekarra joango gaitun! —Ta joan ziren. Eta hasi zan eskuak...
bolúko eřeká xunġo gaitun. da xunsien. da ašísan eřkúek...
- “Begittu: holan-holan emoten don” —ta eskuak garbitu, uretan busti eta
beítu ólan ólan emóton— taéřkuk garbitu uretan buřtí ta
jaboiař triki-traka hasi da dana dana bitsa ta... “hau don gauzearen
xaboiař trikítřaká ařide dana dana bice ta... “ené aú don gauřian
labana!”. “Bai!”
labána! bai!
- “Ta sélan emoton?”
da sélan emóton?
- Ba, emon, holantxerik! Ikusten don? Holantxerik! Lehenengo samea
ba emón olánċeik ikúřton? olánċeik! lelengo sámie
ta arpegia ta... begiak zabal-zabal eginda esku zabalez hasi da ta,
tařpeiřeta bėġiřek řabalřabal eiñye eřkú řabálař ařide ta,
- Ene! Ene! Ene! baina begiak niri erre egin jeustenaz ta...
ené ené ené baiña bėġiřek niri eře eiñxořtenař ta
- Baina begiak sarratuta egiten don, begiak sarratuta— esaten eban.
baiña bėġiřek řarátute eiřon bėġiřek řarátute-eřáteban.
Niri orduantxe erre jatezan begiak eta ondino 88 urte daukadaz
niri ořdúnċe eře xatėřan bėġiřek eta óndino larógetařořci uřté dekoář
eta ez jatez preskau- esaten eban
ta eċateř preřkaú- eřáteban.
- Ta bestea, ha... kriadearena... ez zara akordetan zelan ee...?
ta beřtie ae křiřádiana écara akóřdetan sélane
- Ah! Urlokoa?
a! uřlókue
- Bai, hori da!
bai orída
- Ba, Joxepa Urlokok nahi eban kriadea. Kriadea nahi eban, eta ura
ba xořépa uřlókok naibán křiředie. křiředie naibán, da úre
ekarri eta egurrak ekarri-ta egiteko modukoa. Eta eroan eban
ekári daégurek ekaríte eiřteko modúkue. da erúban
Ittoiñoko Maritxu eroan eban. Eta —bueno, ba, emen izten dot eta
iřoiñóko Mariċu erúban. da bwenoba emén ířtot eta
etorriko naz hemendik hilabete batera, ba, ea konforme zagozan honegaz
etorriko nář emendik ilebetebatá, ba, ía konforme řagóřan ónař
neska honegaz ta ea zelan konpontzen zarien.
neřkionář da ía sélan konpóncen řarién.
- Bueno, ba, ondo da, ondo da!
bweno ba ondóda ondóda!
Joxepa hasi zan hurrengo egunean:
xořépa ašířan uřeñġo egunien
- Bueno, Maritxu, hartu kantiña eta joan Ibazetako Txantelera eta
bwéno mariċu, ařtu kantiñe ta xun ibeřtako ċantelá ta
ekarri ura!
ekári uré
- Ekarri zeuk!
ekári řeúk

- Bai, baina ekarri egin behar deustazu ura, lapikoan...
bai baina ekañi eimbiñestu uré lapikun
- Zeuk ekarri!
šeuk ekañi
Enèee...! Gero, hurrengo, ba, egurra:
enée geró ũrengoba eguré
- Eta egur apur bat ekarrizu, ba, sua egiteko— ta
da egurapurbat ekañisu ba šué eiteko ta
- Zeuk ekarri, nahi badozu!
šeukekañi naibošu
Eneee...! Halantxe pasau jakon hainbeste denbora. Gero hurrengo
enée álance pašau xakon aimbéste démpora. gero ũrengo
ama joan zanean, esan eutsan ze...:
amá xunśánine eśaúcanśe
- Ta, zelan konpondu zarie, ba, zelan konpondu zarie? —ta
da śélan kompóndu śarie ba śélan kompóndu śarie? —ta
- Konpondu? Daná neuk egiteko esaten deust. Dana nahi badot ekarteko
kompóndu? daná neukeíteko eśátoste. daná naibót ekárteko
eta neuk egiteko... ta hemen gabiz...
ta neukeíteko da amengabiś
- Bai baina —esan eutsan— horri ezer esan behar deutzazuean,
bai baina eśáocene orí eśér eśámbiocésuniene
esan behar deutzazu: “Koittau-koittau hori, poli-polittori” —Eta
eśámbiocesu koťau koťau oí polipolító —ta
pentsau, Joxepak prisa eukanean be, “koittau-koittau horrek ekarri
pencau xośepak pñša eukanjembé koťaukoťau orék ekañidaśu
eidazu ura” eta “kottau-kottau horrek ekarri eidazu egurra”... eta
uré ta koťaukoťau orék ekañideśu egüre da
holantxerik pasau eban bere denporea. Eta gero, denpora gutxi eginda,
olánceik paśeúban bere dempórie dageró dempora giči enýe
kendu eban handik. Eta joan zan horraxa Eibar aldera edo, eta ez dot
kendúban ándik da xunśán oráśe eibáraldá edo ta éstot
aspaldiko urteetan be ikusi. Neska polit bat zan. Horreek neuk ezagutzen
aspáldiko urtietan be ikuśi neśka politbat śan. orék neuk eśaúcen
ditudanak eh! horrek neuk ezagutzen ditudanak dira.
diťúdanak é, orék neuk eśaúcen diťúdanak dí
- Eta hori e... ezagutu dozu Karmengo iturrira joaten zirenak, neskak?
ta orié eśaútu dóśu kařmengo ičúřirá xuten śirenak néśkak
- Ah, nik ezagutu ez dot egin hori, baina lehenago, ba, kontizu, danak
a nik eśaútu éstot en orí baņa léna ba kóntiśu dának
joaten ei ziren hartu edarrak eta uretara; urik ez zan hemen eta...
xuten eiśien artú edářaketa uretá urík eśan emenda...
- Buru-gainean, ez da?
burugáñin eśtá
- Bai, hartu buruan edarrak eta uretara! Kolak egoten ei ziren.
bai artú burún edářak eta uretá kólak egoten eiśin
- Bueno, ama, horrek Karmen Arrillaga horrek zelan garbitzen zitun
bwéno amá orék kařménarilága orék śélan garbicen śiťun

haginak?

agínek

— Ba, ilintiaz. Zuk ez dakizu zer dan ilintia. Baina ilintia...

ba ilintiśeáš. şuk eštakişu şér dan ilintişe. baĝa ilintişe
lehenago egiten zan, ba, egurra bota eta egurrak izten dauan, geratzen
léna eġten şan ba egurē bota ta egurēk išten daben, gácen
zan e... zera, haxe azkena, ondokina egurrarena; izaten da gauza baltz
şan e şera aśee aśkéna ondókiĝe egurēna işeten da gauśé balc bat
bat ilintia esaten jakona; eta ipinten eban harrian eta haizkoraren

ilintişe ešateşakona ta ipinteşan arişén eta aişkórian
doruaş, haizkoraren beste parteaz xehetzen eban eta gero zepilu bataz
doruaş aişkórian béste partiaş şeceşan da geró şeépílu bátaş

—hagin postizuak eukazan eta- haretxeaz garbitzen zituan.

agin poştíşuk eukéşan da aréceaş garbiceşan şitún.

Txirriket-enekoak bizi ziren goian eta horren anaia bat egon zan

ġiriketenékuk bişí şien goişén da óren anaieşbat egonşan

zer baten, drogeria baten egon zan Bilbon eta harek esaten eutsan

şér baten drogeriaşabaten egon şan bilbon da arék ešátocen

— Baina zuk, tia, ez badaukazu nezesidaderik horreaz garbitzeko.

baĝa şuk tia ešpádekoşu neşéşidadeik óraş garbíceko

Zuk egin behar dozuna da “Dens”az garbitu haginak. Esaten eutsan:

şuk einbióşune da denśaş garbítu agínek. ešátocen

Haginak garbitu behar dabe horreaz porkeria horreaz?

agínek garbítu bidabe óraş poŗkerişoráš

— Ixilik egon hadi —esaten eutsan— Holako DENS-ik etxak; hau dok

işilik ónari ešáteocen ólako denśík éġak au dok şánuena ta garbişena”.

Eta haretxeaz, ilintiaz garbitzen zituan harek haginak.

eta aréceaş ilintişaş garbiceşan şitún arék agínek

— Eta haginak zuriak, ez da?

eta agínek şuríşek eštá?

— Zuriak? Horixe bai, zuriak. Postizuak eukazala, zepiluaz eta gero uraz

şuríşek? orişe bai şuríşek. poştíşúek eukéşala şeépíluáš da gero úraş

eraginda ikusgarriak agertzen zituan harek haginak. Finak ziren horreek,

éraiĝŷe ikúşgaríşek agerşen şitún arék agínek. finek şiĝŷ órek

finak! Eneee...! Pertsona finak!

fiĝek! ené! perşóna fiĝek!

— Eta harako hemen ee... kale honetan egiten ziren zerak, antzarrak eta...

eta áko eméne kale onetán eġten şiĝen şérak áncaráketa

— Ah, bai! horreek antzarrok geure kaletik! Aitita be joaten zan.

á bai órek áncarok geure kalétik! aiġtebe xúten şan

Aitita, gainera, ona zan. Harek edozenbat... ia urtero eteten eutsen

aiġte gaĝnera onášan. arék edoşembate... işe urtero etéteocen

sama hori. Orduan haxe kale hau zan Markinan; hemendik zehar antzarrak

şamioi. órdún auśé kaliaú şan markíĝen; eméndişik şiér áncarak

eta danak. Akordetan naz ni, umea baina, zelan bentanak-eta danak jentez

eta dának. akórdetanáš ni umie baĝa şélan bentánaketa dának xénteş

egoten ziren. Danak aurretiaz esanda, eh!: “Gero etorriko gara ta ea

egóten şiĝen. dának auřétişeş ešánda e: geró etóřiko gá ta ia

egoten dan lekua"! Hau kale hau? Bai... Gero, zelaian ipini zituen eta egóten dán lékue! au kaliaú? bai geró šelašen ipini šitúenda akabo, baina ondo polito egoten ziren hemen. Akordetan naz ni zenbat akábo baña ondo políto egoten šien emén.akórdetanaš ni sémbat jente egoten zan.
xénte egoten šán.

- Ta... urkamendiarena ta... zeozer esan zeinke?
ta urkémedišaná-ta šóšer ešán šeinké?
- Tia Arrillaganekok esaten eban berak ezagutu ebala; ha hil zala dira tia ařiláganekók ešáteban berák ešaútubala; á il šala dié ba, hogetamabi urte; ziurrik ez dakit, eh! Berak esaten eban zelan berak ba ogetámabi urte šiguřik eštákit e! berák ešáteban šélan berák ezagutu eban; eta gero ba... ia 89 urtegaz hil zan eta, esaten eban ešaútuban ta geró ba iše larogetabederaci urtégaš ilšán da ešáteban zelan Xemeinen zan urkamendia. Bera akordetan zala mutil bat be šélan šemeingen šan urkémedišé. berá akórdetašala mutil bápe ederragoa eroan ebela, ta ea nora joian eta andra batek esan eutsala edéřaue erúbela, ta ía ná xoienda andrá baték ešaócela hortxe Foteroneko parean: "Zure mutil-itxura ikusita hori da mutilaren órče fotéroneko párien: šuré mutil ičúri ikusište oridé mutiřán paraderoa!". Eta berak atzera begituta esan eutsala: "Ai, ama, ofizio ona paradérue. da berák ácera beřtute ešaócela: ai amá, ofiřio oná nuen nik laga balie". Eta gero, ba, batzuk berba egiten ei eben urketu nuén nik laga bálie. da geró, ba, bácuk berbá eiřen éšeben urkétu baino lehen. Eta enee! kontu tristeak esaten zituan harek! Urkamendiko baño lén. ta enée! kóntu řristiek ešáten šitún arék! urkémendiko kontuak eta. Lehenagoko lapurrak baserrietan-eta; zelan izaten zan kóntuk eta. lénako lápuřek bašériřetánda šélan íšetešan diru-zaparradea egoen lekuan...
dirúšapařadie éguen lékun.
- Hor baserri famatu bat, ez da?
ór bašeri famaú bat ešta...
- Erretolotzan be bai ta...
eřetolócambe baiře
- Hori-hori! Esan hori!
órióri! ešán orí!
- Erretolotzan be, kontizu, gau baten halakorik! Horman gora joian eta eřetolócambe kóntiřu gau batén álakoik! ořmángora xoién da barrutik jo tiroa eta ha desapareřidu egin ei zan, kontizu. Hil, kontizu, bařúřik xó řiřue ta á dešapareřidu eiřiřán kóntiřu. il kóntiřute ta gero besteren batzuk eroan eben eta hurrengo egunean mezatara etorri geró béšteén bácuk erúben da úřeřgo egúnin mešetá etorri ei zan hango gizona, ta... "Zer —esan ei eutsen— Erretolotza, ... eiřán angó giřoná ta "šeř —ešán eiřocen— eřetolóca, ...
- (dirudunak ziren, ez da?)
dirúdunek šién eštá?
- (Bai, dirudunak ziren).—"Zer, mahatsak heldu dittuk?" —eta— "Bai, bai, dirúdunek šién. "šeř mácac eldúřtuk? eta —bai,

- lantzean mordo bat bajatozak behera”— esan ei eutsen. Ba, lehenago,
lancjen mořdobat baxatořak berá- eřán eiřocen. ba léna
holan baserri zereetan eta... Odola, barriz, erreštu handian ei egoan.
ólambaséří séretanda... odóla baréc eřéřtu andiřen eiřegoen
- Hori... denpora luzea da hori?
ori... dempóra luřie da ori?
- Bai, antxina-antxinako kontuak dira horreek, eh! Berak kontetan zituan eta
bai, anćıneanćıneko kóntuk dié óřek e! berák kontétan řitúnde...
- Ama, gure amama zanak edo zure amak goruetan egiten eban, ez da?
amá, guré ámama řanáć edo řuré amák góruetan eićeban eřtá?
- Baai! Goruetan egin. Ardi-lanea ekarten eutsan tia Mariak eta egiten,
bai, góruetan eiñ. arđilanie ekárteocen tiá mariak eta eićeban
ba, haria. Eta gero, hareaz hariagaz egiten zituan kaltzak, ardi-
ba ariře ta geró árař ariřeář eiñ řitún kálcak, arđi
lanazko kaltzak.
lanařko kálcak.
- Eta asko batzen ziren goruetan egiteko?
ta askó bácen řién góruetan eićeko?
- Ez, harek berak bakarrik egiten eban, eh! Afari ostean berak bakarrik
eř, arék berák bákarik eićeban e! afari óřtien berák bákarik
egiten eban; eta libre egoan guztian.
eićeban; eta libre eűen guřtiřén.
- Eta harako txikiak zinenekoak-eta... han Mugartegiko harri-ondoan ta...
eta áko ćikiřek řinenekueketa, an mugárteiko arionduenda...?
- Eneee...! Ba, hantxe harriaren gainean guk aponak eta kanikak eta...
eneee! ba, ánće arířen gánin guk apónak eta kanikaketa...
hantxe nahi izaten genduan egin Gregorik eta biok joan eta kaniketan;
ánće nai iřéten gendun eiñ gregórik eta biřok xúnde kaniketanda
laster kentzen ginduzan harek!
lásteř kéncen giñúřen arék!
- Eta zer zan ha? Eskritorea zan, ez da?
ta sér řán á? eřkřitorie řán, eřtá
- Bai, ona eh! Juanito Mugartegi? Ona!, baina pentsetan dot ha ee...
bai óna e! xwanitómugártegi? óna, bana péřtot á e
ni ez naz akordetan orain zelakoa zan be, baina raroa zala. Ez euskun
ni enář akóřtan oin sélakue řambe baņa řárue řalá. eřóřkun
izten han jarri be egiten. Eta guk hantxe harrian nahi jarri eta
iřten an xaribe eiñ. ta guk ánće arířen nai xarí ta
ez euskun izten eta halantxerik ibilten ginen; (larri) estu ibilten ginen
eřóřkun iřten da álanćeik ibiltén giñen, eřtu ibiltén giñen.
- Eta harako Katalin?
ta áko katalin?
- Katalin errořkeria?
katalin eřóřkeri?
- Bai!
bai.
- Katalinek hainbeste txakur eukitten zituan. Bera bakarrik bizi zan.
katalínek aimbeste ćakúr eukíten řitún. berá bákarik biří řán

Guk txakurrandirik ez, eta erroskea nahi jan... hareek komediak!
 guk čakúrāndik eš da eṛokie nai xan... árek komédišak!
 Eta... batzen ginen, baina erroskarik ezin jan...! San Migeletan eta
 da báceñginen baña eṛóškaik ešin xan... šamigéletanda
 karnabaletan eta beti egoten zan erroska-saltzen. Txiki-txiki bat zan.
 karnabáletanda bēti eótešan eṛóškašalcen. čikíčikibat šan
 Hortxe Fermin Iperragarre bizi zan lekuan, hortxe bizi zan Katalin
 órče fermin iperagāre biši šan lékun, órče biši šan katalin
 erroskerea; famosea! Lehenago pentsetan dozu pesetea-eta? Sekulo be
 eṛoskerí; famóší! léna péncetošu pešétietá? sékulobe
 ez genduan eukitten txakurrandirik be ta! Erroskea nahi jan eta ezin!
 ešgéndun eukíten čakúrāndipe ta! eṛóški nai xán da ešin
 Halako komediak!
 álako komédišak!

- Eta zelan zan ha... hor Kale Okerrean pentsetan dot bizi zala, eta
 eta sélan šan a... oṛ kalé okérin pencétot biši šalá eta
 oso argia ei zan, Alejandra Zumarraga izenekoa...
 óšo aṛgíše eíšan alexandrā šumāra íšenekue...
- Ah bai! Hori, hantxe Kaja Laboralaren goian bizi zan. Julian Bollar-en
 a bai! orí ančé kaxálaboralan goišén bišišan. xulian boláren
 ama zan hori. Eta gure amak esan eutsan: “Zer, oinez zoaz?”
 amá šan orí. da guré amák ešaúcen: šer oinés šoiés?
- “Ez, oin (orain) ez, gero!” Eta baina holakoa danean. Beti ataraten
 eš, oṇ eš, geró! da baña ólakue danien. bēti atáteban
 eban! Hori berban-berban eukan. Saladea zan. Joan zan Ameriketara eta
 orí berbámberbán eúken. šaládie šan. xunšán amériketá ta
 akabo! Joan zan eta hankea ebagi eutsela ta, gero ezdakit zer...
 akábo! xunšán da ankie ebaíocela ta geró eštakit šer...
 Han hil zan behintzat. Andra ederra eta saladea haxe zan benetan!
 án ilšan beincét. andrá edára ta šaládie ašé šán bēnetan!
- Txikitan mendira joaten zinien, ez da, zuek?
 čikíčen mendíra xúten šinien eštá, šúek?
- Ené, asko! Gu asko mendira. Domeka guztietan. Gure dibertzinoia, ba,
 ené ásko! gu ásko mendíre. domeka guštíšetan. gure dibéršinoie ba
 horixe zan! udan manzanilea batzera Egizarrera edo Larruskainera.
 oíše šan! udán manšanílie bácia egíšará edo larúškañá.
 Oinez, eh! Joan hor Xemeindik zehar Egizarrera eta gero Laruskainera
 oṇés e! xun oṛ šemeíndik šíēr egíšará da gero larúškainá
 honuntzagotik zehar bajatu eta gero oinez. Automobilean pentsetan dozu
 onúncatik šíēr baxatu eta geró oṇés. automóbiljen pencetošu
 orain ibiltēn/zarien moduan? Ez! Hori ez, eh! Eta Barinagara,
 oṇ ibiltēn šarien modún? és! orieš, e! da baríñá
 Barinagako jaietan, SanPedroetan, ba... oinez Barinagara.
 baríñako xaišetan, sampédroetan ba oṇés baríñá.
 Exebarrira ta Aspiltzara, Amallora.. danean oinez. Ai, lehenago
 ečebáříre da aspílcá amálorá... danien oṇés. ai léna xéntie
 jentea asko gehiago ibiltten zan. Orain alperkeria dago asko!
 ásko geša ibiltēn šan. oṇ alperkeíše dá asko!

Orain automobila haruntz eta automobila honuntz!!!

on automóbile arúc ta automóbile onúc!

Baten pentsau genduan e... geure eguna zala-ta zelebrou egin behar

batén pencaú gendun e geuréguné šaláta šelébrou en bigendule.

genduala. Ea zelan zelebrouko genduan, ba, ta; zelan zelebrou?

ia šelan šelébrouko géndun ba ta; šelan šelébrou?

Ba, txokolatea egin behar genduala, baina etxean eginda barik,

ba čokolátie en bigendule baŋa ečín éŋye barik

kanpoan zala onena jatea. Eta egin genduan txokolate hori, sartu

kámpun šalá ónena xátje. da engendun čokolátioi, šartu

botila zabal-zabal baten eta pentsau genduan Elkorra joatea. Eta

botila šabalšabál batén da pencaú gendun elkořá xútie. da

pentsau zelan igerrí geuntsan denporeari... Xemeina allegau ginenean,

pencaú šelan igéri góncen démporai... šeméná alégau gínénin

euria... ta bueno! orain nora joango gara gu, nora joango gara?

euriše... da bwéno oin ná xúngo ga gu, ná xúngo gá?

Kanposanturen aurreko petriletan jarri eta jan hantxe txokolatea

kamposántuan aúreko petriletan xarı eta xán ančé čokolátie

ateru ebanean eta etxera! Haxe zan gure zelebrazinoia!

atértubánin da ečá! ašé šan guré šelébroušinoie!

III. AZTERKETA FONIKOA

1.1. *Armonizazio bokalikoa*

Zeri deritzagu armonizazio bokalikoa? Zenbait bokale, elkarren ondoan gertatu arren, ez dira elkarren kideko. Hiatoan ez dute elkar ondo hartzen. Beste batzu, ordea, molderrazagoak ohi dira; elkarren kidekoago. Hori dela eta, lexemari artikulua edo ta bokalez hasten den deklinazio-atzizkia eransten zaionean batipat, aldaketak sortu ohi dira, bikote moldakaitzen ordezt molderrazagoak sartuz; fenomeno hauei armonizazio bokalikoa derizte zenbait linguistek.

Puntu honetan, labur-labur emango ditut azpi-euskalki honetan ematen diren fenomenorik garrantzitsuenak. Bide batez gaurko joera eta azpi-euskalki honetan idatzi zutenena —idazle zaharrena— erkatuko ditut.

Nominatiboan —eta ergatiboan ere bai, jakina— garbi ikus daiteke lexemaren-bukaerako bokalea eta artikulua elkartzera koan zer gertatzen den. Lehen hurbilketa batez zera esango genuke:

-a + a: ez dute irauten. Gaur egun, singularrean, “-ie” ematen du. Bilakabidea haxe izango litzateke: -a + a > -ea > -ia, -ie. Kostaldera hurbildu ahala (Ondarroara, adibidez), beste urrats bat gehiago ematen da bilakabide honetan “-i” ginez. Inguru honetako idazle zaharrek, ordea, urrats bat gutxiago: “-ia” (alabia).

Pluralean, gaur egun, “a” biak bakundu egin ohi dira, “a”bakarra izatera etorriz. Idazle zaharretan ia beti biak agertzen dira, horretan Prai Bartolome izanik nabarmenena: “alabaac”.

-e + a: ez dute irauten, ez idazle zaharretan eta ez oraingo hizkeran. Orain: “-ie”; bilakabidea: -ea > -ia > -ie (bidie). Idazle zaharretan: “-ia”; bilakabidea: -ea > -ia (bidia). Ordurik hona urrats bat gehiago eman izan da.

-i + a: Yod-en eraginez erdikontsonante sabaikaria sortu ohi da. Idazle zaharretan honela adierazten da grafiaz: “-ja”.

Ez dakigu nola ebakiko zen ahoskatzerakoan horrela idatzirik dagoena. Orain-go erara, agian... Gaurko hizkeran ere erdikontsonante sabaikaria entzuten da, baina “i”ren eraginez, artikuloa itxi egin ohi da: “txorixe”.

-o + a: ez dute irauten, ez idazle zaharretan eta ez oraingo hizkeran ere. Orain: “-ue” (basúe). Bilakabidea: -oa > -ua > -ue. Kostaldera hurbildu ahala (Ondarroara, adibidez), beste urrats bat gehiago eman ohi da bilakabide honetan: -oa > -ua > -ue > -ú (basú). Idazle zaharretan, ordea, oraingo hizkeran baino urrats bat gutxiago: “-ua” (basua, besua, lepua...).

-u +a: ez dute berdin-berdin irauten. Orain: “-ue”.

Bilakabidea: -ua > -ue. (Burue).

Idazle zaharretan wau ageri da “u”ren eraginez erdikontsonante ezpainbikoa sortuz; artikuloa itxi gabe, noski: “buruba”. Oraingo egoeran “i” eta “u” bokaleek itxi egin ohi dute beti artikuloa. Horrela, “-o”z bukatutako lexema eta “u”z bukatutakoa, artikuloa erantsiz, zeharo berdinduak ageri zaizkigu: asto + a = astue; buru + a = burue.

Datiboa

Ez da berdin-berdin ematen. Markinan eta inguruko herrixketan bada ezberdintasun edo ñabardura txikiren bat honetaz, baina handi-handika, zera esan genezake:

Mugagabea: -C i: Lexema kontsonantez bukatutik, “i” bakarrik eransten zaio datibo mugagabea egiteko.

-V (r)i: Lexema bokalez bukatutik, “(r)i” eransten zaio. Baina inguru honetan, bokale arteko “r” oso ahula da eta erori egin ohi da ia beti, deklinazio-atzizkian batipat.

Mugatu bakarra: -C = -V: Lexema kontsonantez bukatu nahiz bokalez bukatu, ondorio berbera dugu. Orobat mugatu anitzean ere.

Orain: “-ai”. Bilakabidea: -a(r)i > -ai.

Idazle zaharretan: “-ari”.

Mugatu anitza: Orain: “-ei”. Idazle zaharretan: “-ai”.

Oharra: Mugagabea, lexema “-i”z bukatzen denean, “r” bokale artekoa galduz, bi “i” gertatzen dira elkarren ondoan; bata lexemarena eta bestea morfemarena. Baina ez dute biek irauten; bakundu egiten dira: -i + (r)i > -i. (Batzutan biak entzun daitezke).

Partitiboa eta ablatibo zaharra

Bokale arteko “r” galduz, lexemaren bukaerako bokalea, edozein dela ere, morfemako “i”rekin elkartzen da, aldaketarik sortu gabe. Lexema “i”z bukatzen denean ere, biak entzun daitezke; ez garbi, ordea.

Instrumentala eta soziatiboa

Nominatiboaren gainean eraikitzen dira kasu hauek. Beraz, nominatiboan bezalako bokale-aldaketak sortzen dira. Hala ere singularrean “e” artikulio itxia eta bokale arteko “g” galdu egin ohi dira: esku + a > eskue + -(g)az > eskuaz.

1.2. *Azentua*

Azentuarena arazo irristakorra da euskaran. Salbuespenak salbuespen, azentua oso indarge eta ahula da euskaraz; fintasun handiko tresnaz baliatu ezik, zalantza-iturri da puntu hau. Gainera, hitz bakoitzak azentu nagusi bakar bat izan arren, beste azentu motelago bat ere izan ohi du. Baina esaldiaren inguramen-duak errez alda dezake azentua, markatu gabea baita. Dena dela, nik, Markinal-deko azpi-euskalkiaz bai ikerketa honetan ta bai beste lan batzutan jaso ditudan eritzi, edo eta nahi baduzu, usteak adieraziko ditut hemen:

Mugagabeko (nor, nork) kasuetan, oxitonoa da azentua: (zortzi etxé).

Singularreko nominatiboan eta ergatiboan, paroxitonoa gehienetan; batzutan oxitonoa ere bai: “eskué”, “astúe”, “etxié”, “alábie”, “gizóna”.

Pluralean ia beti da proparoxitonoa: “éskuek”, “étxiek”, “gízonak”, “alábak” (paroxitonoa).

Partitiboan ere oxitonoa dela dirudi, baina ez da ondo markatzen edo zalantza nabari da, hitz batzutan batera eta besteetan bestera ebakiz: “diroik” (= dirurik), “zigúrrik” (ala “zigúrrik eztakit?”); baina “txakúrrandik”.

Mailebuzko hitzetan ere jatorrizko azentuari eusten dio: “erróskaik”...

Instrumentalean eta soziatiboan, singularrean paroxitonoa da eta pluralean proparoxitonoa:

“umíaz” (sing.)

“úmiikin” (pl.)

“mutíllaz” (sing.)

“mutíllekin” (pl.)

Instrumental mugagabea oxitonoa dela dirudi (bi silabakoak behintzat): “basóz”, “oñéz”, “mendíz”, “zaldíz”...

Inesiboa, singularrean oxitonoa da eskuarki; proparoxitonoa pluralean eta paroxitonoa mugagabea:

“lepún”, “kalín”, “etxín” (sing.)
 “kalietan”, “etxietan” (pl.)
 “kalétan”, “etxétan” (mugab.)

Aditz-izenetan, singularrean oxitonoa da eta paroxitonoa pluralean?

“etorri zanín” (sing.)
 “etorri zanétan” (pl.) ala “etorri zánetan”?
 baina “etorri zínín” (sing.) > “zínín”.
 “etorri zienetan” (pl.) > “zínētan”...

Ablatiboa, mugagabeen eta singularrean paroxitonoa da; pluralean, berriz proparoxitono-aurrekoa deituko dioguna, bukaeratik hasita laugarren silaban markatzen baita:

“mendittétik” (mugag.)
 “mendíttik” (sing.)
 “mendíxetatik” (pl.).

Adlatiboa, mugagabeen proparoxitonoa da argi eta garbi:

“mendíttera” (mugag.), baina baita “mendittá”ere

Pluralean proparoxitono-aurrekoa:

“mendíxetara” (pl.), baina baita mendíxetá

Singularrean oxitonoa dela dirudi; baina lexemaren bukaera “-i” eta “-u” dutenetan, paroxitonoa ote den nago:

“etxá”, “kalá”, “lurrá” (Hauetan oxitonoa da argi eta garbi); baina “erríre”, “mendíre”, “barrúre” etab. paroxitonoak dira. Dena dela, hemen oxitonoa egiteko joera nabarmena dago esamolde hauetan ageri denez: “itxasun ondá jun” (hondora) = “neure ónda dator” (aldamenera), “ná doa?” (nora doa).

Izen nagusietan, azentuaren eragina azken silabaren eta azken aurrekoaren artean banatzen dela dirudi. Nire eritziz, izen nagusiek lexemaren azentua nahiko markatua dute eta morfemarena eransten zaie, kasu honetan azken silaban:

“Eibárrá” (kasu honetan, nominatiboko azentua aldatu egin zaio: “Eibar”).
 “Gerniká” (nominatiboan “Gerníke” izango litzateke)

“Baríñá” (nominatiboan “Baríña”; izen ofiziala “Barinaga”).

Adlatibo norabidezkoa (direkziozkoa), azentuari dagokionez, berdina da, baina azpi-euskalki honetan kasu honen deklinazio-atzizkia, “-rutz” da beti eta ez “-runtz” edo “-rantz”.

Adlatibo kasua bizidunena denean, singularrean paroxitonoa da eta proparoxitono-aurrekoa pluralean: “ámengana” (pl.), “amána” (singu.).

Beraz, singularra genitiboarekin berdintzen da, bien arteko bereizgarri bakarra esaldi-haria izanik.

Genitiboan, lexema nola bukatzen den, gurutzaketak sor daitezke edo ez singulararren eta mugagabearen artean; gurutzaketa horiek, “-i” eta “-u”ren eraginez ondoko “a” (mugatuaren artikuloa) “e” bihurtzen delako gerta daitezke:

“edozein mutilléná” (mugag.)

“mutilléná” (sing.)

“mutillena” (pl.)

“a” itsatsia duten hitzetan ere gurutzaketa gertatzen da, baina beste arrazoi bategatik: singularrean “-aren” da deklinazio-atzizkia.

Mugagabea “-ren”, baina singularrean lexemaren bukaerako “-a” eta morfemaren hasierakoa “a” bakarria izatera datoz. Beraz: “edozein alábarén” (mugaga.) “edozein amárén” (mugag.) “gure alábarén” (sing.) “gure amárén” (sing.).

Hemengo azpi-cuskalkiz: “edozein alábán” (mugag.)/“gure alábián” (sing.).

Baina: “edozein amán” (mugag.)/“gure amán”...

Oharra: “-a” itsatsia dutenetan, bizkaierazko erregela oso ezaguna da: -a + a = -ea > -ia > -ie; beraz, ondo bereizten dira mugagabea eta singularra. Euskara batuz, ez ordea.

“edozein neskáná” (mugag.) “néskena” (pl.)

“gure neskiená” (sing.). “Aita” eta “ama” hitzetan ez da jarraitzen goian aipaturiko erregela, animalietan izan ezik.

Erakusle eta izenlagun posesiboak

Hauetariko zenbait kasutan, azentua gertatzen da bereizgarri:

“onék” (ergatibo sing.)

“ónek” (ergatibo pl. eta nominatibo pl.); kasu bien berdintzea berriro ere. Esaldi-haria bakarrik izan daiteke bereizgarri.

Beste horrenbeste esan dezakegu erakusleen 2. eta 3. graduez ere:

“orrék” (ergatibo sing.)

“órrek” (ergatibo pl. eta nominatibo pl.)

“aré” (ergatibo sing.)

“árek” (ergatibo pl. eta nominatibo pl.).

Oharra: Azpi-euskalki honetan ez da erabiltzen ergatibo singularrean “hark” edo “hak” bizkaieraz beste zenbait tokitan egin ohi dutenez.

Genitiboaz ere gauza bera esan dezakegu. Lehen gradua bakarrik aipatuko dut:

“onén” (sing.)

“ónen” (pl.).

Beraz, pluralean ez da agertzen “e” bikoitzik eta azentua da bereizgarri. Idazle zaharrek, ordea, euskara idatzian “e” bikoitza darabilte beti pluralerako.

Beste kasuetan ez da ezer aipagarririk gertatzen. Datiboa euskara batuan bezala egin ohi da:

“oní” (sing.)

“ónei” (pl.).

Mendebaldeko bizkaieraz, ostera, forma berbera entzun daiteke tokirik gehienetan singularrerako eta pluralerako, baina azentuz bereizirik: “onerí” (sing.) / “óneri” (pl.).

“niré”, “zuré”, “beré”, “guré” = oxitonoak; “zúen”, “eúren” = paroxitonoak.

1.3. *Laburdurak eta kontsonanteen galerak*

Zenbait kasu laburturik eman ohi dira beti. Beste zenbait, ordea, ez da hain ziurra izaten eta pertsona berak ere laburturik nahiz laburtu gabe ematen digu. Grabazio honetan ere argi ikus daiteke hori: [krišedá eón níncenekúk?] [lepún] [xún sienín] [larógeta šorčí urtékú] [úrēngo egunín] [ečín]. Hemen, beraz, laburduraz. Hitz-barnean ageri diren “g” horiek ere duda-mudazkoak dira, ez baitira garbi entzuten.

Ingurune berdintsuetan laburdura barik ere ebakitzen dira zenbait hitz: [šurien] [entéreu šanien] [gausie] [lišibie] [ařiláganekúe]... Ageri denez, inesibo kasuan, genitibo lekudenborazkoan eta nominatiboan, batera nahiz bestera ahoskatzen da.

Beti laburturik ebakitzen direnak

Adlatiboetan, baita kasu honetako aditz-izenetan ere: [ečá], [ařečiná] [baríná]. Esana dugu azken kasu biotan nominatiboa eta adlatiboa azentü hutsez bereizten direla. Gauza bitxia da, baina kasu honen galdetzailea ere [ná] ahoskatu ohi da. Hor, lehen-lehenik “-r-” bokale artekoa galtzen da eta gero bokaleen asimilazioa eta monoptongazioa ematen da azentua daramana nagusituz.

Aditz-izenak: [bedāra ebáta], [eber̄dioštékue eítá]. Aditz-izen hauetan, Bizkai-ko, tradizio zaharra ez da jarraitzen Markinan. Beste tokirik gehienetan behintzat, “bedarra ebaten joan ziren” esango lukete zalantzarik gabe. Bizkaieraz, adlatiboaren ordeaz, ingurune horretan, inesibo mugagabe zaharra erabiltzeko joera da nagusi. (Hala ere atal honetan laburdurez ari gara eta ez morfologiaz).

Partitiboetako “r” guztiak suntsitu egiten dira: [ólakoík] [béšteik] [čakūrāndík]...

Genitiboen “r” guztiak ere suntsitu egiten dira, izenorde pertsonaletan edo izan ezik: [aiškórian dorúáš] [egūréná]. (= egurrarena). Genitiboan, egia esan, ez da “r”rik agertzen bizkaiera mintzatuan, baina hori ezin genezake galeratzat jo, dirudienez, ez baita sekula erabili.

“r” bokalen artekoa deklinazio-atzizkietan galtzen da eta adlatiboan bereziki; baina baita zenbait lexemaren barnean ere eta aditz laguntzailearen adizkietan batipat:

[etó̃ri sínien] edo [sínín] [etó̃ri díe] edo [dí] (= etorri dira), [etó̃ri gá] —r—galdu lehenbizi eta gero “a” biak bakundu. [goš̃tiše] (= gorostia), [aíte] (haritza), [áko] (= harako).

“g” bokale artekoaren galera singularreko sozietiboan eta instrumentalean nabari da. Gero, ondorio orokorretan adieraziko dudanez, kasu bi hauek singularrean berdindu egin ohi dira; berdinak dira forma aldetik:

[aiškórian dorúáš] [xaboiaš] [eškú šabálaš].

Dirudienez, bokale arteko “r” eta “g” dira kontsonanterik jauskorrenak. Hau, hura baino finkoagoa izan arren, oso ahul entzuten da mantentzen den ingurunetan.

Beste laburdura mota batzu, monoptongazioak dira. Nominatiboan eta inesiboan eman ohi direnak ikusi ditugu bidenabar. Oraingoan “behar” eta “-ago”k izan ohi dituzten aldaketak arakatuko ditut:

“Behar” beti ahoskatu ohi da laburturik baiezkotik perpausetan behintzat, eta aditz laguntzailea beron dautsola:

[biócešu]. Beste zenbait aditzetan ere, iragankorretan batipat, horrelaxe ahoskatu ohi da:

[ešáocén], [ešábán], [ešátošte] (= esaten deust Markinan “esaten deuste” “eban” adizkiaren “e” ia beti galdu egiten dela esan behar: [naibán], [erúban] (= eroan eban).

“-ago”k ere laburdurak eta aldaketak izan ohi ditu: “egon” aditzaren adizki guztietan somatzen da eta konparatiboan “-ago” bukaeran:

[emén ná] (= hemen nago). Bilakabidea: nágo > náo > náu > ná.

Beste guztietan ere berdin: [šás] (= zagoz), [gás] (= gagoz), baina [šausé], [dás] (= dagoz); hitanoka berdin: [emén xák] (= hemen jagok). [geíša] (= gehiagot), [andíša] (= handixago), [andíšaua].

“-oa” bukaera duten guztiek “-u” edo “-ue” ematen dute, artikuloa ondoren dutenean behintzat: [lapikun], [erún] (= eroan), [erúban] (= eroan eban), “txingarute” deritza Markinaldean herri-kirol bati.

Goian aipatu dugu “g” bokale artekoaren galera, baina ez dut adierazi adibiderik orokorra; “egin” aditzean gertatzen dena, alegia. Aditz honetan “g” galtzea fenomeno orokorra dela esan genezake. Grabazio honetan hainbat aldiz agertzen da laburdura hau, baina iraganeko partizipioaren adibidea jarriko dut: “eĩnye” [eĩnye] (= eginda).

“Pentsatu” aditza era bitara agertzen da grabazio honetan: [péncetot], [péstot].

Beste zenbait laburdura ere azpimarra daitezke azpi-euskalki honetan. Une honetan adibide bitxi baten lekukotasuna eman nahi nuke. Aurrerago ere aipatua dut, baina bilakabidea eta azalpen laburra emango dut orain: Azpi-euskalki honetaz baliatu ziren idazle zaharrak —Markinaldeko euskararen ordezkariak fidakorrena den Prai Bartolomek— “etorri dirianac”, “etorri cirianac” formak erabiltzen dituzte. Gaur egunean, era bitako laburdura egin ohi da adizki honetan: “dienak”

eta “zīenak” alde batetik eta “dīñek” eta “zīñek” bestatik. Bilakabidea: “dirīanak” > “diīanak” > “dīanak” > “dīenak” (batzu hemen geratu dira; beste batzuk aurrera jo dute, monoptongazioa eginez azentudun bokalearen alde, baina “i” bokale itxiaren eraginez “n” sabaikari bihurtzen da eta gainera hurrengo silabako “a” gradu bat ixten da) “dīñek”...

Nire zalantza zera da: Prai Bartolome eta Mogelen garaian nola ahoskatzen zen adizki hori? Idazten duten bezala ahoskatzen ote zuten ala, gaurko erara ahoskatutik, idazteko forma kultotzat jo ote dezakegu? Honelako aldakuntza batetarako epe laburregia dela esango nuke lehen eritzian, baina ez da ezinezkoa. Gainera, geroxeago aztertuko dugunez, lexemari artikuloa eranstea ere, ezberdintasun nabarmenak somatzen dira ordurik hona.

Laburdurez ari garelarik, honetan bilduko nuke labur-labur korapilo hau:

Laburdurak, kostalderantz eta bereziki Ondarroarantz hurbildu ahala, nabarmenago, ugariago dira. Artibai ibarrean, Lea ibarrean baino ugariago. Beste horrenbeste esan dezakegu kontsonanteen galeraz ere. Zuberotatik hasita Gipuzkoan zehar datorren fenomenoaren omen da “r” bokale artekoaren galera. Bizkaian ez dago batere sustraitua, baina Markinan bai.

IV. ONDORIO OROKORRAK

1. Bonaparte printzeak ekialdeko bizkaierari buruz ematen dituen datoak funtsean bat datoz Mogel eta Prai Bartolomerekin, armonizazio bokalikoari dagokionez batipat.

Oraingo egoera, ordea, zeharo desberdina da. Bonaparte, azpi-euskalki honen berri ematerakoan, idazle haiengan eta beraz, euskara idatzian oinarritu ote zen da nire susmoa. Susmo honek, gainera, badu arrazoirik, hain epe laburrean ez baita edo zail baita honenbesteko aldaketarik ematen. Hala ere ezinekoa ez dirudi. Ikus ditzagun ezberdintasunak:

<i>Mogel/Prai Bart.</i>	<i>Orain</i>
-a + a > -ia (sing.) alabia	-ie alabie > (alabí)
-a + ak > -aak (pl.) alabaak	-ak alábak
-e + a > -ia (sing.) etxia	-ie etxie > (etxí)
-e + ak > -iak (pl.) etxiak	-iek étxiak
-i + ak > -ijak (pl.) txorijak	-ixek txórixek
-o + a > -ua (sing.) astua	-ue astúe > (astú)
-o + ak > -uak (pl.) astuak	-uek ástuek (ástuk)
-u + a > -uba (sing.) buruba	-ue burue
-u + ak > -ubak (pl.) burubak	-uek buruek

Datiboan

-ari (sing.) gizonari	-aí gizonai
-ai (pl.) gizonai	-ei gizónei

Idazle zaharrengan lehen aipaturiko kontsonante galerarik ez laburdurarik ez da nabari.

2. “i” eta “u”ren eraginez artikuloa itxi egin ohi da, baina beste mugatzai-leak eskuarki ez. Hala ere, inoiz entzun daitezke “harri bet” etab. Baina itxitura hau, “i” nahiz “u” aurreko silaban direnean bakarrik gertatzen da; ez diptongoa osotuz beste bokalearen ondoan daudenean. Bizkaierazko zenbait azpi-euskalkitan, “u”ren eraginez batipat eta gutxiago “i”ren eraginez, aurreko “a” > “e” izatera etorri ohi da: “au” > “eu”.

Adibidez: “gaur” > “geur”; “hautse” > “heutse”; “pentsau” > “pentseu”; “aurrien” > “eurrien”; “lauso” > “leuso” etab.

Azpi-euskalki honetan ez da honelako itxiturarik gertatzen. Beti mantentzen da “au” diptongoa. Beraz, aditz laguntzaile iragankorren NORI adizkiak, euskara mintzatuan laburturik eta aditz nagusiari loturik ahoskatu arren, hemengo idazle zaharren idatzietan DEUTSUT / DEUTSUGU / DEUSKU etab. dira beti; sekula ere ez DAUTSUT / DAUTSUGU etab. Eta ezin daiteke ihardetsi bokalea itxi denik, azpi euskalki honetan ez baita inoiz ixten. Iparraldekoek erabili ohi duten DATXEKIOLA (gaztelaniazko ‘adherido’), oster, DAUTSOLA. Egoki zuzentzen du S. Altubek, Azkuek puntu honetan egindako errakuntza, honen morfologiaren oharretan. Ikus dezagun goian aipatutako hitz bien bereizketa garbia Prai Bartolomeren testo batetan:

“Oin bijac laban eguinda, plaziaren erdijan jausita gueratuten dira andrazcuac, inoc, beguiratu biar ezdeutseen modubuan, escuti dautsanac jaso artian”.

3. Bustidurak eta hots sabaikariak egiteko joera nabarmena dago azpieuskalki honetan. Mendebaldeko bizkaieran Txorierrri eta Arratia alderantz jo ahala, bustidura gutxiago nabari da. Hala ere, Prai Bartolomek, grafian behintzat, kontsonante sabaikari gutxi erabiltzen du. “Ñ” ia inoiz ere ez. Idazle honen ezaugarrietako bat horixe dela esan dezakegu. “LL” sarri samar darabil. Mogel gehiago baliatzen da kontsonante sabaikariez. Harritzekoa bada ere, Añibarro, Arratiakoa izanik, Mogel eta batez ere Prai Bartolome baino ugariagoa da kontsonante sabaikariak erabiltzean.

4. Ablatibo zaharra, esamolde fosilizatu batzutan izan ezik, nekez entzun daiteke: “kaleik kale”; “mendik mendi”; “etxeik etxe”, baina hauek ere galzorian daudela dirudi eta honako hauek sarriago erabiltzen ote diren nago: “kaletik kalera”; “etxetik etxera”... Mendebaldeko bizkaieraren zenbait tokitan “ordurik hona”; “gaztetarik”; “txikitterik” etab. parra-parra entzun daitezke. Hala ere, ondoko ingurune honetan egoki-egoki erabiltzen da; beti erabili ere: “ondoik joan” (“ondotik” edo “atzetik” esateko): “Umiau (au umiau) neure ondoik dabil beti”.

5. Pluraleko ergatiboa eta nominatiboa ez dira bereizten, ingurunetik edo testo-haritik izan ezik.

Ekialdeko eta euskara batuko bereizketa: “-ak” (nominat. pl.); “-ek” (ergatibo pl.), hemen ez da ezagutzen.

6. Soziatiboa eta instrumentala berdinduak daude singularrean eta pluralean ere; singularrean bata nahiz bestea “-az” da. Egoera zaharra berrezartzera

joz gero, “g” galdu dela esan behar, egoera zaharrean “-gaz” izan baitzen. Pluralean, bata nahiz bestea “-ekin” da. Horretan oraingo hitzun arruntak ez du hutsik egiten; ezta Prai Bartolomek ere. Mogelek, ordea, ez du erregela hau beti betetzen; zenbait pasartetan “-akaz” bukaeradunak dakartza.

7. Lexema batzutan zalantza nabari da, “u” eta “o”ren arteko nahasketa dela eta. Artikulua hartzerakoan, biak zeharo berdinduak direnez gero, lexema nola bukatzen den zail gertatzen zaie, euskara bereziki landu ez dutenei. “Eskue” eta “astue” entzuten direnez, batzutan “esko” (esko bat) eta holakoak erausten dira. Markinaldeko hitzun arruntari gehiago entzungo diozu “diroik” “diruik” (= dirurik) baino.

8. Gaztelaniazko “-ón” bukaeradun hitzak “-oe”/“o” ebakitzen dira hemen: “kamioe bat” baina maizago “kamio bat”; “arratoe bat” maizago “arrato bat”.

Gaztelaniazko “-ción” atzizkia, “-ziñoie” da, baina eskuarki artikulo eta guzti, honela entzun daiteke: “-ziñoie” (funtziñoie), (bedeikaziñoie)...

9. Aditz laguntzaile iragankorrean, osagarri zuzenaren plurala markatzeko, “-it-” elementudunak entzuten dira [ekárten šitún]. Baina bestelakoak ere bai kasu batzutan. “Genituen”, adibidez, ez da entzuten, “genduzen” baino. Orainaldiko lehen pertsonen pluralaren marka biak ageri zaizkigu bata-bestearen ondorik: [ekárituás] (= ekarri ditudaz); beraz, “ditut + “dodaz”en bukaera; noizean behin baita [ekéritut] ere. Idazle zaharregana jotzen badugu, zalantza nabari da plural-marka bakar eta bikoitzaren artean. Uriartek plural-marka bikoitzekoak darabiltza: “icentatu cituzan”, “igaroten dituezan penaac”.

Juan Jose Mogelek bietarikoak darabiltza: ditubee / ditubeez; cituban / cituzan; nituban / dituguz, dituzubeez...

Juan Antonio Mogelek eta Prai Bartolomek, plural-marka bakarrek formak eta “-it” elementudunak darabiltzate beti. “Neukez” eta “leukez” ere ez dira ageri bi hauen idazlanetan, “nituke” eta “lituke” baizik. Bizkaierazko oraingo idazleetan dabilen saltza eta nahastea dela eta, “nebazan”, “ebazan”, “dauz” eta honelakoak ere noizean behin entzun daitezke...

10. Aipagarria deritzat grabazioan ageri den forma honi: “*tia Arrillaganekok* esateban...” Ez da “Arrillaganeke tia” esaten, deitura bezala mugagabea baizik.

11. /j/ beti ahoskatzen da belarea [x]. Aditz laguntzailean eta alokutiboan ere bai: “etorri jat” [etoři xate], [ešan xok][xaúši xakoe]. Durangaldean [xaúši džaku]; Meñakan [džauši džaku].

12. /f/ ez da izan kontixu, Markinaldekoen begiko oraintsu arte. Behin honez gero, nahiko bertokoturik dagoela dirudi. Grabaketa honetan bertan ere “fiñe”, “afarixe” etab. entzun genitzake. Egia esan, “piñe”, “paltsue”, “aparixe”, “palta”, “apana” etab. asko entzuten dira oraindik, baserritarren artean batipat; baina ez dira guztitara ere hitz asko. Inguru honetako idazle zaharregana joz gero, zera aurkituko dugu: Juan Antonio Mogelek eta Prai Bartolomek ez dute /f/ onartzen, eta bakoitzak bere argudioak jartzen ditu; hark Peru Abarka-ren sarreran eta honek Icasiquizunetan. Prai Bartolomek zera dio:

“Eguia da, erantzun eustan batec: “p” iminten nevala “f” lecuban: baina, jaquitunac dinuenez, ta euscaldun utsai entzuten jakuenez, ez dauca “f”c cer eguini gueure eusqueran”. Uriartek, Astarloak eta Juan Jose Mogelek ez dute engararik, maileguzko hitzetan behintzat, “f” erabiltzeko. Prai Bartolomek zeharo baziartzen du kontsonante hori, eta “f”dun maileguzko hitzak ugari erabili arren, “p” trukatzin ditu beti: opendidu, oitura impamiac, propeta paltsuen, San Francisco Sales, opicijoz, popuertza, apicinoia, paltia, paltau, piestia, pabore, pandanguan, compeseetan, prutia, copradijeetaco, pornicacinoia, pamelija... empin.

J. A. Mogel-ek ere ez du onartzen “f”rik euskaran. PERU ABARKA liburu ospetsuaren sarreran, bere gramatika eritziak ematen dizkigu. Sarrera hori erdaraz dator. Hona zer dioskun:

“El idioma bascongado no necesita en el alfabeto romano de estas dos letras *f* y *h* y no aciertan los que escriben con *f*, estos vocablos *alferra*, *afaria*, *ifini*, y algunos otros que se deben escribir con *p*: *alperra*, *aparia*, *ipini*, es decir como los pronuncian los puros vascongados. Estos, si no han estado en tierras donde han aprendido algo del idioma castellano, o no han cursado la escuela, no pueden pronunciar la *f*. Así por *Fernando* dicen *Pernando*, por *Francisco Prancisco*, por *fiesta* y *función* *piesta* y *punción*. He hecho repetidas experiencias con ellos, y no pueden pronunciar la *f* sino sustituyendo la *p*. Argumento concluyente de que es letra extraña y superflua. Los chicuelos cuando empiezan a aprender el abecedario en la escuela llegando a la *f*, dicen *epe*, y cuesta trabajo el enseñarles a decir *f* como los castellanos”.

R. M. Azkuek, bere hiztegi nagusiaren sarreran zera dio:

“Comúnmente se cree que no es sonido indígena, por más que, aunque poco, se usa en todos los dialectos del vascuence. Es sonido espirante de *p* (...)

La *f* no forma parte de ningún sufijo, ni prefijo, ni infijo (...). Todavía hay muchos vascos naturalmente refractarios a este sonido y tienden a pronunciarle como *p*”.

Luis Mitxelenak “Fonética Histórica Vasca”n ematen dituen eritziak bilduz amaituko dut “f” letraren auzi hau:

“El caso del fonema /f/, ya se le suponga realización bilabial o labiodental, no ofrece grandes dudas. Es seguro que su introducción es relativamente reciente. En efecto, *f* aparece sobre todo en préstamos y fuera de ellos se puede demostrar por lo general que procede de otro sonido más antiguo.

Lo que hay que modificar de raíz es el cuadro que con alguna frecuencia se presenta acerca de la posición fonológica de /f/ en el vasco histórico. Conforme a él, en efecto, el vasco unilingüe de la zona que sea no acierta a pronunciar este sonido que repugna a sus hábitos lingüísticos.

Su introducción es por lo tanto sumamente reciente, en realidad algo que se está realizando en nuestros mismos días, gracias a la creciente influencia de las lenguas oficiales.

Ahora bien, si nos atenemos a la mera descripción dejando a un lado toda consideración diacrónica, es decir, si nos limitamos a examinar las formas bien establecidas en la lengua haciendo caso omiso de su procedencia, veremos que

en la mayor parte de la zona de habla vasca /f/ es un fonema como cualquier otro. Su frecuencia, tanto en posición inicial como interior, sin ser de las más elevadas, no es tampoco baja. Esta es la situación en labortano, bajo-navarro, suletino, en buena parte de la Navarra española (sic) y probablemente también en la parte occidental de Vizcaya.

Tampoco parece haber duda de que /f/ se realiza en la mayor parte del país como una fricativa labiodental sorda, que no difiere gran cosa de la pronunciación normal del esp. o fr. Esto puede extenderse al vasco que conocemos por los textos desde el siglo XVI: no hay, en efecto, que sepamos, ningún testimonio de esos siglos en que se señale una pronunciación característica del sonido escrito *f*. No será ocioso añadir que esa letra no falta tampoco en nombres propios vascos registrados en documentos medievales: *Naffarrate*, *Zuffia* (mod. Nafarrate, Zuya) CSMILL. 91, año 1025, *molino de Ama Nafarra* ib. 196, año 1096, etc.

La situación es diferente en guipuzcoano y áreas próximas altonavarras y vizcainas. Aquí *f* en préstamos está representado normalmente por *p* (*paltzu* 'falso', *peria* 'feria', *pesta* 'fiesta', *inpernu* 'infierno', etc.), salvo en *fede* 'fé' y algún otro que alguna vez alterna facultativamente con *f*, al menos en ciertas localidades: *afari* / *apari* 'cena', *nafar* / *napar* 'navarro', etc. Pero esto no representa nada antiguo probablemente, sino un proceso secundario relativamente reciente. Según toda probabilidad, estaba en lo cierto el P. Añibarro cuando escribía a J. A. Mogel hacia 1900:

"Cada vez achica Vd. en bascuence de Marquina... añade Vmd. que en Marquina no aciertan a pronunciar la *f*, y que se borre del alfabeto vascongado, y nuestros escritores sucesivos si se conforman con esta regla irán escribiendo *pedea*, *pielac*, *pina*, etc. Es comunísimo su uso en Vizcaya; usan de *f* en Navarra y Francia, y Guipúzcoa ha pegado la *p* a Marquina..."

Habla en favor de esto el que los escritores guipuzcoanos del siglo XVIII empleen normalmente *f*, no solamente en palabras de origen evidente como *falso*, *fede*, *fin*, *confessatu*, *infernu*, sino también cuando no podía mediar ninguna consideración etimológica: O. de Arín *alferrik* 'en vano', *ifeni* 'puesto', Ubillos *afari* 'cena', *farragarri* 'ridículo', etc."

Orri-barreneko oharretan dioenez, XVIII. mendean zalandza zegoen eta A. Kardaberaz-en hitzak aipatzen ditu. Kardaberaz-ek F / P-ren arteko zalandza eta gor eta ozenen nahasketa salatzen du: "Ala Provincian (= Gipuzkoan), nola Nafarroan, ta are gueiago Bizcaian, itz-eguiteco, edo aoz esatean, itz asco laburteen dira, baita letra asco trucatu ere: b, d, f, p, t, bata bestearen lecuan: ala becatua, pecatua, farrez, barrez; ifiñi, ipiñi, ibeñi; oficio, opicio; alferric, alperric... ta onela beste asco, baña jaquiñac ta errazac, uso ta costumbricac gucia eracustendu".

13. Txistukari bizkar-albeolareak eta apiko-albeolareak nahiko garbi bereizten dira Markina inguruko herriska eta auzoetan; ez, ordea, Markina-Xemeingo kaleartean bertan. Horretan Luis Mitxelena Jauna zuzen dagoela esango nuke, Markin-Etxebarrin eta Bolibarren bien arteko bereizketa egiten dela esatean. (ik. Fonética Histórica Vasca).

14. Aurreko puntuaz adierazi dugun gauza berbera esan genezake hitanoari dagokionez ere. Hitanoa edo alokutiboa bizi-bizi dago oraindik hemengo herriska

eta auzoetan, baina ez Markina-Xemeingo kaleartean. Hemen, euskara bera ere —eta erabiltzen denean pozik— nahiko kutsatua eta interferentziaz zipristindua egin ohi da. Hitanoa bizirik dagoen herrisketan ere erabilera ez da giza-talde guztietan berdintsua. Gazteen eta adineko pertsonen artean da erabiliena. Adin beretsuko artean da erabiliena. Gizonezkoen artean maiztasun handiagoa du emakumezkoen artean baino. Neska-mutilen artean, adin beretsukoak izanez gainera, etxekotasun handia behar da hitanoa erabiltzeko. Baserri giroan maiztasun handia du. Forma aldetik hemengo hitanoa oso atsegingarria da, Gipuzkoako bizkaiera egiten den tokietakoa eta hemengo berdintsuak dira. Alde handia du mendealdeko bizkaieraren formekin alderatzen badugu. Mendealdeko bizkaieran, adibidez, honelako formak erabiltzen dira: “Ekarri yozak”; ekialdeko eta Gipuzkoako bizkaieraz, ostera: “ekarri jittuk” etab.

Haur txikiei ez zaie hika hitz egiten, zuka baizik. Hemendik 11 kilometro-tara, Ondarroan zeharo baztertua dago itanoa; arruntegi iruditzen omen zaie; edo eta soziolinguistikako edo sikolinguistikako arrazoiren bat izan daiteke tartean.

Markinan ez zaio hitanoa edo alokutiboa deitzen, “EZTOK ETA BAIDOK” baizik. Markinako emakume zahartxo bati entzuna dut, berak ez diela seme-alabei “EZTOK ETA BAIDOK” IRAKATSI; BEGIRUNE GUTXIKOA ETA ARRUNTEGIA IRUDITZEN ZITZAIOLAKO; beti irakatsi izan diela “EZTOZU TA BAIDOZU” eraz hitz egiten...

15. Euskara oraindik osasuntsu den herrisketan NOR-NORI erako adizkiak egoki-egoki erabiltzen dira: “Jun zakixoz”, “etorri zakidaz” aginte-erako formak bizi-bizi daude.

16. Euskara gaizki egiteari EUSKAL-GAIZTOA deritza. Hitz egitean “mol-dakatxa” dela ere esan ohi da...

BIBLIOGRAFIA

MITXELENA, L.: *Fonética Histórica Vasca*.

TXILLARDEGI: *Euskal Gramatika*.

TXILLARDEGI: *Euskal Fonologia*.

TXILLARDEGI: *Oinarri bila*.

MOGEL, J. A.: *Peru Abarka*.

PRAI BARTOLOME: *Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*.

PRAI BARTOLOME: *Icasiqizunac*.

ROLLO, W.: *The Basque Dialect of Marquina*.

ARRIZABALAGA, J. J.: *Markiña Zarra Kontu kontari*.

EUSKAL KONPOSIZIOAREN INGURUAN

Donostia, 1985-X-25

Miren Azkarate

Euskal konposizioaren inguruan egiteko duguna aipatzea, edo gutxie-nez zehaztu gabe dauden zenbait puntu eta eztabaidak sortzen dituzten beste zenbait ikuitzea da txosten labur honen helburua. Eta besterik gabe arazoari helduaz, terminologia bera erabakitzeko dagoen puntuetako bat dela esan behar: *hitz konposatu* ala *hitz elkartu*-ez hitzegín behar dugu? Ala *hitz elkarketa*, beste zenbait hizkuntzatan *iustaposizio* deitzen duten hori izendatzeko gordeko dugu? Ala konposizioa eta iustaposizioa, biak, sartuko genituzke *hitz elkarketa* termino zabalagoaren barnean? Terminologia kontuak neurri haundi batean arbitrarioak direnik ezin ahantz deza-kegu; hala ere, beharrezkoa dirudi erabilera bateratu batera iristea. Bestalde, kontutan izan behar dugu, orohar hitz eraketaz (konposizioaz eta eratorketaz) idatzi dena, erdaraz idatzia dagoela eta alde honetatik ez dugula inolako tradizioirik.

Terminologia auziak utzi eta gaiaren mamiaiari helduaz, gure lehen kezkak, konposizioa baliabide bizi eta indartsu bezala aurkeztea izan beharko luke. Izan ere, badirudi gaurko euskaldun gazteek konposizioa-ren sena galdu dutela edo neurri handi batean galtzen ari direla. Eta hauei konposizioa ez zaie aurkeztu behar ihartutako, lexikalizatutako bide bezala, hiztegietan azaltzen diren zenbait hitzetan agortu den bide bezala. Alderantziz, euskaraz konposizioak eskaintzen dituen aukera zaba-len jabe egiten erakutsi beharko genieke. Berezikí gaur egun, iragarkien munduan, publizitatean, egunkarien izenburuetan e.a. hain presentzia ugaria izan dezakeen, eta hain baliabide emankorra eskain diezagukeen konposizioan murgiltzen lagundu beharko genieke. Horrela, “mendi-kanpamendu”, “igerileku”, “medikuntza aparatuak”, “kanpaleku”, “kafetontzi”, “hazkuntza-metodo” e.a. luzea azken urteetan sortutako hitz konposatuak ditugu. Alderdi honetatik aipagarria da, nere ustez, alboan ditugun espainol eta frantsesaren “producto lácteo”, “aparato médico” eta antzekoak oso era jatorrean eman ditzakegula euskaraz konposizioaz baliatuz: “esne produktu”, “medikuntza aparatu”...

Hala ere, goian aipatutako helburuak bete ahal izateko, puntu asko gelditzen zaizkigu konposizioaren gainean aztertu, ikertu, eta erabaki

beharrekoak. Eta lehenik, hitz konposatuen sailkapen bat eman beharko genuke. Horretarako, abiapuntutzat, VILLASANTEREN *Palabras Vascas Compuestas y Derivadas* liburuan azaltzen dena hartzea proposatuko nuke, sail bakoitza osatuaz. Hau litzateke nere proposamena:

I. Konposatu kopulatiboak

Hemen, edo honen inguruan bedere, sartu beharko lirateke *bizargin-osagile*, *erloju-iratzargailu*, *giltzera andrea*... hau da, pertsona edo gauza bakar baten bi alderdi ematen dituzten konposatuak.

Badira beste zenbait egitura (*andre sorgin*, *mitxeleta hegalaria*, *gizon azti*...) aposizio gisa edo har daitezkeen ala horrelakoetan *sorgin*, *azti* e.a. izenondo, adjektibo balioa duten elementuak diren aztertu beharrekoak.

Era berean, aztertzekoa litzateke *Israel herria*, *Zabaleta baserria*, *Oiz mendia*, *Urbietta kalea*..., hots, lehen osagaitzat izen berezia, bigarren osagaiari dagokion izen berezia, duten egiturak non sartu behar diren. Behar bada, konposatu kopulatiboetatik kanpo, baina konposizioaren inguruan aipatu beharrekoak direlakoan nago.

Azkenik, *San Jose lorak*, *Eguberri gaua*, *Bazko eguna*... goikoen parekoak diren ala desberdintasunik dagoen ere ikertu beharko litzateke.

II. Konposatu posesiboak

Konposatu mota honen erabilera indartu eta modu egokian erabiltzen irakatsi beharko litzateke gazteei, gaur egun “mutiko buru-argia” eta antzekoak oso ahulduak ditugu eta.

Bestalde, izena eta izenondoa, izengoitiak osatzeko ere elkartzen ditugu. Horrela lortzen ditugu “Prakamotz”, “Moñoker”, “Txomin Gorri”... nahiz horrelakoak konposizioaren barruan zer leku duten aztertu behar. Baita ere, Peru Abarka, Martin Sugin...

III. Menpeko konposatuak

Sailik ugariena hau dugunez, sailkapen lan handiena ere beronek eskatzen du. Sailkapen modu bat baino gehiago badaude ere, behar bada honako hau baliagarri gerta dakiguke.

1. Osagaietako bat aditza denean.
2. Bi osagaiak izenak direnean.

1. Osagaietako bat aditza denean

Konposatu hauetan (2. sailekoetan baino garbiago) perpaus baten egitura jasotzen dela, hein batean, onar dezakegu. Honenbestez, perpau-seko atal desberdinen arauera, honako azpisailok bereiz ditzakegu:

a) *Harri-jasotzaile* mota.—Mota honetan, objektua, aditza eta sub-jektua (-le, -tzaile atzizkiaren bidez) jasotzen ditugu.

b) *Gari jote* mota.—Mota honetan, objektua eta aditza, ekintza adie-raziarekin, jasotzen ditugu.

d) *Eserleku* mota.—Aurreko bi azpisailetan ez bezala, hemen aditza dugu lehen osagaia, eta erro forman azaltzen zaigu, ez nominalizaturik.

Bestalde, izenondo edo adjektibo konposatu, aditza daramatenak osagai bezala:

a) *Sinesterraz* motakoak.

b) *Ogi altxagarri* motakoak.

Azkenik, aditz konposatuak berak: *eraberritu*, *itxuraldatu*...

2. Bi osagaiak izenak direnean

Hemen zailago gertatzen da sailkapenak egitea. Azken batean, nere iritziz, orain arteko proposamenak horretarako izendatuko den batzor-deak aztertuko dituen bezalaxe, hemen ere sailkapen konkreturen bat proposatzea batzordeari legokioke. Hala ere, esan bezala, sail honetako azpisailak arbitrarioagoak izan daitezke beste sailetakoak baino. Hauxe esan nahi dut: sailkapen kriterioak erabaki behar dira; eta kriterio hauek izan daitezke 1. sailean erabili ditugunen parekoak, hots, perpaus mailako egituran oinarriturikoak. Honen arauera:

a) *Baserri-txakur* mota izan dezakegu, perpaus bateko aditzlaguna eta subjektua jasoko lituzkena (“txakurrak baserrian bizi dira”).

b) *Errotasoiñu* mota, perpausoko subjektua eta objektua jasoko lituz-keena (“errotak soinua ateratzen du”).

d) *Otsotoki* mota (“otsoak toki horretan egoten dira”), a) motatik honetan bereiziko litzatekeena: a) motan bigarren osagaia da sujetu fun-tzioa beteko lukeena.

Horrela, subjektu, objektu eta aditzlagun, funtzio desberdin horiek konbinatuz, konposatu mota desberdinak sor ditzakegu. Gero, askotan arazoa, konposatu konkretu bat sail bateko ala besteko den erabakitzea

izan ohi da, baina hori zernahi kriterio erabiliz gertatuko zaigu, eta edozein hizkuntzatan aurkezten den oztopoa da.

Bestalde, pentsa daiteke azpisail zehatzagoak egitea, bi osagaien artean dagoen erlazio lojikoaren arauera; hala nola.

a) *Burdin-barra* mota, lehen osagaiak, bigarren zertaz egina den adierazten duelarik.

b) *Kanpae-hots* mota, lehen osagaiak, bigarrenaren iturburua adierazten duelarik.

d) *Burtardatz* mota, bigarren osagaia, lehenaren atal edo zati denean eta abar. Horrelako sailkapen batek ere baditu bere mugak, erlazio lojiko posibleen zerrenda osoa ematea ezinezkoa dela aitortzen bait dute hone-taz arduratu diren hizkuntzalariek. Dena den, gutxienez erabilienak diren motei buruz zerbait esan daitekeela uste dut.

IV. Konposizioaren inguruko egiturak

Behar bada erabateko konposatu ez badira ere, ikutu beharrezkoak genituzke honako egitura hauek ere:

1. *Iustaposizio* direlakoak: meza berri, zorion, abelgorri...
2. *Onomatopeiak*: firi-fara, zurrumurru, zirimir...
3. Bigarren osagaitzat honako hauetakoren bat duten hitzak: -zain, -zale, -gai, -dun, -gaitz, -gabe...
4. *Postposizio* deitu izan direnak: gain, aurre, atze, oste, gibel...
5. *Argi bila, diru eske* motakoak.
6. *Negar egin, kontu eman, min hartu* motakoak.
7. *Egin gogo, etorri uste* motakoak.
8. *Nahi, behar-ekin* osatutako egiturak: *handikinahi* edo *handiki-gura, diru beharra*, e.a.
9. Osagai bera errepikatuz lortzen ditugun egiturak: *zuri-zuri, zabal-zabal*...
10. Ikustekoa litzateke izen bezala joka dezaketen hitz andana ihar-tuekin zer egin: "*Jesukristo nere Jauna erreztatzeko agindu zion*", "*bi Aita gurea eta hiru Agur Maria eman dizkit penitentzian*"...

Era berean, hemen sar ditzakegu: *etxeoandrea, Aitorren semea*..., *hauetan ere -ko eta -en* horiek beren balioa galdua dutenez.

Sailkapen auziez aritu ondoren, konposizioaren gainean aztertu beharreko hirugarren puntua, osagaiak elkartzean gertatzen diren ALDAKETAK MORFOFONOLOGIKOei dagokiena da. AZKUEk bere garaian zenbait aldaketa eta lege fonetiko eman zituen; gaur egun, lege horiek bizirik al daude? Eutsi egin behar al diegu? Zenbateraino eman behar dira beti bete behar diren lege bezala? Adibidez:

gari + buru → galburu, baina gari + meta → gari-meta

merkatal ganbara hedatu da gure artean, goiko lege horren arauera, baina *bertsolal txapelketa? botikal arazoak?*

Ba al du azken adibide hauetan zerikusirik *-ari*, pertsona adierazten duen atzizkia, azaltzeak?

Lehen osagaiak bi silaba dituenetan eta *-o* edo *-e* bokalez bukatzen denean, *-o → -a, -e → -a* aldaketak izaten omen dira. Hala ere nik dakidanez *joko-kontua* esan izan da, ez *joka-kontua*, e.a.

Guzti honekin haxe esan nahi dut, lege horien hedadura, eta gaur oraindik bizirik dauden ala ez, aztertu behar direla. Beste kontu bat litzateke, lege zahar, indarra galdu duena, berriro indarrean jartzen saiatu behar dugun ala hizkuntzaren aldakuntza onartu.

Azkenik, konposatuaren idazkerari dagokionez, badirudi Euskaltzaindiak zerbait esan beharko lukeela. Dirudienez jendeak, duen baino garrantzia handiago ematen dio puntu honi, behin baino gehiagotan azaltzen bait da konposatuaren idazkerari buruzko kezka. Euskaltzaindiak eman zituen zenbait arau edo gomendio, 1971an. Baina ez dakit zenbaterainoko eragina izan duten, zein neurritan izan diren onartuak eta aplikatuak. Egia da, bestalde, oso anbiguoak gertatzen direla arauok “osagai labur”, “osagai luze” zer den ondo zehazten ez den neurrian. Badirudi, beraz, arau zehatzagoak eskaini beharko litzaizkiokeela jendeari. Baina ahaztu gabe idazkera kontuak erabat arbitrarioak direla, konbentzioz erabakitzen direnak; eta puntu konkretu honi dagokionez, ez da batere zaila autore berak hitz konposatu bera bi, hiru modu desberdinetara idatzirik aurkitzea. Horrenbestez, idazkera kontuak orain arte aipatu ditugunak baino askoz arbitrarioagoak direla garbi utzi beharko litzateke, eta ematen diren arauak gorabehera, idazkerak ez duela konposatu bat gramatikal edo ez-gramatikal egingo jakinarazi beharko litzaioke jendeari.

Konposatuaren inguruko arazoen aipamen honetan, azentuarena ikutu gabe ez nuke amaitu nahi. Euskal azentuari buruz oraindik gauza asko eta asko ikertzeko ditugunez, ez da harritzeko konposizioan azentuarekin zer gertatzen den gure gramatikalariek aipatu ere ez egitea. Ez dakit batzordeak bere gain har dezakeen arazoa den, ikustekoa litzateke, baina egunen batean konpondu beharko dena nolanahi ere.

VASCUENCE Y ROMANCE (1)

Donostia / San Sebastián 25-X-1985

Fr. Ignacio Omaechevarría

Ya se sabe que en un principio no se dijo “romance” en oposición a “latín”, sino en contraste con otros idiomas extraños, particularmente con el “vascuence”. Pues, aunque no todos los “latinos” eran “romanos”, muy pronto se borraron las pequeñas diferencias dialectales o locales de las hablas del “Lacio”, y el idioma que hablaban los romanos se consideró como “latín” tanto entre los etruscos o ligures, como aun entre los “oscós” y “umbros”, que hablaban otros dialectos itálicos más o menos emparentados con el de Roma. Los ligures, en particular, al ir perdiendo su propio idioma y adoptar el de los conquistadores procedentes de Roma, tuvieron conciencia de que comenzaban a usar el idioma “latino”, del que por evolución ha resultado el actual “romance” de la región de Liguria, que se llama “ladino” en contraposición a la antigua lengua ligur, no emparentada con las del grupo itálico.

Por lo que hace al Norte de España, muy pronto interesó destacar la diferencia entre los que hablaban a la manera de los “váscones”, o “vascónice”, en contraste con los que hablaban a la manera de los “romanos”, o “románice”. Mientras los demás grupos lingüísticos locales cedían ante el empuje del latín, había un pueblo, dividido en diferentes tribus, que mantenía buenas relaciones con los romanos, y aun aceptaba la “pax” o “pake” romana, y se confederaba con los jefes del imperio, pero conservaba su lengua nativa. Tribus de este pueblo fueron los “navarros”, “várdulos”, “caristios” y “váscones”; y como los “váscones”, que llegaban al Cantábrico por Oyarzun, estuvieron en contacto con

(1) El presente trabajo nos fue remitido por su autor desde Valladolid, donde actualmente reside, y se leyó en sesión académica. El P. I. Omaechevarría OFM es miembro correspondiente de Euskaltzaindia, y autor de la obra *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*, Zarauz 1959. Ha residido durante muchos años en Roma, desempeñando diversos cargos. Al hacérsele notar que el trabajo por él remitido no estaba terminado, dio a entender que lo dejaba así; seguramente su estado de salud no le permitía continuarlo y acabarlo (Nota de la Dirección).

pueblos extraños por gran parte de la actual Rioja y por algunas comarcas del centro y sur de la actual Navarra, se dijo de todos los euskaldunes que hablaban “vascónice”, a la manera de los “váscones”; mientras que los demás pueblos de la región, ora se tratara de cántabros, ora de los berones, hablaban ya “románice” o romance.

Ahora bien, tanto el “vascuence” como el “romance” eran idiomas hablados por el pueblo. Es verdad que los romanos, no sólo hablaban, sino también escribían “románice”; pero la denominación oficial de su idioma era “latín”, y “latín” se llamaba a lo que se escribía, y además, para la manera de expresarse del pueblo, no interesaba tanto distinguir el “latín” escrito del “euskera” hablado cuanto destacar el modo de hablar de los “romanos”, como diferente del de los “vascos”. Los conquistadores, los que habían traído el nuevo modo de hablar, para el pueblo no eran “latinos” ni “italianos”, sino “romanos”; y la organización política implantada por ellos no se llamaba imperio “latino”, sino “imperio romano”, de la ciudad de Roma.

Los términos “romance” y “vascuence” debieron, pues, surgir en Navarra, en la Rioja o en el Norte de Burgos. Y allí fue también donde el término “romance”, creado por contraposición al “vascuence”, se aplicó luego, en un grado más avanzado de evolución lingüística del latín vulgar, que se distinguía cada vez más del latín literario, al idioma hablado de la Rioja y de Castilla. Era una época en que el pueblo hablaba “románice”, pero sin atender a las reglas de la gramática “latina”, que sólo estudiaban los clérigos y los escribanos y los letrados. Los que sabían latín eran “ladinos”, y a veces abusaban de su ciencia para engañar al prójimo y conseguir mejor sus propios fines egoístas; si bien, cuando el vocablo “ladino”, en época poco anterior al siglo X, como se ve por la sonorización de la sorda intervocálica, adquirió sentido peyorativo, se volvió a tomar del idioma de Cicerón el término “latino”, y se utilizaron expresiones como “con sus latines es capaz de engañar a cualquiera”, y se contrapuso el “romance” o “román paladino” al “latín” literario.

“Quiero fer una prosa en *román* paladino,
en el cual suele el pueblo fablar con su vecino,
ca non so tan letrado por fer otro *latino*...”.

No es difícil apreciar, desde este punto de vista, el interés que ofrecen la Rioja y el Sur de Navarra para el estudio de la trayectoria que siguen ciertas influencias extrañas en la configuración de la cultura vasca. Los vascos o euskaldunes, abarcando bajo este denominador también a las tribus de los “várdulos” y “caristios” que hablaban dialectos del mismo grupo lingüístico que el de los váscones, estuvieron en contacto con los romanos y otros pueblos extraños a través de la Rioja y Navarra.

La palabra “pake” o “bake”, común a todo el territorio euskérico, del latín “pacem”, refleja bien la aceptación, por parte de los habitantes de esta comarca, de la llamada “pax romana” o “pake romana”, que no significaba simple ausencia de guerra armada, sino “pacto” de amistad y confederación política. Si Judas Macabeo fue a buscar ya la alianza de los romanos o el “orden romano” en el año 159 antes de Cristo por la fama de buenos gobernantes de que los romanos gozaban por su modo de proceder en España, no nos hemos de extrañar que en época posterior, sobre todo después del Nacimiento de Cristo, aceptaran pacíficamente su amistad algunos pueblos del Norte de nuestra península, en especial aquellos que quizá sentían la necesidad de defenderse de las incursiones de los cántabros, por una parte, y de los celtas y celtiberos, por otra. Es interesante el texto en que se ponderan los motivos que inspiraron el pacto del pueblo de Israel con los romanos: “Llegó a oídos de Judas la fama de los romanos, de que eran muy poderosos, y que se mostraban benévolos con cuantos se adherían a ellos y que hacían amistad y alianza con quienes a ellos recurrían. Le contaron de sus guerras... y de cuanto habían hecho en España, apoderándose de las minas de oro y plata y adueñándose de toda la tierra con su prudencia y paciencia (1 Mac. 8, 1-3). “A sus aliados y amigos que en ellos confían [los romanos] les guardan fidelidad... Entre ellos nadie lleva diadema ni viste púrpura para engreírse con ella” (Ib. 8, 12 y 14). Por los romanos fueron explotadas, por ejemplo, las minas de Arditurri en Oyarzun.

Es lo cierto que antes de las invasiones de los bárbaros, cuando las consonantes velares conservaban todavía su pronunciación primitiva ante las vocales palatales *e-i*, leyéndose “pakem” el acusativo latino de “pax” (pacem), dejó rastros apreciables en el euskera el idioma de los romanos. En el orden político tenemos además de “pake”, también “lege” < *legem*, ley; “erregē” < *regem*”, rey; “merke” < *mercen*, con su derivado “merkatu”; en horticultura, “kereiza” < *ceresia* (“kereizaeta” o “kerexeta” equivale al castellano “cereceda” con diferente tratamiento fonético); “kipula” < *cepulla* = cebolla, etc.; y tal vez, “ortu” < *hortum* = huerto; “porru” = puerro, a juzgar por la ausencia de la diptongación típica del romance; y “piku” e “iko” < *ficum*, con mantenimiento de la sorda intervocálica; y “pago”, “gaztaina” < *fagum, castanea*, etc.; habitación humana e industrias caseras, “gela” < *cella*; “goru” < *colum* = rueca; “gaztelu” < *castellum*; “leiñu” < *linum*; “gorta” y “korta” < *cohortem*; “teila” y “teilatu” < *tegulam, tegulatum*; “orma” < *forma* (paries *forma-cea*); en cultura general, “gauza” < *causa* (= fr. *chôse* < *chause*, port. *cousa*, it. y esp. *cosa*, etc.), “aditu” < *auditum*, con un cambio semántico equivalente al de *intendere* > fr. *entendre* = oír, esp. *entender*, y con derivados como “adimena” = entendimiento, etc. Para “Orma” = *pared*, es interesante advertir que el P. Mariana lo emplea aún en su *Historia de España*, aunque considerándolo ya arcaico: “Don Enrique —escribe el

historiador jesuita en el libro 17, capítulo 13 de su obra—, visto cómo Don Pedro se encerró en la villa [de Montiel], a la hora la hizo cercar de una *horma* (pared de piedra seca) con gran vigilancia, porque no se les pudiese escapar”. En vascuence antiguo “orma” se escribió y pronunció con “h”: “*horma*”. Es de notar que en ocasiones el euskera conserva vocablos latinos que no se han perpetuado en el romance castellano, como “goru” en vez del germánico “rueca”. Los vascos conviven, pues, con los romanos y algunos elementos euskéricos se utilizan incluso para formar nuevos nombres de lugar a base de antropónimos latinos. “Gracuris” o “Gracurris” (Alfaro) parece que debe interpretarse como “Uri” o “Ciudad de Graco”, y “Pompeilon” (Pamplona) como “Ilun” o “Ciudad de Pompeyo” (Pompeji-ilon), con una “l” intervocálica antigua que en el vascuence posterior se convirtió en “r” (como en “goru” < *colum*, *colum*, “aingeru” < *angelum*), diciéndose “Iruña” = la Ciudad (En Navarra y Alava) en vez de “Iluna”, que se conserva en territorio tempranamente romanizado; “Lumbier” < Ilun-berri = Ciudad nueva o Nueva Pamplona.

* * *

Y se generalizaron en el territorio los nombres romanos con pronunciación arcaica, anterior a las invasiones bárbaras, tanto para la “c” ante *e-i* como para la “ti”, según se observa en topónimos como “Liquiñano” de *Licinianum*”, Bakio < Pacianum; Luquin/Luquiain < Luciani; Ziriquiain < Siriciani; Guendulain < Centullani y aun quizá “Morentin” < Morentiani, y “Guerendiain” < “Derendiain” < *Terentiani*, etc. Y en este ambiente se introduce también el cristianismo, sin choques violentos, según parece, aunque en los vocablos típicamente cristianos no se mantenga con la misma rigidez que en los nombres comunes la pronunciación arcaica latina por infiltrarse la pronunciación romance en el continuo uso eclesiástico bilingüe de términos como “zeru” < *caelum*, en vez del primitivo “keru”, “gurutze” > *cruce*, en vez del primitivo* “guruke” (frente a “aingeru” < *angelum*, que conserva el sonido “gue” originario). Al latín eclesiástico hay que atribuir también, según parece, vocablos como “gura” < *gulam*, que se usa corrientemente en el vizcaíno “gura izan” = *querer*, y en los compuestos y derivados “logura” = lit. *gula de dormir*, “gurari” = *deseo*, etc. Téngase en cuenta que la idea significada por el vocablo “querer”, a causa de su carácter afectivo, tiene tendencia a renovarse y a buscar expresiones más intensas. Así, al término latino “velle” sustituye el “quaerere” (buscar) > *querer*, y aun en el vascuence actual se dice en algunas ocasiones “desio det”, con frase alienígena, en vez de “nai det”. Del mismo modo se dijo “au edo bestea egin gura dot” (equivalente al latino: *gulam habeo facere hoc* = *tengo gula de hacer esto*), en vez de “egin nai det”, conservándose, sin embargo, el “nai” primitivo

en “naikoa” = *bastante*, o en la conjunción disyuntiva “*nai* (guipuzcoano “*naiz*”)” “*au nai bestea*”, que equivale al latino “*vel*”, de “*velle*” = *ya esto, ya lo otro*. Y decimos que se trata de latín eclesiástico, porque en el latín vulgar “*gula*” debió de significar “*garganta*”, según resulta de los romances “*gueule*”, “*gola*”, etc. “*Gula*”, como vicio capital, en el romance castellano es también término eclesiástico, de evolución fonética semiculta, frente al popular “*gola*” con el significado arriba señalado. A influencia eclesiástica debe atribuirse asimismo, el arcaísmo o cultismo vasco-castellano “*gurutze*” = *cruz*, con “*u*”, frente a la “*o*” de otros romances: it. “*croce*”. Por lo demás, los vocablos eclesiástico-cristianos, aun los que modifican la pronunciación primitiva de la velar sorda ante *e-i*, no demuestran ningún rastro de las diptongaciones típicas del romance navarro-aragonés o castellano, ni sonorizan la sorda intervocálica, diciéndose “*zeru*”, “*inpernu*” “*pekatu*” (y no “*zieru*”, “*inpiernu*”, “*pekadu*”), como ocurrirá en préstamos posteriores.

* * *

Luego sobrevienen las invasiones de los bárbaros y el establecimiento del poderoso reino de los visigodos, los cuales sin embargo, no obstante la anotación de los cronistas, que afirman de algunos de los reyes, que sometieron a los “*váscones*” (*domuit vascones*), no parecen haber consolidado su dominio ni en las Provincias Vascongadas, ni en Navarra, ni aun en la Rioja, aunque haya podido localizarse algún vestigio de menor importancia en la parte más meridional del territorio vascónico. Los visigodos, vencedores en los campos de batalla, no lograron sobreponerse culturalmente a los hispano-latinos ni en otras regiones de la península. El idioma nativo de los conquistadores y su religión arriana, a pesar de todas las persecuciones anticatólicas, se vieron al fin desplazados por el idioma y por la religión católica de los vencidos. La conversión de Recaredo, tras la fracasada campaña arrianista de Leovigildo, es el coronamiento de la derrota cultural de los visigodos. Los cuales, por eso mismo, considerándose una aristocracia dominante, no querrán mezclarse con los hispano-latinos y conservarán con tenacidad sus peculiares nombres propios germánicos: *Suintila*, *Hermenegildo*, *Sisebuto*, *Sisenando*, *Chindasvinto*, *Recesvinto*, etc. Entre los Obispos y hombres cultos, apenas hay nombres visigóticos. San *Leandro*, San *Isidoro*, Santa *Florentina*, San *Julián*, San *Eugenio*, San *Eulogio*, son nombres grecolatinos. El nombre de San *Ildefonso* de Toledo constituye una excepción llamativa.

Ahora bien, el territorio vascónico, que rechaza con energía toda infiltración visigótica, reafirma su personalidad, restableciéndose el vascuence en algunas zonas más o menos romanizadas, al mismo tiempo

que se ponen en circulación, junto a los antropónimos grecolatinos, algunos antiguos nombres de raíz euskérica. En el santoral riojano, tras los nombres de los mártires San *Emeterio*, y San *Celedonio*, y San *Formerio*, y Santa *Coloma*, que pertenecen a la época romana, y más concretamente al siglo III, vienen los de los anacoretas y monjes de los siglos V, VI y VII, San *Felices* de Bilibio, San *Millán* de la Cogolla, San *Aselo*, San *Citonato*, San *Sofronio*, San *Geroncio*, Santa *Potamia*, San *Félix* del Monte, todos ellos grecolatinos, lo mismo que San *Prudencio* de Armentia y como el legendario *Teodosio* de Goñi en Navarra. Los vascos permanecen fieles a la tradición de la “pake” romana frente a los intentos de penetración de los visigodos.

* * *

La existencia de niveles de lengua es algo completamente necesario y está ligado inexorablemente a la propia condición de la lengua escrita de cultura. Y la lengua que es incapaz de desarrollar los diferentes niveles de lenguaje, que reflejen lo mejor posible la estructuración social, está condenada a desaparecer. Esta estructuración en niveles empieza con la propia lengua sumeria, que es la lengua escrita primera de la humanidad. En sumerio se distinguía entre *eme-ku* (lengua elevada) y *eme-zal* (lengua de mujeres). El *eme-ku* se escribe más bien con signos pictográficos, mientras que para transcribir los términos del *eme-zal* se emplean formas fonéticas.

Pero los sumerios desarrollaron toda una serie de niveles que encontramos bajo los nombres de, *eme-gal* (la lengua elevada), *eme-sukud* (lengua majestuosa), *eme-sukha* (lengua pura), *eme-temena* (lengua básica) y *eme-sidi* (lengua directa). Cuando luego los acadios adoptan la cultura sumeria, esta lengua pasa a ocupar el importante papel de lengua de la religión de la cultura, la lengua para hablar con los dioses, con los antepasados, con los magos. Y en acadio se escriben muchas palabras con signos sumerios, de forma que en muchos casos hoy no sabemos cuál fue la exacta pronunciación, si una semita propiamente dicha o si se pronunciaban en la lengua semita propia los términos cultos con pronunciación sumeria.

También en griego existía un lenguaje épico y un lenguaje poético, y algo parecido pasa en italiano, aunque ya no en forma tan clara, pero hay palabras líricas y hay palabras prosáicas.

De la necesidad y de la carencia de esta estructuración social en niveles de lenguaje me di cuenta al tener que redactar mi Belatzen Baratza, y quise subsanarlo imitando el camino seguido por todas las lenguas europeas. Una de las razones por las que el euskara en su nivel popular sea tan expresivo, pero en cambio tan falto de expresión en ese nivel llamado batua, está justamente en la falta de cultura de quienes emplean este nivel... que tampoco puede formarse de forma caprichosa.

Así como he hablado preferentemente del hindûstânî, y de los niveles superiores de lenguaje, que al ser completados por una parte con

elementos persas y árabes, lleva a la formación del urdu, que en sus niveles superiores para los musulmanes están casi enteramente persianizados, y por el contrario en el lado hindu si se va subiendo de niveles del lenguaje se llega a obtener una lengua llamada hindí, en que casi todas las palabras son de origen sánscrito, podría haber tratado de igual forma los niveles lingüísticos en otras lenguas europeas.

En la época del Renacimiento la lengua italiana era considerada ser una forma vulgar del latín, por la que los propios Petrarca y Boccaccio escribían sus cosas serias, y su correspondencia en latín, y no en lengua vulgar.

El origen de esta diferenciación tiene su origen en la propia naturaleza del idioma, que aun más que servir para comunicar ideas debe servir para indicar el nivel social entre los hombres. Esta fijación del nivel social es entre los animales, especialmente entre los superiores, y de éstos entre los antropoides, una condición de máxima importancia. El rito sirve en principio para fijar esa realidad, porque no hay tribu que pueda subsistir sin un orden jerárquico. La vida en sí misma es estructuración, cada vez mayor y más complicada. Y cuando desaparece la estructura desaparece la vida. El lenguaje al tener que ser un reflejo de la vida debe indicar claramente esa estructuración de la pirámide social. Y como no existe la posibilidad de poseer una estructura, sin un criterio estructurador, y éste presupone por ello una jerarquización, la lengua que es incapaz de mostrar el orden social dentro del conjunto de la pirámide social que forma la nación, es rechazada por *inepta e inservible*. Y ésta es una de las razones fundamentales por la que los propios vascos euskaldunes, también los nacionalistas rechazan al euskara, al cual lo restringen para usos domésticos, mientras que para demostrar las posiciones superiores de la pirámide social se emplea el castellano (o el francés respectivamente).

Es claro que esta situación de DIGLOSIA, no se remedia proponiendo como euskara a una lengua raquílica, que se intenta despojar de todo lo que el euskara tiene de euskara, siendo tan sólo una mala traducción *en solfa menor* del castellano como en la práctica esta sucediendo con el llamado batua, que la están convirtiendo en una auténtica lengua de salvajes, de bantúes.

En nuestro ciclo cultural, al que corresponde por entero nos guste o no el euskara, ya desde Roma se fijó el orden social de las lenguas de una forma natural. El latín fue la lengua del vulgo, por más que junto al latín vulgar se estableciese el latín clásico, que se convirtió en la lengua de la Administración y del Derecho, mientras que el griego era la lengua de la cultura. Cuando el lugar de la lengua vulgar es ocupado por otras

formas vulgares, o por otras lenguas nativas, el latín y el griego seguirán ocupando los puestos que anteriormente poseían. Así pues en las lenguas germánicas, las palabras de origen germánico ocupan el nivel básico, y sobre este nivel básico siguiendo el orden anterior ocupan las expresiones latinas el nivel administrativo y de leyes, y la punta de la pirámide lo ocupa el griego, lengua de la cultura por excelencia. Puesto que tanto los antiguos romanos, como nosotros aun hoy en día debemos a los griegos todo lo que esencialmente forma nuestra cultura, tanto en artes como en ciencias y filosofía.

Como en euskara no ha existido una influencia cultural “savante”, nos hemos quedado con las palabras de origen vasco como nivel popular y básico, y con un nivel latino traído por la Iglesia Romana y el contacto con los milicianos romanos y posteriormente con las lenguas románicas. Al vascuence le ha faltado el nivel que se sitúa en la cumbre de la Pirámide sociológica, aquél que en toda Europa sirve de símbolo de la clase dirigente. Este nivel en su día quiso crearlo la Reina de Navarra, por medio de Joannes de Leizarraga de Beraskoitz, y esto tenía no sólo un significado lingüístico, sino también político, puesto que hubiera sido el mejor medio para salvaguardar la Independencia de Navarra. Falto el euskara de un nivel de lengua digno de la cumbre de la propia Pirámide social, se convirtió en un país de una ethnia decapitada, puesto que la cabeza pensaba en lengua extraña y con ello era un apéndice de políticas extrañas.

Como quiera que la lengua vasca y el pueblo vasco tampoco se encuentran en un cielo marciano, sino sobre un lugar bien concreto de la tierra y corresponden igualmente a una cultura bien concreta, puesto que los vascos al igual que todos los europeos somos una colonia cultural de Grecia, la única forma de organizar esos niveles superiores lingüísticos, es siguiendo el mismísimo camino que fue seguido por los demás europeos, pero no chabacaneando la lengua vasca. Y no olvidándonos que una cosa son palabras cultas tomadas como préstamos a las lenguas cultas, y otra cosa son erdarakadas tomadas a los vecinos. Quien toma palabras cultas a las fuentes de nuestra cultura, reconoce algo que no es nada deshonoroso, como el reconocerle los méritos a quien los tiene, pero quien emplea palabras tomadas a los vecinos... no está creando cultura, sino colonialismo de la peor calidad. En lengua vasca las erdarakadas no corresponden a los niveles superiores de la lengua, sino al detritus. No me referiré ya a ciertos Dicionarios que nos están publicando, que se podrían llamar *manuales del mal hablar en euskara*, en los que la lengua vasca aparece como una especie de clown vestido con harapos castellanos, ni a esa televisión vasca, Academia del Mal parlotear, con personajes que hablan castellano con cierto sonsonete vasco, pero en el fondo mal castellano, diciendo por ejemplo “arrazoia

duzu”, en vez de “zuzen zagoz” que es la forma vasca, mientras la anterior es un calco castellano. Todo este detritus “espiritual” no es producción de un cerebro pensante, sino de la andorga, de quienes se sirven del euskara como medio de vida. Así más que ser vibraciones de la entrada del tubo digestivo parecen vibraciones de la salida del tubo digestivo. Un tal lenguaje no es en ningún caso una lengua que incite a nadie a aprenderla. Hay que ser ya un vicioso de la *Glottologia coprofágica* para sentirse atraído por una tal lengua de bantúes, que claro está mayormente es producto no de gente culta, ni de levantadores de piedras, tan admirados en el País Vasco, que suelen ser gente simpática y suelen hablar un euskara lleno de vida, sino de cuasi intelectuales ingenieriles, que levantan piedras con grúas o palas mecánicas, y que cuando se meten en lingüística son auténticos levantadores de piedras, pero sin gracia; ingenieros fracasados en la ingeniería, quienes a falta de materia gris en sus cerebros creen en la inteligencia artificial y en computadoras. Parodiando a Lao Tse diremos que pronto tendremos en Euskalherria una jauría de “idiotas con computadora”... y en consecuencia el euskara degenerará a la altura de un cacharro rodado.

En las lenguas cultas, que todas ellas tienen dos pies, el uno está dado por la auténtica lengua popular (que no es la proletaria) y el otro por la auténtica cultura, que no es ni el folklore, ni la chusmacería chabacana.

BARATZIART, DURANAKO SEMEA

Donostia, 1985-XI-29

E. Knörr

1784an argitaratu zen Baionan *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea* liburua, ondoko urteetan beste hamabost aldiz gutienez plazaratuko zena (1). Bi arazo izan dira obra honen inguruan: bata, nor zen egilea; eta bestea, egilea ez, baina moldatzaile aritu zen Baratziait nongoa genuen.

Lehen koskari dagokionez, garbi zegoen Baratziait ez zela liburuaren egilea izan. Hori berak aitortzen du hitzaurrean, gero Urquijok, Daranatzek esana zuzenduz, oharraraziko zuenez. Izan ere, hauxe dio Baratziaitek hitzaurre horretan:

“...eta ez nintzen orai ere obra huni lotcera menturatuco, Aphez jaquintsun eta saindu beçain escualdun garbi içatu den Erretor khar-tsu baten escuarazco contsideratione batçuc ez banindute animatu” (2).

Francisque Michel-ek egiletasunaz zerbait idatzia zuen:

Guiristinoki biciceco eta hilceco Moldea... publié par Baratziait...
L'éditeur de ce très-bon livre, Baratziait” (3).

Ez dakigu nor den Baratziaitek moldatu zuen eskuzkribuaren egilea. Dena dela, testua *Meditacione cerurat hiltceco baitez padacoac* deitzen zen (4).

(1) Lafittek, “La littérature basque” artikuluan, 17 argitaraldi izan zirela dio. Vinsonek 15en berri ematen du, eta Jon Bilbaok 16rena.

(2) Urquijok dakar pasarte hau eta iruzkinak egiten ditu, “Notas de bibliografía vasca”, 325-327. Daranatzek artikulua, “L’auteur de *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea*”, 54-55.

(3) Francisque Michel, 512. Horrela ematen du Michelek titulua, segur aski 1841z geroko argitaraldiren bat zuelako. Dirudienez, Urquijo ez zen ohartu Michelen hitzak, “prêtre, ancien curé” e.a., Baratziaitek euskaraz esan zituenak zirela.

(4) Michel, 512-513. Vinson, 235 eta 582. Urquijo, 327. Lafitte, “La littérature basque”, 149. Eskuzkribuaren egilea kostatarra zen, nolanahi ere, Ziburuko edo Donibanekoa.

Goazen orain bigarren arazora, hots, Baratzianten sorlekura (eta, horrekin batera, sorturtera). Duvoisin kapitainaren anaiak, C. Duvoisin apaizak, bere *Vie de M. Daguerre, fondateur du Séminaire de Larressore, avec l'histoire du diocèse de Bayonne* liburuan (1863), bi aldiz aipatzen du Baratzia. Bigarrenean, 511. orrialdean, hauxe dio:

“André Baratzia naquit à Duvana, diocèse de Calahorra, en Espagne. Son père, Pierre Baratzia, était de Larressore...” (5).

C. Duvoisinek sorlekua gaizki jaso ote zuen? Ala moldiztegi hutsa izan zen, *r* behar zen lekuan *v* ezarri zutelarik? Nolanahi ere den, sorlekuaren izkutuak orain arte iraun du, herriaren izenak beste aldaera bat hartuz, *Duvanno*, segur aski Daranatzan 1907ko artikulugatik (6).

Villasantek eskatuta, Durangon miatu ziren urte haietako bataio liburuak, baina alferrik (7). N. Altzola liburu-aztertzaile nekaezinak izan zuen lehendabizikoz susmoa, ez ote zen *Durana* Baratzianten sorlekua. Bere alde zuen Arana jesuitaren idazleen lerrokadan irakurtzen dena:

“...el cura basco-alabés y seminarista de Larressore Don Andrés de Baratzia” (8).

Nire merezimendua, hortaz, oso urria da: altxorra eriden dut, bai, baina mapa ezin zehazkiago marratua (eta bestek okerreko mapak erabili ondoren).

Duranako eliz paper zahar guztiak bezala, garai hartako bataio liburuak Gasteizko Apezpikutegian aurkitzen da. Honela dio, gureari dagokionez:

“En treinta de Noviembre de mill setezientos y quarenta i un años baptize io el infra escrito, Cura y Beneficiado de la Iglesia Parroquial de el lugar de Durana a un niño a quien puse por nombre Andres Bidente; el q. nazio segun declaracion jurada qe. en esta razon hizo su padre a las dos horas de dho. dia poco mas, o menos, hijo lexmo. de Pedro de Baraciarde natural de la villa de Miranda de Ebro y de Maria Manuela de Larralde su lexma. muger natural de la villa de

(5) Duvoisin apaizaren ponte-izena, *C* hasierako letraz soilik ezagutzen duguna, zein da? Baratzia 304-305. orrialdeetan aipatzen du lehen aldiz. [César Duvoisin da. Aline Roby andereari esker jakin dut gero.]

(6) *Duvanno* aldaera eman da gehienik. Ikus Lafitte, *Eskualdunen Loretegia*, 112. orr.; Villasante, 110. orr. lehen argitaraldian, eta 112. bigarrenean. Bigarren honetan Villasantek Altzolaren susmoa jasotzen du: “¿O Durana (Alava)?”. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Lit. I, 293, eta Diccionario, s.v.; Onaindia, 260; *Erroldeak*, 28. orr., *Duvanno* bigarren deitura bihurtzen du, non kasuan, menturaz Lafitteren *Eskualdunen Loretegitik* gaizki ulertua.

(7) Villasante, lehen argitaraldia, 110. orr.; bigarrena, 112.

(8) Arana, 92. Altzola, “¿Dónde nació Baratzia?”

Durango residentes en este lugar de Durana. Aguelos paternos, Pedro de Baraciarte natural de el lugar de Santengracia Provincia de Navarra y Cathalina de San Martin su lexma. Muger natural de la villa de Larra soro en el reino de Francia y Provincia de Lapurdi va. [= vecina] de dha. villa. Maternos Juan de Larralde natural de Antezana de Alava y Margarita de Reca su lexma. muger ya difuntos natural [sic] de dicha villa de Larra soro residentes que fueron de la villa de Azcoitia; fue su padrino Dn. Martin Saenz. de Buruaga cura y servidor en la igl. parroq. de el lugar de Retana, y natural de el lugar de Ondategui y por ser verdad lo firme dho. dia mes y año ut supra.

Dn. Franc. de Gamarra" (9).

Sorlekuaren izkutua argitzeaz gainera, jakina, bataio agiriak sorturtea zehazten du: 1741. Gogora dezagun zenbait data proposatuak zirela: 1738, 1741, 1742, 1743. Lafitte, 1964ko bere artikuluan, ez zebilen oker (10). Eguneko donearen izena eman zioten haurrari eta hori erabiliko zuen.

Durana eta Antezanako eliz paperei esker, Baratziaarten famili zuhaitza eratu ahal izan dugu, bere hutsuneak gorabehera, argibide aski ematen duena (ikus). Baratziaarten aita teilagina zen, Daranatzzen berrien arabera (11). Horren frogarik ez dugu aurkitu paper horietan, agian teilagintza lanbide preziatua ez zelakoz. Baina oso nabarmena da ahaide guztiak edo gehienak mugaz harunzkoak zirela jatorriz. Aski dugu deiturak ikusi: zuhaitz horretan ageri direnez gain, horra *Urcudoy*, (*H*)*Odi*, *Alquerdi* (nahiz hau berez Zugarramurdiko auzoa den), e.a. Esan ere espreski esaten da maiz: "franceses", "vecinos que fueron de Azcain, Provincia de Labort, Reino de Francia", "naturales de Larresoro en el Reyno de Francia" (12).


(9) Gasteizko Apezpikutegia, Artxiboa. *Durana* 8. *Libro de bautizados*.

(10) Lafitte, "La littérature basque", 149. orr.

(11) Daranatz, "L'auteur de *Guiristinoqui bicitceco moldea*", 54. orr.

(12) Ikus, batez ere, Antezanako bataio liburuak, orobat Gasteizko Apezpikutegian. Bidenabar, harrigarria da Baratziaarten bataio agirian "Santengracia Provincia de Navarra" hori. Guk dakigula, behintzat, ez da horrelakorik Nafarroan. Jubera (egungo La Rioja probintzian) aldeko Santa Engracia ote? Zuberoako Santa Grazi?

BARATZIARTEN FAMILI-ZUHAITZA
(Zenbait izenen azpian, sorlekua eta sorturtea)



* Anaia gazteagoak: Pedro 1680. Pedro Pablo 1682. Diego 1685.

** Ahizpa zaharragoa: Joana, Antezana 1703.

Ekar ditzakegu eskualde haietako lanbide berezi horren zenbait leku-kotasun. Martin Harriet euskal gramatikagilearen aitak teileria handiak zituen Espainia aldean, Haristoyk dioenez, eta Larresoroko gazteria joaten zen Espainiara teilak egitera (13). Ezaguna da, bestalde, Landazuri historigileak (1730-1805) honetaz idazten duena:

“Fuera de las expresadas hay en todo el territorio y jurisdiccion de Alava muchas fábricas de *Teja*, *Ladrillo* y *Adobes* de que se siguen particulares utilidades al pais con el motivo de la construccion de edificios; pero tan solamente presta el terreno de Alava la materia, pues los fabricantes son del Reyno de Francia en lo perteneciente á la de teja y ladrillo, empleándose en la de adobes muchos de los naturales del pais” (14).

Eta aipa dezagun, azkenik, Errioxako Bastidan, Erremelluriko upelategian, gordetzen den teila, zeinetan, 18. mendekoa dirudien idazkeran, honako hau irakurtzen da:

“hemengo adarailu / gucien conduya da / hirur milla eta / seyehun eta [*ongi ikusten ez den hitza*]” (15).

Zorigaitzoz, ordea, ez dut aurkitu Duranan ez Antezanan lantoki horien arrastorik. Duranako Udaletxean eta Duranako eta Antezanako eliz paperetan bederen ez zait deus agertu. Agian agertuko da Antezanako edo oraintsu arte udalerrri-buru izan den Forondako udal- edo auzo-artxihoan. Baina Lz. de Guereñuren leku-izenetan *Bustina* deritzan soroa dugu, Antezana-Mandoianan, 1715ean; *Bustinsuloa* eta *Bustinsuloeta* izenekoak Antezanan, 1691ean; eta han bertan, agian leku berbera, *Bustinzuloeta*, 1803an, eta *Bustinzulueta*, 1682an, azken hau mugakide den Lopidanan ere sartua (16).

Belaunaldi batetik bestera lekuz aldatzea maiz gertatu arren, esan behar da Baratziaarten ahaideak eta arbasoak bi herrietako bizi-giroan partaide ikusten ohi ditugula. Duranan, adibidez, gure Baratziaarten aita 1742an ari da errosarioko kofradian kontu-hartzaile, nahiz idazten ez dakien: “y para que conste firmo el dho. señor cura [Francisco de

(13) Haristoy, *Recherches* 266. Orobat *Les paroisses* II, 50. Ikus liburu honetan Jacques Harrieten aipamena, Baratziaart bezala Calahorrako elizbarrutian sorturiko apaiza, 49-50.

(14) Landazuri, 179.

(15) Teila hori Haroko Contreras zaharki-saltzailearen dendan erosi zen, duela zenbait urte. Argazki bat Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegian ikus daiteke.

(16) Lz. de Guereñu, 220.

Gamarra] y no dho. mayordomo [Pedro de Baraciarte] porque dijo no saver firmar” (17).

1746z gero, aldiz, ez da ageri Baratziart familiaren aztarnarik Duranan. Orduko joanak ziren, menturaz, Lapurdira. Larresoroko apaizgaitegian sartu zen Baratziart mutikoa eta 1767an apaiztu. Jakina, hau Larresoron sartu baino lehen, aita beste nonbait bizi zitekeen, beste lantoki iragankorren bat eraikita. Nolanahi ere, Larresoron apaiztu zen Andres Baratziart 1767an eta bertako irakasle izan zen, Granadako Dukearen haurren maisu izendatu zuten arte (18). Uztaritza itzuli ondoren, erretoorde egin zuten eta 1785ean Baionako elizbarrutiko idazkari nagusi. Iraultza garaian erbestean egonik, Uztaritza berriro itzulua, “prêtre habité” (zer esan nahi du honek?) eta latin-irakaslea izan zela dio Lafittek (19). Bertako Bourg-Suzon auzoan, *Txikirbeita* etxean, 1826ko Azaroak 26, hil zen (20).

BIBLIOGRAFIA

ALTZOLA, N. (Hermano Valentín Berriochoa): “¿Dónde nació Baratziart?”. *Boletín de la Sociedad Vascongada de los Amigos del País* 21 (1965:2), 247.

ARANA, JOSE IGNACIO: “Reseña histórica de la literatura cántabra o bascongada”, in Henao, *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria*, Tolosa 1895, 6. liburukia. 92. orr.

BILBAO, JON: *Eusko Bibliographia*. Donostia, 1970z geroz.

DARANATZ, J. B.: “L’auteur de *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea*”. *Revista Internacional de los Estudios Vascos* 1 (1907), 54-55.

DARANATZ, J. B.: “Baratziart, éditeur du *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea*”, in *Curiosités du Pays Basque*, Baiona 1927, II, 244-246.

DUVOISIN, C.: *Vie de M. Daguerre, fondateur du Séminaire de Larressore avec l’histoire du diocèse de Bayonne*. Baiona 1863, 304-305 eta 511. orr.

Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura, I, Donostia 1969, 293-294. Diccionario, 1976z gero, s.v.

(17) Duranako *Libro de la Cofradía del Rosario*, halaber Gasteizko Apezpikutegian.

(18) Non jardun zuen Baratziartek Dukearen haurren maisu? *Espasa* enziklopediaren arabera, titulua Juan de Idiaquez Eguiari pasa zitzaion 1729an (ikus s.v. *Granada*, 1042. orr.). Enziklopedia berean, s. v. *Idiaquez*, esaten zaigu zestoarra zela Juan de Idiaquez, eta 1728an “grande de España” bihurtu zela.

(19) Lafitte, “La littérature basque”, 148.

(20) *Id. ib.*, 149. Ikus, gainera, Baratziart aipatua, Uztaritza batzarre batetan, 1789an, Etcheverryren artikuluan, 120. orr.

- Erroldea* = *Euskeraz idatzitako erlijio-liburuen erroldea / Catálogo de libros religiosos escritos en euskera*. Euskal Parlamentua, Gasteiz 1983, 28. orr.
- ETCHEVERRY, MICHEL: "A Ustaritz en Avril 1789". *Eusko Jakintza* 2 (1948:1), 115-128.
- GARATE, JUSTO: "En torno a Baratziart. Un enigma bibliográfico". *Boletín de la Sociedad Vascongada de los Amigos del País* 19 (1963:3), 221-225.
- GARATE, JUSTO: "Complemento al enigma de Baratziart". *Boletín de la Sociedad Vascongada de los Amigos del País* 22 (1966:2), 269-270.
- HARISTOY, PIERRE: *Recherches historiques sur le Pays Basque*. Baiona 1883-1884. Facsimile, Marseille 1977.
- HARISTOY, PIERRE: *Les paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire*. Pabe 1895-1901. Facsimile, zenbait eranskinekin, Baiona 1982.
- LAFITTE, P.: *Eskualdunen Loretegia*. Baiona 1931, 112-114.
- LAFITTE, P.: "La littérature basque dans l'ambiance d'Ustaritz". *Gure Herria* 36 (1964:3), 147-154.
- LANDAZURI, JOAQUIN J.: *Historia civil de la M. N. y M. L. Provincia de Alava*. Gasteiz 1798, 179.
- LOPEZ DE GUEREÑU, GERARDO: "Toponimia Alavesa", hirugarren lerrokada, *Anuario de Eusko-Folklore* 18 (1961), s. v., 220.
- MICHEL, FRANCISQUE [François-Xavier Michel]: *Le Pays Basque*. Paris 1857, 512-513.
- ONAINDIA, SANTIAGO: *Euskal Literatura*. I. Bilbo 1972, 260-261.
- URQUIJO, JULIO: "Notas de bibliografía vasca... VI. Baratziart no fue el autor de *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco molde*". *Revista Internacional de los Estudios Vascos* 2 (1908), 313-336.
- VILLASANTE, LUIS: *Historia de la literatura vasca*. Lehen argitaraldia, Bilbo 1961, 110; bigarrena, Burgos 1979, 112.
- VINSON, JULIEN: *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris 1891. [Complément et supplément, Paris 1898.] Ikus orain facsimile, Donostia 1984, Mitxelenaren hitzaurrearekin eta Urquijok utziriko ohar ugariekin. 231 orrialdetik aurrera dakartza Vinsonek bere berriak eta 581-582. orrialdeetan erantsi zituenak.

ERANSKINTXOA

Artikulu hau moldiztegian zela, Haristoyk *Les paroisses...* liburuan egiten duen beste aipamen bat ez dudala sartu konturatu naiz. Hona: "Jean Baratziart, fils de Jean B. et de Marie de Bidegaray, né le 11 avril 1746 à Dax, [ordonné] en juin 1770: secrétaire de Mgr de Villeveille, évêque de Bayonne, éditeur, croit-on, et non auteur des *petites méditations* en basque intitulé *Meditacione çerurat heltceco baitezpadacoac* (*Méditations nécessaires pour arriver au ciel*) M.DCC.LXXXII. Fidèle à sa conscience, l'abbé Baratziart ne voulut pas apostasier et préféra émigrer

en 1790. A son retour d'Espagne, il s'établit comme professeur libre à Ustaritz, où il mourut le 9 novembre 1826". Ikus liburu hori, II, 44. orr.

Bestalde, E. Goihenetxeri esker jakin ahal izan dut "prêtre habitué" direlakoak elizaren batetan aritzen direla, fundazio batetatik beren alogera jaso. Hala ere, fundazioak egotz dakizkieke "prêtre habitué" ez direnei. Ikus M.J.***, *Traité du gouvernement spirituel et temporel des Paroisses*, Paris 1769.

BERRIAK

EUSKALTZAINDIAREN EGOITZA BERRIARI BURUZ HITZARMENA SINATU ZENEAN

Bilbon, 1985, Uztailak 10

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

J. M. Makua, Bizkaiko Diputadu Nagusi jaun txit agurgarria.

Euskaltzainkideak.

Jaunak:

Orain dela urtebete Plaza Barriko etxean lehenengo aldiz batzarrea egitera-koan esan nituen hitzak gutti gorabehera barriro esango ditut, zeren eta ordurako aukerakoak baldin baziren, gaur areagoak direla uste baitut.

Bai. Ondo ohartzen naiz gaurko gertaera honek kolkoan gorderik dakarren esanahiaz eta garrantziaz. Zinez aro barri batean sartzen da gaur Euskaltzaindia. Urrats handia da benetan gaur emoten dabena.

Baina gaurkoa ondo ulertzeko atzokoa ere pixka bat gogora daigun.

Guztiok dakigun legez, Euskaltzaindia sortu zenetik hirurogei eta gehiago urte paseak dira. Orduan Euskaltzaindiak alogeraz hartu eban Erribera kaleko etxebizitza hura —gaur den baino handiagoa zena, ori ere ez da ahaztu behar—, baina behin-behinean edo probisionalki hartu eban, hots, leku egokiagoren bat bilatu artean. Hala aitortzen da argi eta garbi urte haietako gutunetan: Euskaltzaindiaren behin-behineko etxea deitzen jako. Ikusi besterik ez dago **Euskera** agerkariaren lehen zenbakia, 67. orrialdea. Badakigu, ordea, askotan zer gertatzen den: behin-behinekotzat hartzen diren gauzak gero betiko izaten direla. Erribera kaleko egonleku hark ere bizitze luzea izan dau. Azkuek bere mendean ez eban besterik ezagutu.

Azken urteotan, barriz, Euskaltzaindiak hazkunde handia eta miraritsua eza-gutu dau, eta gainera zetorkion eskabideari erantzungo baeutson toki hura baino egokiagoa behar eban, inondik ere. Liburutegia, bulegoak, fitxategiak, artxiboa, fonoteka, batzar gelak... hainbeste gauza gero eta beharrago zirenak. Zerbait erremediatu zen egoera hau 1979. urtean Bizkaiko Diputazioak Arbioto kaleko etxebizitza utzi euskunean. Orduan bulegoak hara eroan ziren, liburutegia Erribera kalean utzirik. Hain zuzen, orain dela urte bi gertaturiko uholdean hutsagatik libratu zen liburutegia hondamenditik. Suaren arriskua ere maiz izan dugu.

Orain dena etxe egoki eta galant batean kokatua izango da. Bai. Hemendik aurrera, etxe barri horri eskerrak, dena leku batean eta Euskaltzaindiak daben egitekoari eta egitekoaren garrantziari dagokion bezalako etxean behar bezala jarriak izango ahal dira! Euskaltzaindiaren izenean eskerronik biziena agertu gura deusat Bizkaiko Diputazioari egin deuskun mesede paregabe eta eskergea honengatik.

Gauza jakina da Euskal Herriko lau Diputazioen umea edo sorkaria dela Euskaltzaindia, eta lokarri hori guk gogoz aitortzen dugu. Baina aparteko modu batez Bizkaikoarekin lotura bereziak ditugu, zeren eta berau izan baitzen Euskaltzaindia sortzeko arazo honetan aurrea hartu ebana.

Euskera agerkariaren lehenengo zenbakian, 39. orrialdean, hona zer irakurtzen dugun:

“Orra, azkenez, urrezko izkiz Euskaltzaindiak bere etxeko atari-gainean ezarri bearko duan eguna: 1918'ko Urtarrillaren 25 garrena.”

Egun horretan Elgezabal'tar Kosme eta Landaburu'tar Peli jaunek proposamena egiten deutse Bizkaiko Diputazioari euskararen Akademia sortzeko asmoa onart dagian, eta era berean asmo hau beste euskal Diputazioei pasa deioen, gero lauron artean asmoa obretan ezartzeko. Eta dakizuen bezala, halaxe egin zen.

Euskera-ren zenbaki berean, 52. orrialdean, Euskaltzaindiaren lehen batzarrearen erabaki hau dator: Euskaltzaindiaren etxea edo bizitokia Bilbon izango dela. Eleizaldek egin omen eban eskaria. Orrialde azpiko oharrek honela dino: “El domicilio de la Academia, a propuesta del Sr. Eleizalde y consultados los académicos de otras regiones, se resolvió establecerlo en Bilbao, como tributo debido al fuerte impulso que surge de aquella villa para todas las manifestaciones de la vida vasca. Allí radicarán las oficinas y demás dependencias estables de la Academia, sin perjuicio de que las reuniones puedan celebrarse en San Sebastian y otros puntos que se juzguen convenientes”.

Beraz, Eleizaldek eskaturik, Euskaltzaindi sorberriak egindako lehen batzarrean —eta batzarre hori Donostian izan zen— erabaki hau hartzen da: Euskaltzaindiaren etxea Bilbon egongo dela. Horren arrazoa ere entzun dugu: Bilbotik euskal gauzetarako bultzada edo eragin errimeza zetorrela. Bai. Euskaltzaindia sortzeko arazoan ere hala gertatu zen. Lau Diputazioek amankomunean sortua da Euskaltzaindia, baina aurrea hartu ebana Bizkaikoa izan zen.

Guztiok dakigu, ordea, Euskal Herri hau, nahiz eta herri bat izan, zelan dagoen gatzatua edo mamitua: zelan, alegia, nortasun berezia dabeen lurralde historikoz osotua den. Euskaltzaindiak ere, urteak joan eta urteak etorri, beste hiriburuetan Ordezkaritzak jartzeko beharra somatu dau, baina Euskaltzaindiaren batasuna inolaz ere zatitu gabe. Hala dagoz gaur Euskaltzaindiaren Ordezkaritzak Donostia, Gasteiz, Iruñe eta Baionan. Eta batzorde batzuen lantegiak ere, gaurkoz behintzat, Ordezkaritzetan kokatuak dagoz, batzordekideen erosotasunari begiratu; baina, azkenik, jakina, dokumentazio guztia Bilboko etxera ekarriko da, zeren hemen baita Euskaltzaindiaren egoitza edo etxea.

Errepika daidan barriz ere: Euskaltzaindia lau Diputazioen sorkaria da eta aparteko modu batean Bizkaikoarena.

Lokarri hori emoitza honegaz sendotu besterik ez da egingo.

Niri, jauna, Euskaltzaindiaren izenean bihotz-bihotzez eta barru-barrutik eskerak emotea beste lanik ez jat gelditzen. Bai, jauna, “eskerrik asko” bihotzetiko bat, eta euskararen onerako izan dadila etxe aldatze hau!

LAVIEUXVILLE-HAROSTEGUY-REN KATIXIMA AURKEZTEAN

Gasteizen, 1985, Irailak 13

Fr. Luis Villasante

Jaun-Andreak:

Gasteizko Udalaren laguntzari esker, bir-argitaratu ahal izan dut euskal literaturaren liburu zahar bat, txit estimagarria ene ustez, baina gaur-egun aurkitzen oso zaila zena. Liburu hori hemen zeuen aurrean duzue, hots, *Bayonaco Diocesa-co Bigarren Catichima*, Lavieuxville apezpikuaren izenaz ezagutua dena.

Euskaltzaindiak badu “Euskararen Lekukoak” deitzen den liburu sorta. Bertan edizio gaurkotuetan eta oharreztatuetan bir-argitaratzen dira euskararen iturri eta testigu bezala aparteko balioa duten eta gaur aurkitzen zailak diren liburuak. Edozeinek ikus dezake zer-nolako mesedea egin diezaguketen honelako edizioek euskara sustraitik aztertu eta hobekiago ezagutu eta menderatzeko.

Liburu berri hau ere sorta horren barnean irten da, beraz, eta sorta hori aberastera eta ugaltzera dator.

Eta, esan dudanez, Gasteizko Udala izan da bere diru laguntzaz argitaratzeko ahalbidea eman didana. Bestela, laguntza gabe, kultur ekintza hauek aurrera eramaterik ez dago.

Gaur, bada, liburu berri honen plazaratzea ospatzen delarik, Gasteizko Udalari neure eskerrona bihotz-bihotzez agertu nahi diot.

Hitzalditxo honetan, laburzki baino izango ez bada ere, honako hiru puntu hauek azalduko ditut:

1. Zergatik eta zertarako edizio hauek.
2. Euskarazko kristau dotrina zaharrek gure mintzaira hobeki ezagutzeko eman diezaguketen laguntza.
3. Gaur kaleratzen den liburua zer-nolakoa den.

Euskararen batasuna egin nahirik gabiltzan une honetan ere, itsu-itsuan ibili nahi ez badugu, beharrezko zaigu hizkuntzaren ezagupen bat ahalik eta erabatekoena, zabalena eta zehatzena eskuratzeko, bai iraganekoa eta bai gaurkoa, euskalkiz euskalki, gizaldiz gizaldi, etab. Hizkuntza bizia ere bai, noski, baina hizkuntza idatzaren lekukoetara jotzea ere noraezeko da.

Are eta beharrago zaigu hori, gure artean maiz iraultzak, etenak eta mutur batetik bestera jotzeak egon direla jakinik. Bai. Askotan gure artean azken gizaldiak aurrekoaren berri ez du jakin nahi izan, eta hala, dena aurrekoak ez bezala egiten, hutsetik etxea eraikitzen hasi da, aurrekoek ezer onik egin ez balute bezala. Horrela jokatzu zer gertatuko den esan beharrik ez dago: elkarren berri ez dakigula.

Gure aurretik euskararen arrangura izan zutenen lana eta utzi ziguten emaitza ez badugu aintzakotzat hartzen, haiek egindakoa guretzat egin ez balitz bezala da. Bide txarra da hori, inondik ere. Horrela gabiltzan bitartean, doi-doi egin daiteke deus iraunkorrik euskal kulturaren etxegintzan. Badirudi, erdia alfer-lana gerta ez dakigun, segida bat eta halako lotura bat behar dela, bai mende eta bai eskualdeen artean ere.

Horregatik, hain zuzen, ongi etorriak zaizkigu joan mendeetako euskal liburu-ruen bir-argitarapenak. Guztiok dakigu gaur aurkitzen zailak direla liburu horiek. Eta oraingo edizio fidagarri eta behar bezala oharreztatueta ematen zaizkigunean, mesede handia egin diezagukete euskara sustraitik ezagutzeko.

Asmo honekintxe erabaki zuen Euskaltzaindiak “Euskararen Lekukoak” bilduma hau sortzea. Honekin ez dut esan nahi Euskaltzaindiaz kanpo beste inor hortaz arduratu ez denik. Hor daude besteen lanak ere: “Hordago”, “Auspoa”, “Kuliska”, “Jakin”, “Lur”, “Gero”, “Etor”...

Dena dela, eta bestek egiten duen lanari deus kendu gabe, gure asmoa, bilduma hau sortzean, hauxe zen: joan mendeetako gure literaturaren lekukoak edizio fidagarrietan eta behar bezala oharreztatueta gure gaurko idazle, irakasle eta ikerlarien eskuetan jartzea.

Zazpi urte da bilduma hau sortu zela, eta 11 dira orduzkerotik irteadako liburuak. Ez da asko. Baina bada zerbait. Nik uste dut ugaritzen eta tarrotzen den ber, bilduma hau —Lekukoen bilduma, alegia— guztiz preziatua eta ezin utzizkoa bilakatuko dela euskararen ikerketarako.

* * *

Gaur aurkezten dugun liburua katekesi-sailekoa denez geroz, ez da gaizki egongo literatur-mota honek euskal munduan izan duen kopuru, mordo eta garrantziaz zerbait esatea. Tamalez, euskarazko kristau dotrinei buruz badira, bai, hor-hemen, berriak, baina oso sakabanatuak eta galduak. Joan mendeetan egon diren euskarazko kristau dotrinen albisteen “corpus” bat behar dugula uste dut, non zer den jakiteko gida bat, alegia. Askotan ia bailara bakoitzak kristau dotrina bat harako berariaz egin izaten zuen; hori hala izanik, begien bistan dago horien ezagutzeak asko lagun gaitzakeela euskara bere euskalki eta azpi euskalkitan ezagutzeko.

Dotrina horietarik batzuk inprentatu ziren, baina beste batzuk eskuz idatzirik gelditu dira. Aita Añibarrok Iruñeko Ospitalaren aginduz euskal dotrina bat nafar euskaraz egin zuen eta inprentatu ere egin zen, baina gero, legezko baimena ez zuelako edo, ez zen zabaldu.

Oker ez banaiz, Sancius de Elsoarena izango da euskarazko dotrinetan zaharrena; Lizarran —hau da, Estellan— inprentatu zen 1561. urtean, euskaraz eta erdaraz, baina zoritxarrez gaur ez da ezagutzen beronen alerik. Inoiz entzun izan dut hor nunbaiten badela bat; gero gezurtatu ere egin didate; ez dakit. Azalduko balitz, ez litzateke aurkikuntza makala.

Jakin dudanez, J. A. Arana Martija, gure bibliotekari ordea, dabil euskarazko kristau dotrinen “corpus” hori osatu nahian. Lehen esan dudan bezala, mesede ederra egingo liguke honelako lan gidari batek.

Espainia aldeko Euskal Herrian uste dut Astete izan dela kristau dotrina gehienetan iturburua; Iparraldean, aldiz, beste bide batzuetarik ibili dira.

Zernahi gisaz, kristau dotrinen zerrendan toki aparta merezi du gaur argitaratzen dugun Katixima honek. Toki aparta bere oparotasunaz, bere euskara txukunaz, bere barne muin aberatsaz, euskal literaturaren tradizioan izan duen eraginaz, etab.

Aita Larramendi ondo jabetu zen hortaz. Bere *Diccionario Trilingüe*-ren hitzaurrean, ordura arteko euskal liburuen kontu ematerakoan, haxe da lehen tokian aipatzen duena. Eta txit laudoriozko aipua egiten dio. Hara hitzez-hitzez handik aldatua:

“1.º Dos Cathecismos, uno breve, que contiene solo el Texto, y otro más largo, que contiene la explicación de las quatro partes del Texto: de la primera 26 lecciones: de la segunda 24. de la tercera 33. de la quarta 27. y además muchas prácticas Santas, exemplos, e Historias, que se citan de los Sagrados Libros. Es cosa muy selecta: hizolos imprimir en Bayona el Illustrissimo Señor Don Pedro Guillelmo de Lavieuxville, Obispo de aquella Ciudad, cuya virtud, zelo, y prudencia singular, no puedo alabar bastantemente. Imprimiéronse Año de 1733” (1).

Aita Larramendi, jakina denez, Baionan egona zen Maria Ana de Newburg erregina alargunaren aitorle gisa, eta aski ongi ezagutzen zituen Iparraldeko gauzak.

Nondik edo nola piztu zitzaidan euskal liburu honenganako zalea? Sarreraren kontatzen dut hori. 1963. urtean hil zen Aita Aingeru Madariaga, Oñatiko Bidaurretan kapeilau zelarik. Euskaltzalea zen, olerkaria, *Erizkizundi Irukoitzeko* lanean parte hartua, eta urte asko Ameriketara eginga. Artean Aita Aranguren zen Arantzazuko Guardian, eta esan zidan: Zoaz, eta ikus ezazu ea baliozko zeezer utzi ote duen. Eta bai; euskarazko liburu zahar bat aurkitu nuen haren gelan; eskuz, eta bizkaieraz, idatzia. Bazuen, ordea, hitzaurre luze bat erdaraz. Bertan esaten da Iparraldeko dotrina baten itzulpena dela. Iparraldeko dotrina honen balioaz hain txunditua ageri da itzultzailea, non gipuzkerara ere lan bera itzultzeko asmoa agertzen baitu.

Urte asko geroago jakin ahal izan nuen zein zen bizkaierazko dotrina horren iturria, hots, Lavieuxvilleren hau.

(1) *Diccionario Trilingüe*, San Sebastián, 1745; p. XXXIV.

Baita ere jakin ahal izan dut nor izan zen bizkaitar itzultzailea. Derio-n itzulpen honen beste kopia bat dago eta han espresuki dakar itzultzailearen izena: Juan Antonio Mogel.

Nola ezagutu ahal izan zuen Mogelek iparraldeko Dotrina hau? Nik hori ez dakit. Beronen berri Larramendiren Hiztegitik ere jakin zezakeen. Baina gero Erreboluzio handitik ihesi zetozen apaiz eta beste Mogelek etxean hartzen zituela badakigu. Agian ihesi etorritakoren batek dotrina hori berekin ekar eta Mogelek hortik ezagut zezakeen.

Mogelen lan hori argitaragabea delarik, Lekukoetan argitaratzeko asmoa hartu nuen; baina gero pentsatu nuen lan horren sorburua Iparraldeko hau izanik, berau atera behar zela lehenik.

Lavieuxville, Baionako apezpikua, ez zen euskalduna. Hark frantsesez idatzi zuen Katixima. Baina apaiz bati agindu zion euskarara itzultzeko. Eta gero, bai euskaraz eta bai frantsesez inprima arazi zituen.

Nor izan zen frantsesezko testua Lapurdiko euskarara itzuli zuena? Itxuren arabera Gratien Harosteguy, orduan Sara-n erretore zegoena. Hala uste dute behintzat hortaz arduratu direnak: Haristoy, Jon Bilbao, Lafitte-k. Horregatik, argitarapen berriaren buruan izen bikoitza jarri dugu: Lavieuxville-Harosteguy, euskal itzultzaileari ere toki bat eman nahirik. Katiximan ageri den euskara guztiz ona eta ederra dela aho batez diote kritikalariek. "On croit qu'il est le traducteur du Grand Catéchisme de La Vieuxville, rendu en très beau basque de Sare" (Haristoy) (2).

Aitortu behar dut frantsesezko orijinala ezin izan dudala ikusi, nahiz eta ahalegin batzuk egin ditudan hortarako; bakar-bakarrik, E. Knörr jaunari eskerrak, Lavieuxvilleren katixima ttipiaren frantsesezko testua ezagutu ahal izan dut eta horren agerbide bat argitarapen honetan dator.

* * *

Liburu hau, edo, hobeki esan, Lavieuxvilleren katixima biak —ttipia eta handia— indarrean egon ziren Baionako elizbarruti guztian ia ehun urtez. Eta bada beste xehetasun bat pisu handikoa dena: ez zen zilegi, hauetaz kanpo, beste katiximarik irakastea. Azalean bertan hori garbiki adierazten da: "haren diozesan hau xoilki irakasteko".

Garai hartan Baionako diozesak bazterrak orain baino laburragoak zituela uste dut, baina orduan ere euskararen aldetik bazen han euskalki bat baino gehiago: lapurdieraz mintzo ziren batzuk eta benafarreraz beste batzuk; halere, katekesirako erabiltzen zen testu bakarra lapurdierazko hau zen. Katixima honen aurreko orrietan (ikus 5.z.) abisatzen zaie eskola-Nausiei haurrak irakurtzen ikas- teko Katixima hau erabil dezatela.

Hemengo aldean Katiximak tokian tokiko euskararen arabera eginak egoten ziren. Han, berriz, esan dugunez, bat bera irakasten zen elizbarrutiko eremu

(2) Ilus Lafitteren artikulua "Pierre-Guillaume de la Vieuxville (1682-1734)". **Euskera** (1982), 619-620.

osoan, eta horrek bere eragina izan zuen, dudarik gabe, euskara idatzieren batasunerako.

Aintzin honetan esan dugu ia ehun urtez egon zela Katixima hau indarrean; neur dezagun, ordea, zehazkiago puntu hau. Lavieuxvilleren Katiximak 1733. urtean argitaratzen dira (ttipia, agian, aurreko urtean). Gero, berriz, Iraultza handiaren ondoren, Napoleon Enperadoreak Katixima berria eta bakarra ezar arazten du berak agintzen zuen eremu guztietarako. Katixima berri hau Baionan ere J. J. Loison apezpiku zelarik euskarara itzulia 1807. urtean agertzen da. Baina ez zuen asko iraun. Waterloo-ko hondamendia gertatu bezain laster, zokoratua izaten da eta berriz Lavieuxvillerena hartzen dute; baina oraingoa ez luzarorako. Kontuan eduki behar da Napoleonek egindako aldakuntzen ondorioz Baionako elizbarrutiak orain Euskal Herriko Iparralde guztia besarkatzen duela, eta Astros apezpikuak 1824. urtean elizbarruti guztirako katixima berria egin arazten du. Beraz, urte honetan erretiratzen da Lavieuxvilleren testua 84 urte guti gorabehera indarrean egon ondoren.

Edukinaren aldetik liburuak oso oparoa eta aberatsa da. Azalean bertan esaten du lehenbiziko komunioea egitera preparatzen diren haurrentzat dela egina. Barneko orrietan (ikus 2.z.), berriz, lehenbiziko katixima haur xumeentzat eta bigarren adin gehiago dutenentzat dela dio. Galdetu nion Lafitte jaunari hori nola zitekeen eta argitasun hau eman zidan: denbora haietan lehen jaunartzea 14/15 urterekin egiten zutela. Bestela nekez konprenitzen da nola haur ttipiek hainbeste gauza buruan sar zezaketen.

Pedagogi aldetik ere, katekesia egiteko moldeari buruz xehetasun jakingarriak datoz aurreko orrietan (Ikus Abisuak, 6-9 z.).

Lau partetan dago banatua Katixima. Lehenbiziko partean giristinotasuneko egiak. Bigarrenean giristinotasuneko eginbideak. Hirugarrenean eginbide horiek ongi egiteko ditugun bide edo moianez (hau da, sakramentuak eta otoitza). Laugarren partea, berriz, urteko festaburu eta liturgi aroei eskainia dago. Uste dut parte hau berria edo hemengo katiximetan ageri ez dena dela.

“Leccione” bakoitza, berriz, hiru zatitan egon ohi da banatua: lehenik galde-erantzunak; bigarrenik, Pratikak, hau da, kristau bizitzerako kontseilu batzuk, ikasgai hartan ikasi denetik eratorriak; eta azkenik, Istorioak: hemen, lezioan irakatsi dena argitzeko edo sendotzeko balio ditzaketen Eskritura Sainduko pasarteak aipatzen dira.

* * *

Liburuak ez dira ateratzen, gehienetan behintzat, arrazoi jakin batek egilea hartaratzen ez badu. Lavieuxville jauna Baionako elizako artzain izatera etorri zenean, aurki konturatu zen hango egoeraz, eta zerbait egin behar zuela ikusi zuen. Alde batetik, jakinez handia zegoen herrian kristauak jakin behar dituen gauzen gainean. Eta, bestetik, apezteria, hots, eliz gizonak edo horietarik asko, jansenismoz kutsatuak zeuden.

Eta beste neurri batzuen artean, bi katixima, bat ttipia eta bestea handia, egitea erabaki zuen, eta biok euskarara itzul arazi zituen.

Jansenismoari buruz maiz-sarri ideia oso azalekoak edo sinpleak izaten ditugula uste dut. Iruditzen zaigu laztasuna edo gogortasuna erakusten duen erlijio-mota bat dela; baina hori bakarrik balitz, katixima hau ere jansenistatzat jo beharko genuke, eta, haatik, jansenisten kontra zebilen. Jansenismoa teologiko-sistema trinko bat da. Eta Baionan sistema honek halako arrakasta bat izan zuela konprenitzeko, ez da ahortzi behar Saint-Cyran baionesa zela. Aita De Lubac-ek esan duenez, Jansenioren sistema, Saint-Cyranengatik izan ez balitz, teologo guti batzuen aretoetarik kanpo ez zen irtengo; mundu zabalean sarrera izan bazuen, Saint-Cyranen zor dio (3).

Egitez eta gertatzez, jansenistek, duin ez garelako aitzakiaz, jendea elizatik eta sakramentuatarik uxatzen zuten. Horrela barne-hustutze bat gertatu zen kristau herrian eta geroagoko deskristautzeari bidea paratu zioten.

Baina gatozen geure katiximara. Hau ez da halako ur sakonetan sartzen. Jansenistak eta beste ez ditu behin ere beren izenez izendatzen; hala ere, oharren pixka batekin liburua irakurtzen badugu, ikusiko dugu ematen duela, hor-hemen, orduan eztabaidatzen ziren gauzen gainean dotrina zuzena. Hala esango dizu 29. zenbakian Jainkoak graziazko egoera ez ziola gizonari zor. Hau Baiok zioenaren kontra doa. Eta zenbaki berean dator beste hau ere:

“*Galdea*. Ezta beraz eguia erraitea, guñona eztela libro gaizqui eguiteco baicic, eta eztela guehiago libro ungui eguiteco?

Ihardestea. Ez, hori da proposicione bat Eliçaz condenatua.”

Jakina denez, jansenisten aburuak bide hortatik zihoazen.

Baita kristau ohitura askoren zuzena eta aspalditasuna ere espresuki eta askotan baieztatzen ditu; segur-aski ohitura horiek kentzeko lehiak egiten zirelako. Aita Sainduak fedezko gauzetan duen autoritatea txit azpimarratzen du, Ama Birjinaganako debozioa ere txit goratzen, etab. Kontuan eduki behar da Frantziako eliz giroan horrelako gauzak laski eztabaidatzen zirela orduan. Quesnel-en aburuak Aita Sainduak “Unigenitus” buldaren bidez gaitzetsi zituen 1713. urtean, baina gaitzespen horrek “kontestazio” bortitza izan zuen. Beraz, giro oso nahasia eta uherra zegoen. Eta gure Katixima eztabaidatuak ziren puntu askori buruz dotrina zuzena eskaintzen saiatzen da, halako espantu gabe, noski. Begira, adibidez, 134. zenbakian datorren beste galde-erantzun hau ere:

“G. Cer erran daiteque comunione saindura humilitatez edo beldurtasunez bakhan baicic hurbilcera menturatzen ezdirenez?

I. Hec haguitz hobequi eguin leçaquetela maizago harat hurbilcen badire Jesu-Christoren ganateco amodioz”.

Lavieuvville jauna ez zen luzaz egon bere karguan. 1734. urtean hil zen; beraz, Katixima hau atera eta hurrengo urtean. Baina haren obrak, bai, luzaz iraun zuen.

Eta ez da Katixima hau urte horien inguruan Lapurdiko aldean egin zen euskal lan bakarra. Haraneder eta beste lankide batzuek itzulitako Testamentu

(3) HENRI DE LUBAC, *Augustinisme et théologie moderne*, Aubier; p. 53.

Berriaren esku izkribuak urte muga hau dakar: 1740. Lafitte zenaren liburutegian zen esku izkribu hau eta uste dugu noizbait Lekukoak bilduman ikusiko duela beronek ere argia.

Batzuk kexu dira batasun arazoetan ez ote garen Iparraldeari sobera atxikiak; baina kontura gaitezen gauza batez: hemen baino 200 urte lehenago hasi zirela han euskaraz idazten —hats luzeko obrak idazten, esan nahi dut—, eta hori ez da ondorio gabe. Hala ikusten dugu idatzizko zereginetarako behar den tresna hori, hizkera normalizatu hori, neurri handi batean moldatua eta burutua ageri dela gure Katiximan. Hegoaldean, berriz, garai hartan ez zen holakorik.

* * *

Bukatzeko, eman dezadan gure argitarapen honen berri laburra.

Lehen urratsa Urquijoren liburutegiko alea hartu, serokopiatu eta makinatzea izan zen.

Gure asmoa izan da liburua den bezala eta deusik aldatu gabe argitaratzea.

Galde lezake zenbaitek: Zergatik hola? Zergatik ez da ipini gaurko ortografia, Lapeyreren edizioaz egin zen bezala? Baina Lapeyreren liburua askoz hurbilago dago gugandik eta ortografia gaurkotzeak ez zuen halako katramila handirik sortzen. Hemen gauzak ez ziren berdin. Esate baterako, ixa letraz adierazten du Katixima honek guk “ts” multzoaz adierazten dugun fonema; baina ez beti, halere; “ts” multzoa ere erabiltzen du noiztenka eta fonema berbera adierazteko, gainera; “ch” multzoak ere ez du Lavieuxvillegan beti balio berdina; batzuetan ixa-ren balioa du eta beste batzuetan, hots, atzerriko hitzetan, “k”ren balioa. “K”, “C” eta “Qu”ren banaketa ere bere gisa egiten du, eta abar.

Horiek hola, pentsatu genuen hoberena dena dagoen bezala ematea zela. Hizkuntzari buruz ikerketa egin nahi duenarentzat ere hobe da testuak, pixka bat zaharrak direnean, dauden-daudenean ematea.

Buru-hauste gehiago izan dugu “editio princeps” delakoan nabari diren huts eta dudazko testuekin. Orduko argitarapenean ere badira, noski, huts nabariak; beste batzutan ez dakizu ziur hutsak diren ala ez. Horiek ere guk errespetatu egin ditugu; baina Sarreran ipini dugu sail bat “Testuari buruz oharra” deitzen dena, eta han espresuki ematen dugu horien zerrenda; horrela irakurleak badaki irakurketa horiek horrela datozela jatorrizko edizioan.

Irakurleari zor diodan lotsagatik ezin dut isilik utzi inprimerian egin didaten makurra. Behin idatzi zuen Mitxelenak: beti erratekin burrukan eta azkenean berek menderatzen zaituzte. Neri ere horrelako zerbait gertatu zait. Zoritzarrez, espresuki eta idazkiz esandakoari kasu egin gabe, garaia baino lehen inprentatu zuten liburua. Egia da bigarren frogak ikusiak zirela ordurako, baina honelako lan batean ez da aski izaten. Horregatik hutsak itzuri dira eta “Fe de Erratas” jartzea beste erremediorik ez da egon. Beharbada horrek badu alde on bat. Sarreran “editio princeps” delakoan ageri diren huts eta dudazko testuen zerrenda dator; liburuaren azken orrian, berriz, argitarapen honen hutsen zerrenda jarri da. Era hortara kasu jakin batean dudatarik irteteko bideak eskaintzen zaizkio irakurleari.

Liburuari Sarrera bat jarri zaio. Ez luzeegia, noski, baina bai, ene ustez, liburua, egilea etab. bere giroan eta garaian kokatzeko aski den bezain bestekoa. Liburuan datorren euskarari buruz ere ematen dira xehetasun batzuk, baina gaia alde guztiz agortzeko asmorik gabe. Izan ere sarrera hauek irakurleari gosea pizteko modukoak behar dute izan, ene ustez. Ikertu nahi duenari meatokia behar zaio eskaini. Hain zuzen, horretarako dira bilduma honetako argitarapenak.

Liburuaren azken aldean hiztegia jarri da, hots, liburuan ageri diren hitzen hiztegia; hau ere, segur-aski, ez da alde guztiz osoa, baina bai ugaria eta oparoa. Eta hemen aparteko modu batean Aita Pedro Arangureni eskerrak eman beharrean naiz, zeren hiztegi hori egiteko lehen fitxa-bilketa berak egin baitzidan.

Lavieuxvilleren katixima hau frantsesetik Lapurdiko euskarara itzuli zuena, uste denez, Grazian Harosteguy Sarako erretorea izan zen. Zoritxarrez, jaun honi buruz gauza guti dakigu. Apezpiku jaunak estimu handitan zuela, eta hola. Sarako beste erretore batek —Axular-ek— 90 urte lehenago *Gero* liburu famatua egina zuen. Bataren eta bestearen euskarak zertan diren berdintsuak eta zertan bestelakoak: horra aztergai bat nik ukitu ez dudana eta arakatu nahi duenarentzat gelditzen dena.

Azkenik, lanean lagundu didaten guztiei eskerrak. Batak Urquijo liburutegiko alea utziz, besteak lan hori serokopiatu eta makinatuz, besteak orijinala eta kopia erkatuz, besteak bibliografi laguntzak eskainiz, edo galderei erantzunez —hemen Lafitteren izena nahi dut bereziki aipatu— edo Parisetik frantsesezko katixima ttipiaren fotokopiak ekarriz, etab. Izan ditut, bai, laguntzaile onak. Denei ene ezagutza eta eskerrona.

Baina guzti hori alferrik izanen zen Mezenas bat egon ez balitz. Hori gabe liburua ez zen argitaratuko. Badakizue salmentak urriak eta inprimeri kostuak handiak izan ohi direla. Nor izan da Mezenas hori? Gasteizko Udala. Mila esker, bada, berari.

Eta besterik ez.

GORDAILU BERRIKO PRESTAKIZUN LANEZ (*)

Etxebarri, 1985-IX-26

Jose Luis Lizundia


Idazkari- Ordea

Bilboko Iralabarri aldean alokaturik genuen Gordailua liburuz gainezka zegoela ikusirik batetik, eta nolabait zaharkitua, batez ere hauts ugarirekin, bestetik, Zuzendaritza eta Ekonomi Batzordean planteatu zen aspaldi Gordailu berri baten premina. Bestalde, egoera oso larria zen, zeren eta zenbait inprimategik guri egindako liburuak deposituan zituzten, gure toki faltaz.

Azkenik, enpresa batek libre uzten zuen planta industrial baten albisteak izan genuen, salgai zeukala eta. Bilboko irteeran eta Donostiara-ko errepidean, Etxebarrin hain zuzen. Ekonomi Batzordeak zenbait aurre-jestio egin zituen eta erostea proposatu. Honen kontu eman eta onartu zen iazko Urriaren 26an egindako batzarrean. Harez gero, jestioa jarraitu zuten zenbait gora-beherakin, batez ere, lehengo jabe eta saltzailearen hipoteka bat zela eta. Erosteko, bestalde, Lankide Aurrezki Kutxaren kreditu bat lortu zen nahikoa baldintza onekin. Burutzeko, notariren aurrean 85-V-15 sinatu zuten Pedro M.^a Jauregi saltzaileak eta Euskaltzainburuak erosketako eskritura. Jestio gintza hau, gehien bat, Juanjo Zearreta, Xabier Gereño eta Federico Gonzalez legegizonak eraman dute.

Berehala, Gordailua egokitzeko obrak hastea zen eta horretarako arkitekto eta aparailariarekin harremanetan jarri. Gordailua ikusiz bilera bat egin genuen, Etxebarrin bertan, Juanjo, Gereño, Ricardo, Rosa Marik eta nik, Patxi Enziondo arkitektoa eta Angel M.^a Beaskoa aparailariarekin. Proiektua prestatu zuten eta Arkitekto Kolegiotik jaso ondoren, Ekonomi Batzordeak aurrekontua onartu zuen. Jarraian, bi kontratistei eskatu zitzaizen aurrekontua eta bigarrena, alegia, Fernando Cuesta jaunarena hobeagoa zela ikusi zen eta batez ere, teknikoei aurkeztutako kontratista zela Cuesta jauna. Uztaillean finkatu zituzten zehaztasunak Juanjo, Ricardo eta Rosa Marik, teknikoei kontaturik. Zehaztasun gehiago nahi izanik, Juanjo Zearretak emango dizkizue.

(*) Argitalpen batzordeak, Etxebarrin, gordailu berriaren inaugurazioa dela eta egindako bileraren hasieran irakurritako berri ematea.



Ezkerretatik eskubitara: Jean Haritschelhar, Jose Antonio Arana Martija, Endrike Knörr, Alfonso Irigoien, Jose M.^a Satrustegi, Fr. Luis Villasante - Euskaltzainburua -, Ricardo Badiola Uriarte, Patxi Altuna, Juan San Martin eta Juanjo Zearreta. (Argitalpenen Batzordea, Etxebarri, 1985-XI-25).

Abuztuan, hasi eta burutu zituen kontratistak ia obra guztiak, Ricardo Badiolak eta biok lanen jarraipen zuzena eginez, lehen parte guztian. Irail honen hasieran apal jartzearen kriterioa bateratzen dute hemengo lankideek, J. A. Aranaren iritzia ere jasoz. Iberduero eta Telefónica argi indarra eta telefonoa jartzeko jestioak burutzen ditu Juanjok. Aurretiaz Etxebarriko Udalarekin hasitako jestioak, baimen, zerga, etab., jarraitzen dute bertako agintari eta teknikoen harrera onez, baina honen berri Juanjo eta Rikardok hobeki eman dezakete.

Garraio lanak, alegia, Gordailu zaharretik berrirako aldaketarenak, Irailaren 10ean hasten ditugu. Hori prestatzeko lan bilera bat egiten dugu bezperan eta nolabait deitzeko, emergentzia plan bat nahi eta nahiezkoa dela ikusten dugu, alegia, Arbietoko bulego osoak bere lan guztiak utzi eta horretan murgiltzea. Materialak garraiatzeko Andres Jauregi larrabetzuarra kontratatzen da, beste mutil birekin eta kamioekin bera arduratuz. 10ean, Gordailu zaharreko apaletan genituen liburu solteak paketatzen dituzte: Rosa Mari, Josune, Bego eta Zorionek (neska hau noizbehinka, Liburu Azoka eta paketatzen lan bereziatarako hartzen dugu). Josunek batez ere, Jokin Zaitegiren fondoa paketatzen zuen. Lanik latz eta gogorrenak Irailaren 11, 12 eta 13an egiten ditugu kamioiekin. Gordailu zaharrean kargatzea: Xabier, Ricardo, Resu eta Rosa Mari egiten dute, Jauregiren bi mutilekin. Etxebarrin deskargatzea: Juanjo, Lutxi eta hirurok egiten dugu, bulegoaren arta izateko Bego utziz. Batez beste, goizeko 10etan hasi eta gaueko 8-10 bitarterarte. Lan astun honetan nesken portaera azpimarratu nahi nuke.

Harez gero, Rosa Mari eta Resuk ordena minimo batez, pilatzen dituzte liburuak sortaz-sorta, behin-behingo sailkaketa eginez. Orain, berehala, inbentario zehatza egiten hasi beharko da, ondoren, Durangoko Liburu Azokarako katalogo berria ateratzeko, azken urteotan ohitura hartzen hasiak garen bezala. Bestalde, Ekonomi Batzordeak bere azken bileran ikusi zuen, bilera berezi bat egitea Gordailuan bertan, liburuei irteera emateko plangintza prestatzeko hain zuzen.

Azkenik, Euskaltzaindiak zer argitalpen "stock" duen ikusi eta jabetzeko, Gordailu berri hau ikustera gonbidatzen zaituztegu.

ARGITALPEN GORDAILUAREN URTEKO INBENTARIOA

Etxebarri, 1985-XI-25

*Rosa Mari Arza
Gordailu-Salmenta Arduraduna
Xabier Gereño
Kontularia*

Azken hiru urteotan Azaroa aukeratu izan dugu, gordailuan ditugun liburu-
ruen inbentarioa Euskaltzaindiaren hileroko batzarrean aurkezteko, arrazoi bigatik
hain zuzen, urtearen amaiera ingurua delako eta Durangoko Euskal Liburu eta
Disko Azokaren bezperetarako daukagunaren berri jakiteko.

Aurton, gehienok jakingo duzuen bezala, Etxebarri herriko gordailu berrira
ekarri ditugu Euskaltzaindiak argitaratu dituen liburu eta fondo guztiak. Argital-
pen Batzordekoek izan zuten ikusteko aukera inauguratu zenean, alegia, Batzor-
dea bildu zen egunean, Irailaren 26an hain zuzen. Gordailu aldaketa eta ordena-
tzearen lan astuna burutu dugu eta urtea amaitzeko gelditzen den hilabete
t'erdiko zehaztasunekin, 1985.urteko salmenten balantze osoa eskainiko dizuegu
laster.

Batez beste liburu-
ruen zenbaketa zehatza eskeintzen da, Ordezkaritzetan dagoe-
naz bateratua. *Zaitegiren Fondoa –Euzko Gogoa* aldizkaria barne delarik– salmen-
ta katalogo berrian sartuarren, hil honetan bertan gordailu honetara iritsi denetik,
zenbatzeko betarik ez dugu izan.

Diruzko balorapena 2 kontzeptutan ematen da:

1. Salmenta prezioaren arabera.
2. Salmenta prezioak ematen duen balorapenari %60 kenduz, banatzaileei
egiten zaien beherapenagatik, eta ale kopurua trukez, opariz edo, eta euskaltzai-
nen artean banatzen delako.

EUSKERA

TITULUAK	ALEAK	PEZETAK
EUSKERA (1919-1953)	90 bild. 38 ale	3.136.000
EUSKERA, 1985,1		
EUSKERA, 1985,2		
EUSKERA, 1984,1	244	366.000

TITULUAK	ALEAK	PEZETAK
EUSKERA, 1984,2	312	468.000
EUSKERA, 1983,1	150	225.000
EUSKERA, 1983,2	210	315.000
EUSKERA, 1982,1	142	213.000
EUSKERA, 1982,2	124	186.000
EUSKERA, 1981,1	204	306.000
EUSKERA, 1981,2	78	117.000
EUSKERA, 1980,1	965	1.447.500
EUSKERA, 1980,2	212	318.000
EUSKERA, 1979,1	151	226.500
EUSKERA, 1979,2	107	160.500
EUSKERA, 1978,1	154	231.000
EUSKERA, 1978,2	510	765.000
EUSKERA, 1977,1	133	199.500
EUSKERA, 1977,2	15	22.500
EUSKERA, 1976	142	142.000
EUSKERA, 1975	105	105.000
EUSKERA, 1974	78	78.000
EUSKERA, 1973	130	130.000
EUSKERA, 1972	27	27.000
EUSKERA, 1971	15	15.000
EUSKERA, 1969-70	344	688.000
EUSKERA, 1967	14	14.000
EUSKERA, 1965-66		
EUSKERA, 1963,64	12	12.000
EUSKERA, 1962	13	13.000
EUSKERA, 1961	17	17.000
EUSKERA, 1960	11	11.000
EUSKERA, 1959	11	5.500
EUSKERA, 1958	12	6.000
EUSKERA, 1957	8	8.000
EUSKERA, 1956	19	9.000
Batzar txostenak 1974	11	2.200

EUSKARAREN LEKUKOAK

<i>Doctrina christioarèn cathechima</i>	171	171.000
<i>Linguae vasconum primitiae</i>	79	79.000
<i>Manual devotioenezcoa</i>	239	286.800
<i>Mendibururen idazlan argitaragabeak I</i>	255	637.500
<i>Mendibururen idazlan argitaragabeak II</i>	259	388.500
<i>Kredo edo sinhesten dut esplikatua</i>	547	547.000
<i>Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)</i>	769	769.000
<i>Catechima laburra eta Jesus-Christ</i>	321	321.000
<i>Eguia catolicac</i>	411	349.350

<i>Koplak salvamendu</i>	239	203.150
<i>Ongui iltzen laguntzeco itzgaiak</i>	348	348.000
<i>Bayonaco Diocesaco bi-garren catichima (1733)</i>	782	782.000

IKER

IKER-1: <i>Euskalarien nazioarteko jardunaldiak</i>	973	1.459.500
IKER-2: <i>Piarres Lafitte-ri omenaldia</i>	1.206	3.015.000
IKER-3: <i>Erizkizundi Irukoitza</i>	814	2.035.000

JAGON

JAGON: <i>Bertsolari txapelketa 1982</i>	4.145	4.145.000
--	-------	-----------

HIZTEGIAK

<i>Diccionario Vasco-Español-Francés: R. M.^a de Azkue</i>	2.029	14.203.000
<i>Voces bascongadas</i>	216	64.800
<i>Zortzi urte arteko ikastola hiztegia</i>	1.192	476.800
<i>Euskal herriko udalen izendegia</i>	8.767	1.753.400
<i>Euskal izendegia</i>	16.668	3.333.600
<i>Merkatalgo izendegia</i>	263	52.600
<i>Merkatalgo izendegia (Separata Euskera-1982)</i>	582	116.400

SOZIOLINGUISTIKA SAILA

<i>Euskararen liburu zuria</i>	1.698	1.698.000
<i>El libro blanco del euskara</i>	7.198	7.198.000
<i>Hizkuntz borroka Euskal Herrian</i>	76	45.600
<i>Conflicto lingüístico en Euskadi</i>	29	17.400
<i>Bases para un futuro plan</i>	9	7.200

GRAMATIKA ETA METODOAK

<i>Euskal Gramatika: Lehen urratsak - I. 2. argitalpena</i>	180	180.000
<i>Bergarako biltzar ondoko erabakiak</i>	2.121	336.300
<i>Euskal aditz batua</i>	491	491.000
<i>Hitz Egin I: Irakaslearen liburua</i>	525	420.000
<i>Hitz Egin I: Ikaslearen liburua</i>	267	160.200
<i>Hitz Egin I: Ariketa idatzia</i>	1.140	228.000

<i>Errekalde kaleko burruka</i>	81	8.100
<i>Aireportuko espioia</i>	73	7.300
<i>Kotxe lapurrak</i>	112	11.200
<i>Oinak</i>	68	27.200
<i>Ikasle Israelen</i>	6.596	1.319.200
<i>Oier, Xabier eta Amaiaren bihurrikeriak</i>	3.869	386.900
<i>San Braulioko eroa</i>	3.917	783.400
<i>Hitz Egin II: Irakaslearen liburua</i>	3.630	2.904.000
<i>Hitz Egin II: Ikaslearen liburua</i>	2.477	1.486.200
<i>Hitz Egin II: Ariketa idatziak</i>	4.248	849.600
<i>Frantses bi Donostian</i>	951	95.100
<i>Nire izeba maitea</i>	1.000	100.000
<i>Zoritxarreko zoriona</i>	50	5.000
<i>Harriak</i>	6.773	2.709.200
<i>Haizeak eraman ez dituen hitzak</i>	5.000	1.000.000
<i>Hitz Egin III: Irakaslearen liburua</i>	1.072	857.600
<i>Hitz Egin III: Ikaslearen liburua</i>	14.224	8.534.400
<i>Hitz Egin III: Ariketa idatziak</i>	8.412	2.523.600
<i>Itsasoa eta ni</i>	6.151	2.460.400
<i>Ipuin beltzak</i>	6.310	2.524.000
<i>Hitz Egin III: Gidaliburua mailaz maila</i>	3.992	1.996.000

BATZU

<i>Lenengo euskalegunetako itzaldiak</i>	137	34.250
<i>Euskal kantak 1959</i>	227	22.700
<i>Euskal kantak 1960</i>	279	27.900
<i>Urlo</i>	16	3.200
<i>Euskal liburu sorta-ipuin laburrak</i>	25	2.500
<i>Abarrak</i>	85	8.500
<i>Gutun liburua</i>	33	39.600
<i>Voces alavesas</i>	13	6.500
<i>Batzar txostenak 1974</i>	14	4.200
<i>Itxaskaria</i>	17	93.500
<i>Euskaltz. Biltzarra: Arantzazu, 1956</i>	7	3.500
<i>Adiitz laguntzaile batua</i>	32	6.400
<i>Bidalien Egiñak (I. Zaitegi)</i>	22	11.000
<i>La Lengua Vasca en la Rioja y Burgos</i>	16	8.000
<i>Agiriak</i>	719	719.000
<i>Anton Guzurretxe</i>	79	31.600
<i>Euskal antzerkia 1980</i>	470	188.000
<i>Mikel Zarateren prosa</i>	458	183.200
<i>Haur antzerki</i>	76	11.400
<i>Emeki itxaropendutako egunkaria</i>	341	68.200
<i>Karl Marx: teoria eta praktika</i>	335	134.000
<i>Andre zuria</i>	750	262.500
<i>Beldur naiz</i>	750	225.000

<i>Euskaltzaindiaren historia laburra</i>	512	153.600
<i>Las mil y una canciones populares</i>	298	44.700
<i>Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca /</i> <i>Euskaltzaindia</i>	1.683	4.207.500
<i>Euskaltzaindiaren Arautegi eta barne-erregelak</i>	762	152.400
<i>Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo</i>	322	273.700
<i>La Fonction de la douleur</i>	149	37.250
<i>Vida Vasca 1950, 51, 71, 72</i>	10	3.000
<i>Vida Vasca 1973</i>	8	3.200
<i>Vida Vasca 1974</i>	103	41.200
<i>Vida Vasca 1975</i>	14	5.600
<i>Vida Vasca 1976</i>	27	10.800
<i>Vida Vasca 1977</i>	109	43.600
<i>Vida Vasca 1978</i>	97	38.800
<i>Vida Vasca 1979</i>	24	7.200
<i>Vida Vasca 1980</i>	32	9.600
<i>Vida Vasca 1981</i>	27	8.100

PLATONEN LANAK

<i>Platon'eneko atarian</i>	229	91.600
<i>Platon I</i>	573	229.200
<i>Platon II</i>	144	43.200
<i>Platon III</i>	19	5.700
<i>Platon IV</i>	163	48.900
<i>Platon V</i>	150	45.000

GUZTITARA: 150.619 94.491.200

% 60 beherapena kenduz 37.796.480



Eskumatatik ezkerretara: Fr. Luis Villasante - Euskaltzainburua -, Ricardo Badiola Uriarte, Jean Haritschelhar eta Rosa M.^a Arza. (Etxebarri, 1985-XI-25).

1986.URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA

Donostia, 1985-XII-20

Jose Luis Lizundia

Azken urteotan bezala, arduratu naiz datorren urteko batzar egutegiaz txosten bat prestatzen. Geurtzerako ordea, beste egitura bat ematea nahi izan dut, alegia, ez bakarrik batzarren egutegi soila, baizik eta hileroko batzar arrunten eraberritzeaz proposamena egin. Lekarotzen ere gai hau aurkeztu bai nuen, eta baita ere Jardunaldi haietan eta harrez gero batzarretan aipatu diren akademi langai nagusiak azpimarratzeko moduan gaude.

Lau ataletan banatzen dut, beraz, txosten hau: batzarreen eraberritzeaz, lehendabizikoa; bigarren, 1986. urtean Euskaltzaindiak egiteko dituen egintza nagusiak; hirugarren, ospakizunak eta azkenik, ohizko batzarre egutegia.

* * *

Lekarotzera txostena eramatea agindu zitzaidan, eta hala egin nuen “Akademian batzarreak eraberritzeaz” izenduna aurkeztuaz. Egia esan, hain Barne Jardunaldi beteak izan zirenez eta txosten hau larunbat arratsaldean azken orduan tokatu zenez, banatu besterik ez zen egin.

Hala eta guztiz ere, harrez gero zuon zenbait eritzi jaso ditut eta une honetan gaia hobeki zentratzeko moduan nagoela esango nuke. Horregatik, lehen-go txostenaren zenbait pasarte bakarrik ekarriko ditut hona.

“Gaur egun, azken ostiraleko batzarreak bi parte ditu: bata, goizekoa, euskaltzain osoena —eta gaiaren arabera, Arautegiaren 17 eta 20. Artikuluek dioten bezala espreski gaiaren arabera deituak diren urgazleek parte hartzen dutena— eta bestea, arratsaldekoa, Euskaltzaindiko guztiei deitzen zaiena.

Goizeko batzarreak gaur duen alde txarra zera da: Akademi lanetarako denbora gutxi gelditzen dela, hasten garen orduan hasita eta batez ere, Euskaltzainburugoko eta Erakundeko barne gai asko jakin edo tratatu behar izaten direlako. Arratsaldekoan berriz, goizekoaren eta Batzordeen kontu ematetik aparte txostenak irakurtzen dira, ondoren, elkarrizketa eginez. Hau ere bidezkoa izanik, lan akademikoen, batez ere, arauemaile erabakizunen mesedetan ez doa, bata besteari denbora kentzen diolako.

Bestalde, euskaltzainak Euskal Herian zehar hain sakabanatuak bizi bait dira, ezin dira, Barcelonan edo Madriden bezala astero bildu.”.

Beti ez bada ere maizetan “Zuzendaritza eta esku artekoak” deriztan gaietan igarotzen dugu denborarik gehiena. Joan den hilean, esate batetarako, zortzi gai genituen aurrez prestatuak, bakoitzari “antecedente” edo argibide kopiak batzarrean eramateko moduan, eta horrez gain, beste hiru azken ordukoak. Oroitzen naiz, ordu bi t’erdietan batzarrea amaitu ondoren euskaltzain oso batek, Euskaltzainburuari eta bioi egindako komentarioa, oso nekagarria egin zitzaiola, alegia.

Hau guztiau, bistan denez, Euskaltzaindiaren beraren egiteko akademikoen kaltetan doa. Honen kontrapuntu bezala hau esaten nuen Lekarotzen: “Adibidea jartzeko, Gramatika Batzordeak bere bilerak goiz eta arratsalde egiten ditu, bidaiak hobeto aprobetxatuz. Bestalde, nola beraiek gai akademikoetan bakarrik murgiltzen diren gehienbat, ez dute hileroko batzarreek dituzten beste arlorik, eta hori ere bentaja handia da.”

Barne Jardunaldi haietako txostenean hiru alternatiba edo aukera ikusten nituen; eta lehen esan bezala, zuotariko batzuri entzun ondoren, bigarrena ikusten dut bidezkoena. Hara hor zerbait borobildurik, zuoi proposatzen dizuedana:

— hileroko batzarre arruntak, Barne Erregelen 13. Artikuluak esaten dituenetan egiten jarraituko genuke, eta azken ostiraletan, betiko ohitura lege eginez. Goizez, gai akademi soilez —bertara euskaltzain oso guztiei deia igorritz eta besteei, Arautegiaren 20. Artikuluaren arabera bakoitzari— osatuko litzateke. Arratsaldekoan, hiru mailako Euskaltzaindikide guztiei deia bidaliz, orainarte bezala, hiru ataletan banatuko litzateke batzarrea: 1. goizeko eta bezperako gaien berri; 2. batzordeen deskargu edo zuripena; 3. batzarkide baten edo pare baten txosten edo estudioak, jarraian bere solasbide eta guzti, denborak ematen duen neurrian.

— Bezperan, alegia azken ostegunean, arratsalde biltzea aski litzateke, arruntki behintzat. Bertan zuzen-zuzenean gai akademiko ez direnak tratatuko lirateke: erakunde harreman mailakoak: Diputazio, Gobernu, Hizkuntz Akademi, Unibertsitate eta beste; barne administrazio-antolakizunekoak, batez ere Zuzendaritzak edo bere kargudunek kontu eman beharrezkoak; Diruzaingoaren diru kontuen hiruhilabeteroko errendapena; izendapenak, batzordeetakoak, epaimahaietakoak, errepresentaziozkoak, etabar. Bezperan, baita ere, bilduko lirateke arruntki bere egutegiarekin biltzen ez diren batzordeak, adibidez, Argitalpenetakoak, bere Erregela Berezien 4. Artikuluak dioena betez; Euskaltzaindiaren barneko edo ingururuko zenbait epaimahai; batzorde suntsikorrak ere, biharamuneko goizeko batzarrean beraien erabaki proposamenari azken ikutuak egiteko, eta abar.

— Euskaltzainburugoak ere aukera honekin baliatuko beharko luke eguerdi aldera bere bilera egiteko.

Egia da bide honek gure batzarre gastuak ugaritzen dituela neurri batean, batez ere urrunekoan ostatu arlokoak, baina bestalde, ez dut bide merkeagorik ikusten, zeren eta beste egun baten biltzea garestiago izango bait litzateke, bideetan galtzen den diru eta denbora kontutan izanik; eta denborak ere badu bere prezioa guztiontzat. Argibide gisa, alboan dakart gerra aurreko batzarre egutegiaren estudioa, eta argi eta garbi frogatzen da orduan ere segidako bi egunetako batzarreak egiten zirela, gaur baino gai gutxiagorekin. Gero gerra ostean Euskaltzaindiaren martxa geldotu zela eta egun batetako ohitura hartu

bazen ere, gaur egun Akademia honek dituen eginkizun, harreman eta erritmoa-
rekin ito egingo da edo burokraziakeriak akademitasuna jango du.

Bezperako batzarre horretara, beti ez da zertan egin, baina bai gaiak eskatzen
duten guztietan, euskaltzain oso guztiei bidaliko litzaieke deia, eta gaiaren arabe-
rako euskaltzain urgazle bakanei ere. Euskaltzain osoek eskubide hori izan arren,
ez lukete Arautegiak bere 17. Artikuluan aipatzen duen joateko obligazioa izango
agian. Bere lanagatik, edo urrun bizi direlako, edo Zuzendaritza edo batzordeetan
hainbeste parte hartzen ez dutelako libreago egongo lirateke. Hori bai, gaiaren
arabera zuzenago partaide direnei batzarre deia azpimarratuago iritsi beharko
genioke.

Beraz, heldu den urtean batzarre sistema hau ezarriko luke Euskaltzaindiak,
hala baderitzazue.

* * *

Egutegia burutu baino lehen, datorren urtean zer eginkizun dugun ikusi
beharko genuke, batez ere egintza nagusiak, eta hauen artean printzipalena edo
behinena. Begien bistan izanik, baina bere egutegi eta ibilbide propioekin ditugu
hiru programa nagusi: 1. *Orotariko Hiztegi Nagusia*, Mitxelena-Sarasolak egiten
dihardutena, hain zuzen I Batzordearen esparrukoa; 2. *Gramatikagintza*, hain
murgildurik eta buruz buru II Batzorde osoa lantzen diharduena, eta 3. Euskal
Herriko *Atlas Linguistikoa* III Batzordearen talde propio batek martxan jarrita
duena. Hiru batzordeok eta besteek ere izango dituzte arlo arruntago edo xumeagoak.

Lekarotzen, eta harrez gero, Bilboko Maiatzeko batzarrean Mikel Zalbidek,
euskaltzain urgazle trebeak, ekarri zigun plangintzaren garapen bezala, badirudi
1986. urterako, eta hurrengoetarako lehen esku arteko egintza nagusi bezala, hitz
elkartuena eta eratorriena izango dela. Miren Azkaratek, Urrian, Donostian,
aurkeztu zuen lehen txostenaren, eta gaur bertan, Pello Salabururekin batera
dakarren arloa jorratu beharko da batetik, eta Koldo Mitxelenak ia buruturik
zuen arlotik, bestetik; baina biok bata bestearekin duten zerikusia kontutan
izanik. Hau izango litzateke, gure ustez, Euskaltzainburuak eta biok gai hau
sakondu genuen txosten honen hari nagusiak tratatukeran, 1986.eko gai akademi-
ko printzipala, beste hiru programa berezietatik kanpo, alegia, orokorki eta arrunt-
ki, goizeko batzarre arruntetan aztertzekoa eta lantzekoa, maileguzkoen antzera,
baina sistema berrian dedikazio handiago eta libreagoarekin jardutekoa. Ez ahanztz,
gainera, hitz Elkartu eta hitz eratorriak Akademia baten lehen lehenengo eginki-
zunean sartzen direla, Hiztegi gintzakoa hain zuzen. Beraz, gure egutegian, azken
ostiraleko goizeko batzarre arruntetan, eten gabeko lehen gaia ildo honetatik
joango litzateke, beste gai akademiko eguneragokoak izango direlarik, noski.

Beste ekintza nagusi bi ere baditugu, bere kalendariora pentsatua dutelarik.
Bata, Martxoaren erdi aldera Gasteizen, Jaurilaritzako erakunde biren babes eta
partaidetzaz egitekoa, gure IV Batzorde akademikoari dagokiona, hain zuzen,
alegia, *Toponomia edo Toponomastika I Jardunaldiak*. Hizkuntz Politikarako Zuzen-
daritza eta Herri Administrazitako Euskal Erakundea (I.V.A.P.) dira hain zuzen
aipaturiko babesleak, eta joan den hiletan, Batzordeburuak eta Idazkariak, hain
zuzen Plaza Barrian Ekainaren 20an batzordeak egin zuen bileratik harrez gero
Mari Karmen Garmendia eta Eneko Oregirekin harremanetan gaudelarik. Jardu-

naldi hauen helburu orokorra: toponimiaren arazoetan lehen eskuko argibideak eskaintzea. Nortzuei? filologi ikasle, erakunde eta udal itzultzaile eta ikerle orori, ikusirik zer beharizan handi dagoen eremu honetan.

Bigarrena, Euskal ebakerari buruzko Jardunaldiak, hain zuzen dakizuen bezala Durangoko Euskal Jai sonatuen mendeurrena dela eta Tabirako uri hartan egitekoak. "Azentua eta doinua", 1. Zer diren ezagutu, 2. Nola erabiltzen on diren eta nola erabili behar liratekeen" joan den hileroko batzarrean aztertu genuen bezala. Jardunaldi liratekeen egitaraua eta txostengileak nolabait Azaroan aipatu ba genituen ere, erabat zehaztu eta finkatu beharra dago lehen bait-lehen.

Oker ez banago Euskaltzainburu-ordeak aipatu zidan urte birik behin Barne Jardunaldi astunegiak egin beharrean, hiru egunetakoak, arinagoak, egun t'erdikoak urtero egitea. Behar bada ez da ideia txarra, batez ere hurrengo urteko plangintza egiteko, adibidez, Barkoxen, Irailean, Etxahunen 2. mendeurrena ospatuz, eta bide batez, errondan Zuberoara V. Barne Jardunaldiak eramanez. Lehenago egitea nahi izan ezkero, Uztailan, Lapurdin izan dezakegu aukera, Xarrittonen sarrera hitzaldiko bezperan, Baztanen Salabururenarekin baliatu ginen bezala. Heldu den urteko akademi plangintzaz izan beharko luke, ene ustez, eta ez barne edo egitura gaiez.

III Batzordeak, alegia, Dialektologiakoak, urtero antolatu ditu bere Jardunaldiak, edo kanpora edo barnera begira, Deban, Donaixti-Ibarren, Markina-Xemeinen, Uztaritzen eta Gasteizen, bost aldiz, bost herrialdeetan egin direlarik. Datorren urtean antolatzeko asmorik balute, berehala jakitea komeni zaigu, egunak eta tokiak bilatzeko. Maileguzko hitzena prestatzeko bi aldiz antolatu genituen Jardunaldiak, bietan Uztaritzeko Landagoienen. Urriko batzarrean konposizio edo/eta deribazioen alor bikoitza lantzen hasteko, agian, maileguzko hitzei buruzko Jardunaldien antzerakoak antolatzea komenigarri izan zitekeela. Ez zen ezer erabaki ordea. Hau ere garaiz jakin beharko genuke, antolakizuna gaurtik biharrera ezin baita egin.

* * *

Ospakizunei buruz, 1986. urtean jausten diren mendeurren garrantzitsuenak, euskal literatura historietako liburuak, A. Villasante eta S. Onaindiarenak aztertu ondoren, Jon Bilbaoren bibliografia eta **euskera** agerkariak hauek dira: Etxahun Barkoxekoaren bigarren mendeurrena; hiru kaputxino euskaltzaleren ehunurteburua: Aita Donostia, Urtarrilean; Aita Intzarena, Urrian (bizi dena oraindik) eta Aita Oieregirena, Abenduan; Durangoko Euskal Jaien mendeurrena ere 1986an da, arestian esan bezala. Ez dira, asko, beraz.

Beste ere batetako ospakizuna ere programatu beharra dugu, alegia, Piarres Xarritton euskaltzain berriaren sarrera hitzaldia, bere sorterrian, Hazparnen, egitekoa. Lehendabizi Martxoan egitea pentsatua bazeukan ere uda aldera atzeratzea eskatu zigun; beraz, Maiatzean Durangoko Jardunaldiak egitekotan, eta Ekainean batzar arrunta egitea komeni zaigunez, Uztailan egin daiteke.

Pierre Topet "Etxahun" Barkoxekoa nor zen esateko, ni baino trebeagorik badago hemen, adibidez, Euskaltzainburu-ordea bera. A. Onaindiak esate baterako, Etxahunen jaiotza 1786.eko Uztailaren 26an jartzen du, baina Haritschelharrek

esan zidanez, ezkontza zibiletik elizakora egon daitekeen data desberdintasunetik oker dator hila. Badirudi, Irailaren 26an jaio zela. Euskal olerkari honek merezi izan badu **EUSKERA** zenbaki oso bat, argi dago datorren urtean Euskaltzaindiak bere Barkoxera joan behar duela. Horretarako, Irailaren 26-27 egunak hautatu ditugu.

Joakin Eugenio Senosiain Otxoteko Oieregiko semea zenez, Kaputxinoen Ordenan sartu zenean, Aita Buenaventura Oieregi izena hartu zuen, Ordenaren arauetan ohi zenez. 1886.eko Abenduaren 7an sortu zen, euskal lan bikainak buruturik. Zenbait izenorde ere erabili zituen beraren lanetan, "Arbelaitz", "Osinburu" eta "O". Euskal lanik garrantzitsuenak "Zeruko Argia" eta "Irugarrengo frantziskotarra" aldizkarietatik aparte hauek izan ziren: *Diccionario Castellano-vasco y Vasco-castellano de voces comunes a dos o más dialectos* (Bilbao, 1929). "Tipografía General". *Observaciones para evitar, en cuanto posible, las diferencias verbales de los dialectos bizkaino y guipuzkoano* (Bilbao, 1929). "Tipografía General". Beste eliza gaizko dozena erdi liburu idatzi zituen, paper asko argitaratu gabe ere utzirik.

* * *

Jose Gonzalo Zulaika Arregi "Aita Donostia" euskaltzale eta musika ikertzaile famatua ere 1886.eko Urtarrilaren 10ean jaio zen. Zuzenean, euskal idazle izan ez bazen ere, euskaltzain urgazle izendatua izan zen beraren euskalari lanengatik.

* * *

Migel Olasagarre Zubillaga da munduko "Damaso Intza"koaren izena. Hain zuzen, euskaltzain osorik zaharrena dugu, 1886.eko Urriaren 19an jaio bai zen. Gerta daiteke eta hala desiatzen dugu, mendeurrena bizirik dagoela ospatu ahal izatea.

* * *

Ene ustez hiru kaputxino euskaltzale hauei batera egin beharko genieke ospakizuna. Garrantzirik gehien Aita Intzari emanik. Bi nafarrak izanik eta Aita Donostia bera ere Lekarotzi lotua, Iruñean egin beharko genuke ospakizun hau edo Nafarroan beste nonbaiten bederen, Aita Intza han egonik gainera. Azaroan jarri dugu omenaldi hau, Intza eta Oieregiren data bien tartean.

Durangoko "Fiestas Euskaras" edo Euskal Jaien mendeurrena handikiro ospatu nahi dute Durangon. Horretaz batzorde batek jadanik, lan ugari egin bai du eta urte osorako programa oparoa prestatu. *Euskal Erria* eta *Revista de Vizcaya* garai haretako aldizkarietan, Euskal Jaiei buruzko zehaztasun ugari datoz eta hemen ez ditugu azalduko, bakarrik hau bertako lehiaketetan "saio" arlokoa, Aristides de Artiñanok irabazi zuela, "Proyecto de Academia de la Lengua Vascongada" izenekoa, gero Euskaltzaindia sortzeko baliagarri izango zena, hain zuzen. Maiatzen izango ditugu, egin den egitarau orokorraren arabera, gure ebakerrari buruzko Jardunaldiak, euskarazko liburu azoka bereziko egun berberetan, Gorpuztiko "zubian" hain zuzen.

Beste mendeurren xumeago bi ere baditugu, bata, Juan Bautista Merino Urrutiaren jaiotza. Ohorezko euskaltzain errioxar' hau Ojacastron sortu bai zen 1886.eko Irailaren 25ean.

1886.eko Otsailean sortu zen Berlingen "Baskische Gesellschaft" Elkartea eta urte bereko Urriko lehenean hasi zen *euskara* aldizkaria. Ehunurteburu honetaz ere zerbait egitea merezi du?

Beraz, hau guztiau kontutan izanik, 1986.urterako egutegi proposamen hau dakarkizuet:

Urtarrilaren 30?-31	hileroko batzarre arruntak, Bilbon.
Otsailaren 27?-28	hileroko batzarre arruntak, Donostian.
Martxoaren 20, 21, 22	Toponimia I Jardunaldiak eta hileroko batzarreak, Gasteizen.
Apirilaren 24?-25	hileroko batzarre arruntak, Donostian.
Maiatzaren 29-30-31	Ebakerari buruzko Jardunaldiak eta hileroko Batzarreak, Durangon
Ekainaren 26?-27	hileroko batzarre arruntak, Donostian.
Uztailaren 18-19	P. Xarrittonen sarrera hitzaldia Hazparnen eta hileroko batzarreak, Baionan?
Abuztuaren 29?	hileroko batzarre arruntak, Donostian, beharrezko balira.
Irailaren 26-27	Etxahunen II. mendeurren ospakizuna eta hileroko batzarreak Barkoxen. V. Barne Jardunaldiak edo Dialektologi Jardunaldiak?
Urriaren 30?-31	hileroko batzarre arruntak, Donostian.
Azaroaren 27?-28	Aita Intza, Aita Oieregi eta Aita Donostiaren mendeurren ospakizuna, Iruñean edo Nafarroan.
Abenduaren 18?-19	hileroko batzarre arruntak, Donostian.

NAFARROAKO AZTERKETAK

(1985-UDAZKENEKO DEIA)

Euskaltzaindiak Ekainaren 27-an Iruñeko Ordezkaritzan eginikako bileran, eta hil bereko deiaren berri jakin ondoren, erabaki hau hartu zuen:

“Ez du aurrerantzean Nafarroan ere azterketarik gehiago egingo”.

Abuztuaren 6-an Euskaltzaindiaren Idazkariak erabakiaren berri ematen die Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Kontseilariari eta Unibertsitateko ez den Irakaskuntza zerbitzuko Zuzendariari.

Nafarroako Gobernuak Irailaren 11-an Euskararen gaitasun agiria ematea bere gain hartzen du, eta Urriaren 30-ean 1.535/85 Agindua hedatzen du. Agindu honetan, legez nola eratu behar den eta azterketa zereginak nork jaso behar dituen zehazten da, eta, hori aurrera eramateko, Hezkuntza eta Kultura Saila beharrezko diren pertsonen eta gaiez baliatuko dela. Honetarako:

1. Ahoz zein idatziz Euskararen ezagupidea erakusten duen Gaitasun Agiria sortzen da.

2. Agiri hori eskuratzeko gainditu behar diren frogak egitea ontzat harturik 1985-garreneko bigarren deia iragarten da, Euskaltzaindiak Ekainean eginikakoaren segida modura.

Dei honetarako Euskaltzaindiak orainarte ezarri dituen erako azterketa eredu erabiliko dela esaten da, azterketa bi zatitan banaturik, bata idatzizkoa eta bestea ahozkoa, eta Agiria eskuratu ahal izateko bi zatiak gainditu behar direla.

3. Hezkuntza eta Kultura Sailak, Euskararen Negoziatuaren bidez, 1985-86 ikasturteetik aurrera, Foru Aginduz, Euskararen Gaitasun Agiria, programa zehaztea, azterketen prestakuntza moldatzea, Legezko Azterketa Batzordea, baliokidetzatza, eta abar, arautuko omen ditu.

Aurrean esaten denaren ondorioz, 1985-garreneko Azaroan Nafarroako Agerkari Ofizialean izena emateko epea jakinerazten da, eta “El Sario” Eskolan, Azaroaren 23-an, idatzizko frogak egingo dela zehazten.

Era berean, Azaroaren 18-an, 1659-85 Foru Aginduaren bidez, Euskararen Gaitasun Agiria eskuratzeko egingo den deirako, Legezko Azterketa Batzordea izendatzen da, eta izango duen Zuzendaritza, azkenengo hau honela:

Buru: Alfonso Irigoien.

Kideak: Andres Iñigo eta Pakita Zabaleta.

Idazkari: Juan Jose Zearreta.

Legezko Azterketa Batzordearen eta bere Zuzendaritzaren ahalbideak, lan egiteko modua, eta bestelakoak, dei honetarako, orainarte Euskaltzaindiarenetan erabili den bidetikoak izango direla esaten da.

Azterketa idatzia, iragarririk zegoen erara, Azaroaren 23-an egin zen, eta 644 azterketari aurkeztu ziren, Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroatik joanak.

Azterketa hau Euskaltzaindiaren batzordekideek prestatu zuten eta 256 azterketa zuzendu ere bai, (% 39,75).

Idatzia gainditu zutenak Abenduaren 7-an ahozkoa egitera deitu izan ziren, eta bi zatiak 161 lagunek gainditu berri dituzte (% 25).

Honekin Euskaltzaindiari nola joan diren gauzak jakinerazi nahi diogu, ageri denez Nafarroako Gobernuak beste bide bat hartu baitu. Edozein modutan ere, etorkizunean ere beharrezko izango da Gasteizko eta Iruñeko Euskararen Gaitasun Agiriak, baliokide izango baitira argi eta garbi, elkarren berri izanik eta programa berdintsuen mende egonik jendeari eskuratzea, eta baita azterketa, aukerak murrizteko, egun berean edo beretsuan egitea ere, eta abar.

Bilbon 1985-garreneko Abenduaren 16-an.

A. IRIGOIEN
J. J. ZEARRETA

HILBERRIAK

ANTONIO TOVAR OROITZAPENETAN (1911-1985)

Abenduaren 14ean galdu dugu, hainbesterentzat ustekabean, Antonio Tovar Llorente, ohorezko euskaltzaina, ikertzaile bezain irakasle entzutetsua. Ez da hau, besterik badirudi ere, berri alferra nahiz dagoeneko hedatua izan. Inoiz ezagun izateak ez baitu iraukortasunik segurtatzen. Berria berriaren gain pilatzen da, izan ere, egungo bizimoduaren ito-beharrekin, eta maizenik berehalakoan entzuna berehalakoan ahaztu ere ohi da.

Alde eta alderdi ugari ditu Tovar-en bizitzak, ez guttiago bere lanak. Beste-tangoak areago izan dira, esango nuke nik, gure artekoak baino. Halaz guztiz, ordea, urriago direlako batetik eta geurekikotzat dauzkagulako bestetik, ez lukete ixilpean gelditu behar. Eta hemengoena eta geurekikoena hizkuntza denez gero, Euskaltzaindiari dagokio, etxeko zuenez, haren izena eta omena goraiatzeari.

Tovar, azken urteotako —hamarnaka hartzen ditut hauek— borroketan, eta borroka izan da estari nahiz nabari Espainian 1936z gerozko jarduna, zubigile izan genuen beste zenbaitzuekin, ez haatik gehiegirekin. Hara arterainokoak ez baitziren beti izan esan ohi zuten bezain ustelak, ezta gerokoak ere zenbait sineskorrek eta gehiago lotsagabek aldarrikatu izan duten adina heldu-zorituak. Horrek erakusten digu, premiarik bada, ez dela beti, nahi eta nahi ez, kaltegarri eta are galgarri harako zubigintza hura, aski nabarmena behin batean gure etxe inguruan. Ez du izan behar ere, diodan luzatu gabe, osasungarri eta salbagarri ezinbestearen ezinbestez.

Tovar-ek argitaratuak, eta hainbat lekutan jaso zituen ohoreak, ez dago hemen aipatu beharrik, beste bi lekutan bederen agertzen baitira. Hona zeinetan: *Homenaje a Antonio Tovar ofrecido por sus discípulos, colegas y amigos*, Madrid, Gredos, 1972, eta *Nauicula Tubingensia. Studia in honorem Antonii Tovar*, Tübingen, Gunter Narr Verlag, 1984 (= *Tübinger Beiträge zur Linguistik*, Bd. 230).

Berak jaso zuen, eta hemendik hasiko naiz, Salamancako Unibertsitatea, behialako —1500 inguruko edo— erramu hostoak zimelduxe baitzituen aspaldidantik, Unamuno gora-behera, zenbait buruberoren ametsetan ez bada. Handik, urruti xamarreko xoko hartatik, zabaldu nahi izan zuen, kosta ahala kosta eta ez errietarik gabe, jadanik lege zaharra zena munduaren lau bazterretan: ikas- eta irakaspideak jende saiatuaren eskuetan behar dutela egon, mugituko badira. Han-hemengo saio eta erdiespenen berri dakienaren eskuetan. Horixe izan zen, hitz batean biltzeko, ukabil gogorrez sartzen ahalegindu zen seriotasuna.

Hizkuntzalari eta filologo, maiz sumarazi zuen bere izena filologia klasikoak, harako *Altertumswissenschaft* hura, nazioarteko mailaraino altxatu zuen mordox-karen erdian. Eta ez da azter-sail gehiegirik, baten bat aurkitzen baldin bada, horren pareko goraldirik nabaritu zaionik Francoren amaigabeko garaietan.

Latina eta grekoak, gure eremuko hizkuntza klasikoak, ez dabilta bakarka: badute lagun senide piloa. Hori dela eta, gainerako hizkuntza indieuroparretan ere (Mirandek zerabilen deitura darabilt) saiatu zen Tovar: *Manual de lingüística indoeuropea* zelakoan zuzendari eta lankide izanik, besteak beste. Ez baitzituen, sarriegi gertatu ohi denez, urrutikoak gogokoago bertakoak baino: hortik etorri zitzaion mendebal-aldeko hizkuntza zeltikoetarako joera. Berari zor zaio, Gerhard Bähr eta Caro Barojarekin bateratsu, zeltiberikoaren nortasuna eta hedadura ezagutzea eta ezaguteraztea. Bazen beste horren ahaide hurbil eta ezkutuagoa, lusitaniarra, Tovar-ek zeltiberikotik bereizten eginahalak egin zituen. Zuzen eta arrazoiz, nik uste, sesioak artean bukatu ez badira ere. Bukatuko ere nekez, testuak ugaritzen ez diren bitartean.

Aurrerabidean sartu baziren arlo horretan, Gomez Morenoren eriteitze edo aurkikundeari eskerrak izan zen. Hark idoro baitzuen —idoro, bai, baina ez behar bezain laster barreiatu— Hispaniako izkribu zaharren mordorik aberatsenaren irakurkera egokia, eta ondoren izan zituen langile ausartak aipatu berriak izan ziren: Bähr Euskaltzaindikoa (1940ko martxoa baino lehen burutua omen zuen tesia), Caro eta Tovar. Irakurkera hori izan baitzen aspaldidaniko zenbait auzi osotoro erabaki zituen. Ikur horien azpian zetzana, “iberiko” izenaren estalki-pean, ez zela, Schuchardt-en argudioen arabera, hizkuntza bat eta bakoitza; bi zirela hauek, guttieneko kontuan. Eta biok, gainera, bata bestearen “ez aide ez bernaje” zirela, “erdararekin euskera” bezala, Kardaberazen iritziz.

Sail honi loturik argitara atera zituen lehen lanak liburu batean bildu zituen Buenos Airesen, han zebilelarik irakasten: *Estudios sobre las primitivas lenguas hispánicas*, 1949. Hor eta geroago agertu dira Tovar-en saioak horietarik bat, iberikoa, euskarari hurbiltzeko. Ahaidetasuna, eta sortzezkoaz ari naiz (ez ‘egokitasuna’ deitu izan dudana), ez zuen Tovar-ek beste zenbaitek bezain estu lotzen. Nolanahi ere den, ez du bide horretan ez hark ez bestek urrats luzerik egin. Ezin egon gainera hobe ustean, ustekabekorik gerta ez dadino.

Harri dezake norbait agian Tovar-ek, eta bestek, euskara mintzaira horien artean sartzeak. Ez ote dugu bada euskara oraingoa, besteak ez bezala? Ez da hori ukatuko duenik, ezta ere euskarari orduko izatea aitortuko ez dionik. Eta orduan, gaur lagunez murrizturik gelditu bagara ere, elkarren aldameneko ziren gurea eta besteak, Gallia aldeko galoaz bestalde. Eta hori mesedegarri izan zaigu, kidetasun horren bidez euskarak badituelako auzokoein harremanak, ahaide ez diren auzoak badira ere. Kidetasun horren ezaugarri izan dira *Coloquios sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica*, gero *paleohispánicas*, direlakoak. Azkeneko bilera aurtan egin da Gasteizen, Fakultatearen itzalpean, joan den udaberrian. Eta ez daki oraindik inork nor jar dezakegun eratzailleen buru, Tovar-ek umezurtz utzi duen lekuan.

Etxe eta ate izan zituen irakastaldiak ez ditut aipatu besterik egingo. Salamanca eta Madril en aritu zen (eta hemendik bere gogoz aldegin zuen lagunei egin zieten bidegabekeria zela medio), Ameriketara ibilia zen behin baino gehiagotan, bai Ipar- bai Hego-aldean. Azkenik, Alemanian kokatu zen luzaroan eta hil

arteraino urteoroko irakastaldiak han egiten zituen. Bildu zituen bereizgarri oho-ragarriak lerro lerro ematea eginkizun luzeegia genuke. Aski izan bedi, oraingoz behintzat, huskeri hau honera aldatzea. Goien osorik izendatu ditugun omenaldietarik lehenbizikoan Euskaltzaindia dator aitzindari, 1947an urgazle (horrela esaten zen noski garai hartan) hautatu zuelako urteen buruan ohorezko lagun aukeratuko zuena.



Durangoko udaletxean, 1980-XII-8, XV. liburu eta Disko azokan:

Eskumatatik ezkerretara: Sabin Goikolea, Gerediaga Alkarteko Burua; Patxi Zurikarai, Bizkaiko Foru Kultur Diputatua; Antonio Tovar eta Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindikoko Idazkari-Ordea.

Hau eta horrelakorik hartu bazuen guregandik ez zen hutsaren truk izan. Aldi luze bezain tristea ezagutu dugu batzuek, debekuz eta oztopoz betea, eta Tovar genuen orduan etxean nahiz atzerrian izan genitzakeen laguntzaile bakane-takoa: alfer lana litzateke, beraz, eta ez batere erraza, beregana zenbat aldiz eta nolako estuasunetan jo dugun bana-banaka kontatzea. Hizkuntza gaietan ohi baino eskuzabalagoa zelarik (Salamanca agertu zen bera buru zenean, esate baterako, Carles Ribaren *Salvatge cor*, ez izena ez izana itxuraldatu gabe), bazuen haurtzarotik gurekiko lotura eta gureganako joera, hizkuntza gaietan bizi zeino bizirik iraun zuena.

Berea izan zen, giro hobean jaio zen Bordelakoaz landa, alde honetako lehen pausoa, "Cátedra Manuel de Larramendi de lengua y literatura vasca" zelakoa, eta delakoa, abiarazi zuenean. Bazituen bere mugak, lurralde haiek ezagutu dituenak dakienez, diruz gaizki hornitua zegoelako, besteak beste, baina han izanak dira, adibidez, Bouda, Lafon, Martinet, Bottiglioni eta abar. Hemengo abarren artean, Altuna, Gorostiaga eta lerro hauen egilea.

Euskararekiko liburuak baizik ez ditut honera ekarriko. *La lengua vasca*, jakina denez, bi bider argitaratua da. *Mitología e ideología*-k, arestikoa denez, ez du noski oroikarririk behar. Schuchardt-en *Primitiae linguae Vasconum: Einführung ins Baskische* ezaguna ez dut uste berak itzulerazi zuenik, bai ordea Salamanca argitarazi (1947). Gero bigarren edizioa berak atera zuen alemanez, Tübingen, Max Niemeyer 1968, sarrera eta osagarriekin. Eta euskara, antzinako hizkuntzen aldakan, guttiagok ezagutzen duen liburu honetan aurki daiteke: *The ancient languages of Spain and Portugal*, New York, Vanni, 1961. *El euskera y sus parientes*, Patxi Etchebarriak zaindua, itzuri egin zait; baita ere, nora ezean, idatzi dituen hainbat artikulua, **Euskera**-n bertan esaterako, oraindik ere irakurgarri direnak eta ez beti irakurriak.

Gizona nolakoa zen ezin hitz laburretan esan. Eskuzabala ez ezik, diruaren goserik ezagutzen ez zuena. Langile amorratua. Askojakina, baita bere sailetik kanpoko arazoei buruz ere edota hauetan batipat askojakin. Beregandik geurok geure begiz ikusi ez genituen gertari eta pertsona ugariren berri sakon zuena. Eta ez zuen bereizkuntzarik egiten besteren pentsamoldearen arabera. Nerau naiz, inor izatekotan, egia horren lekuko. Gainera, Salamancara eraman ninduenean, ez nintzen artean dotore ere, bion adiskide batek Bilbon orain berriro gogorazi zigun bezala.

Goian bego, hemen esan ohi zenez eta zenak onartuko zukeenez.

P.S. Gogoangarri da, gorago esan ez bada ere, Tovar izan zela Florentino Castañosek Madrilen aurkeztu zuen tesiaren zuzendari: *La formación del plural en la lengua vasca*. Bi liburutan, izen banarekin, agertu da gero: Publicaciones de la Diputación Foral del Señorío de Vizcaya, 1979. Gu bete-betean ukitzen gaitue-nak goiko izenburua darama, eta ez dut uste behar adina erabiltzen dugunik, komeni litzaigukeelarik.

Donostia, 1986-II-28

Koldo Mitxelena

EUSKERA XXX

(1985,2)

Zuzenkizunak / Fe de erratas

<u>Orrialdea</u>	<u>Lerroa</u>	<u>Esaten du</u>	<u>Esan behar du</u>
282.	2.	Irunerria	Iruñerria
282.	10.	hizkuntzetara	hizkuntzatarra
337.	12.	ete	eta
337.	29.	beriz	berriz
446.	18.	1.	11.
447.	22.	-/tan/	-tan
448.	8.	-era-	-era
	8.	-/ren/gana-	-/ren/gana
	27.	-/ren/gan	-a/ren/gan
449.	13.	-enganatz	-enganantz
450.	27.	Zarautzen	Zarauzen
451.	1.	MD:	ML:
	16, 17, 34, 37	sobra el signo 	
549.	3.	hizkuntzetara	hizkuntzatarra
723.	3.	hizkuntzetara	hizkuntzatarra
724.	1.	'gramatica'	Gramática
724.	21.	'gramatica'	Gramática
725.	14.	-ko	-ko

